

BIBLIOTHECA SCRIPTORUM CLASSICORUM VASCONICA, I

GAIO SALUSTIO KRISPO
JUGURTAREN AURKAKO GERRA

Edizioa, sarrera, itzulpena eta oharrak:

GIDOR BILBAO TELLETXEA



Eusko Jaurlaritza
Euskal Herriko Unibertsitatea
Vitoria-Gasteiz

MCMXCV

ehu press




OPEN
ACCESS

Bibliotheca scriptorum classicorum Vasconica bilduma, Antzinate Klasikoan sortutako lanen edizio elebidunez osatzen da. Bi helburu nagusi ditu: batetik, euskal irakurlegoak aldi berean jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz irakurri ahal izatea Europa osoak izan duen kultur oinarri garrantzitsuena; bestetik, hizkuntza klasikoen irakaskuntzak dituen premiei lanabes ezinbestekoak —testuak— eskaintzea.

Liburuki bakoitzak, testu elebidunaz gain, idazlearen bizitza, nortasuna, lanak eta hauen ezaugarriak, hala nola testuaren transmisioa eta bizi-iraupena aztertuko dituen hitzaurrea izango du. Jatorrizko testua ediziorik onenetan oinarritzen da eta aldaera garrantzitsuenak jasotzen dituen aparatu kritikoaz horniturik dago; euskal itzulpena, beti zuzenean greko edo latinetik egina, testuaren irakurketa eta ulermena errazten dituzten kultura, historia, literatur historia eta filologiako oharrez lagundurik dator.



Gaio Salustio Krispo, *Jugurtaren aurkako gerra*, G. Bilbao Telletxearen sarrera, edizioa, itzulpena eta oharrak, Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritzza, 1995 ('Bibliotheca scriptorum classicorum Vasconica', I).



GAIO SALUSTIO KRISPO
JUGURTAREN AURKAKO GERRA

Bildumaren arduradunak:

Gidor Bilbao
Jokin Gorrotxategi
Iñigo Ruiz Arzalluz

ISBN. Bildumarena: 84-7585-723-X

ISBN. I.Alearena: 84-7585-724-8

Legezko Gordailua: S.S. 1.226/95

© 1995 sarrera, itzulpena eta oharrena: Gidor Bilbao Telletxea.

© 1995 bildumarena: Gidor Bilbao, Jokin Gorrotxategi eta Iñigo Ruiz Arzalluz.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak diruz lagundu eta bultzaturiko bilduma.

BIZKER Artes Gráficas. Usurbil (Gipuzkoa)

BIBLIOTHECA SCRIPTORUM CLASSICORUM VASCONICA, I

GAIO SALUSTIO KRISPO
JUGURTAREN AURKAKO GERRA

Edizioa, sarrera, itzulpena eta obarrak:

GIDOR BILBAO TELLETXEA

Eusko Jaurlaritza
Euskal Herriko Unibertsitatea
Vitoria-Gasteiz

MCMXCV

AURKIBIDEA

Aurkibidea	III
Sarrera	V
I. Gaio Salustio Krispo eta bere garaia	VII
II. Salustioren idazlanak	XXVII
Katilinaren zimarkua	XXIX
Jugurtaren aurkako gerra	XXXVI
Historia.....	XLV
Appendix Sallustiana	IL
III. Salustioren idaztankera	LV
IV. Monografietakako testua	LIX
V. Gure edizio hau	LXVII
Sigla	LXXI
Editores Belli Iugurthini	LXXIII
Bibliografia aukeratua	LXXV
Laburpena.....	1
Bellum Iugurthinum - Jugurtaren aurkako gerra ..	10
Izendegia.....	147

SARRERA

I

GAIO SALUSTIO KRISPO ETA BERE GARAIA

Katilinaren zimarkua liburuko sarrera gisakoan Salustiok bere idazte eginkizunaren berri eman nahi duenean, idazlearen bizitza zer izan den laburbiltzen du hitz gutxitan:

Gaztetxo bat nintzela politikagintzara eraman ninduen, beste asko bezala, nire grinak, eta han nahigabe ugari etorri zitzaidan, begirunea, emankortasuna eta zintzotasunaren ordeztasunak, koipekeria eta diruzalekeria baitziren nagusi. Ihardunbide gaizto hartara ohitu gabeko nire gogoak hura guztia arbuia egiten zuen arren, hainbeste grina okerren artean goranahiak ustelduta zeukan haatik nire gaztetasun ahula, eta gainerakoen aztura gaiztoekin ados ez nintzen arren, besteak menderatzen zituen ohore irrika berak lotzen ninduen halere hitz gaiztoetara eta bekaitzera.

Horrenbestez nire gogoak zorigaitz eta arrisku ugariren atsedena hartu zuenean eta nire gainontzeko urteak politikagintzatik urruti igarotzea erabaki nuenean, nire asmoa ez zen izan astialdi on hura nagikerian eta alferkerian agortzea edo lurra lantzen nahiz ehizean igarotzea egunak morroi eginkizunetara emanik, baizik eta goranahi gaiztoak aldenarazi zidan xede eta eginahalera itzuliz Erromako herriaren egitandiak, gogoangarri iruditzen zitzaizkidan heinean banan-banan hartu eta idaztera deliberatu nuen; are gogotsuago nire barruan ez baitzen irabazi-itxaropen, beldur ez alderdikierarik (*Catil.*, III, 3 - IV, 2).¹

(1) «Sed ego adolescentulus initio sicuti plerique studio ad rem publicam latus sum, ibique mihi multa adversa fuere. Nam pro pudore, pro abstinentia, pro virtute, audacia, largitio, avaritia vigeabant. Quae tametsi animus aspernabatur insolens malarum artium, tamen inter tanta vitia imbecilla aetas ambitione corrupta tenebatur: ac me cum ab reliquorum malis moribus dissentirem, nihilo minus honoris cupido eadem quae ceteros fama atque invidia vexabat. Igitur ubi animus ex multis

Politikagintzan aritu zen gazte-gaztetarik Salustio berezko grinak eraginda, baina ez zen hartarako iaioa nonbait, eta inguruak bultzatuta ohore bila ihardun arren, zorigaitz ugari etorri zitzaion irabazi ez beti garbiekin batera. Aurrerago ordea, bere buruaren jabe eginik, zuhertasunez jantzita, politikagintzatik urrundu eta Erromako herriaren historiako zenbait pasarte idazteko baliatzea astialdiaz erabaki zuen. Hauxe da Salustio helduak aurkezten digun bere buruaren irudia.

Beranduagoko idazleek eskaintzen dizkiguten zatikako berriak loturik ordea, bizitza hori urte, leku, egoera eta gertakizun jakin batzuetan kokatzeko gauza gara. Ez dira asko ezagutzen diren datuak eta denen fidagarritasuna ere ez da berdina, denboran Salustiorengandik hurbilenekoak diren-tan garai nahasietako etsaigoak eragindakako berba txarrak izan baitaitezke tartean, eta berarengandik urrutien diren-tan tarteko denbora bera baita susmagarri. Baina batzuetan behar duten urruntasunarekin irakurrita, beste batzuetan oso-osoko egia bezala ulertuta eta askotan gehiegiko asmakerietarako bide emanda, lekukotasun hauek izan dira Salustioen bizitzaz aritu direnen iturri.

Izen osoa, *C. Sallustius Crispus*, Zesarren lanekin batera argitaratu ohi den *Bellum Africanum* liburuskana soilik agertzen da (*Bell. Afr.*, VIII, 3 eta XXXIV, 1), gainerako iturriek *C. Sallustius*, *Sallustius Crispus* edota batez ere *Sallustius* bakarrik erabiltzen duten bitartean.²

miseriis atque periculis requievit et mihi reliquam aetatem a re publica procul habendam decrevi, non fuit consilium socordia atque desidia bonum otium contere-re, neque vero agrum colundo aut venando servilibus officiis intentum aetatem agere; sed a quo incepto studioque me ambitio mala detinuerat, eodem regressus statui res gestas populi Romani carptim, ut quaeque memoria digna videbantur, perscribere; eo magis, quod mihi a spe, metu, partibus rei publicae animus liber erat».

(2) Izenaren lekukotasunak, jatorria eta zabalkundeari buruzko xehetasunak Ernout jaunaren edizioan aurki daitezke (Ernout 1941: 7-8).

San Jeronimoren kronikan ematen zaizkigu Salustioren jaiotza eta heriotzari buruzko datuak, ziurrenik Suetonioren *De viris illustribus* lan ezaguneko guregana iritsi ez den zati batetik hartuta:³

Salustio Krispo historialaria jaiotzen da Amiternon, Sabinian (*Chron. a. Abr.*, 1930).⁴

Actium-eko borrokaldia baino lau urte lehenago zendu zen Salustio (*Chron. a. Abr.*, 1981).⁵

Lehenengo aipamenean ez da lekuarekin batera jaiotza datarik agertzen, baina badakigu hori ere beste iturri baten bitartez, Mommsenek argitara emandako *Consularia Constantinopolitana* deritzonaren bitartez hain zuzen:

668/86. Kontsulak Mario zazpigarren bidez eta Zina bigarrenez zirelarik jaio zen Salustio urriko Kalendetan (*Chron.*, I, 1892, 214).⁶

Erroma sortu eta 668. urtean, hots K. a. 86an jaio zen beraz, urriak lehenean, Salustio, Sabiniaiko Amiternon. Actium-eko borrokaldia K. a. 31n burutu zenez, Salustio lau urte lehenago hil bazen K. a. 35ekoa dugu bere heriotza data San Jeronimoren arabera, eta berrogeita hamar urterekin zendu zen beraz Erroman, han baitzuen etxaldea.⁷

Lerro asko idatzi dira Sabinian jaiotzeak idazle honengan izan bide duen eraginari buruz. Salustio jaio baino ia be-

(3) Kurfess-en ardurapean argitaraturik [1957: XXII-XXXI], Teubner edizioan aurkitzen dira (huts bat baino gehiagorekin bada ere), *testimonia* gisa bilduta, Salustioren bizitzari buruzko zerbait esaten diguten antzinako iturri gehienak. Dena dela 1920an plazaratu zen Pauly-Wissowa-ren *Real-Encyclopädie* ospetsurako G. Funaioli-k (s. v. *Sallustius*, 1914 zut. eta hh.) idatzirikoa da ondorengo ikerlariak diotenaren oinarrian gehienetan dagoena.

(4) «Sallustius Crispus scriptor historicus in Sabinis Amiterni nascitur».

(5) «Sallustius diem obiit quadriennio ante Actiacum bellum».

(6) «668/86 Mario VII et Cinna II his cons. natus est Sallustius die Kal. Oct»..

(7) Gorago aipaturiko *Consularia Constantinopolitana* (Mommsen, *Chron.*, I,

rrehun urte lehenagotik (268 K. a.) hiritartasun erromatarra zuen Erromako ipar ekialdeko herri hau, erlijiozaletasunaren eredu bezala aurkeztu da beti. Herri garbizale, zorrotz, zintzo, tradiziozalean sorturiko gizonak ezin zuela eredu horretatik aldendu pentsaturik, ezaugarri horiek izan behar ziztuztela Salustioeren familiak eta Salustiok berak irakurri dugu batzuetan, idazlearen gaztaroko jokabidea salatuz. Baina horren aurka atera direnak ere badira. San Jeronimoren hitzetatik ez dugula halabeharrez Amiternon jaio zela pentsatu behar, baina bai bere jatorria hangoa zela eta ingurua ezagutzeko jatorriaren berri izatea garrantzitsua dela azpimarratu ondoren, Salustio beste herri batekoa izan balitz agian ez zatekeela historialari ezberdina izango zehazten du, adibidez, iturri zaharren irakurketa kritikoenetakoa egin duen Ronald Syme-k [1964: 14]. Edozein kasutan ere, bera jaio baino hiru-lau urte lehenago gertatu zen gerra italikoa (90-89) eta Salustioeren familiari buruzko datu zehatzik ez dugun arren, Amiterno zegoen lekuan egonda (Erromaren aurka altxaturiko *Vestini*, *Picentini* eta *Marsi* direlako herriak eta Erroma bitartean) badakigu ezingo zutela eraginik gabe pasatu, eta Salustiotarrak Erromaratzea garai honetako gertakizuna izan litekeela ere aipatu da.

Salustioeren haurtzaroan, Pontoko Mitridates erregearen aurkako gerran agintea nahi zuten Mario eta Silaren arteko liskarrekin, sakonagoko krisia azaleratu zen, alderdi demokratikoaren eta senadoreenaren artekoa alegia, gerra zibil

1892, 217) edota *Chronicon Paschale* (359, 10) hartuz gero iturri bezala, 716/38 urteko maiatzak 13a onartu beharko genuke heriotzarako. Baina 38. urte honetan, Bentidiok partook garaitu zituenean, Salustiok berak idatzi zuenez honen omenezko goraipamen hitzaldia azaroak 27ko ospakizunetarako, badirudi egoki dela San Jeronimoren data hobestea (cf. Pabón 1956: XVII).

odoltsua (88-82) biztuz: Mariori ematen dio herriak Senatuak Silaren esku utzitako gerraren zuzendaritza, Silak Erromari eraso egin eta senadoreen agintea indarrean jartzea lortzen du, Mario erbesteratuz, baina Sila Asiara joatean itzuli egiten da Mario Erromara, Zinarekin batera *optimates* zirelakoan aurkako zapalkuntza antolatuz. Asiako lanak amaitu eta berriro Erromara etortzean Marioren adiskide eta aliatuak garaitu eta garbitu egiten ditu Silak, 82an botere bereziak hartu eta bere diktadura ezartzeko. Senatuak berriro hartzen du indarra, epaiketak kontrolatu, herri batzarren aurrean debeku eskubidea erdietsi eta tribunotza ahulduz. 78an Silak diktadoretza utzi eta berehala hiltzen da. Ponpeio bidaltzen du Senatuak kontsulorde bezala Hispaniara Sertorio buru duten Marioren azken jarraitzaileen aurka borrokatzera (77-75), eta bere aldeko klientela garrantzitsua biltzen du han Ponpeiok, gero, Mitridatesen aurkako beste gerra bat eta Espartakok zuzenduriko esklabuen altxamendua tartean direla, Krasorekin batera kontsul bihurtzeko. Senatuak Silarekin berreskuraturiko indarra berriro doa galtzen. Salustiok hamasei urte ditu.

Errepublikaren gainbeherako Erroman gertakizun hauek ikusi zituen Salustio umeak eta gaztetxoak, baina garai hartako ohituretatik susma dezakeguna baino ez dakigu berari buruz. Amiternon bertan edo agian Erroman egin zituen lehen ikasketak, baina azken hiri honetan baino ezingo zituen burutu goragoko mailakoak. Esan dugu ez dakigula ezer bere familiari buruz ere, baina zalantza handirik gabe baieztza daiteke, nobleak edo kargudunak izan gabe ere, nolabait dirua egindakoak zirela, hirian, Erroman etxe bat eduki eta semearen heziketa ordaintzeko aukera zuten *municipales* batzuk.

Salustioren politika bidea aztertzen hasi baino lehen, ikus dezagun bere ezkontzari buruz esan zaiguna. San Jeronimo da berriro ere iturririk fidagarriena:

...andre hau bitartean, emazte aipatua, jakintza Tulioren iturrian edandakoa, honen etsai zen Salustiorekin ezkondu zen, eta hirugarrenez Mesala Korbinorekin, eta bokantza maila ezberdinetatik bezala igaro zen (*Adv. Iovin.*, I, 49).⁸

San Jeronimok aipatzen duen andrea Terentzia da, Marko Tulio Zizeronen emaztea izan ondoren Salustiorekin eta gero Mesalarekin ezkondua. Hau izango balitz Salustioren lehen ezkontza, eta ez dugu besteren berririk ezagutzen, berrogeiren bat urterekin ezkondua izango genuke historialaria, 47/46 urteetako neguan utzi baitzuen Zizeronek Terentzia. Ezkontza-hauste kontuak ere iritsi zaizkigu, baina ez doaz anekdota bezala duten balioa baino harantzago, ohitura onen aurkako jokabidearen ezaugarri bezala aurkeztu badira ere. Aulo Geliok Barronen ahotan jartzen du gertakizun hau, ordurako ere bere lanetan agertzen zuen irudia eta bizitzan izan bide zuen jokabidearen arteko aldea nabarmendu eta salatuz:

Prediku serio eta zorrotz ezaguneko Gaio Salustio idazlea, zeinen historia-lanean gaitzespen oharrak aurkitzen baititugu behin eta berriro, Anio Milonek ezkontza-haustean harrapatu, uhalez astindu eta dirua eman zionean askatu zuela dio Barronek, bai bere idazlanetan eta bai bere bizitzan gizon leial eta serioa izan denak, *Pius aut de Pace* izeneko liburuan (*Gell.*, XVII, 18).⁹

(8) «...illa interim coniunx egregia et quae de fontibus Tullianis hauserat sapientiam nupsit Sallustio, inimicus eius, et tertio Messalae Corvino, et quasi per quosdam gradus eloquentia devoluta est».

(9) «M. Varro, in litteris atque vita fide homo multa et gravis, in libro quem inscripsit *Pius aut de pace*, C. Sallustium scriptorem seriae illius et severae orationis, in cuius historia notas censorias fieri atque exerceri videmus, in adulterio deprehensum ab Annio Milone loris bene caesum dicit et, cum dedisset pecuniam, dimissum».

Interes handiagoa du bigarren aipamenak, andre kontuei buruz dioena dioela, guregana heldu ez den Salustioren biografia baten berri ematen baitigu bide batez. Horazioren lanen irakurketa erraztu nahian, poeta honek aipatzen dituen gizonei buruzko argibideak eskainiz, iruzkin bat idatzi zuen Pseudo-Akronek Antoninotarren garaian. Honako hau dio Horazioren «...ille flagellis / ad mortem caesus...» (*Sat.*, I, 2, 41) pasartea aztertzean:

Hau Salustiori buruz dioela dirudi, Anio Milonek Salustio Krispo, Faustarekin, Silaren alabarekin ezkontza-haustean harrapatu zuenean zigorez astindu zuela esan ohi baita, eta kontu hau T. Askonio Pedianok azaltzen du haren bizitzan (Ps. Acro *Ad Hor. Sat.*, I, 2, 41).¹⁰

Kinto Askonio Pedianok Neronen garaian idatziriko Zizeronen lanei buruzko iruzkin bat eta Birgilioren aldeko lan bat ditugu idazle honen emaitza ezagunak, baina hemen aipatzen den *Vita Sallusti* hau ez dugu beste inondik ezagutzen.¹¹ Edukiari dagokionean, badirudi gertakizun beraz ari direla Barron Aulo Gelioren aipamenean eta Askonio Pseudo-Akronen bitartez iritsi zaigun azalpenean, lehenean agertzen den ordainketa bigarrean zehazten ez bada ere.

Dena dela, aipatu dugu gorago etsaigoak eta ezinikusiak ere izan daitezkeela tartean halako berrien lehen iturrietan. *Salustioren aurkako hitzaldia* da hauen artean historialariaren aurkakotasuna gutxien ezkutatzen duena. Zenbaitek —are

(10) «Hoc de Sallustio videtur dicere: Sallustius enim Crispus in Faustae, Sullae filiae, deprehensus ab Annio Milone flagellis caesus esse dicitur, quod T. Asconius Pedianus in vita eius significat».

(11) *T. Asconius Pedianus* dakar eskuizkribuak, baina *praenomen* bezala *Kinto* erabiltzen zuena baino ezin da izan hemengo Askonio Peditano. Bestalde, 1490ean Erroman Ponponio Letoren lanak argitara eman zirenean hauekin batera agertu zen Salustioren bizitzak ez du bestela ezagutzen ez dugun datu interesgarririk eskaintzen (cf. Pabón 1956: X oh.).

Kintilianok ere (*Inst.*, IV, 1, 68)— Salustiori berari egotzi dioten *Zizeronen aurkako hitzaldia* delakoaren aurrean idatziriko erantzuna da, nahiko beranduago zizeronzaleren batek egina, agian Didio batek, Diomedesek bere *Ars grammatica*-n (*Gramm.*, I, 387, 6) baieztaturikoari kasurik egingo bagenio. Aurkezten den egoera dramatikoan, ustez Salustio senatuan Zizeronen aurka egindako hitzaldia da hau, eta Arpinoko idazlearen ustezko erantzuna bestea. Areriotasunak esanarazitakoen ondoan ordea, badira interesgarri zaizkigun datuak ere. Besteak beste, erasia honi esker dakigu, eta honekin politikagintzan egin zuen bidea aztertzen hasten gara, Salustio kuestore izan zena.¹²

Kuestoretzan bere lehen ohorea erdietsi zuenean, erdeinua erakutsi zuen leku eta herronka honekiko, bera bezalako gizonik txatxarrearentzat ere zabalik baitzegoen (*In Sall.*, V, 15).¹³

Kuestore izan zela onartzen badugu, K. a. 55. urtean jartzen gaitu berri honek, hogeita hamar urte izan behar baitzituen, gutxienez, kargu hori betetzeko. Hamasei urte zituela Ponpeio eta Krasoren lehen kontsulgoa bizi bazuen, bigarrena ezagutu zuen hogeita hamarrekin. Bitartean areagotu egin da Ponpeioren indarra Ekialde Hurbileko garaipenekin (67-64), zimarkua antolatzen du Katilinak eta kontsul aukeraturiko Zizeron nobleberriak desegiten du (63-62), lehen triunbiratoa eratzen dute Ponpeio, Kraso eta Julio Zesarrek boterea euren artean banatuz *optimates* direlakoei aurre egiteko (60), kontsul izendatzen dute Zesar (59) eta kontsu-

(12) Ukatu gabe, zalantzan jartzen du Syme-k [1964: 28] Salustio kuestore izan zena, plebearen tribuno izateak ere zabaltzen zituela senaturako bidea eta kuestore izatea ez bide zela halabeharrezkoa gogoraraziz.

(13) «Primum honorem in quaestura adeptus hunc locum et hunc ordinem despectu habuit, cuius aditus sibi quoque sordidissimo homini patuisset».

lorde bezala Galia eta Iliriako ardura berari ematea lortzen du hurrengo bost urteetarako, gero bigarren aldiz Kraso eta Ponpeio biak batera kontsul izan ondoren (55), hiruren artean banatzeko probintziak, Galia Zesarrentzat beste bost urteetarako, Hispania Ponpeioentzat eta Siria Krasorentzat. Erroman nahasmena zen nagusi.

Gorago aipatu dugun Askoniok Zizeronen *Pro Milone* lanari buruz idatzitako iruzkin historikoan, bost lekutan agertzen zaigu Salustio plebearen tribuno lanetan:¹⁴

Kinto Ponpeio, Gaio Salustio eta Tito Munazio Planko plebearen tribunoak, lehenak ziren Milonen aurkako hitzaldiak jaurtitzeko, are Zizeronen kalterakoak ere, honek halako sendotasunez defenditzen zuelako Milon. ...gero Ponpeio eta Salustio berriro adiskidetu ziren dirudienek Milon eta Zizeronekin (*Mil.*, XXXIII).¹⁵

Orduko garai osoko batzar-agiriak aztertu ditut eta hauetatik jakin dut martxoko kalenda bezperan erabaki bat hartu zuela senatuak, P. Klodioren hilketa, kuriaren sutea eta M. Lepidoren etxearen eraso errepublikaren aurkako ekintzak izan zirela; batzar-agirietan ez da beste ezer kontatzen egun hartan; biharamonean, martxoko Kalendetan alegia, bezperan senatuan gertaturikoak azaldu zizkiola herri batzarrean populuari Tito Munaziok dio; hauxe esan zuen hitzez hitz herri batzar hartan: ...Salustio eta biok agertu ginen deliberamenduarren gainerako zatiaren aurka (*Mil.*, XXXIX).¹⁶

(14) Askonioren *In Cornelianam* (59. urtekoa) lanean agertzen den aipamenak ez du alde honetatik batera interesik, idazle bezala agertzen baita.

(15) «Inter primos et Q. Pompeius et C. Sallustius et T. Munatius Plancus tribuni plebis inimicissimas contiones de Milone habebant, invidiosas etiam de Cicerone, quod Milonem tanto studio defenderet. ...postea Pompeius et Sallustius in suspitione fuerunt redisse in gratiam cum Milone ac Cicerone».

(16) «Acta enim totius illius temporis persecutus sum; in quibus cognovi pridie Kal. Mart. S.C. esse factum, P. Clodi caedem et incendium curiae et oppugnationem aedium M. Lepidi contra rem p. factam; ultra relatum in Actis illo die nihil; postero die, id est Kal. Mart., T. Munatium in contione exposuisse populo quae pridie acta erant in senatu: in qua contione haec dixit ad verbum: ...reliquae parti sententiae ego et Sallustius intercessimus».

Klodio hil zuten egun hartan honen saripeko plebearen tribuno batek egin zuela hitzaldia esan nahi du honek. Baina batzar-agirietan agertzen denez Gaio Salustiok eta Kinto Ponpeiok egin zuten hitzaldia egun hartan, biak Milonen etsaiak eta biak nahiko aztoratuak. Baina Kinto Ponpeioz ari dela iruditzen zait, bazter-nahastaileagoa izan baitzen honen hitzaldia (*Mil.*, XLIII).¹⁷

Kinto Ponpeio Rufo eta Gaio Salustio tribunoak dira aipatzen dituenak, hauek bultzatu baitzuten populua lehenbizi legetasmo hori aurkeztera eta hauek esan baitzuten Milonen eskuz hil zela Klodio eta abar (*Mil.*, XLIV).¹⁸

Eta Ponpeio hirugarren aldiz kontsul izendatu baino lehen, hiru tribunok, Kinto Ponpeio Rufo, Gaio Salustio Krispo eta Tito Munazio Plankok, eguneroko hitzaldietan Klodioren hilketarengatik Milonen aurkako egundoko gorrotoa sortzen zuten bitartean, populua aurrea egin zioten dei Gneo Ponpeiori... (*Mil.*, XLV).¹⁹

52. urteko gertakizunak dira eta beste bederatzi gizon bezala, plebearen tribunoa zen Salustio, baina Askoniok garbi agertzen duenez, hamar tribunoen artean Milonen aurkako hitzaldiak eta are Zizeronen kalterakoak jaurtitzen hiru lehenetakoa, nahiko aztoratua. 52. urte honen hasieran ez zegoen Erroman ez kontsulik ez pretorerik, Tito Anio Milon zen optimateen hautagaia baina baziren beste bi hautagai Ponpeiok bultzaturikoak (Zesar Galiako zereginetan burubelarrari sartuta zegoen eta Kraso 53an hil zen Sirian), Kinto

(17) «Hoc significat eo die quo Clodius occisus est contionatum esse mercennarium eius tribunum plebis. Sunt autem contionati eo die, ut ex Actis apparet, C. Sallustius et Q. Pompeius, utrique et inimici Milonis et satis inquieti. Sed videtur mihi Q. Pompeium significare; nam eius seditiosior fuit contio».

(18) «Q. Pompeius Rufus et C. Sallustius tribuni fuerunt quos significat. Hi enim primi de ea lege ferenda populum hortati sunt et dixerunt a manu Milonis occisum esse Clodium et cetera».

(19) «Prius etiam quam Pompeius ter consul crearetur, tres tribuni, Q. Pompeius Rufus, C. Sallustius Crispus, T. Munatius Plancus, cum cotidianis contionibus suis magnam invidiam Miloni propter occisum Clodium excitarent, prodixerant ad populum Cn. Pompeium...».

Metelo Eszipion eta Publio Plauzio Hipseo. Azken biek pretoretzarako hautagaiaren sostengua zuten, Publio Klodio Pulkrorena alegia. Ponpeiok istiluak nahi zituen hirian, zalapartaren ondoren gizon bakarraren aginte sendoa beharrezko izan zedin eta Klodio zen bazterrik bazter gizon-saldoekin nahasmendua sortzen zebilena. Talde hauen aurka Milonek ere antolatu zituen bereak eta urtarrilak hamazortzian, bi saldoen elkarren aurkako borrokan, Milonen gizonek hil egin zuten Klodio. Tribunoek berotu egin zuten populua Milonen aurka eta populua su eman zion senatuari. Askoniok dioenez, Salustio eta Ponpeio Rufo izan ziren egun hartan hitzaldiak egin zituzten tribunoak, bigarrena bazter-nahastailleagoa bazen ere; gainera bi hauek eta Munazio Planko egunero ibili omen ziren populuan Milonen aurkako gorrotoa sorrarazten. Ponpeio Rufo eta Salustiori buruz ari da Zizeron, Askanioren ustez, Milonen alde idatzirik hitzaldian ondoko hitzak esatean:

Lapur eta hiltzaile bezala aurkezten ninduten hain zuzen ere ni gizon doilor eta ustel horiek (*Mil.*, XLVII).²⁰

Askanioren hitzen arabera, beraz, argi eta garbi jokatu zuen Salustiok 52. urtean, plebearen tribuno bezala, Klodio demokrataren alde, Milonen —ez ahaztu bere emaztearekin ezkontza hausten harrapatu zuela honek gure idazlea—, Zizeronen eta beraz optimateen aurka, nahiz eta gero bi gizon hauekin adiskidetu.²¹

(20) «Me videlicet latronem et sicarium abiecti homines ac perditii describebant».

(21) Zizeronen gutunetako bat (*Epist.*, II, 17) 50. urtean Sirian Bibuloren *legatus pro praetore* zen Salustio bati zuzenduta dago. Amiternoko idazlearen ohore bideari buruzko datu bat gehiago izateaz gain, hizlaria eta historialaria adiskidetu zirelako aipua ere berretsi egingo litzateke, Salustio hau Gaius Salustio Krispo dela gauza ziurra balitz, baina ez dago halakorik baieztatzerik, *cognomen*-a ez baita zehazten eta *praenomen*-a ere ez da ondo irakurtzen eta.

Zesarrek Galia hartu, Rhin ibaia zeharkatu eta Britainian sartzen zen bitartean, Erroman nagusitu zen nahasmena konpondu nahian, Pompeiori eskatu zion 50. urtean azkenik senatuak *consul sine collega* izan zedin, botere bereziak eman; bera bila ibili zena alegia. Indarrez ekin zion elkarren aurka ari ziren saldoak desegin eta zigortzeari, baina ez daki-gu jazarpen honek Salustiorengan eragin kaltegarririk izan zuen. Izan ere urte honetan senatutik kanporatu zuten Apio Klaudio Pulkro eta Luzio Kalpurnio Pison zentsoreen eskariz, baina kanporaketaren berri ematen diguten iturriek ez dute aipatzen bi urte lehenagoko gertakizunetan izandako jarrearengatik zigorra izan zitekeenik. Pseudo-Akronen adibidez, gorago aipatu dugun Horazioren satirari buruzko argibideak eskaintzean, ohitura onen kontrako jokabidea leporatzen dio berriro Salustiori, senatutik kanporatzearen arrazoia ere jokamolde honetan bilatuz:²²

Senatuan Salustiori berari leporatu zioten hau zentsoreek. Bera ez zela ugazaba-andreen atzetik ibiltzen adierazi zuen orduan, andre libertoen atzetik baino, eta horrenbestez kanporatu egin zuten senatutik, berak Katilinari buruzko liburutxoan zuritzen duelarik kontu hau (Ps. Acro *Ad Hor. Sat.*, I, 2, 49).²³

(22) *Salustioaren aurkako erausia*-n ere gorago aipatu ezkontza-haustearen pasartearen ondoren dator senatutik kanporatzearena (*In Sall.*, VI, 16-17), baztertze hau haren ondorio bezala aurkeztuz. Gainera beste salaketa baten berri ere ematen du erausiak (*In Sall.*, V, 14), Nigidio Figuloren neopitagorikoen taldekoa izan zela Salustio eta horren erantzukizuna ere epaile aurrean argitu behar izan zuela: «abiit in sodalicium sacrilegi Nigidiani; bis iudicis ad subselia attractus, extrema fortuna stetit et ita discessit, ut non hic innocens esse, sed iudices peierasse existimarentur» ('Nigidio sakrilegoaren elkartean sartu zen; bi aldiz eraman zuten auzitegiko aulkira eta oso egoera larrian izan zen, baina berau errugabe zela barik epaileak erosita zedulera pentsatzeko moduan egin zuen alde aske').

(23) «Ipsi enim Sallustio in senatu a censoribus hoc obiectum est. tunc ille se non esse matronarum, sed libertinarum sectatorem esse testatus est, et ideo senatu pulsus est, quod excusat idem in Catilinae libello».

Dion Kasiok bere Erromaren historia handia idatzi zuen (K. o. III. mendearen hasieran egin zuen lana) ordea, Ponpeioren adiskide eta agindupeko zen Apio Klaudio egin zuen kanporaketaren arduradun, garbi utziz Pison, Zesarren aitagarreba, erabaki honetatik bazter zegoena, senatutik kanpora bidalitakoak gero Zesarren aldeko izatea honela azalduz. Azalpen politikoa da beraz, baina ez du lotzen Salustio, tribuno zela, herria zirikatuz jokatu izanarekin, agian Dion Kasiok berak ez zekielako Salustio tribuno izan zenik:

Bere aldeko asko zituen honek [Zesarrek], hauen artean Luzio Paulo, Martzeloren aginte-kidea, eta Luzio Pison, bere aitagarreba, zentsore zena; garai honetan Apio Klaudio eta Pison izendatu baitziren zentsore, bigarren hau bere borondatearen kontra. Zesarren agindupekoa zen hau bere senitartekotasunagatik eta Klaudio ordea honen aurkakoa zen, Ponpeiok sostengatua baitzen, baina ez zion laguntza makala eskaini, berak nahi gabe bazen ere: zaldun eta senadore asko ezabatu zituen zerrendatik, bere aginte-kidearen iritziaren gaintetik, eta horrela Zesarren aldeko egin zituen hauek guztiak. Inongo arazorik nahi ez eta suhiarekiko adiskidetasurengatik jende askoren atsegina egiten zuen Pisonek, ez zuen berak gauza hauetako bat ere egin, baina ez zion egin honi aurka senatutik kanpora bidali zituenen liberto guztiak batera eta are erabat noble batzuk ere, hauen artean Salustio Krispo, historia-lana idatzi duena (Dion, XL, 63, 2-4).²⁴

Zesarrekin lotuta ikusten dugu beraz hemendik aurrera Salustio. Zesar eta Ponpeioren arteko zatiketa ordea gero eta

(24) «ἄλλοι τε γὰρ ἐκείνῳ πολλοὶ καὶ Λούκιος Παῦλος ὁ τοῦ Μαρκέλλου συνάρχων, ὁ τε Πίσων ὁ Λούκιος ὁ πενθερὸς αὐτοῦ τιμητῆς ὃν συνηγωνίζοντο· καὶ γὰρ τιμηταὶ τὸν χρόνον τοῦτον ὁ τε Κλαύδιος ὁ Ἄπιος καὶ ὁ Πίσων, καίτοι μὴ βουλευθεῖς ἐγένοντο. καὶ οὗτος μὲν διὰ τὴν συγγένειαν ὑπῆρχε τῷ Καίσαρι, ὁ δὲ δὴ Κλαύδιος ἦναιτιοῦτο μὲν αὐτῷ (τὰ γὰρ τοῦ Πομπηίου ἤρεϊτο), οὐκ ἐλάχιστα δὲ καὶ ἄκων ὠφέλησε· πλείστους γὰρ καὶ τῶν ἱππέων καὶ τῶν βουλευτῶν διέγραψεν, ἐκβιασάμενος τὸν συνάρχοντα, κάκ τούτου πάντας αὐτοὺς τὰ τοῦ Καίσαρος φρονεῖν ἐποίησεν. ὁ γὰρ Πίσων οὐτ' ἄλλως πράγματ' ἔχειν ἐθέλων καὶ πρὸς τὴν τοῦ γαμβροῦ φίλιαν πολλοὺς θεραπεύων αὐτὸς μὲν οὐδὲν τοιοῦτον ἐποίησεν, ἐκείνῳ δὲ οὐκ ἀντέπραξε πάντας μὲν τοὺς ἐκ τῶν ἀπελευθέρων συγχυοὺς δὲ καὶ τῶν πάνυ γενναίων, ἄλλους τε καὶ τὸν Κρίσπον τὸν Σαλούστιον τὸν τὴν ἱστορίαν γράψαντα, ἀπελάσαντι ἐκ τοῦ συνεδρίου».

nabarmenagoa zen. Senatuak ez zion onartu Zesarri Galiako agintaritzza 49. urterarte luzatzea —48an berriro aurkez zitekeen kontsul izateko hautagai bezala—, alderantziz, bere soldaduak lizentziatu eta Erromara itzultzeko agindu zion. Egoera hainbeste garrastu zen non Galiako lurretatik Italiako lurretara bere legioekin sartzea erabaki baitzuen. Errepublikak Zesarrengandik babesteko eskatu zion senatuak Ponpeiori, baina hain zen talde handia eta anitza Galiako kontsulordearen inguruan biltzen zena non uste baino errazago iritsi baitzen Erromaraino. 48a bukatu baino lehen garaitu zuen Zesarrek Ponpeio baina 45erarte luzatu zen ponpeiotarren aurkako gerra zibila, Farsaliako garaipenaren ondoren Egiptora joan baitzen Ponpeioaren atzetik, han Kleopatrararen alde borrokatuz, gero Erromara itzuli eta berriro Afrikara eta Hispaniara joateko azken ponpeiotarren aurka borrokatzera. Lehenbizi kontsul, gero hamabi aldiz diktadore, hamar urtetarako diktadore eta betiko diktadore izendatu zuen senatuak, eta *pontifex maximus* estatuaren erakundeak berrantolatzeari ekiteko besteko botererekin.

Gerra zibilaren hasiera-hasieratik aurkitzen da Salustio Zesarren gizonen artean borrokan, gehienetan garaipenik lortu gabe. Orosiok V. mendean idatzirik historia liburuan jakinarazten zaigu Adriatiko Itsasoaren ekialdeko lurretan aritu zela legio baten buruan, 48 edo 47. urtean:

Baina Dolabela, Zesarren alderdikoa, garaitu egin zuten Probintzia Ilirikoan Oktabiok eta Libonek eta guda-taldeak galduta egin zuen ihes Antonioren ondora. Basilo eta Salustio abiatu ziren legio banarekin, eurak buruan zirela ...Oktabio eta Libonen aurka eta garaituak izan ziren (*Hist.*, VI, 15, 8).²⁵

(25) «At vero Dolabella partium Caesaris in Illyrico per Octavium et Libonem victus copiisque exutus ad Antonium fugit. Basilus et Sallustius cum singulis legionibus, quibus praeerant, ...adversus Octavium et Libonem profecti et victi sunt».

Alejandriako Apianok K. o. II. mendean Erromaren historiari buruzko liburu luzeak idatzi zituenean isladatu zuen Salustiori buruz dakigun hurrengo berria. Gerra zibilak konstatzean, K. a. 47ko urriaren hasieran Zesar Erromara abiatu zela hango iskanbilak baretzera azaltzen du, baina bitartean, bere ejerzituan ere istiluak sortu omen zitzaizkion, aurrez agindutakoa ez zuelako ordaintzen eta soldadutza-denbora gehiegi ari zelako luzatzen. Salustio da soldadu hauekin elkarriketatzerantz bidaltzen duen ordezkaria:

Baina hauek, gehiago promestu gabe berehala ordaintzeko dena eskatzen zioten [Zesarri] eta Salustio Krispo, eurekin eskakizun hauei buruz elkarriketatzerantz bidalia izan zena, euren eskuz hiltzeko zorian izan zen, ihes egin ez balu (*App., B. Civ., II, 92*).²⁶

Mende bat beranduago idatzi zuen Dion Kasiok ere biltzen du Salustioaren porrot berri hau eta guda-taldeak Campanian zirela Afrikara abiatzeko zain zehazten du. Gainera pretore gisa aritu zela jakinarazten digu eta horrenbestez 50ean senatutik kanporatu bazuten, berriro itzultzen dela orain senadore mailara, Zesarren izendapenari esker:

Campanian zeuden hauetako gehienak, Afrikara nabigatzeko zain. Ia hil egin zuten hauek Salustio, senadore maila berreskuratzeko pretore izendatua izan baitzen, eta hau, ihesean, gertatzen ari zena Zesarri jakinarazteko Erromara abiatu zenean, bere atzetik asko joan ziren eta, inoren kupidarik gabe, bidean aurkitu zituzten batzuk hil egin zituzten, hauen artean bi senadore (Dion, XLII, 52, 1-2).²⁷

(26) «οἱ δὲ αὐτὸν οὐχ ὑπισχεῖσθαι μᾶλλον ἢ αὐτίκα δίδοναι πάντα ἐκέλευον· καὶ περὶ τῶνδε Σαλούστιον Κρίσπον πεμφθέντα πρὸς αὐτοὺς ὀλίγον καὶ διέφθειραν, εἰ μὴ διέφυγε».

(27) «ἐν Καμπανίᾳ δὲ οἱ πλείους αὐτῶν, ὡς καὶ ἐς τὴν Ἀφρικὴν προπλευσόμενοι, ἦσαν. οὗτοι οὖν τὸν τε Σαλούστιον παρ' ὀλίγον ἀπέκτειναν, στρατηγὸς γὰρ ἐπὶ τῇ τῆν βουλῆν ἀναλαβεῖν ἀπεδέδεικτο, καὶ ἐπειδὴ καὶ ἐκείνος διαφυγῶν αὐτοὺς ἐς τὴν Ῥώμην, πρὸς τὸν Καίσαρα ὤρμησε, τὰ γιγνόμενά οἱ δηλώσων, ἐφέσποντό τε αὐτῷ συχνοὶ μηδενὸς φειδόμενοι, καὶ ἄλλους τε τῶν ἐντυχόντων σφίσι καὶ βουλευτάς δύο ἐσφαζαν».

Gorago esan bezala Salustioaren izen osoa ematen digun lan bakarrean azaltzen da historialaria Zesarren agindua arazo gabe betetzen erakusten digun pasarte bakarra. *Corpus Caesarianum* delakoan argitaratu ohi den *Bellum Africanum* liburuan kontatzen zaigu Afrikako joanaldian (47. urteko azken egunetan zeharkatu zuen Zesarrek Mediterraneo) Salustiok egin zuen lana. Egoera larrian zegoen Zesar, Eszipion ponpeiotarra eta Juba afrikarra inguruan zituelarik, Leptis Txikitik hurbil, Ruspina (gaurko Al-Munastir) eta Cercina-ra (gaurko Karkannah Irlak) bidaltzen du Salustio janari bila:

Orobat Gaio Salustio Krispo pretoreari, etsaiek hartuta zuten Cercina uhartera joateko itsasontzietariko batzuekin agintzen dio, hantxan ugari zegoela entzun zuen eta (*Bell. Afr.*, VIII, 3).²⁸

Ondo betetzen du Salustiok agindua, oraingoan ere pretore karguarekin, zailtasun handirik ere ez zuen eskaintzen egoerak eta:

Zesarrek egun gutxi lehenago ontzidiarekin bidali zuela adierazi dugun Gaio Salustio Krispo heldu zen Cercina-ra garai honetan. Hau iristean, bere gizon talde handi batekin han horniduraren arduraren zain zen Gaio Dezimio kuestore-ohiak, aurkitu zuen itsasontzi txiki bat hartu eta ihesari eman zion. Bitartean ongiatorria eman zioten cercinatarrek Salustio pretoreari eta honek, oparo aurkitu zuen gariarekin hantxan ugari zeuden garraio-itsasontziak bete eta Zesarren kanpamendura bidali zituen (*Bell. Afr.*, XXXIV, 1-3).²⁹

(28) «Item C. Sallustium Crispum praetorem ad Cercinam insulam versus, quam adversarii tenebant, cum parte navium ire iubet, quod ibi magnum numerum frumenti esse audiebat».

(29) «Per id tempus C. Sallustius Crispus, quem paucis ante diebus missum a Caesare cum classe demonstravimus, Cercinam pervenit. Cuius adventu C. Decimus quaestorius, qui ibi cum grandi familiae suae praesidio praeerat commeatui, parvulum navigium nactus conscendit ac se fugae commendat. Sallustius interim praetor a Cercinitanis receptus magno numero frumenti invento navis onerarias, quarum ibi satis magna copia fuit, complet atque in castra ad Caesarem mittit».

Thapsuseko garaipenarekin 46ko apirilean Afrikako joanaldia bukatutzat eman zuenean Zesarrek, Erromako Probintzia bihurtu zuen, *Africa Nova* izenarekin, ponpeiotarren aldean borrokatu zuen Juba numidiarraren erresuma. Salustio jarri zuen probintzia berri honen buruan, *proconsul cum imperio* gisa:

...eta erresuma zena probintzia bihurturik eta han Salustio utzirik *imperium*-a zuen kontsulorde bezala, Zamatik alde egin eta Uticara joan zen bera [Zesar] (*Bell. Afr.*, XCVII, 1).³⁰

Apianok ere ematen digu honen berri:

Eta Erromaren zergapeko egin zuen Zesarrek Jubaren erresuma, Salustio Krispo eginik hango buru (*App., B. Civ.*, II, 100).³¹

Dionek, bere aldetik, zuzenean lotzen du izendapen hau Salustiok kargu horretan izan zen bitartean izan zuen jokabi-dearekin:

Eta numidiarrez jabeturik, mendeko egin zituen eta Salustiori eman zizkion, gobernatzeko zela esanez baina egitez harrapakatu eta lumatzeko. Hau inolaz ere hain ustelkeria handian erori zen eta hain gauza askoz jabetu zen indarrez, non lotsarik lotsagarriena leporatu baitzioten eta errudun aurkitu zuten, zeren eta idatzi zituen idatziak izkiriatuta eta inorena ustiatuz bizi direnen aurka hain zorrotz eta hainbeste esan ondoren, ez zuen egitez gauzatu hitzez esandakoa. Beraz gaiztakeriarik handienen aurrean ere ezikusiena egin zuen Zesarrek baina berak zizelatu zituen denak betiko bere idazlanean (*Dion*, XLIII, 9, 2-3).³²

(30) «...ex regnoque provincia facta atque ibi Sallustio pro consule cum imperio relicto ipse Zama egressus Uticam se recepit».

(31) «καὶ τὴν ἀρχὴν τὴν Ἰόβα Καῖσαρ ὑποτελῆ Ῥωμαίοις ἐποίησεν, αὐτῇ Σαλούστιον Κρίσπον ἐγκαταστήσας».

(32) «καὶ τοὺς Νομάδας λαβὼν (ὁ Καῖσαρ) ἕξ τε τὸ ὑπήκοον ἐπήγαγε καὶ τῷ Σαλουστίῳ λόγῳ μὲν ἀρχεῖν ἐργῶ δὲ ἀγεῖν τε καὶ φέρειν ἐπέτρεψεν. ἀμέλει καὶ ἐδωροδόκησε πολλὰ καὶ ἤρπασεν, ὥστε καὶ κατηγορηθῆναι καὶ αἰσχύνῃ αἰσχίστην ὀφλῆσαι, ὅτι τοιαῦτα συγγράμματα συγγράψας καὶ πολλὰ καὶ πικρὰ περὶ τῶν ἐγκαταπομένων τινὰς εἰπὼν οὐκ ἐμμήσατο τῷ ἐργῷ τοὺς λόγους, ὅθεν εἰ καὶ τὰ μάλιστα ἀφείθη ὑπὸ τοῦ Καίσαρος, ἀλλ' αὐτὸς γε ἑαυτὸν καὶ πάνυ τῇ συγγραφῇ ἐστηλοκόπησε».

Ustelkerian erori eta harrapaketan aritu izana leporatzen dizkio Salustiori baina Zesarrek barkatu egin ziola nolabait jakinarazten digu Dion Kasiok. Are gogorragoa izan zen, espero zitekeen bezala, *Salustioaren aurkako hitzaldia*, baina Zesarren jarrerari buruz dioena da bereziki interesgarria:

Lumatu egin zuen probintzia, hainbestearaino non gure aliatuek ez zuten gerra denboran ez jasan ez ikusi, honek Afrika Beherea bere esku izan zuen bitartean bake denboran bizi izan zutena baino ezer larriagorik. Kredituan hartu edo itsasontzietan pilatu ahal izan zuen beste harrapakatu zuen han; nahi izan zuen beste, diot, harrapakatu zuen, senadoreok. Auzitara eraman ez zezan, miloi bat eta berrehun mila sestertzio ordaintzea itundu zuen Zesarrekin. Eta esan dudan zerbait gezurra bada, gezurta ezazu jendaurrean, esanez, arestian aitaren etxearen bahia ere atera ezin izan duzun horrek, nola bat-batean, ametsetan bezala aberastuta, eskuratu dituzun baratza zoragarri horiek, Gaio Zesarren Tiburreko landetxea eta gainerako ondasunak (*In Sall.*, VII, 19).³³

Auzitara eraman ez zezaten, beraz, Zesarrekin egin omen zuen diru konponketa. Esan dugu gorago ere iturriren bati sinesgarritasuna falta bazaio erausi hau dela kontu handienarekin irakurri behar dena, sortzez ere Salustioaren aurka idatzia baita, Zizeronen aurkako beste erasia bati amorruez erantzunez gainera. Egilea zein izan zen eta noiz idatzi zen ziurtasunez baieztaterik ez dagoenez, Zesarren aurkako eraso ere uler daiteke, honen oroimena Erroman une txarrean baldin baten *Salustioaren aurkako hitzaldia* idatzi zenean. Salustiok, harturiko eginkizunetan, porrot bat beste baten

(33) «Provinciam vastavit, ut nihil neque passi sint neque exspectaverint gravius in bello socii nostri quam experti sunt in pace, hoc Africam inferiorem obtinente. Unde tantum hic exhausti, quantum potuit aut fide nominum traici aut in naves contrudi; tantum, inquam, exhausti, patres conscripti, quantum voluit. Ne causam diceret, sestertio duodeciens cum Caesare paciscitur. Quod si quippiam eorum falsum est, his palam refelle, unde, qui modo ne paternam quidem domum reluere potueris, repente tamquam somnio beatus hortos pretiosissimos, villam Tiburti C. Caesaris, reliquas possessiones paraveris».

atzetik eskaintzen zion artean ere, uste osoa jartzen zuela Zesarrek beregan ikusi dugu bestalde, eta pentsa daiteke honenbestez, bazela bien artean unerik txarrenetan ere hautsiko ez zen harreman sakona. Dena dela argi dago onez atera zuena Salustiok bere burua eta jakin zuena, behin lasai bizitzeko adinako ondasunak lortu ondoren, politikagintzatik baztertu eta gogokoago bide zituen idazte lanetan sartzen, oraindik ere ezagun diren «baratza zoragarri horietan», *borti Sallustiani* ospetsuetan alegia. 44an hil zuten Zesar, azken urteetako Salustioren sostengatzailea, eta historialariari ez zitzaion gorabehera berrietan sartzeko adorarik geratzen. Esan bezala, K. a. 35ean hil zen Erroman, berrogeita hamar urterekin.

II

SALUSTIOREN IDAZLANAK

...Erromako herriaren egitandiak, gogoangarri iruditzen zitzaizkidan heinean banan-banan hartu eta idaztera deliberatu nuen (*Catil.*, IV, 2).³⁴

Katilinaren zimarkua-ren hitzaurre gisakoan azaldu zuen Salustiok bere asmoa eta Erromarako historia liburu mota berri bat idazteko erabakia agertzen duela hitz horietan ulertu da. 55.ean Zizeronek *De oratore* lanean (II, 51 hh.) zioenari kasu eginez gero, guregana iritsi ez den Hanibalen aurkako gerrari buruzko lana idatzi zuen Zelio Antipatro kenduta, ez zegoen Erroman historialaririk, soilik *narratores rerum* zenbait; Balerio Antzias, Lizinio Mazer edo Kornelio Sisena, esate baterako, ez ziren izen hura hartzeko duin izatera iristen eta Zesarren *Commentarii* direlakoak ere ez ziren greziarrenarekin aldera daitekeen historia-lan gisa ikusten. Bide berria urratuko zuen Salustiok bere monografiekin.

Zizeronek Luzeio adiskideari 56.eko udan idatzitako gutunean (*Epist.*, V, 12) esandakoak beretzat hartu dituela Salustiok irudi lezake. Historiografia helenistikoaren tradizioa hartu eta Katilinaren zimarkua hasi zenetik Zizeron bera atzerritik itzuli zen egunera bitarteko historia idazteko proposatzen dio arpinotarrak politikagintzatik baztertuta dabi-

(34) «...statui res gestas populi Romani carptim, ut quaeque memoria digna videbantur, perscribere».

len Luzeiori, lanak bere ustez izan beharko lituzkeen ezaugarriak zehatzuz: pertsonaia nagusi bat, gai zehatz bat, gora-behera erakargarriak, elementu dramatikoak... dena egun haiek bizi izan dituen batek idatzi eta interpretatuta. Luzeiok bete gabeko eginkizunari Salustiok ekin ziola pentsa lezake norbaitek Zizeronen helburu propagandistikoak ahaztuta, izan ere Zizeron hil eta hilabete gutxigarrean lanean baitago bere lehen monografia idazten, hain zuzen ere *Katilinaren zimarkua*. Lan honen idazketa egunak K. a. 42-41 urteetan ezartzen baditugu,³⁵ hogeitau urte lehenago gertaturikoak eta Salustiok berak hogeita hiru zituela bizitakoak dira lehen liburuaren kontagai.

Erromako herriaren egitandi gogoangarrien artean *Jugurtaren aurkako gerra* aukeratu zuen bigarren. Katilinaren zimarkuaren aitzindari gisa aurkezten zituen nolabait Salustiok 111-105 urte haietan Afrikan gertaturikoak, bertan ikusten baitu nobleteriaren aurkako borrokaren hasiera: «tunc primum superbiae nobilitatis obviam itum est» (*Iug.*, V, 1). Azkenengo idatzi zuena sarrera moduko luzea izan bide zela kontuan hartuta, han agertzen diren gertakizunak identifikatzen saiatu izan dira ikerlariak. Badirudi triunburoen garaian koka daitekeela idazketa, gehiago zehaztekotan 40. urtean edo, baina zehaztasunak ez du erabateko ziurtasunik.³⁶

Horiek dira osorik ezagutzen ditugun lanak. Gero, Sila hil zen urteko (78 K. a.) gertakizunekin hasten zen lan bat

(35) Hau da Syme-k [1964: 128] onartzen duen datazioa. Zuhurrago dira beste batzuk, Funaioli adibidez (*l. c.*), 43/42 eta 41/40 urteen arteko tarte zabalagoa aipatuz. Ikuspegiarik estuenerik, Zesarren heriotza (44ko martxoa) edo gehienez Zizeronena (43ko abendua) baino beranduago hasi zela idazten baino ezin da esan (Pabón 1956: 4).

(36) Antonio, Lepido eta Oktabianoren triunbiratoak tarte zabala eskaintzen du, 43an sartu baitzen indarrean bost urtetarako eta gero ere luzapena lortu baitzuen, baina kontuan izan behar da *Katilinaren zimarkua*-rentzat 42-41 urteak

KATILINAREN ZIMARKUA

idatzi zuen *Historiae* izenarekin, bere lanik borobilena, eta dirudienez idazten ari zela harrapatu zuen heriotzak, 67. urtera bitartekoak biltzen baitzituen lan horrek Ausoniok (*Symm. epist.*, XXII, 61-63) dioenaren arabera eta urte horretan ez baitugu ezagutzen halako kontakizun batentzat mugarri izan zitekeen gertakizun garrantzitsurik. Baina galdu egin da lan hau eta zati gutxi batzuk baino ez ditugu ezagutzen, doi-doi lanaren nondik norakoak ezagutzeko beste.

Badira azkenik *Appendix Sallustiana*, *Pseudo-Sallustiana* edota *zalantzazko lanak* deitu izan diren batzuk, euren egiletasun arazoekin eztabaida biziak sortarazi eta azken urteetako kritikaren arreta ia monografiak ahantzazteraino erakarri dutenak. Bi *Epistulae ad Caesarem senem de re publica* izenekoe-tatik eskuizkribuetan lehen agertzen dena da Salustioren egiletasunaren aldeko gehien bildu dituen; lehenengoa Salustiorena dela diotenen artean ere badira batzuk bigarrena beste idazle batena izan daitekeela onartzen dutenak. Are Salustioren aitatasunaren aldeko gutxiago ditu, gutxi ez badira ere, *In M. Tullium Ciceronem oratio* gorago aipatu dugun erausiak. Azken honen erantzun modukoa delako edo, hauekin batera argitaratu ohi da baita *In Sallustium Crispum oratio* delakoa ere, Salustio beraren aurkakoa.

Katilinaren zimarkua

Horrenbestez laburrean arituko naiz, egiari ahal dudan beste lotuta, Katilinaren zimarkuaz, ekintza hura gaiztakeriaren eta

onartzen baditugu eta 35.ean hil baino lehen *Historiae* lan luzeagoa ere idatzi behar izan bazuen, mugatuta geratzen dela Salustiok bigarren monografia idazteko izan zuen denbora. Nahiko arrazoizkoa dirudi beraz Syme-k bezala [1964: 218-219] 40. urte ingurua proposatzea.

arriskuaren berritasunarengatik bereziki gogoangarria dela uste baitut (*Catil.*, IV, 3).³⁷

Egitasmo orokorra aipatu ondoren, hitz hauetan laburbiltzen zuen Salustiok bere lehen monografiaren gaia eta zergatia. Izena ere hemendik hartu du liburuak, *De coniuratione Catilinae* edo *Catilinae coniuratio* bereziki, baina oso hedatuak dira baita editore ezberdinen arabera *Liber Catilinarius* nahiz soilik *Catilinarius*, edo egile honen bigarren liburuarekiko analogiaz zabalduko *Bellum Catilinae* edota *Catilinarium bellum*.

Salustio idazten hasi zenerako kalean zen Zizeronek Katilinaren aurka senatuaren eta herriaren aurrean egindako lau hitzaldien argitalpena, Salustiok bere lanean aipatzen duen *In Catilinam* ezaguna:

Orduan Marko Tulio kontsulak, [Katilina] han aurrean zegoelako beldurtuta edo haserreaz sututa, hitzaldi argi eta errepublikarentzat mesedegari bat egin zuen, gero idatzi eta argitara eman zuena (*Catil.*, XXXI, 6).³⁸

Lehen katilinariak ari da Salustio, baina Zizeronen beste hitzaldi batzuen berri ere bazuen ziurrenik bere lana idatzi baino lehen, bat baino gehiagotan agertzen baitira berak aztergai dituen garaia eta gertakizunei buruzko datu eta ikuspegiak. *In toga candida* hitzaldia, 64ko hauteskundeetan senatuaren aurrean egina, zatika baino ez dugu ezagutzen, baina aski Zizeronen etsaiak eta batik bat Katilina, bere benetakoa eta ustezko gaiztakeria denak salatuz astintzen zituela jakiteko. *Pro Murena* izeneko Katilinak galdu zituen 63ko uztailleko hauteskundeetan kontsul izendatua izan zen

(37) «Igitur de Catilinae coniuratione quam verissime potero paucis absolvam: nam id facinus in primis ego memorabile existimo sceleris atque periculi novitate».

(38) «Tum M. Tullius consul, sive praesentiam eius timens sive ira commotus, orationem habuit luculentam atque utilem rei publicae, quam postea scriptam edidit».

Luzio Lizinio Murena iruzur salaketen aurrean defenditzeko egin zuen Zizeronek 63an. *Pro Sulla* deritzona 62an egin zuen baina Publio Autronio Petorekin batera 66ko hau-teskundeetan aurkeztu eta soborno salaketa izan zuelako bi-garren itzuli bat egin beharra ekarri zuen Publio Kornelio Sila defenditzeko idatzia da. *De consiliis suis* lanean (60-59) bere kontsul garaiko isileko kontuak azaltzen zituen eta lan honentzat prestaturiko erantzun gisa ulertu dute batzuek Sa-lustioren *Katilinaren zimarkua*.

Goiago esan dugunez bakarrik hogeit hamar urte lehenagokoak zirenez bestela ere ezagunak zituen gertakizunak orduko ira-kurlegoaren zati handi batek. Badirudi soilik bere edo bere garaiko hiritarren oroimenean oinarriturikoak direla ondo-koak bezalako esamoldeen ondoren zurrumurruak bilduz jartzen dituen baieztapenak: «scio fuisse nonnullos qui ita existumarent» (*Catil.*, XIV, 7), «fuere item ea tempestate qui crederent» (*Catil.*, XVII, 7), «sunt qui ita dicant» (*Catil.*, XIX, 4), «fuere ea tempestate qui dicerent» (*Catil.*, XXII, 1), «erant eo tempore qui existumarent» (*Catil.*, XLVIII, 7). Pertsonaia jakin baten ahoan ere, Krasorenean alegia, jartzen du behin berri ematea: «ipsum Crassum ego postea praedicantem audivi...» (*Catil.*, XLVIII, 9).

Erabili ahal izan zituen gainera, berak bere erara mol-datzeke, benetako hitzaldien transkripzioak, senatuaren era-bakiak edota gutunak ere. Bi aldiz darabil Salustiok «quarum exemplum infra scriptum est» esaldia, ondoren us-tez benetako gutun baten transkripzioa izango litzatekeena eskaintzeko. Zati bien azterketa estilistikoak Salustiorena ez den hizkera erakusten duenez, Katilinak Kinto Katulori igor-ritako gutuna (*Catil.*, XXXV) eta Lentulok Bolturtzioren bitartez Katilinari bidalitakoa (*Catil.*, XLIV, 5) benetako

transkripzioak izan daitezkeela onartu izan da. Zalantzak izateko modukoa da dena dela bereziki bigarrena, Zizeronek ere azken gutun hau eduki bera baina beste hitz batzuekin (*In Catil.*, III, 5, 12) biltzen duenez, bietatik batek forma aldatu duela onartu beharra baitago eta egiantza lortzearren Salustioek berea ez zen idazkera sor zezakeenez argumentu estilistikoak ez dela hain indartsua konturatzen baikara. Horrela egin du beste leku batzuetan ere, agiri bat jatorrikoaren itxuraz eman aurretik testuaren gutxigorabeherakotasuna aurretik aitortuz: «cum mandata huiuscemodis» (*Catil.*, XXXII, 3). Horrela jokatzeko du gainera ia beti hitzaldiak bildu aurretik: «orationem huiuscemodi habuit» (*Catil.*, XX, 1), «huiuscemodi verba locutus est» (*Catil.*, L, 5), «huiuscemodi orationem habuit» (*Catil.*, LII, 1; LVII, 6).

Baina gogora ditzagun gertakizun historikoak. Silak Erroma hartu zueneko sarraskietan gailendu zenetik zen ezaguna Luzio Sergio Katilina. 70.eko hamarkada hasieran *legatus* gisa aritu zen atzerrian, 68.ean pretore izendatua izan zen eta badakigu 67-66 urteetan Afrikan izan zena propretore lanetan. 65. urteko kontsul izateko hauteskundeetara aurkeztu nahi izan zuen baina ez zuten bere hautagaitza onartu. 66. urte horretan zimarku saio bat izan zen, *leben zimarkua* deitu izan dena, baina ez dago argi norainoko indarra izan zuen eta ezta noraino sartuta egon zen Katilina ere. Konkusio salaketarengatik auziperatu zuten baina errugabetzat jo zutenean berriro aurkeztu zen 63ko kontsulgorako Gaio Antoniorekin batera, Kraso eta Zesarren sostenguearekin, baina Marko Tullio Zizeron jabetu zen karguaz. Salaketa gehiagori ere egin behar izan zion aurre baina berriro atera zen errugabe. 63.eko uztailean berriro aurkeztu eta berriro galdu zuen. Boterea indarrez hartzeko saioei ekitea erabaki zuen orduan.

KATILINAREN ZIMARKUA

Gaio Manlio zimarkukidea Etruriara joan zen han nekazal plebeak, lapurrek eta Silaren gudari-ohiek osaturiko guda-rostea biltzeko. Zizeron kontsulak ziurtasun neurriak hartzeko baimena eskatu zion senatuari urriak 21ean. Urriak 27an hartu zituen Manliok armak. Erroman, azaroak 6ko iluntzean zimarkuzaleek Marko Portzio Lekaren etxean egin zuten batzarrean biharamon goizean Zizeron bere etxean hiltzea erabaki zuten. Baina jakinaren ganean zegoen ordu-rako Zizeron eta ez zien hiltzaile biei euren lana betetzeko aukerarik utzi. Azaroak 8an zuzendu zion Zizeronek senatuari bere lehen katilina, Katilinen zimarkua salatzen zuen lehenengo hitzaldi ospetsua. Hitzaldia entzun eta alde egin zuen Erromatik Katilina, kanpoan armaturik ziren gizonekin elkartzeko. Herriari zuzendu zizkion bere hitzak biharamonean Zizeronek, bigarren katilina gisa ezagutzen duguna alegia. Katilina eta Manlio elkarrekin zirela jakin zenean herriaren etsai izendatu zituzten. Abenduak 2tik 3rako gauean Erromatik Katilinentzako gutuna zeramaten mandatariak atxilotu zituzten Zizeronen aginduz hiritik irtetzean. Biharamonean berriro salatu zuen honek senatuaren aurrean zimarkua eta berriro egin zuen berba herriaren aurrean, hirugarren katilina eginez. Heriotze zigorra ezarri zuen senatuak zimarkuzaleentzat. Erroman gertaturikoaren berri jakin zuenean, bere gizonekin Galiara ihes egiten ahalegindu zen Katilina baina legio leialek moztu egin zioten bidea eta bere adiskide izana zen Gaio Antonioren ejerzitua-ren aurkako borrokan hil zen Katilina Pistoiaiko zelaietan.

Gertakizun hauek guztiak kontatzen ditu Salustiok baina ez beti ordena honetan, baizik eta literatur ikuspegitik kontakizun bizi eta interesgarria eskaintzeko material guztia berantolatuta, askotan pertsonaia nagusi eta ez hain nagusien

erretratu eta hitzaldiak tartekatuz, bere iritzia azaltzen duten zatiekin batera. Bereziki luzeak dira Zesarren eta Katonen ahoan jartzen dituen hitzaldiak (*Catil.*, LI eta LII hurrenez hurren) eta lanaren helburuekin zerikusia izan dezakeela honек aipatu dute zenbait ikerlek.

Aipatu dugu gorago Zizeronen *De consiliis suis* lanari erantzuteko idatzia dela *Katilinaren zimarkua* uste dutela zenbaitek. Zesarren izen ona garbitzeko idatzia dela edota Zizeronen aurka ekiteko egin zuela monografia hau diotenekin bat egiten dute hauek. Optimate taldearen aurkako ahalegina eta demokraten aldekoa ere ikusi izan da. Ziurrenik elementu guztiak daude neurri batean, baina ezin da esan horietako bat izan denik Salustiok idazten hasi zenean buruan izan zuen helburua. Egia da Zizeronek zimarkuari aurre egiten jokatu zuen papera ezagututa bere senatuko hitzaldiei ematen dien garrantziaren aldean (cf. halere gorago *Catil.*, XXXI, 6 atalari buruz esandakoa) gehiegikoa begitan dakiokeela edonori Zesarrenari ematen dion lekua (*Catil.*, LI), lana desorekatzerainoko luzea baita, baina esan bezala, hau amaitzean biltzen duen Portzio Katonena (*Catil.*, LII) ez da laburragoa. Gainera *Catil.*, LV ataleko bien arteko alderaketan ere norbait nabarmentzekotan Katon da Zesarri gailentzen zaiona. Ez da hori ondo ulertzen lanaren helburu nagusia Zesar goraiatzea dela esan nahi bada. Bestalde bi hauen hitzaldien artean Zizeronek egin zuen laugarren katilinarria Salustiok aipatu gabe uztean harenganako gutxiespena edota are bazterketa ikusi nahi izan dute batzuek, baina badirudi errealitatean ere ez zuela Arpinokoak asmatu aurreko hiruretan bezala eta bere hitzaldiak ez zituela senado-reak gogoberotu.

KATILINAREN ZIMARKUA

Izan ere atal honen buruan jarri ditugun Salustioren hitzak sinistu behar baditugu, eta baietz uste dugu guk, gaiztakeriaren eta arriskuaren berritasunarengatik zen Katilinarenean zimarkua bereziki gogoangarria Salustioentzat, beste era batera esanda, ordura arte Salustioren iritziz errepublikak ez zuelako ezagutu halako eraso bortitz eta arriskutsurik, Katilinarenean zimarkuan benetan kolokan jarri zelako errepublikaren izaera. Hala sarrera gisakoan (I-XIII), nola lanaren erdi-erdiko excursusean (XXXVI-XXXIX) edo Zesar eta Katonen hitzaldiak bukatu eta bien alderaketa aurkeztu aurreko hitzetan (LIII) nabarmentzen duena alde batetik birtutea, adorea, ospe nahia eta bestetik ustelkeria, goranahia, laxokeriaren arteko borroka eta aldikako nagusitasuna da. Borroka historia horretako zati bat da berak aurkezten duena, bere iritziz errepublikarentzat arriskutsua izan arren Zesar eta Katon bezalako gizon prestuak ere izan direlako (*Catil.*, LIII, 6) amaiera ona izan duena. Zesar eta Katon goraiatzan ditu zimarkua ondo amaitzera doanean, Zizeronen goraiapamena (*Catil.*, XXXI, 6) gertakizunen kontakizunetan galduta geratu da, baina azken batean adoreak ustelkeriaren aurka bizi duen borrokan izen batzuk baino ez dira denak ere, historiako beste une bat hartuz gero beste batzuk izan zitezkeen moduan. Eta Katilinarenean zimarkua borrokaldi horren agertokia da.

Idazle hasi berriaren lan bezala ikusi behar da bestalde *Katilinarenean zimarkua*. Historialariaren alderditik lepora dakizkiokeen hutsak, kronologia aldaketak, aipatu gabeko gertakizunak eta abarrak, literatur lana borobildu nahiak estaltzen baditu, alde honetatik ere ez duela Salustiok lan bikaina lortu esan behar da, nabarmena baita zati ezberdinen arteko oreka falta. Ez gara ari hainbeste aipatu izan den

sarrera gisako luzeaz, eskatzen baitu horrenbeste gure ustez osotasunak, baina bai hitzaldi luzeez edo excursus ezberdinen banaketaz.

Jugurtaren aurkako gerra

Jugurta numidiarren erregearen aurka Erromako herriak izan zuen gerra idaztera noa, luze, izugarri eta garaile ziuurrik gabekoa izan zela-ko lehenengo eta behin, baina baita orduan egin zitzaiolako aurre lehenbizikoz nobleteriaren ozartasunari. Gatazka hau, jainko eta giza legeak denak batera nahasi eta hainbesteko erotasunera heldu zen, non gerra eta Italiaren suntsipena izan baitziren anaiarteko liskarren bukaera (*Iug.*, V, 1-2).³⁹

Salustioren bigarren monografiaren helburuak aztertzean ez da eztabaida handirik izan hemen bildu ditugun hitz hauek onartzeko benetako xede agerpen gisa. Batetik (*primum...*) gerra historia eta bestetik (*dehinc...*) historia politikoa iragartzen zaizkigu eta bi horietako bat bestearen gaintik nabarmentzean sor daiteke zalantza. Baina badirudi edozelan ere biak daudela Salustioren buruan. Gerraren narrazioa ez da jarraitzeko erabat gardena, analetako erara kontaketa kronologikoa bilatzen duenarentzat, baina hor dago, eta Erromako barne politikan izan zuen eragina isladatzen saiatzen dela ere ukaezina da.

Gerra luzea izan zela dio Salustiok, handia, nahi bada, izugarria eta garaile ziuurrik gabekoa. Hirurak ere elementu topikoak dira, Tuzidides eta Polibiok edota Tito Libio, Tazito eta Luzianok ere euren lanetan erabili izan dituzte-

(39) «Bellum scripturus sum quod populus Romanus cum Iugurtha rege Numidarum gessit, primum quia magnum et atrox variaque victoria fuit, dehinc quia tunc primum superbiae nobilitatis obviam itum est. Quae contentio divina et humana cuncta permiscuit, eoque vecordiae processit ut studiis civilibus bellum atque vastitas Italiae finem faceret».

nak.⁴⁰ Handitasunari dagokionean, adibidez, ez dirudi erromatarren aldean ibili zen gizon kopurua bereziki aipagarria zenik eta luzea bai izan zen, sei urtetaraino luzatu baitzen, baina ez beste gerra asko baino luzeagoa; ezta izugarriagoa ere: Salustiok berak ere ez zuen izugarrikeria hori, batzuetan horretarako aukera izanik ere, muturreraino eramán,⁴¹ gerra izugarria dela esaten historiografia helenistikoak irakatsi dion arren. Garaile ziuurrik ez erakustea, ordea, pasarte jakin batzuk bai eta beste batzuk ez aurkeztuz, edo era batera edo bestera nahastuz, Salustiok berak bilatzen duen zerbait da, berriro ere historiografia helenistikoan ikasia baitzuen *varietas* delakoa zein garrantzitsua den.

Orduan egin zitzaiola aurre lehenbizikoz nobleteriaren ozartasunari ere badio. Baina ez da ulertu behar, sarri egin den bezala, nobleteriaren aurka eta popularren aldeko propaganda hutsa egin nahi duenik. Esan dugu gorago ere, alde honetatik Katilinaren zimarkuaren aitzindari legez ikusten dituela Salustiok Afrikako gertakizunak. Han bezala hemen ere gainbehera aldi baten aurkezpena egiten du, Erromaren historian berak ikusten duen birtutea eta ustelkeriaren arteko aipatu borrokan kokatuz Jugurtaren aurkako gerraren aurrean erromatarrek izan zuten jokabidea. Esanguratsua da hau ulertzeko lanaren erdialdean eskaintzen duen excursusa, gaizkialdia eta ongialdia historian txandaka baletoz bezala aurkezten baititu, eta ongialdiarekin gehiegikeria eta harro-

(40) Topiko honen erabilerari buruz, aipamen zehatzak eta orohar pasarte honen azalpen zabalagoa ikusteko interesgarria da Paul [1984: 18-23].

(41) Neurrikotasunaren amorearren Salustiok zenbait pasartetan eskaintzen ez dituen zehaztasunak aipatzen ditu Pabónek [1956: XXX-XXXI], hala nola Jugurtaren zorigaiztoko heriotzeari buruzkoak edo Metelok iheslariei pairarazitako torturari dagozkienak, adibidez.

keria,⁴² berriro gizon prestuak agertu arte, Katilinaren zi-markuan Katon eta Zesar ziren bezala hemen Grakotarrak:

Benetako ospea zuzengabeko boterearen aurretik jarri nahi zuten nobleak aurkitu bezain laster... (*Iug.*, XLI, 10).⁴³

Alderdi demokratikokoa zen Salustio, baina ez dio gaitz guztien errua nobleteriari egotzen, nobleteriaren ozartasun kaltegarria plebean ere ikusten du eta:

Ozartasuna nagusitu zen plebean garai hartako ongialdiarekin, maiz nobleterian nagusitua zen bezala (*Iug.*, XL, 5).⁴⁴

Alderdikeria bera, bakoitzak eta bereziki talde bakoitzak soilik bere interesen alde jokatzea, da aberriari kalterik handiena dakarkiona. Lanaren erdialdeko tarteko azalpen honen hasieran eta bukaeran, bietan, aipatzen du:

Bestalde urte gutxi lehenago sortu ziren Erroman alderdi eta alderdikerien ohitura eta honekin batera usadio txar guztiak (*Iug.*, XLI, 1).⁴⁵

Baina banan eta garrantziaren arabera hitz egiten saiatuko banintz alderdien grinei eta hiri bakoitzaren ohiturei buruz, lehenago geratuko nintzateke astirik gabe gairik gabe baino (*Iug.*, XLII, 5).⁴⁶

Are gehiago, Pabónek ondo erakutsi duenez [1956: 14-16] asko begirune handiagoz aurkeztzen ditu Salustiok nobleak, berak izan ez zuen zoria lagun izan zuten nobleberriak

(42) *Iug.*, XL, 5 - XLII ataletako excursusaz ari gara. «In advorsis rebus» (*Iug.*, XLI, 3) sintagmarekin aipatzen du gaizkialdia eta «ex secundis rebus» (*Iug.*, XL, 5) edota «res secundae» (*Iug.*, XLI, 4) esanez, ongialdia. «Lascivia atque superbia» (*Iug.*, LXI, 3) dira 'gehiegikeria' eta 'harrokeria'.

(43) «Ubi primum ex nobilitate reperti sunt qui veram gloriam iniustae potentiae anteponebant...».

(44) «Ut saepe nobilitatem sic ea tempestate plebem ex secundis rebus insolentia ceperat».

(45) «Ceterum mos partium et factionum ac deinde omnium malarum artium paucis ante annis Romae ortus est...».

(46) «Sed de studiis partium et omnis civitatis moribus si singillatim aut pro magnitudine parem disserere, tempus quam res maturius me deseret».

baino, eta horregatik agertzen da hain barregarri kontsulgoa erdietsi duen Mario, Meteloren edo Silaren aldean adibidez; nahiz eta berau izan nobleteriaren ozartasunari aurre egin ziona eta beronek historian jokatu zuen papera miretsi arren, goraipamenekin nahastean zoria lagun duen gizaki barregarri gisa ere aurkezten du zenbait pasartetan.⁴⁷

Baina zeintzuk dira monografia honetan kontatzen diren gertakizunak? Masinisa Ekialdeko Numidiako erregearen dinastia Erromako herriarekin lotuta zegoen aliatu gisa, Eszipion Afrikarraren garaian elkarri lagundu eta sari gisa Sifax errege etsaiaren Mendebaldeko Numidiaren erregetza ere hartu zuenetik. Masinisaren semeetatik, Mizipsa geratu zen aitaren oinordeko gisa. Honen bi semeak, Aderbal eta Hienpsal, eta Jugurta semeordea, hirurak geratu ziren oinordeko legez Mizipsa 118an hil zenean, baina ez zuten euren artean bakerik izan.

117an Jugurtak Hienpsal hil zuen eta Aderbalen aurkako borrokari ekin zion. Aderbalek bere burua galduta ikusi zenean laguntza eskatu zuen Erroman, baina Jugurtak ere bidali zituen bere mandatariak hango adiskideengana eta Opimio buru zuen hamar laguneko mandataritza bidali zuen senatuak Afrikara (117/116) Numidiako lurra bien artean banatzeko. Aldi baterako konponketa baino ez zen izan eta berriro biztu zen bien arteko gatazka. 112an Jugurtak anaia-ri eraso eta Cirtako hirian inguratu zuen. Erroma bitartekaritza lanetan ahalegindu zen berriro ere mandataritzak bidaliz baina Jugurtak Cirta hartu eta, Aderbalekin batera, hirian ziren erromatar eta italiko merkatariak hil zituen.

(47) Pabónnek [1956: 14-16] astiroago erakusten du Salustiok eskaintzen duen pertsonaia nobleen eta nobleberrien irudia, alde batetik Metelo eta Silarena eta bestetik Mariorena.

Erroman senatua larritu egin zen eta bere ejerzitua bidali zuen 111.eko martxo edo apirilean Numidiara, Kalpurnio Bestia buru zuela, honela Jugurtaren aurkako gerran sartuz. Urte bereko urrian itzuli zen hau Erromara hauteskundeetarako, Numidian su-eten hitzarmena egin ondoren. Erroman susmagarritzat aurkeztu zuten itun hau eta Jugurtari berari egin zioten dei argibideak eskatzeko. Kontsul berri izendatua izan zen Postumio Albinok Jugurtaren lehengusu zen Masiba bultzatu nahi izan zuen Numidiako boterera 110.ean, baina Jugurtak horren berri izan zuenean bere aurkaria izan zitekeena hiltzeko agindu zuen. Jugurta Erromatik kanporatu eta berriro ekin zitzaion gerrari, erromatar ejerzituaren buruan Albino zela. Urrian edo azaroan hauteskundeetarako Erromara itzultzean Aulo anaia utzi zuen honek bere gizonen arduran; honek berak amaitu nahi izan zuen gerra 110. urtea bukatu baino lehen eta Jugurtari eraso zion baina afrikarrak erantzun eta erromatarrentzako lotsagarria izan zen garaipena lortu zuen, Numidiatik kanpora egotziz.

Hunkituta geratu zen Erroma eta 109.eko udaberrian Metelo kontsul berriak hartu zuen Afrikan hondatuta zegoen ejerzitu erromatarraren agintea. Elkarrizketak eta ekintza militarrak aldi batera gertatu ziren eta 109.eko udan Vagako hiria hartu zuen Metelok eta Jugurtak eraso gogorrakoak jo zituenean ondo erantzun zuen ejerzitu erromatarrak, Muthul ibaiaren inguruan besteak beste. Setioa ezarri zion Metelok Zamako hiriarri baina udazkena iristean utzi egin behar izan zuen eta negurako probintzia erromatarrera erretiratu. Metelok Jugurtaren gudalburuordearekin elkarrizketan jarraitu zuen baina ez zuen errendiaraztea lortu. Meteloren kontsul urtea amaitu arren berak jarraitu zuen Numidiaren arduran kontsu-

JUGURTAREN AURKAKO GERRA

lorde gisa eta 108rako bigarren guda-ekinaldia prestatu zuen. Vagan eta Thalan izan ziren borrokaldirik gogorrenak, biak Meteloren aldeko bukaerarekin. Jugurtak getuliarren eta Boko, Mauritaniako erregearen laguntza lortu zuen.

Urte amaierako hauteskundeetan Mario nobleberriak erdietsi zuen kontsulgoa eta 107. urtearen hasieran edo, bere esku jarri zuten Numidiaren ardura. Manlio gudalburuordea bidali zuen hainbat arinen Afrikara eta gero, udaberrian, bera abiatu zen guda-ekinaldia hasteko. Gutxi-gutxika, borrokaldiz borrokaldi, 107-106 urteetako negurako Ekialdeko Numidia osoaz jabetua zen Mario, Capsa hiria barne, baina Jugurta eta Bokoren aurkako borrokan jarraitu zuen 106-105.eko negura arte, nahiko garaipen lortuz. Bitartean, ez dakigu zehatz noiz, Sila elkartu zitzaion Mariori zaldizkoekin.

Indar nagusiak negugudaltegian baziren ere, Mariok gutxi batzuekin eutsi zion neguan ere borrokari eta bitartean Bokok mandatariak bidali zizkion elkarriketa eske eta kanpamenduan zen Silarekin egin zuten berba hauek. 105.eko udaberrian su-etena hitz hartu zuten eta Bokorekin negoziatzen eman zituzten hurrengo hilabeteak, Jugurta erromatarren esku jartzea lortu nahian. Zalantza aldi luzearen ondoren, udazkenean Bokok segadan harrapatu zuen Jugurta eta Silaren esku jarri, eta honek Mariori eman zion Erromara eramateko atxilotuta. Garaipen honen berri izan zutenean Erroman, 105.eko urrian edo azaroan bigarrenez izendatu zuten Mario kontsul bera oraindik iritsi gabe egon arren. 104eko urtarrilean ospatu zuten garaipena eta gero kartzelan hil zen Jugurta, hotzez eta gosez.

Baina esan beharra dago Salustiok kontatzen duena kontatzen duen moduan bakarrik jakinda, gertakizunak ezingo

liratekeela honela ezagutu eta hutsuneak geratuko liratekeela egungo historialariaren ikuspegitik. Kronologiari dagokionean askotan aurkitzen dira zehaztasunik gabeko esamoldeak⁴⁸ edo zehaztasuna izan arren batzuetan zuzenak ezin izan daitezkeenak.⁴⁹ Geografi datuekin ere antzera gertatzen da eta ezin da pentsatu Salustio kontsulorde legez Afrikan ibilia zelako bere deskripzioek zehaztasuna izango dutenik, izan ere ez baitu halakorik eskaintzeko interesik. Hiru ibai eta zazpi hiriren izenak baino ez ditu ematen lan osoan, eta hauek ere ezin izan dira guztiak ziurtasunez identifikatu, izan ere Salustioren asmoa ez baitzen gertatutakoaren txosten zehatza eskaintzea, kontakizun dramatikoki interesgarria eta asaben egitandiak biltzen dituen heinean baliagarria baino. Honela, Salustio bera Afrikako iparraldean kontsulorde legez bizi izandakoa izan arren, ez dugu pentsatu behar Afrikari (*Iug.*, XVII-XIX) edo Sirte Itsasgolkoei (*Iug.*, LXXVIII) buruzko excursusetan azalpen geografiko edo etnografiko zientifikoak aurkituko ditugunik, ezta bere garaiko lan zientifiko bati eskatuko geniokeen neurrian ere, kontagarriago iruditzen baitzaio exotikotasuna edo dramatikotasuna duena, informazio balioa izan lezakeena baino.

Salustiok izan zituen iturriek ere badute zerikusia honekin guztiarekin. Aipatu dugu Afrikan bizi izandakoa zela Salustio eta alde horretatik izan zezakeen inguruaren nola-

(48) Ikusi adibidez ondokoak: «paucos post annos» (*Iug.*, IX, 4; XLII, 1), «paucis ante annis» (*Iug.*, XLI, 1), «paucis diebus» (*Iug.*, XIII, 6; XXIV, 1; LXXXVI, 4).

(49) Elkarren kontra daude, adibidez, *Iug.*, IX, 3 ataleko «statim» eta XI, 6ko «tribus proximis annis», biak gauza berari buruz aritzean. Beste adibide bat jartzearen, XXXVII, 3 atalean datorren «mense Ianuario» ezin da inola ere ulertu erakundeetarako izendapenen egutegiak kontuan hartuta eta huts larria izango litzateke Salustiorengan, berea ez den beranduagoko glosaren bat ez bada.

baiteko ezagupena, baina hori horrela bazen ere badirudi beste bide batzuetatik ere bilatu zuela informazioa. Salustiok berak ere egiten du iturri ezberdinen erabileraren berri ematen duen aipamen interesgarri bat:

Gehienek onartzen duten tradizioetik bestelakoa bada ere, Hienpsalenak omen ziren liburu kartagoar batzuetatik itzuli diguten modu-moduan eta lur haietakoek egiazat duten bezala kontatuko dut, ahal dezadan laburren... Berri emaleen ardurapekoa da dena dela honen guztiaren egiautasuna (*Iug.*, XVII, 7).⁵⁰

Askotan aipatu da pasarte hau *libri Punici* direlakoak benetan erabili zituen ala Salustioren beste iturri batetik harturiko aipamena diren eztabaidatzeko, baina eztabaida horretan galduta, ez da aski azpimarratu lehenengo esaldiarekin («quamquam... divorsum est») edozein kasutan ere iturri ezberdinak hartzen zituela kontuan ulertu behar dela, eta *fama* horretan ahozko nahiz idatzizko iturriak sar daitezkeela. Salustiok izan zuen Jugurtaren aurkako gerran aritutako gizonak ezagutzeko aukera, Sila besteak beste, eta hauen lekukotasunaz baliatuko zela pentsatu behar dugu, baina badirudi ezin dela ukatu literatur tradizio idatziak, batik bat greziarrak, are digresio hauetan ere izan duen eragina (cf. Syme 1964: 152 hh.). Apameako Posidonio siriarraren lanak izan dira urte askotan gehien aipatu direnak Salustio bere garaikidearen informazio iturri bezala, bereziki geografia eta etnografiari dagokionean, eta neurri batean ondo esanda zegoen, baina badirudi ezin dela zor guztien domua beretzat gorde. Erromatarren artean Senpronio Aselio, Balerio Antzias eta Klaudio Kuadrigarioren historia-lanak hartzen

(50) «...quamquam ab ea fama quae plerosque obtinet divorsum est, tamen uti ex libris Punicis, qui regis Hiempsalis dicebantur, interpretatum nobis est, utique rem sese habere cultores eius terrae putant, quam paucissimis dicam. Ceterum fides eius rei penes auctores erit».

zuten Numidiako gerraren kontakizuna⁵¹ eta baita monografian pertsonaia legez agertzen diren Publio Rutilio Rufo, Emilio Eskauro eta Luzio Kornelio Silaren autobiografia edo oroitzapen liburuek ere. Salustiok irakur zitzakeen egile hauen idazlanak eta pentsatzekoa da irakurri zituela, batzuk behintzat, hauen lan osoak ezagutzen ez ditugunez gaitza den arren Salustioaren lanean norainoko aztarnak utzi zituzten aztartzea. Azkenik, kontagai duen gerra garaiko agiri batzuk Salustioaren sasoiari oraindik galdu gabe egotea ere litekeena da eta kasu horretan baten batzuk behintzat ezagutuko zituela pentsa genezake, orobat hitzaldi ospetsuen transkripzioak edo bertsoak, baina bere monografian ez dago halakoak zailantza barik erabili zituela baieztatzea eraman gaitza ageriko aztarnarik. Are gehiago, Katilinaren zimarkuari buruzko monografiaz aritzean genioen moduan, hemen ere «huiuscemodi verbis disseruit» bezalako esamoldeak jartzen ditu hitzaldiak aurkeztean.⁵²

Hitzaldiekin ari garenez, esan dezagun lehen monografiari bezala bigarren honi ere sarrera gisakoaren eta hauen luzera alatu zaiola, izan ere benetan luzeak baitira bereziki Memioren (XXXI) eta Marioren (LXXXV). Lan osoaren eiteari dagokionean ordea, hoberako aldaketa ikusten da bigarren lan honetan, eitura orekatuagoa eta lokarri hobez osaturiko hari dramatikoarekin.

(51) Luzio Kornelio Sisenaren aipatu izan da, baina honek ez zuen Jugurtaren aurkako gerrari buruz idatzi (cf. Syme 1964: 156). Silaren erretratua eskaini aurretik aipatzen du Salustiok (*Iug.*, XCV, 2), bere lanarentzat goraiapamena eta alama nahastuz, baina argi ikusten da Silari dagokionean aipatzen duela Sisenaren lekukotasuna, baina ez Numidiako gerrari dagokion beste ezertarako.

(52) Mizipsaren hitzen aurretik «huiuscemodi verba habuisse» (*Iug.*, IX, 4) dakar, Memioren hitzaldia hasi orduko «huiuscemodi verbis disseruit» (*Iug.*, XXX, 4), Marioren hitzaldiaren aurretik «hoc modo disseruit» (*Iug.*, LXXXIV, 4) eta Silaren hitzaldia hasteko denean «pauca verba huiuscemodi locutus» (*Iug.*, CII, 4).

Historiae

Erromako herriaren gerra garai eta bake denborako egitandiak idatzi ditut, kontsulak Marko Lepido eta Kinto Katulo zirenekoak eta gerokoak (*Hist. frg.*, I, 1).⁵³

Marko Emilio Lepido eta Kinto Lutazio Katulo K. a. 78. urtean izan ziren kontsul, Sila hil zen urtean hain zuzen. *Jugurtaren aurkako gerra*-n idatzia zuen Salustiok ez zuela gehiago Silari buruz idatziko eta horregatik eskainiko zuela han gizon honen erretratua:

Izan ere hau da Silaren ekintzak aipatzera goazen leku bakarra, eta ez dut uste ekintza horiek aipatu dituztenetatik hoberen eta arreta handienarekin azaldu zituen Luzio Sisenak nahiko askatasunez hitz egin zuenik (*Iug.*, XCV, 2).⁵⁴

Pasarte honetan aipatzen duen Luzio Kornelio Sisenaren lanak Mario eta Silaren arteko gatazka zuen kontakizun eta horrenbestez Salustioren hirugarren lan hau, Silaren heriotzarekin hasita, haren jarraipen legez ikus daiteke. Ezagutzen ditugun zatiak eta San Agustinen lekukotasuna kontuan izanik (*Civ.*, II, 22), badirudi gainera Silaren izaera *Jugurtaren aurkako gerra*-n irudikatua geratu bazen, hirugarren lan honetan honen ekintzak kontatzeari ekin behar izan ziola Salustiok historiaren haria hartzeko.

Baina lan honi buruz esan genezakeen gehiena zeharkako lekukotasunen mende geratuko da beti, lan osoaren zati txiki bat baino ez dugu ezagutzen eta, gehiena galdu ondoren. Ezagutzen diren zatirik luzeenak hiru hitzaldi eta gutun bi dira, beste monografietakoekin batera eskoletan erabili bide

(53) «Res populi Romani M. Lepido Q. Catulo consulibus ac deinde militiae et domi gestas composui».

(54) «Neque enim alio loco de Sullae rebus dicturi sumus, et L. Sisenna, optume et diligentissime omnium qui eas res dixere persecutus, parum mihi libero ore locutus videtur».

zen bilduma baten kopia batean gorde direnak, hain zuzen ere IX. mendeko *codex Vaticanus lat.* 3864 deritzon eskuzkribuan. Horrez gain V. mendean Fleuryko San Benitoren monasterioan zegoen *Historiae* liburuaren kopia oso bat (*codex Floriacensis*), baina kodizea zatitu eta berrerrabili egin zen beranduago, eta orain zortzi orri baino ez dira ezagutzen Salustioaren testua dutenak, bost Orleansen, bi Batikanoan eta bat Berlinen.⁵⁵ Gainerako zati laburrak, batzuk ulertu ere ez egiteko besteko motzak, aintzinako gramatikari eta idazleek euren lanetan aipatu zituztelako ezagutzen ditugu gehienak, eta Rylands papiroei esker banaka batzuk.

Geratzen denarekin Salustiok bost liburu idatzi zituela pentsatu behar dugu eta bosgarren liburuan dagoen datatzeko moduko azken gertakizuna K. a. 67.eko *lex Gabinia* delakoaren eztabaida da. Bat dator datu hau gorago aipatu dugun Ausonioren baieztapenarekin, hamabi urteko epea hartzen zuela ematen baitu aditzera honek.⁵⁶ Sarrera gisakoa, aurreko historiaren laburpen bat eta Lepidoren hitzaldiarekin hasten zen ziurrenik lehen liburua eta gero, gainontzeko bostetan, Sertorioren gerra, esklabu matxinatuen aurka 73.ean ekindakoa, edota Mitridatesen aurkakoaren berri eman behar zuen. Ez dago ageriko arrazoirik halako liburu baten kontakizuna 67.ean amaitu nahi zuela Salustiok pentsatzeko eta horrenbestez, lana amaitu barik harrapatu zuela heriotzak pentsatu izan da. Ez dakigu jarraitzekotan noraino ja-

(55) Orleansekoan (*Aurelianensis* 192) eta Berlinekoan (*Berolinensis lat.* 4º 364) palimpsestoan dago Salustioaren testua, ez ordea Batikanokoan (*Vaticanus Reginensis lat.* 1283B).

(56) Hona hemen Ausonioren bertsolerroak (*Symm. epist.*, XXI, 61-63): «Iam facinus, Catilina, tuum Lepidique tumultum / ab Lepido et Catulo iam res et tempora Romae / orsus bis senos seriem conecto per annos» ('Batean, Katilina, zure krimena eta Lepidoren kalapita, bestean Erromako gertakizunak eta denborak, Lepido eta Katulorekin hasita, lotzen ditut hamabi urteko harian').

rraitzeko asmoa izan zezakeen eta egin diren proposamenak, Mitridatesen heriotzeraino (63 K. a.) edo Ponpeio eta Zesarren arteko hausturaraino (51-50 K. a.) ailega zitekeela diotenak adibidez (cf. Syme 1964: 191-192), proposatzailearen irudimen handi edo eskasagoaren mende baino ez dira geratzen.

Osorik ezagutzen ditugun hitzaldien artean lehena (*Hist. frg.*, I, 55) Marko Emilio Lepido, 78.ean kontsul izan zenak, herriaren aurrean Silaren eta bere politikaren kontra egindakoa da. Marioren garai onetan Marioren aldekoa izan zen, Silaren sasoi onean Silaren aldekoa, eta honek 79.ean agintea utzi zuenean alderdi demokratikoan sartu zen, Silaren lekua hartu nahian. Une horretan (79-78 K. a.) kokatzen da Salustiok eskaintzen duen hitzaldia, azken batean Silaren aurkako erausi bortitza.

Lehenengo liburukoa da baita Luzio Martzio Filipok senatuaren aurrean Lepido beraren kontra egindakoa ere (*Hist. frg.*, I, 77). Katulo kontsulkidearekin batera Etrurian matxinada bat baretu ondoren, aurretik ere bere interesak defenditzeko plebearen atxekimendua irabazten ibilitako Lepidok, kidearekin Erromara itzuli beharrean, gizon gehiagorekin indartu zuen bere esku zegoen ejerzitua eta baldintza ausartak ezarri nahi izan zizkion senatuari, mehatxupean. Kikilduta zegoen senatuaren aurrean Filipok sendotasuna eskatuz eginitiko hitzaldia da Salustiok bildu duena. Herriaren etsai izendatu zuten Lepido eta Sardinian hil zen 77an erbesteratuta.

Hispanian Sertoriorekin, Asian Mitridatesegaz, Mazedonian... leku gehiegitan zuen lana erromatar ejerzituak eta larrialdi egoeran zegoen Erroma 75.ean Gaio Aurelio Kota eta Luzio Oktabio hautatu zituztenean kontsul. Egoera horren arrazoiak azaltzen dizkio Kotak herriari guk ezagutzen

dugun hirugarren hitzaldian (*Hist. frg.*, II, 47), berak bere bizitza osoan errepublikaren alde baino ez duela ekin eta zahartzaroan ere horrela jarraitzeko prest dagoela agertu eta herritarren laguntza eskatuz.

Urte honetako negukoa da Ponpeiok senatuari idatzitako gutuna ere (*Hist. frg.*, II, 98). Hispanian zegoen Sertorioren aurkako gerra zuzentzen eta senatuak ez zizkion bere gizonentzat jaki-hornidura ez soldatak bidaltzen. Berak eskainitako zerbitzuak gogorarazi ondoren, behar zuen erantzuna hartu ezean Hispaniako gerra Italiara igaroko zela egiten zuen mehatxu.

Batikanoko kodizeak eskaintzen duen azken hitzaldia Gaio Lizinio Mazer tribunoak plebeari zuzendurikoa da (*Hist. frg.*, III, 48). Euren egoeraren aurrean duten pasibotasuna salatzen du 73. urtean, daukatena ez diela nobleteriak dohainik eman, asabek euren borrokarekin irabazi dutelako baino, gogoraraziz. Gero ere ezin direla, noiz etorriko edo nobleek noiz emango, askatasunaren zain geldirik geratu esaten die eta soldaduzkari uko egitea proposatzen du borroka bide bezala: «ez dizuet aholkatuko armak hartzea edo matxinada, soilik ez gehiago zuen odolik ematea» (*Hist. frg.*, III, 48, 17).⁵⁷

Laugarren liburuko gutuna (*Hist. frg.*, IV, 69) Mitridates Pontoko erregeak laguntza eske Arsazes XII.ari (edo bere benetako izena erabiliz gero Fraates III.ari) idatzitakoa da. 69-68ko neguan Mitridatesen aurkako hirugarren gerran ari ziren erromatarrek, eta bi alderdiek nahi zuten pertsiarren erregea alde eduki. Mitridatesek erromatarrek euren inguruan egindako gerra ekintzak gogorarazten zizkion, botere

(57) «Non arma neque secessionem, tantummodo ne amplius sanguinem vestrum praebeat is censebo».

eta aberastasun irrikak errege eta nazio guztien aurka borrokatzera zeramatzala erromatarrak esanez. Mitridatesi irabazi ondoren Arsazes beraren bila joango zirela ematen zion aditzera.

Gutxi esan daiteke gainerako hondakin laburrei buruz. Aurreko bi monografietan hasitako bidea bikaintasunera dararamala Salustiok dirudi. Hitzaldi eta gutunen garrantzia ikusi ondoren, pertsonaien erretratu sakonak antzematen direla ere esan behar da —Marko Antonioren, adibidez, *Hist. frg.*, III, 3—, edo urruneko leku eta herrien deskripzio koloretsuen azterrenak ere jarrai daitezkeela —Itsaso Beltzarena, esate baterako, hirugarren liburuan— (cf. Syme 1964: 194-196)... Badakigu aintzinatekoek azken liburu honi esker eza gutzen zutela gehienbat Salustio, maisutasuna lan honetan garatu zuelako seinale.

Appendix Sallustiana

Historiae liburuko hitzaldi eta gutunak aztertzean aipatu dugun IX. mendeko *Vaticanus lat.* 3864 kodizean beste bi gutun datoz ondoren, *Epistulae ad Caesarem senem de re publica* izenarekin.⁵⁸ Ez dute egile izenik eta aintzinateko idazleek ez dituzte aipatu, ez eurak eurenez ez Salustioren izenarekin lotuta. Baina kodize honetako testuak zabaldu zirenean Salustioren egiletasuna ere hedatu zen eurekin, Errenazimenduan lehenengo zalantzak agertu ziren arte. Gero, XX. mende hasieran, asko ugalduta dira Salustioren aitatasuna defenditu dutenak, lehen mende erdian gehiengo izateraino.

(58) Gogoan izan behar da haatik eskuizkribu horretan ez dela dena Salustiorena, Zesarren eta Plinio Gaztearen lanak ere badaude eta.

Ad Caesarem senem de re publica izenak berak adierazten du gardentasunez gutun bien edukia. Lehenengo eskutitzean, Zesarren ekintzak goraiatu eta zoriari bidea norberak erakutsi behar diola gogorarazi ondoren, gerran jokabide bikaina izaten asmatu duen Zesarri bake garaian etorkizuna jorratu behar duela garaile gisa esaten dio egileak. Herriaren eta bereziki gazteriaren irriki, laxotasun eta diruzalekeriaren joerak arduratzen du gehienbat, eta horiei, diruaren indarrari batik bat, hesia jartzeko aholkatzen dio, momentuko atseginak, agian garaipenaren beroak eraginda, betiko kaltea ekar ez dezan. Gainera, Italiaren eta probintzien segurtasuna ziurtatu behar du eta soldadutzan zuzengabekeria eta ezberdintasunik ez egoteko kontu hartu.

Eskuizkribuan datorren bigarren eskutitza ere, lehenengo bezala, *suasoriae* delako generokoa da. Atzera begiratura, Ponpeio eta Silak ez dutela euren boterea onerako erabiltzen jakin erakusten du egileak, eta patrizioen eta plebearen historia borroka gisa aurkezten du. Orain Zesarri dagokio garai-penean aberria sendotzea eta horretarako proposamen batzuk egingo dizkio berak. Plebeari dagokionean, hiritar berriek eraberritu behar dute herriaren indarra, baina batez ere ohi-tura onak zaindu eta diruaren garrantzia kendu edo gutxitzea da beharrezkoena. Senatuari dagokionean, noble gutxi batzuek denengan duten indar eta boterea da arazoa eta hori ekidin eta askatasuna bultzatzeko neurri bi proposatzen ditu, hots, senadore kopurua handitzea eta botoa isilekoa izatea.

Denek onartzen dute bigarren gutunean aipatzen den egoera lehenengoari dagokiona baino zaharragoa dela, baina ez dago erabateko adostasunik datei dagokienean. Edozelan ere, 51-49 tartean kokatu ohi da bigarren suasoriak aurkezten duen testuingurua eta aurrenekoarena 46an gehienen ara-

bera, 48an Syme-ren iritziz (Syme 1964: 318-319). Egilea Salustio dela uste dutenek gertakizunetatik hurbil jartzen dute idazketa data ere; egilea beste norbait dela uste dutenen artean, garai hartako lana dela uste dutenak daude, baina baita beranduago egindako ariketa erretoriko gisa ikusten dutenak ere.

Salustioren egiletasuna defenditzen dutenek eta aurka dituenek denek eskaintzen dituzte mota bereko argumentuak, era batera edo bestera erabili eta aurkeztuta.⁵⁹

Gutun hauek Salustiorenak lirateke, argumentu historikoaren arabera eta arrazoibidea apur bat sinplifikatuz, une jakin bateko egoera historiko eta politikoari erantzuteko idatzita daudelako eta une horretan Salustiok baino beste inork ezin zezakeelako bere monografietan ere agertzen dituen ideia politiko eta filosofikoekin bat datorren horrelako panfleto bat idatz; Salustioren gaztetasunak, eskarmentu gabetasunak eta are idazketa bizkortasunak azalduko lituzke idazkiaren ezegokitasunak. Hizkuntza eta estiloari dagokionean, erabat salustianoa denez, errazago da hauentzat Salustio beraren eskua, idazmoldea eta are izaera ikustea antzeratze bikain bat onartzea baino. Sinatu gabe idatzi eta zabalduak izan zirelako ulertuko litzateke Salustio halakoak esaten ausartzea eta idazleek bere lan bezala ez aipatzea.

Beste aldean, Salustioren egiletasuna onartzen ez dutenek, anakronismoak ikusten dituzte gutunetan agertzen den terminologia politikoan eta ez zaizkie sinesgarri iruditzen ez garai hartan ez senadore baten buruan eta are gutxiago

(59) Syme-ren laneko bigarren eraskinean [1964: 313-351] alde bietako argumentuak laburbiltzen dira hemen baino zehatzago eta argumentu bakoitzari dagokion bibliografi aipamenekin, bere jarrera uneoro garbi azaldu arren Salustioren egiletasunaren aurka.

idazteko eztenean eskutizetan agertzen diren jarrera eta proposamenak. Estiloari dagokionean, sasisalustiotarra deritzate, salustianoegia Salustiok berak idatzia izateko; Amiternoko idazlearen esaldi, esamolde eta hitzak errepikatu eta aldatuta aurkitzen dituzte, baina gehiegikeriaz erabilia eta Salustio-
ren hizkuntzaren bilakaera eta garapena kontuan hartu gabe antzeratuta. Nahiko dira lehenengoa Salustioarena dela defenditu arren bigarren gutunaren estiloan soilik itxurazko salustiotartasun hau onartzen dutenak. Honi guztiari eransten badiogu aintzinako idazleek inondik ere ez dituztela lan hauek Salustioaren lanen artean aipatzen, eta gureganaino ekarri dituen kodizeak berak ere ez duela, bildumako gainontzeko lanekin egiten duen moduan, idazle klasiko baten aitatasuna aitortzen, ez zaigu gaitz egiten Salustioarenak barrik beranduago egindako lanak direla onartzea, ziurrenik eskolako ariketa erretorikoak.

Gorago esan dugu zerbait, Salustioaren bizitzaren berri ematen diguten lanak aztertzean, [*C. Sallusti Crispi*] In *M. Tullium Ciceronem oratio* erausia eta honi egindako erantzuna izango litzatekeen [*M. Tulli Ciceronis*] In *C. Sallustium Crispum oratio* delakoari buruz. X. mendean hasten den tradizioak Salustioaren eta Zizeronen lanekin lotu ditu biak eta maiz aurkitzen dira eskuizkribuetan baten nahiz bestearen lanen jarraian. Guk *oratio* hautatu dugun lekuan *invectiva* edo *controversia*, eta bigarrenaren kasuan *responsio* izenak ere agertzen dira kodize batzuetako izenburuetan, lan bien izaera gardenago azalduz hasieratik.

Erromako herria ustelkerian erorita dagoela eta senatuak gaiztakerietarako bidea eskaintzen duela salatuz hasten da senatu aurrean Zizeronen aurka egindako hitzaldi edo erausia. Alegiazko hizlariak ez du uste Zizeron bezalako nobleberrri bat legeen, zuzentasunaren eta aberriaren defendatzaile

izan daitekeenik, hau bezala izaera aldakor eta maltzurrekoa dena eta bizitza pribatuan Zizeron bezala badaezpadakoa dena ezin baita agintari ona izan. Horregatik Zizeron kontsula izan zen garaian aberriari gertaturiko kalteak ez ziratekeela jazoko agintea beste batek izan balu, uste du hitzaldia idatzi duenak.

Hitzaldi hau inoiz senatuan egin bazen, 54. urtean entzun zutela senadoreek, eta inola ere ez urte hori baino lehenago behintzat, uste dute ia ikerlari guztiek. Baina hedatuagoa da benetako hitzaldi bat barik alegiazkoa delako ustea, batzuen iritziz Salustiok (edo beste norbaitek) idatzi eta Zizeroni kalte egiteko izenik gabe zabaldutakoa eta beste askoren ustez beranduago eginiko erretorika ariketa. Zesarri zuzenduriko gutunen egiletasuna aztertzean ikusten diren arrazoibideak eurak errepikatzen dira kasu honetan ere, agian oraingoan Salustioren aitatasunaren aldekoek argumentu estilistikoa baino gehiago erabilia historikoa, estiloak ez baitu erausi honetan hainbesteko usain salustiotarra. Baina tradizioan Salustioren lanekin eskutitzak baino lotuago agertu arren, nahiko dira haiek Salustioren idazlan bezala irakurtzen dituztenak eta hauek ez, doi-doi aurki daiteke inor ordea gutunak beste norbaitek idatziak direla pentsatu eta erasia-
rentzat Salustioren egiletasuna defendituko duenik.

Salustioren aurkako hitzaldia Amiternoko idazlearen lanekin argitaratzen bada, gorago ikusi den bezala idazle honen bizitza eta ingurune historikoa ezagutzeko iturri garrantzitsua delako da. Esan dugu beranduago idatzirikoa dela eta idatzi zuen zizeronzalearen izenik aipatzekotan Diomedesek bere gramatikan (*Gramm.*, I, 387, 6) aipatzen duen Didio ekarri beharko genuke lerro hauetara. Estiloari dago-kionean Zizeronen aurkako erausiaren zordun da, geldo eta apalagoa bada ere.

III

SALUSTIOREN IDAZTANKERA

Hitz lauz Zizeronen idaztankaera nagusi zen garaian, Salustiok berak bere bidea jorratu nahian, bere garaikideek miresten ez zuten Tuzidedes greziarraren esaldiak itzuli eta egokitu zituen bere lanetarako. Tuzididesen tonua nahi zuen bere lanetan eta Erroman parekoak bilatu guran soilik Katonen zahar kutsuko estiloa aurkitu zuen eredugarri. Tuzididesen eta Katon Zaharraren idatzietan aurkituko zuen Salustiok bere bidea egiteko behar zituen urruneko eta hurbileko ereduak.

Hortik abiatuta, bere-berea zen hizkera neurriko baina indartsua landu zuen lehenengo monografiatik bertatik hasita, hurrengo lanetan aurrenekoan agertzen diren ezaugarriak, etengabeko garapenean, areagotuz. Antzinateko idazleek ikusi eta aipatu zituzten dagoeneko ezaugarri hauek.

K. a. I. mendean dagoeneko aipatua zen, Kintilianoren hitzek jakinarazten digutenetik, bere idazkeraren *brevitas* delakoa, hala adierazpenaren nola adierazitakoaren bizkortasun eta trinkotasuna alegia. Irakurle astitsu eta ikasia behar duela idaztankaera bikain horrek ohartarazten du, zaila balitz bezala: «illa Sallustiana brevitatis, qua nihil apud aures vacuas atque eruditatis potest esse perfectius» (*Inst.*, X, 1, 32). Baina goraiipamen gisa ulertu behar da gero ere ezartzen dion epite-

toarengatik Salustioaren estiloaren *immortalis velocitas* (*Inst.*, X, 1, 102) hura.

Zehatzagoa da Seneka esaldien mozketak, itxaroten dena baino lehenago agertzen diren hitzak eta estilo trinko eta bizkor horrek lanari eskaintzen dion iluntasun atsegingarria aipatzean: «sic Sallustio vigente amputatae sententiae et verba ante exspectatum cadentia et obscura brevitatis fuere pro cultu» (*Epist.*, CXIV, 17). Zizeronek bultzaturiko idazkera orekatuaren aurkako erantzuna deskribitu baino ez du egiten Senekak Salustioaren idatzien ezaugarriak zehaztean eta idazlearen hausnarketa eta lanaren ondorioz lorturiko *inconcinntas* apaingarriaren berri ematen du, bai lexikoari dagokionean bai sintaxiaren arloan *variatio* ugari tartekatuz bilatzen duen aniztasun itxurarena.

«Prediku serio eta zorrotz ezaguneko Gaio Salustio idazlea» (*Gell.*, XVII, 18)⁶⁰ aipatzen du Aulo Geliok mende bat beranduago eta horixe zela pentsatu behar dugu Amiternoko idazleak orduan eskaintzen zuen irudia. Estimatu horren ondoan, Salustioaren lanari darion zahar usainarekin, arkaikotasun bilatuarekin batera aipatu behar den berritze lanaz (*novandi studium*) ere ohartu zen Geliok (IV, 15). Izan ere Salustioaren lanean batera aurkitzen dira latinaren altxor zaharretik berreskuraturiko hitz eta erabilera sintaktiko arkaikoak eta idazleak berak sorturiko berba eta joskerak, are grekotik maileguan harturikoak.

Gainera ikusi dugu bere idazlanak banan-banan aztertzean denetan aurkitzen diren elementuak daudela: hitzaurre-gisako luzeak, pertsonaien ahoan jarritako hitzaldi eta gutunak, batzuetan are luzeegiak, pertsonaien egiantz psiko-

(60) «C. Sallustium scriptorem seriae illius et severae orationis».

SALUSTIOREN IDAZTANKERA

logiko handiko erretratuak, *excursus* moduko deskripzio koloretsu eta askotan dramatismoz josiak... Guztiarekin idazmolde berri bat borobiltzen jakin zuen, geroko historialariek ere estimatu, goraipatu eta batzuetan, handienen artean Tazitok adibidez, imitatu ere egin zutena. *Historiae* direlakoak galduta, ez daukagu bere lan osoarekin jadesi zuen muga epaitzerik, baina bideko saioak ikusita esan genezake bere azken urteetako astialdi on hura ez zuela nagikerian eta alferkerian agortu, baizik eta etekin handiagoa ekarri ziola bere herriari Salustioren astialdiak bere politikagintzako ekinaldiek baino.

IV

MONOGRAFIETAKO TESTUA

Ertaroko IX. mendez geroztiko eskuizkribuak eta beste autore batzuen aipamenak, tradizio zuzena eta zeharkakoa beste era batera esanda, biak dira ezinbesteko Salustioren monografieta-ko testura hurbiltzeko. Papiroetan geratu diren lehenagoko testuak ordea, III. mendetik V.era bitartekoak denak, urri dira eta ez dute ia laguntzen beste aipatu bideeta-rik ezagutzen ditugun irakurketak hobetzen.

Ondoko hauek dira Salustioren bi monografieta-ko zatiren bat dakarten papiroak:⁶¹

1. *Londiniensis P. Ant. 154* (CLA Suppl., 1712).

IV./ V. mendekoa. Antinoopolisekoa.

Nongo zatiak: *Iug.*, XCIII.

2. *Berolinensis Lat. 4° 914* (CLA VIII, 1054).

IV. mendekoa. Oxyrrhincosekoa.

Nongo zatiak: *Iug.*, XLIII, 3; XLIV, 4; XLIX, 5-6; I, 3-4.

3. *Mancuniensis Rylands I, 42* (CLA II, 23).

(61) Gehienbat Reynoldsek Salustioren Oxfordeko edizioaren hitzaurrean [1991: XV] eskaintzen dituen datuekin osatua da papiro zerrenda. Lehenengoa, 1962.ean argitaratua, ez da agertzen Kurfess [1976: XIII], Ernout [1941: 42-44] eta Pabón [1956: LXII-LXIII] edizioegileen aipamenetan; gainerakoan soilik datazio ezberdintasun txikiren bat dago Reynolds eta hauen artean eta Oxfordeko edizioan proposatzen direnak onartu ditugu guk hemen, gero kodizeei dagokienean bezala.

III. mendekoa.

Nongo zatiak: *Iug.*, XXXI, 7. Laburregia lagungarri izateko.

4. *Florentina Laur. P.S.I. I, 110 (CLA III, 288).*

V. mendekoa.

Nongo zatiak: *Catil.*, X, 4-5; XI, 6-7.

5. *Oxoniensis Bodl. Lat. class. e. 20 (P) (CLA II, 246).*

V. mendekoa. Oxyrrhincosekoa.

Nongo zatiak: *Catil.*, VI, 1-7.

Ertaroko eskuizkribuen artean bi edo hiru talde bereizi ohi dira *Bellum Iugurthinum* liburuko CIII, 2 - CXII, 3 zatia-
rekin eskuizkribu bakoitzean gertatzen denaren arabera. Eskuizkribu batzuek osorik eskaintzen dute Jugurtaren aurkako gerra azaltzen duen monografia, liburu dena esku batek idatzita: *integri* edo osoak esaten zaie eskuizkribu hauei. Beste kodize batzuetan, ordea, hutsarte edo *lacuna* bat dago zati horretan, *ex omni copia necessariorum* (*Iug.*, CIII, 2) sintagmarekin amaitu eta jauzi bat egiten baitute *pacem vellet* (*Iug.*, CXII, 3) hitzekin ekiteko berriro kontakizunari, eta horrenbestez pentsatu behar dugu hutsarte hori zuen eskuizkribu arketipo baten zordun direla, nola edo hala, tartean kopia gehiago edo gutxiagorekin, *mutili* edo trenkatuak deitu ohi diren hauek guztiak. Azkenik, badira ez gutxi hutsarte hori bigarren esku batek idatzirik dutenak, hots, batzuek *suppleti* edo osatuak deitzen dituztenak; baina gehienek trenkatuekin batera sailkatzen dituzte jatorrian trenkatu bat kopiatu dutelako, gero *integer* batez baliatuz osatu arren bigarren eskuak. Izan liteke *integri* gisa ditugunen artean ere hasieran *mutilus* bat kopiatu dutenak izatea,⁶² baina gero ko-

(62) Reynoldsen arabera, baina Jordan, Schlee edo Ahlberg bezalako ikerlarien iritzia bereganatuz (cf. Reynolds 1991: VI-VII), bi multzo hauek ez lukete arketipo bana edukiko, biek bat bera baino. *Integri* direlakoan artean X. mendea baino lehenagoko kodizerik ez dagoenez, orduan osatu zela hutsartea pentsatu behar dugu.

piagile berak eskuizkribu oso baten laguntzaz bete badu hutsartea, eskuizkribu oso bezala hartuko dugu.

Orohar ikerlari guztiek hobesten dute eskuizkribu trenkatuek ordezkutzen duten tradizioa (Ω), kodize osoetakoak baino irakurketa zaharrago eta hobeak dituelakoan. *Mutili* hauen artean bi multzo bereizi ohi ditu testu kritikak, X eta Y arketipoaren oinordeko. X multzoko P eta A eskuizkribuak dira editoreek hoberentzat hartu eta edizioetako oinarriko testuan jarri ohi direnak. Hona hemen kodize trenkatu bakoitzaren ezaugarriak:

X taldea:

P *Parisinus Latinus* 16024.

IX. mendearen bigarren zatian Frantzian idatzia.

Pariseko Biblioteka Nazionalean dago orain, baina Sorbonako ondaretik etorri da hona (*Sorbon.* 500) eta lehenago Étienne Tabourot, Accordseko jaunaren (1549-1590) liburuaren artean egon zen.

Katilina eta Jugurtari dagozkien monografia biak daude orain eskuizkribuan (ff. 1^r-46^v), baina Maximo Biktorinoren *Ars Grammatica* ere bazegoen lehenago aurrean. IX. mendean bertan, lehen kopiagileak berak nahiz beste garai-kide batek Jugurtaren monografiako hutsartea bete nahian Bokoren hitzaldia (*Iug.*, CX) erantsi zuen *Vaticanus* 3864 (V) delakotik hartuta. Eskuizkribu honetatik hartu zituen orobat IX. mendean bigarren eskuak (P^2) hitzaldi eta gutu-netan egindako zuzenketak.

A *Parisinus Latinus* 16025.

IX. mendearen erdialdean edo hirugarren laurdenean Frantzian idatzia.

Aurrekoa bezala hau ere Pariseko Biblioteka Nazionalean dago Sorbonatik ekarrita (*Sorbon.* 1576).

Salustioaren bi monografiak ditu (ff. 2^r-47^r) eta bigarren esku batek (A^2) Σ familiako eskuizkriburen batetik harturi-

ko zuzenketak erantsi zizkion.

A eta P eskuizkribuek batera dituzten irakurketek bien arteko lotura erakusten dute eta Π letraz adierazi ohi da bateratasun hau.

B Basileensis AN. IV 11.

XI. mendean Hego Alemanian idatzia.

XV. mendean Johannes de Lapide humanistarena zen.

Katilina eta Jugurtari buruzko monografiak 1^f-71^v orrialdeetan ditu eta ondoren, P eskuizkribuan bezala, Bokoren hitzaldia erantsita.

C Parisinus Latinus 6085.

XI. mendeko lehen zatian Frantzian idatzi eta garai batean Fleuryko San Benitoren monasterioan gordea.

Hemen ere Bokoren hitzaldia dator (ff. 88^v-89^f) bi monografiaren ondoren, eskuizkribu trenkatuen hutsartea bete asmoz, eta gero, dena XI. mendeko hirugarren esku batek erantsita, Julio Exsuperantio (89^f-93^f) eta Publilio Syroren bildumaren (94^f-96^f) ostean, Bokoren hitzaldia kenduta hutsartea betetzeko falta zitzaion guztia (96^v-100^f).

Q Parisinus Latinus 5748.

X. mende amaierakoa, jatorri ezezagunekoa.

XI. mendeko eskuak bete du (ff. 62^f-63^v) *Iug.*, CIII, 2 - CXII, 3 zatiko hutsartea. Eskuizkribu honek aipatu B eta C kodizeekin dituen irakurketa amankomunak kontuan hartuta, hiruren bateratasunari Σ deitu ohi zaio.

Y taldea:

N Vaticanus Palatinus 889.

X. mendeko bigarren zatikoa. Lehenago bere jatorriarengatik *Nazarianus* esaten zitzaion eta horregatik dauka N sigla.

K Vaticanus Palatinus 887.

XI. mende hasierakoa, ziurrenik Alemanian idatzia.

1460. urtean honen jabe izan zen Mathias Kemnat humanistaren izenak eman dio sigla kodizeari.

Katilinen monografia osorik kopiatu ondoren, bigarren

MONOGAFIETAKO TESTUA

monografian *Iug.*, CII, 11 ataleko *beneficiis*] hitzeraino bakarrik iritsi zen lehen eskua eta XII. mendean kopiatu zen gainerakoa.

H *Berolinensis* (205) *Phillippsianus* 1902.

XI. mendean Hego Alemanian idatzia.

Salustioreen bi monografiak hartzen dituzten 94 orrietatik lehen 87etan ez dago arazorik, baina 87^v orrialdetik aurrera zetorrena ezabatuta dago, *Iug.*, CIII, 2 ataleko *copia necessari[orum]* hitzetatik aurrera, hots *mutili* deitzen diren eskuizkribuetako hutsartetik aurrera. 88^f orrialdean bigarren monografiako azken hitzak daude (*provincia decreta... in illa sita*) eta ondoren beste esku batek berriro idatzita dago hutsartetik hasi eta azkenerainoko testu osoa.

M *Monacensis* 4559.

XI. edo XII. mendekoa.

Esku berriagoak idatzi ditu trenkatuetako hutsartea eta baita *Iug.*, XXVIII, 1 (*pecunia*) ataletik XXXI, 12 (*sunt ii qui*) zatirainoko tartea ere.

T *Turicensis bibl. reip. C 143a.*

XI. mende amaierakoa.

Esku berriagoak bete du Jugurtaren monografiako hutsartea.

D *Parisinus* 10195.

X. mende amaierakoa, Echternach-eko (Treveris barrutia) abadiako bibliotekatik etorria eta ziurrenik han idatzia.

Glosa latindarren ondoan aleman zaharrean idatziak ere badira lerro artean.

F *Hauniensis Fabricianus* 25 2^o.

XI. mendeko bigarren zatian Frantziako iparraldean edo Belgikan idatzia.

Beranduagoko eskuek idatzi dute hutsartea hasten deneetik azkenerainokoa.

μ *Monacensis* 19472.⁶³

XI. mende amaierakoa.

(63) M ere erabili izan da kodize honen sigla bezala. Gero *Monacensis* 4559 eskuizkribuarentzat hartu zenez, Ernoutek alfabeto grekoko ordaina hautatu zuen

Eskuizkribu honen irakurketak askotan datoz bat *M*, *T*, *D* eta *F* kodizeekin eta bosten bateratasun horri Γ deitu zaio.

R Vaticanus 3325.

X. mende amaierakoa, Frantziako iparraldean idatzia.

XII. mendeko kopiagile batek bete du hutsarteari dago-kion zatia.

e Einsiedelensis.

XI. mendekoa.

Iug., LXXXV, 28 atalean moztuta geratzen da eta ezin da jakin beraz *mutili* ala *integri* direlakoan artean sartu beharko litzatekeen. Ziurrenik trenkatua zen zati hori galdu baino lehen ere, beste eskuizkribuekiko konparaketak erakutsi duenez.⁶⁴

Kodize osoak, *integri* deritzatenak, ugariago dira eta esan bezala berriagoak eta ez trenkatuak bezain fidagarriak. Dietsch ikerlariak eskaini zuen hauen zerrenda oso bat, baina Ahlbergen edizioaren ondoren bostera murriztuta geratu da erabili ohi direnen kopurua. Ondoko hauek dira Ernouten hautaketa jarraituz gure edizioan erabili diren kodize osoak:⁶⁵

l Leidensis Vossianus Latinus 71.

XI. mendekoa.

Soilik *Iug.*, CIX, 4 ataleko *interpretes adhibentur praeterea* hitzetaraino iristen da.

s Lipsiensis bibl. sen. Rep. I, 2^o fol.4.

XI. mendean Alemanian idatzia.

honentzat. Pabónek, berriz, *G* sigla darabil, benetako kodize bati grekozko letra batekin ez deitzearren.

(64) Baina kontuan izan behar da ez dutela editore guztiek horrela ikusi eta Ahlbergen sailkapenari jarraituz *integri* direlakoan baterakotasuna aipatzen denean *D* siglarekin (*deteriores* hitzaren lehen letra erabiliz), *e* eskuizkribu hau ere sartu ohi dela horien artean.

(65) 1991-n Oxfordeko edizioa paratu duen Reynolds jauna Jugurtaren monografiako hutsartea betetzeko baino ez da baliatu hauetaz, gainerakoan aparatu kritikoaren irakurketa zaildu eta ordainean oso gutxitan eskaintzen dutela ezer berririk esanez (Reynolds 1991: XII-XIII).

n Parisinus Latinus 6086.

XI. mendean Frantzian idatzia.

Soilik *Iug.*, CVIII, 2 ataleko *consulto sese* hitzetaraino iristen da.

m Monacensis 14477.

XI. mendekoa.

Soilik *Iug.*, CVI, 1 ataleko *Volux adveniens* hitzetaraino iristen da.

π *Palatinus 883.*⁶⁶

XII. mendekoa.

a Avenicus 1212.

XI. mendekoa.

Catil., LII, 22 atalean hasten da.

l, s, n, m eta π eskuizkribu osoek denek batera dituzten irakurketak Δ letrarekin aipatu ohi dira eta osoek trenkatu guztiekin batera, hots Ω tradizioarekin batera dutenari Ω' sigla ezarri ohi zaio.

Eskuizkribuekin amaitzeko esan dezagun gorago *Historiae* eta Zesarri zuzenduriko gutunei dagokienean aipatu dugun Batikanoko hitzaldi eta gutun bilduma ere eskaini ohi dela, eskuizkribu honek bildu dituen Salustioaren zatiei dagozkion irakurketak kontuan hartu ahal izateko:

V *Vaticanus Latinus 3864.*

IX. mendaren hirugarren laurdenean Corveyko monastegian idatzia.

Zesarren Galietako gerra (ff. 1^r-74^r) eta Plinio Gaztearen lau gutun libururen (78^r-108^r) ondoren daude Salustioaren lanetatik harturiko zatiak (*Orationes et epistulae e Catilina Iugurtha Historiis excerptae* ff. 109^r-127^r) eta Zesarri zuzenduriko gutunak (127^r-133^r).

Zeharkako tradizioari dagokionean, hala gramatikari, nola historialari edo filosofoen aipamenak eta imitazioak

(66) Pabónen edizioan *p*, benetako eskuizkribu bat aipatzeko alfabeto grekoko letrarik ez erabiltzearen.

SARRERA

ugari diren arren, ezin da esan hauen aberastasuna tradizio zuzenaren lekukotasunari aurrea hartzeko bestekoa denik, gutxitan eskaintzen baitute eskuizkribuek eskaintzen ez duten ezer.⁶⁷ Lagungarri dira alabaina, aldaera jakin batzuk konfirmatzeko edota eskuizkribuen bidez ezagutzen ditugun irakurketen kronologiara zehatzago hurbiltzeko.

(67) Kasurik deigarriena *Catil.*, VI, 2 ataleko «ita brevi multitudo diversa atque vaga concordia civitas facta erat» perpausa da, eskuizkribuetan inon agertzen ez den arren San Agustinek (*Epist.*, CXXXVIII, 10) ezagutarazi eta papiroek (*Pap. Oxyrr.*, 884, 2) konfirmatzen dutena. Horrez gain, adibidez, *ac pernicioso* hitzak gehi ditzakegu *Iug.*, I, 5 atalean orobat San Agustinen (*Epist.*, CLXVI, 14) lekukotasunari esker, edo *atque optima* hitzak autore beraren aipamenaren bitartez (*Civ.*, II, 18, 19) *Catil.*, V, 9 ataleko testua osatuz, edota *mutatur* aldaera ere eskainienezake eskuizkribuetako *exortum* hitzaren ordez *Iug.*, LIII, 8 atalean, Priszianori (*Gramm.*, III, 196, 6) jarraituz.

V

GURE EDIZIO HAU

Liburuki honetan Salustio eta bere lan guztiei buruzko sarrera orokorra eskaintzen dugu *Jugurtaren aurkako gerra*-ren latin testua eta euskal itzulpenarekin, *Bibliotheca scriptorum classicorum Vasconica* bildumaren arauak eskatzen dutenez testua aparatu kritikoaz eta euskal itzulpena ohar lagungarriaz jantzita. Hurrengo liburuki batean argitaratuko dira Salustioaren gainerako lanak eta euren euskal itzulpena.

Orain arteko edizio nagusietan oinarritua da edizio hau eta aurreko editoreena da beraz eskuizkribu eta papiroen kolazio lana, baita zeharkako tradizioan aurkitzen diren lekukotasunen bilketa ere. Kurfess, Ernout, Pabón eta Reynoldsek paraturiko edizioak izan ditugu aurrean eta hauen aparatuek eskaintzen duten informazioaz baliatu gara, hala gure testuko irakurketak aukeratzeko nola geure aparatua osatzeko; erraz ikusiko du irakurleak haatik Ernouten irakurketekin etorri garela bat lekurik eztabaidagarrietasan. *Testimonia* ataleko aipamenak Kurfess eta Ernouten Salustioaren edizioetatik hartu ditugu eta hauetan aurki daitezke beraz eurek erabili dituzten autoreen edizioen zerrendak.⁶⁸

(68) *Thesaurus linguae Latinae* delakoan erabiltzen diren laburdurak dira guk atal honetan eta liburu osoan erabili ditugunak.

Gure testuaren oinarrian dagoen irizpideak, beraz, eskuizkribuen tradizioari ematen dio lehentasuna zeharkakoaren aurretik, nahiz eta hau ere lagungarri izan eta bere aparatuan bilduta eskaini testuaren azpi-azpian. Eskuizkribu trenkatuei, *mutili* direlakoei, onartu zaie fidagarritasunik handiena gorago azaldu diren arrazoiengatik eta *integri* direlakoan irakurketak testu osoan kontuan hartu eta aparatu kritikoa eskaini arren, *Iug.*, CIII, 2 - CXII, 3 atalen arteko hutsarte edo *lacuna* delakoan izan dira bereziki lagungarri. *Bellum Iugurthinum*-en testuan Berlineko papiroak dituen irakurketak ere baliagarri dira. Aparatu kritikoa aurkezpen positiboak eta negatiboak, era bietakoak aurkituko dira, beharren arabera, eta eskuizkribuekin batera editoreen izenak ere tartekatu ditugu batzuetan, irakurleak bere iritzia sortzean elementu lagungarri bat gehiago izan dezan.

Latin testuaren ortografiari dagokionean, *Bibliotheca scriptorum classicorum Vasconica* bildumaren aholkua jarraituz <v> erabili dugu, eta ez <u>, erdikontsonantea adierazteko, baina <i> eta ez <j>. Salustioaren testuak arazo berezi bat sortzen du ortografia arloan, hots, zahar kutsuko grafien erabilera: *vorto* / *verto*, *voster* / *vester*, *lubet* / *libet*, *maxumus* / *maximus*, *manifestus* / *manifestus*, *gerundus* / *gerendus* bezalako bikoteetan, lehena aukeratu dugu guk, zahar kutsua mantentzeko; *aequos* / *aequus*, *ingenuos* / *ingenuus*, *quouis* / *cuius*, *quom* / *cum* bezalakoetan ordea bigarrena, irakurketa bereziki ikasleentzat gaitzegi ez egiteko. *conrumpere* / *corrumpere*, *subpllico* / *suppllico*, *conmeatus* / *commeatus* bezalako grafia etimologikoen kasuan, latin idatziaren historia osoan izan direla aldaketak eta zalantzak jakinik, ez dugu sistematikoki forma etimologikoa berreraiki, zahar kolorea eman nahian Salustio bera joango zatekeena baino hurrunago ez joatearren.

Itzulpenari dagokionean, ez dugu ezagutzen Salustiorenen *Jugurtaren aurkako gerra*-ren beste euskal itzulpenik. Ezaguna da Juan Antonio Mogelen *Versiones bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores autores latinos. O demostración práctica de la pureza, fecundidad, y eloqüencias del idioma bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños, y contra algunos bascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio*.⁶⁹ Izen osoa aipatu nahi izan dugu lanaren nolakotasuna eta helburua argi agertzen dituelako: klasikoe-tan klasikoek euskaraz ematea, euskara ere ez dela eginkizun horretarako beste hizkuntzak baino eskasagoa erakusteko. Zizeron, Kinto Kurzio, Libio, Tazito eta Salustiorenen zenbait lanen euskal bertsiok iragartzen ditu eta horrela irakurri behar dira, gehiago bertsiok legez itzulpen zehatz gisa baino. Salustiori dagokiona *Catil.*, LVIII atalean agertzen den hitzaldiaren parafasia da, Katilinak bere soldaduen aurrean egindakoarena alegia. Jugurtaren monografiaren euskal itzulpenik izan ez badugu ere, oso lagungarri izan zaizkigu jatorriko latin testuko alderik nahasienetan interpretazio desberdinak ikusteko J. M. Pabónen gaztelaniazkoa, A. Ernouten frantsesezkoa, Frassinetti & Di Salvo-ren italianozkoa eta J. C. Rolferen ingelesezkoa.

Izen berezien transkripzioari dagokionean, oraindik euskaraz tradizio sendorik ez dagoenez, itzultzailearen ardurapekoa da hautaketa. Ipar Euskal Herriko idazleen tradizioak ere halakoak erabili dituela kontuan izanda,⁷⁰ egoki iruditu zaigu pertsona-izenen bai forma bai grafia gaztelania-

(69) Tolosa, 1802. Gero 1880an argitara eman zuen *Peru Abarca* are ezagunagoan ere eman zituen Mogeek lan hauek eraskin gisa eta gipuzkeratik bizkaierara aldatuta.

(70) Axularrek *Ovidio* idatzi zuen adibidez, Pouvreaux *Horazio*, Etxeberri Sarakoak *Virgilio*, Mirandek *Egipto*.

SARRERA

ren bitartez ikasi ditugun formatatik egokitzea euskarara, baina jarrera kontserbadoreagoa izan dugu leku izenekin, bereziki arrotzen gertatzen zaizkigunekin.

Hutsak neureak dira denak, merituak askorenak.⁷¹

Gidor Bilbao Telletxea.
Bermeo, 1994.eko azaroa.

(71) Arabako Foru Diputazioa eta EHU-ko Arabako Errektoreordetzaren dirulaguntza hartu nuen 1991. urtean *Bellum Iugurthinum* euskaratzeko. EHU-k babes-turiko Ikerketa Proiektu bati esker lortu ahal izan dira sarrera gisako hau eta edizioa paratzeko behar izan diren liburu asko. Iñigo Ruiz Arzalluz lankide eta adiskideak lan osoa irakurri du eta bere uneoroko aholku eta ohar zorrotzik gabe ugariago izango ziratekeen lan honetako hutsak; entzun ez dizkiodan batzuk entzun banitu asko hobea izango zatekeen lana. Joakin Gorrotxategi irakasleak ikaslea abaildu gabe akuilatzen jakin du. Moldiztegiari zor ohi zaiona baino asko gehiago zor diet Bizker inprimategiko langileei: lankide oso izan ditut denbora luzean, eskubidea zutena baino gutxiago kexatuta. *Bibliotheca scriptorum classicorum Vasconica* babesten duten Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuko arduradunek eskatu beharko litzaiekeena baino eroapen eta ulermen handiagoz jokatu dute itzultzaile eta edizio paratzailearekin; orobat, euren mailan, lagunek eta etxeok.

SIGLA

Codices mutili

- P *Parisinus Latinus* 16024
A *Parisinus Latinus* 16025
B *Basileensis* AN. IV 11
C *Parisinus Latinus* 6085
Q *Parisinus Latinus* 5748
N *Vaticanus Palatinus* 889
K *Vaticanus Palatinus* 887
H *Berolinensis* (205) *Phillippsianus* 1902
M *Monacensis* 4559
T *Turicensis bibl. reip.* C 143a
D *Parisinus* 10195
F *Hauniensis Fabricianus* 25 2°
μ *Monacensis* 19472
R *Vaticanus* 3325
e *Einsiedelensis*

Codices integri

- l *Leidensis Vossianus Latinus* 71
s *Lipsiensis bibl. sen. Rep.* I, 2° fol. 4
n *Parisinus Latinus* 6086
m *Monacensis* 14477
π *Palatinus* 883
a *Avenicus* 1212

Florilegium Vaticanum

V *Vaticanus Latinus* 3864

Sigla consensuum

Ω' consensus codicum mutilorum et integrorum

Δ consensus integrorum

Ω consensus mutilorum

X consensus *PACBQ*

Π consensus *PA*

Σ consensus *CBQ*

Y consensus *NKHMTDFμ(e)*

Γ consensus *MTDFμ*

Papyrus

Frg. Berol. *Berolinensis lat.* 4° 914

EDITORES BELLI IUGURTHINI

- Alhberg, A. W., 1915, *C. Sallusti Crispi Bellum Iugurthinum*, Göteborg-Leipzig.
- Ahlberg, A. W., 1919, *C. Sallusti Crispi Catilina, Iugurtha, Orationes et Epistulae excerptae de Historiis*, Leipzig.
- Carrio, L., 1573, 1580, Anberes.
- Ciacconius, P., 1594, *C. Sallusti Crispi omnia quae exstant*, Leiden.
- Colerus, C., 1599, Nurenberg.
- Constans, L., 1881¹ [1893²], Paris.
- Dietsch, R., 1859, *Gai Sallusti Crispi quae supersunt*, Leipzig.
- Ernout, A., 1941 [=1989], Salluste, *Catilina. Jugurtha. Fragments des Histoires*, Paris.
- Eussner, A., 1887, Leipzig.
- Fabri, E. W., 1845, *C. Sallusti Crispi opera*, Nurenberg.
- Frassinetti, P., Di Salvo, L., 1991, Caio Sallustio Crispo, *Opere*, Turin.
- Glareanus, H., 1538, Basilea.
- Gruterus, J., 1607, Frankfurt.
- Jordan, H., 1887 [1866¹, 1876²], *C. Sallusti Crispi Catilina, Iugurtha, Historiarum reliquiae codicibus servatae*, Berlin.
- Jacobs-Wirz, 1922, *C. Sallusti Crispi de bello Iugurthino liber*, Berlin.
- Kappes, K., 1885, Paderborn-Munich.
- Kritzius, F., 1828-1853, *C. Sallusti Crispi opera quae supersunt*, Leipzig.
- Kurfess, A., 1957³, *C. Sallustius Crispus, Catilina. Iugurtha. Fragmenta ampliora*, Leipzig.
- Linkerus, G., 1855, 1864, Viena.
- Ornstein, B., 1924, Salluste, *Conjuration de Catilina. Guerre de Jugurtha* [itz. J. Roman], Paris.

SARRERA

- Pabón, J. M., 1956, [1991³], Salustio, *Guerra de Jugurta*, Madril.
Prammer, J., 1886, Viena.
Reynolds, L. D., 1991, *C. Sallusti Crispi Catilina. Iugurtha. Historiarum fragmenta selecta. Appendix Sallustiana*, Oxford.
Rolfe, J. C., 1921 [=1985], *Sallust*, Cambridge, Massachusetts.
Schmalz, J. H., 1883 [1920¹⁰], Sallust, *De bello Jugurthino liber*, Gotha.
Thomas, P., 1877¹ [1886²], *De bello Iugurthino liber*, Berg.
Wirz, W., cf. Jacobs-Wirz.

BIBLIOGRAFIA AUKERATUA⁷²

- Ahlberg, A. W., 1911, *Prolegomena in Sallustium*, Gotenburg.
Aili, H., 1979, *The prose rhythm of Sallust and Livy*, Estokolmo.
Bennet, A. W., 1970, *Index verborum Sallustianus*, Hildesheim.
Berthier, A., Juillet, J., Charlier, R., 1949, *Le «Bellum Iugurthinum» de Salluste et le problème de Cirta*, Constantine.
Bolaffi, E., 1949, *Sallustio e la sua fortuna nei secoli*, Erroma.
Büchner, K., 1960, *Sallust*, Heidelberg.
Ciruelo, J. I., 1973, *Salustio. Política e historiografía*, Bartzelona.
Earl, D. C., 1963, *The political thought of Sallust*, Cambridge.
Fighiera, S. L., 1896, *La lingua e la grammatica di C. Crispo Sallustio*, Savona.
Funaioli, G., 1920, s. v. «C. Sallustius Crispus», *RE*, 1914 hh.
Gaichas, L. E., 1972, *Concept of «libertas» in Sallust*, Ohio.
Giancotti, F., 1971, *Strutture delle monografie di Sallustio e di Tacito*, Messina-Florentzia.
Koestermann, E., 1971, *Bellum Iugurthinum*, Heidelberg.
Kunze, A., 1892-8, *Sallustiana*, I-III, Leipzig.
La Penna, A., *Sallustio e la rivoluzione romana*, Milan.
Latte, K., 1935, *Sallust*, Leipzig-Berlin.
Lauckner, C., 1911, *Die künstlerischen und politischen Ziele der Monographie Sallusts über den Jugurthinischen Krieg*, Leipzig.

(72) Salustioaren *Bellum Iugurthinum*-i dagokio bibliografia hau; ez ditugu hemen sartu artikulu puntualak ez bere gainontzeko lanei buruzko monografiak. Zerrenda zehatzagoa ikusteko, cf. Leeman, A. D., 1965, *A systematical bibliography of Sallust (1879-1964)*, Leiden. Orobat, berriagoa, Becker, C., 1973, «Sallust», *ANRW*, I, 3, 720-754. Ez ditugu hemen errepikatuko editore zerrendan aipatuta dauden edizio elebidunetako itzulpenak (cf. Ernout, Rolfe, Pabón, Frassinetti & Di Salvo).

- Leeman, A. D., 1957, *Aufbau und Absicht von Sallusts «Bellum Jugurthinum»*, Amsterdam.
- Neumeister, C., 1986, «Neue Tendenzen und Ergebnisse der Sallustforschung (1961-1981)», *Gymnasium* 93, 51-68; 519.
- Paananen, U., 1972, *Sallust's politico-social terminology: its use and biographical significance*, Helsinki.
- Paladini, V., 1948, *Sallustio*, Milan-Messina.
- Paul, G. M., 1984, *A historical commentary on Sallust's «Bellum Jugurthinum»*, Liverpool.
- Perrochat, P., 1949, *Les modèles grecs de Salluste*, Paris.
- Pöschl, V., 1970, *Sallust*, Darmstadt.
- Rapsh, J., Najock, D., 1991, *Concordantia in Corpus Sallustianum*, Hildesheim.
- Scanlon, T.F., 1980, *The influence of Thucydides on Sallust*, Heidelberg.
- Steidle, W., 1958, *Sallusts historische Monographien*, Wiesbaden.
- Syme, R., 1964, *Sallust*, Berkeley-Los Angeles.
- Tiffou, E., 1974, *Essai sur la pensée morale de Salluste à la lumière de ses prologues*, Paris.
- Ullmann, R., 1927, *La technique des discours dans Salluste, Tite-Live et Tacite. La matière et la composition*, Oslo.
- Wistrand, E., 1968, *Sallust on judicial murders in Rome. A philological and historical study*, Estokolmo.
- Zimmermann, R., 1929, *Der Sallusttext im Altertum*, Munich.

LABURPENA

I-IV. Sarrera gisakoa. Salustioren gogoetak, giza-izaeraren handitasuna eta gizonaren ihardunbideen egoki nahiz ezegokitasuna. Kargu publikoak utzi eta ekintza gomutagarriak gogoratzeari ekiteko asmoa.

V. Jugurtaren aurkako gerraren interesa: berezkoa eta Erroman izan zuen eraginarengatikoa. Numidiako erresuma aurreko denboretan: Masinisa erregea, erromatarrekin adiskidetasunean elkartua, eta honen oinordekoak: Mizipsa eta honen bi semeak, Aderbal eta Hienpsal, gehi bere ardurapean hartu zuen loba, Jugurta. 202 K.a.

VI-VIII. Jugurtaren gaztaroa eta izaera. Mizipsaren lehen beldu-rrak eta Jugurtaren lehen urratsak.

IX-X. Eszipionek Jugurtaren adorea goraiatzatzen dio Mizipsari eta honek oinordeko izendatzen du hilburukoan, Aderbal eta Hienpsalekin batera, bakerako eta anaitasunerako deia eginez. 118 K.a.

XI-XIII. Jugurta eta anaien arteko liskarrak eta norgehiagoka. Lehenbizi Hienpsal hilarazten du eta gero gerran hasten da Aderbalekin.

XIV-XVI. Erroman erabakitzen da Numidiaren etorkizuna. Aderbalen peredikua Erromako senatuaren aurrean, Jugurtaren mandatarien erantzuna eta azpijokoa, eta senatuaren erabakia: Numidiako zatirik aberatsena Jugurtarentzat. 116 K.a.

XVII-XIX. Afrikako geografia eta biztanleriari buruzko digresioa.

XX-XXVI. Eraso egiten dio Jugurtak Aderbali, honen lurretara sartuz eta Cirtaraino bultzatuz. Lehenengo ordezkaritza bidaltzen du Erromak bitartekaritza lanetarako. Hauek alde egitean setiatu egiten du Cirtan Jugurtak Aderbal eta mezu berri bat bidaltzen du honek Erromako senatura laguntza eske. Bigarren ordezkaritza doa Erromatik Afrikara baina alferrik. Errenditu egiten da Aderbal baina Jugurtak oinazetu eta hil egiten du. 113-111

XXVII-XXIX. Erroma eta Jugurtaren arteko gerraren hastapenak. Jugurtak hasieran lagun erromatarren azpijokoari esker zigorrik hartu ez bazuen ere, azkenean herriak bultzatuta probintzia erromatar izendatzen da Numidia. Kalpurnio kontsulak hartzen du honen ardura eta, 111 K.a.

Jugurtaren mandatari berriei kasurik egin gabe, ejerzituarekin sartzen da kontsul erromatarra Numidiara, zenbait garaipen lortuz. Baina numidiarraren urreak bereganatu egiten ditu Kalpurnio eta Eskauro, honen laguntzaile nagusia, bake itxurak eginez.

XXX-XXXIV. Erroman hau jakitean haserrea bizten da herri xehean, neurri baten Memio tribunoak zirikatuta. Jugurtari berari joanarazten diote Erromara, Eskauroren eta laguntzaile erromatarren bidegabekeriak argitzeko. Baina Bebio tribunoa erosten du eta Memioren galderei erantzun gabe geratzen da, herri batzar nagusiari iseka eginez.

XXXV. Numidiako erregetza beretzat eskatzen zuen Masinysaren iloba, Masiba, Erroman bertan hiltzeko agindua ematen du Jugurtak. Agerian geratzen da hilketa eta Italiatik alde egiteko agindua hartzen du.

XXXVI-XXXIX. Gerra berritzen da Numidian, oraingoan Albino kontsulak zuzenduta. Hau Erromara joatean Aulo anaia uzten du ejerzituaren nagusi bezala. Suthul hirian Jugurtari erasotzea otu eta buru gabe jokatuz garaipen iraingarria errazten dio Jugurtari. Numidia ez behartzen du honek. Izua eta goibeltasuna nagusitzen dira Erroman eta Albinok ezin du ezer egin Afrikan ejerzitu ustelduarekin.

110 K.a.

XL. Jugurtarekin hitzarmenetan aritu zirenen aurkako ikerketari ekiten zaio Erroman, plebeak bultzatuta, zorroztasunez eta bortxaz.

XLI-XLII. Erromako alderdiak eta alderdikeriei buruzko digresioa: borroka bortitzak.

XLIII-XLV. Metelok hartzen du Numidiako kontsulgoa. Gizon zorrotza eta trebea aurkezten digu Salustiok. Nagikeriak eta gehiegikeriak ahulduta aurkitzen du ejerzitua Afrikan eta hura sendotzeari ekiten dio.

109 K.a.

XLVI-XLVII. Mandatariak bidaltzen dizkio Jugurtak errenditzeko baldintzak azalduz, tratu eske, baina Metelok ez du halakorik onartzen eta luzamenduak baino ez ditu Jugurtarentzat, bere ejerzituarekin aurreraka doan bitartean Numidian barrena. Gudari-talde bat ezartzen du Vagako merkatal hirian.

XLVIII-LIII. Armekin borrokatzea baino ez zaiola geratzen ikusita, Muthul ibaitik hurbileko mendiska batetik egiten du eraso Jugurtak. Erromatarrek ateratzen dira garaile lautadako borrokaldian.

LIV-LV. Gudari berriak biltzen ditu Jugurtak eta Metelok ejerzitua barreiatuta Numidiako lur eta hiririk aberatsenak hondatu eta harrapakinak biltzea erabakitzen du. Aukeraturiko zaldizkoekin harra-patzen du bat-batean errege numidiarrak erromatar talde bat. Bi zati-

tan antolatzen du orduan Metelok ejerzitua, lurak suarekin hondatuz. Jugurtak ibilaldiko atzeko gudariak zirikatzen ditu behin eta berriro. Bitartean berriro dator poza Erromara.

LVI-LX. Zama setiatzea erabakitzen du Metelok. Behin eta berriro saiatu arren Jugurtak ezin du setioa ekidin, baina ondo eusten diote numidiarrek erasoari. Luze doa borroka, aldiberean Zaman eta erromatar kanpamenduan. 108 K.a.

LXI-LXII. Setioa utzi eta negugudaltegietara doa Metelo bere gudariekin. Bomilkar Jugurtaren adiskidea limurtzen du hau errenditzera bultzatzeko baina atzez egiten du erregeak azken orduan eta berriro ekiten dio gerrari. Erromako senatuak kontsulorde izendatzen du Metelo, bere kontsulgo urtea burutu ondoren.

LXIII-LXV. Gizon handi bezala aurkezten du Salustiok Mario. Kontsulgorako lehian hasten da hau, baina Metelok ez du hori begi onez ikustep. Bai Afrikan eta bai Erroman Meteloren aurkako iritzia sorrarazten saiatzen da orduan Mario.

LXVI-LXIX. Jugurtak gerrari eusten dio berriro. Hirian ezarririk zegoen erromatar babestaldean ezerezean uzten dute vagatarrek, errege numidiarren eskariz. Metelok mendeku hartzen du hiria hartu eta hondatuz.

LXX-LXXII. Numidiarren gogoko eta Jugurtaren uste osoko guda buruorde zen Nabdalsak eta Bomilkarrek errege numidiarren aurka prestaturiko azpikeria agerian geratzen da. Bomilkar hiltzeko agindua ematen du baina geroztik ez du Jugurtak ez gau ez egun lasairik, beldurak hartuta.

LXXIII. Berriro gerra berri baterako prestaketan hasten da Metelo eta azkenik kontsulgorako bere burua aurkeztera Erromara joateko baimena ematen dio Mariori. Herriak ongi etorri beroa eskaintzen dio honi eta kontsulgoa jadesten du. Jugurtaren aurkako gerra beronek zuzentzea erabakitzen da gainera Erroman.

LXXIV. Asaldaturik dabil Jugurta eta Metelo bere ejerzituarekin agertzean ihesari ematen diote soldadu numidiarrek.

LXXV-LXXXVI. Thalako hirira doa Jugurta eta bere atzetik baita Metelo ere. Setiatu eta zailtasun guztiak gora behera hartu egiten du honek hiria berrogeigarren egunean, baina numidiar erregea ihes egin da dago eta honek eraman ez dituen altxorrei su ematen diete hiritarrek hiria galtzean.

LXXXVII-LXXXIX. Babestalde bat eskatzen diote Metelori Leptistik eta lau kohorte bidaltzen ditu. Hori dela eta, hauen erromatarreki-ko harremanez, hiriaren sorreraz eta kokapenez ari da Salustio digresio

bat eginez. Sirte Itsasgolkoei buruzko azalpenak ere ematen ditu eta bide batez Fileno anaien istorioa kontatzen du.

LXXX-LXXXII. Bere ejerzitua berriro ere antolatzea lortzen du Jugurtak getuliar basatiak eta Boko Mauritaniako erregea bereganatuz. Meteloren menpe bide zegoen Cirtara abiatzen dira denak batera borroka bila.

LXXXII-LXXXIII. Metelo ere badoa Cirtara baina zain geratzen da borrokatu gabe. Mariori eman zaiola Numidiako probintzia jakinarazten diote bitartean eta, minduta, mezulariak bidaltzen dizkio Bokori, luzamenduekin gerra geldirik edukitzen saiatuz.

LXXXIV-LXXXVI. Harrotuta dabil Mario Erroman, nobleteria irainduz eta gerra prestakizunak egiten. Hitzaldi luze bat egiten du herriaren batzar nagusian gogoak berotzearren eta nobleleriaren aurka ekiteko. Gizon berri ugariarekin iristen da Uticara eta Meteloren ejerzitua ere hemen hartzen du bere ardurapean.

107 K.a.

LXXXVII-LXXXVIII. Borrokaldi ugari baina garrantzi gabekoe-tara eramaten ditu Mariok bere soldaduak, ikasten eta adorea hartzen joan daitezten. Bokok mezulariak bidaltzen ditu adiskidetasuna eskatuz.

LXXXIX-XCI. Ekintza handi eta zailagoei ekiteko garaia dela erabakitzen du eta Capsako hirira zuzentzen da. Ekintza kontu handiz prestatu eta ezustean hartzen dute hiria. Hiritarrak errenditu arren, su eman eta hondatu egiten dute Capsa.

XCII-XCIV. Zoria ere bere alde du Mariok. Muluia ibaitik hurbil mendi arkaitsu baten zen gaztelu bat hartzen du, soldadu arrunt batek ezustean eskalatzeko bide bat aurkituta.

XCV-XCVI. Sila iristen da kanpamendura, kuestore bezala, zaldieriarekin. Gizon honen erretratua egiten du Salustiok. Marioren eta soldaduen maitasuna irabazten du.

106 K.a.

XCVII-XCIX. Berriro elkartzten dira Jugurta eta Boko, Mariori biek batera erasotzeko. Hau negugudaltegietarantz doala eraso eta, iluntasunaren laguntzaz, afrikarrak nagusitzen dira lehen oldarrean. Baina argia hastera doanean, erromatarrek uste gabeen esnatu eta sakabarnatzen dituzte Jugurta eta bere lagunak, ihes eraginez.

C-CI. Cirtarako bidean eraso berri bat jasaten du ejerzitua defentsarako arretaz antolatuta daraman Mariok. Baina oraingoa ere ondo erantzuteko gauza da.

CII-CIV. Bi mandatari eskatzen dizkio Bokok Mariori berarekin elkarriketatzeko. Sila da Bokoren aurrean hitz egingo duena. Bokok beste bost mandatari bidaltzen ditu Mariorengana. Sila da honen ordez

105 K.a.

LABURPENA, CV - CXIV

ongietorria ematen diena, eskuzabaltasunez hartuz. Mario itzultzean, hauetariko hiru mandatari Erromara joateko baimena hartzen dute. Barkamena eskaintzen dio senatuak Bokori, baina baldintza batzuekin.

CV-CVII. Berriro ere Sila berarekin eztabaidatzera joateko eskatzen du Bokok. Bidean arrisku eta gorabehera handiak pairatzen ditu honek, babesa emateko bidera irten zaion Bokoren semearekin, hots Boluxekin batera.

CVIII. Bake itxaropenarekin luzabideak ematen dizkie Bokok bai erromatarrei eta bai numidiarrei. Ez daki zein saldu, Jugurta erromatarrei ala Sila Jugurtari.

CIX-CXI. Boko eta Silaren arteko elkarrizketak. Jugurta erromatarrei saltzea aurkezten du Silak bake hitzarmenerako baldintza bezala. Onartu egiten du Bokok.

CXII-CXIII. Jugurtarekin ere tratubidean hasten da Boko eta baita biak ados jarri ere, baina azkenean Silaren esku jartzen du Jugurta, horretarako zelataldia prestatuak. Honek Mariorengana darama.

CXIV. Izaturik dago Italia galiarren indarrarekin, baina Jugurtaren aurkako gerra bukatu delako berri izatean berriro izendatzen dute Mario kontsul eta Galiako probintzia ematen diote.

104 K.a.

GAIO SALUSTIO KRISPO
JUGURTAREN AURKAKO GERRA

I. 1. Falso queritur de natura sua genus humanum, quod imbecilla atque aevi brevis forte potius quam virtute regatur. 2. Nam contra reputando neque maius aliud neque praestabilius invenias, magisque naturae industriam hominum quam vim aut tempus deesse. 3. Sed dux atque imperator vitae mortalium animus est. Qui ubi ad gloriam virtutis via grassatur, abunde pollens potensque et clarus est, neque fortuna eget, quippe probitatem, industriam, aliasque artis bonas neque dare neque eripere cuiquam potest. 4. Sin captus pravis cupidinibus ad inertiam et voluptates corporis pessumdatus est, perniciose lubidine paulisper usus, tempus, ingenium diffluxere, naturae infirmitas accusatur; suam quisque culpam auctores ad negotia transferunt. 5. Quod si hominibus bonarum rerum tanta cura esset quanto studio aliena ac nihil profutura multaue etiam periculosa <ac perniciose> petunt, neque regerentur magis quam regerent casus, et eo magnitudinis procederent ubi pro mortalibus gloria aeterni fierent.

I falso queritur *Sacerd. Gramm.*, VI, 442, 29 (om. nom. *Sall.*) | falso... natura *Vlt. Syll. Gramm.*, IV, 249, 1 (om. nom. *Sall.*); *Frg. Bob. Gramm.*, VII, 541, 23 | falso... sua *Quint. Inst.*, 9, 4, 77 | falso... humanum *Mar. Victorin. Gramm.*, VI, 126, 22; *Don. Ter. Andr.*, 3, 2, 25; *Cbar. Gramm.*, I, 199, 24; *Serv. Aen.*, 4, 415; 11, 581; *Aug. Nat. et Grat.*, 1, 1; *Cledon. Gramm.*, V, 64, 4; *Pomp. Gramm.*, V, 251, 7; *Aug. Gramm.*, V, 519, 11 || 6 qui... grassatur *Non.*, 316, 9 || 7 neque fortuna... potest *Don. Ter. Eun.*, 241 || 8 probitatem... bonas *Sacerd. Gramm.*, VI, 470, 14 (om. nom. *Sall.*) | probitatem... potest *Schol. Stat. Theb.*, 4, 150 || 9 sin... cupidinibus *Don. Ter. Eun.*, 74 || 14 studio... petunt *Aug. Epist.*, 153, 22 (om. nom. *Sall.*)

INSCRIPTIO: cf. *Catil.*, appar. crit. cb. I et LXI || 1 natura sua] natura *Prob.* || 4 invenias] e s.s. *H invenies AKn* || 8 quippe *PA²CBH¹TF^{uls}Ernout* quippe quae *QNK¹* (quae eras. *K^c*) *H²MDnme Don.* quippe qui *A¹* | aliasque] ceterasque *Sacerd.* | bonas] s.s. *T om. Fu Don. Asper* || 9 eripere cuiquam] accipere quisquam *Schol. Stat.* || 12 diffluxere] defluxere *KHTD* || 13 quisque *A¹QMD¹m¹* quique *ceit.* | auctores *BQH¹T¹* actores *ceit.* (ac mores *M*) | actores culpam *T²Fu* || 15 multaue] multoque *A²K²Q²* multoque vel multumque *codd. Aug.* | ac perniciose *Aug. om. ΩΔ Ahlberg Ernout*

I. 1. Arrazoirik gabe du gizakiak bere izaeraren arrenkura, ahula eta iraupen laburrekoa izanik zoriak gidatzen duela-koan norbere zintzotasunak baino gehiago¹. 2. Ondo hausnartuz gero aitzitik, ez dela ezer hura baino handiagorik
 5 ez ederragorik, eta gehiago duela izaera honek gizonaren arta gabezia, indar edo denbora gabezia baino aurkituko duzu. 3. Gogo da ordea giza bizitzaren gidari eta nagusi. Gogo honek, zintzotasunaren bidetik ospera abiatzen denean, eragin eta indar ugari eta baita omena ere izaten ditu eta ez zoriaren
 10 beharrik, zoriak ezin baitio inori eman ez kendu gizatasuna, lanzaletasuna ez beste antze ongarririk². 4. Baina gorputzaren nagikeria eta nahikeriara erortzen bada grina zabarren gatibu haragikeria galgarriaz une batez gozatu ondoren, utzi-keriarengatik indarrak, denbora eta ulerpidea xahutu dire-
 15 nean, izaeraren makaltasuna salatzen da: bizitzako arazoei egozten die bakoitzak berak egindakoaren errua. 5. Baina ez eurena ez mesedegarri ez dutena, eta are arriskugarri eta kaltegarri dutena, bilatzean izaten duten garraren besteko ardura izango balute gizonak ekintza onekiko, euren menpe
 20 izango lituzkete gertakizunak, hauen menpeko izan behar-reen, eta hainbesteko handitasunera helduko lirateke, non hilkor barik betierekoi egingo bailirateke ospez.

(1) Politikagintza utzi eta idazle eginkizunean iharduteko dituen arrazoiak agertu nahi ditu Salustiok, giza izaera eta giza ihardunbideari buruzko gogoeta honekin. Sarrera gisako honek (I-IV) badu parekoa *Katilinaren zimarkua*-n ere (*Catil.*, I-IV), bizitza hain laburra izateak sortzen duen larritasuna ordea, hemen aipatzen du lehenbizikoz.

(2) Zoria eta gizonaren ekinaren artean, lehenengoaren garrantzia azpimarratzen zuen Salustiok *Katilinaren zimarkua*-n (*Catil.*, VIII, 1), honako honetan bigarrenarena gailentzen den bitartean. Baina hemen ere agertzen du aurrerago zoria dela askotan gertakizunen gidari: ikus *Iug.*, XCIII, 1; XCIV, 6; CII, 9.

II. 1. Nam uti genus hominum conpositum ex corpore et anima est, ita res cunctae studiaque omnia nostra corporis alia, alia animi naturam secuntur. 2. Igitur praeclara facies, magnae divitiae, ad hoc vis corporis et alia omnia huiusmodi brevi dilabuntur; at ingeni egregia facinora sicuti anima immortalia sunt. 3. Postremo corporis et fortunae bonorum, ut initium, sic finis est, omniaque orta occidunt et aucta senescunt; animus incorruptus, aeternus, rector humani generis, agit atque habet cuncta neque ipsa habetur. 4. Quo magis pravitas eorum admiranda est qui, dediti corporis gaudiis, per luxum et ignaviam aetatem agunt, ceterum ingenium, quo neque amplius aliud in natura mortalium est, incultu atque socordia torpescere sinunt, cum praesertim tam multae variaequae sint artes animi quibus summa claritudo paratur. 15

III. 1. Verum ex eis magistratus et imperia, postremo omnis cura rerum publicarum minime mihi hac tempestate cupiunda videntur, quoniam neque virtuti honos datur neque illi, quibus per fraudem is fuit, tuti aut eo magis honesti sunt. 2. Nam vi quidem regere patriam aut parentes, 20

2 ceterum studia omnia nostra sicuti anima immortalia sunt *Serv. Aen.*, 9, 95 || 7 omniaque... senescunt *Comment. Lucan.*, 1, 31; *Hier. In Ezech. Praef.*; *Aug. Epist.*, 166, 14 || 13 cum... paratur *Non.*, 82, 2

1 hominum] humanum $B^1TF\mu me$ || 4 huiusmodi omnia QMn || 7 omniaque] omnia *Hier. Aug.* omnia quae *Philarg.* || 11 et ignaviam] atque ignaviam $NM\text{ sine}$ || 13 incultu] incultum $M^1\mu^1$ -ti TF || 14 artes sint animi *De sint animi artes n* || 19 is *Ernout* iis PN^1 (is N^2) D s.s. K^1lm (vel us) his A^1 ius (vel uis) $A^2CBQHMTDF\mu n$ *Ahlberg Ornstein* usus T^2s del. *Jacobs-Wirz* | tuti $NKMe$ uti A^1 uti tuti Pt^2 (uti ex utique) utique tuti $A^2BCQHTDF\mu^1nm$

II. 1. Zeren gizakia gorputzak eta arimak osatzen duten bezala, gure ekintza oro eta zaletasun guztiak ere batzuk gorputzaren izaerakoak dira eta besteak arimarenekoak³. 2. Honela itxura bikaina, aberastasun ugariak eta baita gorputzaren indarra zein halako beste doe guztiak ere, denbora laburrean desegiten dira; gogoak sortutako bikaintasunak aldiz hilezkor dira, arima bezala⁴. 3. Hau da, hasiera duten bezala bukaera ere badute gorputzaren eta zoriaren dohainek, jaiotzen diren guztiak hil egiten dira eta handitasunera heldu direnak zaharkitu; gogoak aldiz oso, betierekor eta giza-diaren zuzendari izanik, berak bideratzen eta menderatzen du oro, eta ezerk ez du bera menderatzen. 4. Eta horregatik txunditu behar gaitu gorputzaren nahikerien menpe gehiegikeria eta nagikerian bizitza ematen duten horien gaiztotasunak, gogoa aldiz, gizakion baitan dagoen gauzarik handi eta hobere-
na, axolagabekeriak eta ganoragabekeriak indargetzen uzten dutenen gaiztotasunak alegia, batez ere bikaintasun gorena dakarren hainbeste gogo ihardunbide ezberdin dagoenez.

III. 1. Baina ihardunbide hauen artean ez dugula magistratura ez aginte militarrik, hau da bat ere kargu publikorik bilatu behar garai honetan iruditzen zait, ez zaiolako zintzotasunari omen egiten eta ezta azpikeriaz lortu dutenei ziurtasun ez ohore handiagorik horregatik ematen⁵.
2. Izan ere ezegoki da sorterrria eta herritarrak indarrez go-

(3) Gogoa eta gorputzaren arteko bikoiztasuna onartzen du Salustiok Platonen ideia jasoz. Hemen dugu Salustiok berezkotasuna eta arrazoiketa, alferkeria eta langiletasuna, galbidea eta onbidea kontrajartzean darabilen eskemaren oinarria.

(4) Ikus hemengo ideiak baita Salustioren beste monografiako sarrera gisakoan ere, batez ere *Catil.*, II, 8-9; III, 1-4.

(5) *bonus* eta *honestus* hitzekin jolasten du Salustiok. Zizeronen pasarte bat aipatu izan da honako hitz joku honek gogorarazten duelako, hots *Brut.*, 281: «cum honos sit praemium virtutis iudicio studioque civium delatum ad aliquem, qui cum sententiis, qui suffragiis adeptus est, is mihi et honestus et honoratus videtur».

quamquam et possis et delicta corrigas, tamen inportunum est, cum praesertim omnes rerum mutationes caedem, fugam aliaque hostilia portendant. 3. Frustra autem niti neque aliud se fatigando nisi odium quaerere, extremae dementiae est: 4. nisi forte quem inhonesta et perniciose libido tenet 5 potentiae paucorum decus atque libertatem suam gratificari.

IV. 1. Ceterum ex aliis negotiis quae ingenio exercentur, in primis magno usui est memoria rerum gestarum. 2. Cuius de virtute quia multi dixere, praetereundum puto, simul ne per insolentiam quis existimet memet studium meum lau- 10 dando extollere. 3. Atque ego credo fore qui, quia decrevi procul a re publica aetatem agere, tanto tamque utili labori meo nomen inertiae inponant, certe quibus maxuma industria videtur salutare plebem et conviviis gratiam quaerere. 4. Qui si reputaverint et quibus ego temporibus magistratus 15 adeptus sum [et] quales viri idem adsequi nequiverint, et postea quae genera hominum in senatum pervenerint, profecto existumabunt me magis merito quam ignavia iudicium animi mei mutavisse, maiusque commodum ex otio meo

3 frustra... dementiae est *Hier. Praef. Esdr. et Neem. (om. nom. Sall.)* || 5 nisi... gratificari *Arus. Gramm., VII, 476, 13*

4 se] *om. Hier.* || 5 et perniciose] *om. Arus.* || 6 gratificari] -re *K²* letificare *A¹* || 10 memet] *s.s. Fm* memet et *K* || 15 magistratus *P¹BKFμnme* -tum *cett.* || 16 sum *HF* sim *XNKΔ* | quales *Jacobs-Wirz* et quales *Ω'*

bernatzea⁶, hartarako ahalmena izan arren eta gaizki eginak zuzentzeko modua izanda ere, batez ere aldaketa politiko guztiek iragartzen dituztelako heriotzak, atzerriratzeak eta beste bidegabekeria batzuk⁷. 3. Alferrik ahalegindu eta norberaren nekeaz gorrotoa ez besterik aurkitzea erokeriarik handiena da. 4. Norbait apika norberaren duintasuna eta askatasuna hirulauren boterearen mesedetan emateko kasketaldi zital eta kaltegarriak itsutu ez badu behintzat.

IV. 1. Adimenaren ihardunbideen artean, bestalde, ekintza gomutagarriak gogoratzea da onuragarrienetakoa. 2. Uste dut ez dugula horren egokitasunaz ezer aipatu behar, beste askok hitz egin duelako horretaz, eta baita inork pentsa ez dezan neure burua goratzen dudala harrokeriaz neure iharduera goraiapatuz. 3. Eta badakit izango direla, politikatik urrun bizitzea erabaki nuelako, hain nekagarri eta onuragarri den ene lanbide hau astiimatea dela esango dutenak, lanik handiena plebearengana joan eta oturuntzekin haien onespena erakartzea dela uste dutenak hain zuzen ere⁸. 4. Baina zein garaitan lortu nituen nik magistraturak, nolako gizonak ezin izan zuten halakorik jadetsi, eta zelakoak heldu ziren geroztik senatura hausnartuko balute hauek guztiek⁹, onartuko lukete zalantzarik gabe arrazoirekin aldatu nuela ene asmoa eta ez astiimateagatik, eta etekin handiagoa ekarriko diola

(6) Platonek zioena (*Ep.*, 7, 331 d) biltzen du honek, Zizeronek ere jasotzen duen bezala: «vim neque parenti nec patriae adferre oportere» (*Epist.*, 1, 9, 18).

(7) Zesarren heriotzaren ondoren honen jokabidea salatzen du Salustiok. Hilketaren osteko garai nahaspilatsuak sortzen dion nahigabea isladatzen du atal honetan.

(8) *Munus candidatorum* delakoaz ari da. Hauteskunde garaian jenderik gehien zebilen lekuetatik joaten zen hautagaia hiritarrak agurtu (testuan *salutare plebem*) eta botoa erakarri nahian. *Nomenclator* zelako morroiak gogorarazten zizkion agurtu behar zituen gizonen izenak, bakoitzari bere izenetik deitzearren.

(9) Lehenago Silak bezala, Zesar eta Antoniok ere euren gogoko gizonak sartu zituzten senatura.

quam ex aliorum negotiis rei publicae venturum. 5. Nam saepe ego audivi Q. Maximum, P. Scipionem, praeterea civitatis nostrae praeclaros viros solitos ita dicere, cum maiorum imagines intuerentur, vehementissime sibi animum ad virtutem accendi. 6. Scilicet non ceram illam neque figuram 5 tantam vim in sese habere, sed memoria rerum gestarum eam flammam egregiis viris in pectore crescere neque prius sedari quam virtus eorum famam atque gloriam adaequaverit. 7. At contra, quis est omnium his moribus quin divitiis et sumptibus, non probitate neque industria cum maioribus 10 suis contendat? Etiam homines novi, qui antea per virtutem soliti erant nobilitatem antevenire, furtim et per latrocinia potius quam bonis artibus ad imperia et honores nituntur: 8. proinde quasi praetura et consulatus atque alia omnia huiusmodi per se ipsa clara et magnifica sint, ac non perinde 15 habeantur ut eorum qui ea sustinent virtus est. 9. Verum ego liberius altiusque processi, dum me civitatis morum piget taedetque; nunc ad inceptum redeo.

17 dum... taedetque *Arus. Gramm., VII, 513, 20* || 18 ad inceptum redeo *Prob. Inst. Gramm., IV, 184, 27; cf. Sulp. Sev. Chron., 1, 23, 5*

8 adaequaverit] adaequarit (ve s.s.) *ATm* adaequarit *QFμn* || 9 omnium] hominum *A* | quin *XY* (*praeter D*) *e ex* qui in *Al* qui non *Dn* qui non in *m* quin de (vel non de s.s.) *s* || 14 proinde *A²CQNKHnme* perinde *cert.* || 15 non perinde] non proinde *A¹NH¹* non peraliter inde *l* || 16 ea] eas *B* || 16 sustinent] tenent *MTF* || 18 nunc] *om. Prob.*

ene herriari nire astialdiak besteen ekinaldiek baino. 5. Sarri entzun dut honako hau esan ohi zutela Kinto Maximo, Publio Eszipion¹⁰ eta gure herriko beste gizon txit argi batzuek, biziki bizten zitzaiela euren baitan bikaintasun¹¹ 5 gogoia asaben irudiei begiratzen zietenean¹². 6. Argi dago ez zutela berez ez argizari ez imajina haiek horrenbesteko indarrik, ekintza gomutagarrien oroimenaz bizten zela ordea gizon handion bihotzetanugar hura eta ez zela itzaltzen euren bikaintasuna aurrekoen entzute eta ospearen pareko izan arte. 10 7. Egungo eguneko bizimolde honekin, aitzitik, zein ez da bere asabekin aberastasun eta gastutan lehiatzen, gizatasun eta lanzaletasunean ez baina? Nobleberriak eurak ere, lehen nobleteria zintzotasunaz gainditu ohi zutenak, iruzurrez eta lapurretaz saiatzan dira egun agintea eta ohorea jadesten, eta 15 ez iharduera ongarriz¹³; 8. pretoretza, kontsulgoa eta halako beste guztiak eurak eurenz goraipagarri eta eder balira bezala eta ez hartan dihardutenen zintzotasunaren arabera. 9. Baina askatuegi eta urrutiegi joan naiz mina eta iguina ematen didaten ene herriaren ohiturak aipatzean. Neure harira itzuli 20 liko naiz orain.

(10) Kinto Fabio Maximo Kunktator eta Publio Kornelio Eszipion Afrikarra Nagusia dira aipatzen dituenak.

(11) Ez da erraza leku bakoitzean latinezko *virtus* zabalaren euskal ordain egokia bilatzea. *Vir egregius* delakoak, nahiz gerra garaian nahiz bake garaian, dituen bertute guztiak hartzen ditu hitz honek. Ekintzarekin eta gizararentzat baliagarri izatearekin zerikusia duten tasunak dira: gerrarako adorea, norbere grinak menderatzeko ahalmena, neurrikotasuna, hezitzaile arteza eta ondasunekin begirarua izatea...

(12) Magistratura kuruletan (kontsulgoa, pretoretza, zentsoregoa nahiz edilgo kurula) iharduniko arbasoen irudiez ari da. Atarietan izaten zituzten noble familiek eta ospakizun garrantzizkoetan ateratzen zituzten. Argizariz eginak ziren eta marmolezko nahiz brontzezko gorputzen gainean egokitzen zituzten, bakoitza bere goraipamenezko idazpuruarekin. Antzezlariak janzen zituzten argizarizko mozorro hauek hileta ospakizunetan eta.

(13) Arbasoen artean magistratu izan denik izan gabe halako eginkizuna betetzera doana da *homo novus*, 'nobleberria'.

V. 1. Bellum scripturus sum quod populus Romanus cum Iugurtha rege Numidarum gessit, primum quia magnum et atrox variaque victoria fuit, dehinc quia tunc primum superbiae nobilitatis obviam itum est. 2. Quae contentio divina et humana cuncta permiscuit, eoque vecordiae processit ut studiis civilibus bellum atque vastitas Italiae finem faceret. 3. Sed priusquam huiusmodi rei initium expedio, pauca supra repetam quo ad cognoscendum omnia industria magis magisque in aperto sint.

4. Bello Punico secundo, quo dux Carthaginiensium Hannibal post magnitudinem nominis Romani Italiae opes maxime adtriverat, Masinissa rex Numidarum, in amicitiam receptus a P. Scipione, cui postea Africano cognomen ex virtute fuit, multa et praeclara rei militaris facinora fecerat. Ob quae, victis Carthaginiensibus et capto Syphace, cuius in Africa magnum atque late imperium valuit, populus Roma-

8 pauca supra repetam *Prisc. Gramm.*, III, 46, 18 || 13 cui postea... fuit *Schol. Hor. Carm.*, 4, 8, 19; cf. *Schol. Verg. Veron. Aen.*, 9, 387.

3 dehinc P^1AQm dein *cett. del. C* | primum tunc ABQ || 4 obviam itum] obviatum $P^1CBQKD^1F\mu s$ || 5 contentio] contentia A^1 condicio $H^1TDF\mu$ || 7 faceret] facerent H^2De || 8 expedio PA^1Yle expediam $A^2CBQK^2H^2D^2F^2synm$ | quo] quod A^1QK^1 | cognoscendum] agnoscendum $KMDnm^2e$ ignoscendum m^1 || 10 quo] ex quod A | cartaginiensium $QMDFn$ || 12 amicitiam] amicitia BQF

V. 1. Jugurta numidiarren erregearen aurka Erromako herriak izan zuen gerra idaztera noa, luze, izugarri eta garaile ziurrik gabekoa izan zelako lehenengo eta behin, baina baita orduan egin zitzaiolako aurre lehenbizikoz nobleteriaren ozartasunari¹⁴. 2. Gatazka hau, jainko eta giza legeak denak batera nahasi eta hainbesteko erotasunera heldu zen, non gerra eta Italiaren suntsipena izan baitziren anaiarteko liskarren bukaera¹⁵. 3. Baina lehenagoko zenbait gauza gogoratuko dut halako kontuetan hasi baino lehen, dena ezagutzeko agerian eta are argiago gera dadin.

4. Erromaren izena handia zenean Hanibal kartagoarren gidariak Italiaren boterea erabat ahuldu zueneko bigarren gerra punikoan ekintza militar bikain ugari gauzatu zuen Masinisa numidiarren erregeak¹⁶, hots, bere adoreaerengatik gero Afrikarra goitizena hartu zuen Publio Eszipionek adiskidetasunean onartu zuenak¹⁷. Armaz hartutako hiri eta lur guztiak eman zizkion erregeari oparitan ekintza hauengatik Erromako herriak, kartagoarrak garaitu eta Afrikan inpe-

(14) Ez da gauza bera *nobilis* eta *patricius*. Odolez betidanik Erromako talde aristokratikokoak izan diren familiak dira patrizioenak. K.a. III. mendetik edo sorturiko aristokrazia berria da nobleena, arbasoen artean magistraturen bat izan duten familiaena alegia.

(15) Mario eta Silaren arteko lehiaren ondoriozko gerra sozialaz ari da.

(16) K.a. 218. urtea eta 201.aren artean kokatu ohi da bigarren gerra punikoa. Ekialdeko numidiarren errege zen Masinisa (Masinissa nahiz Massinissa latinez, numidierazko Massanassa-tik hartuta) eta Sifax zen mendebaldekoena. Salustioren hitzak gora-behera, badakigu, Sifaxek bezala aldizka alde batera nahiz bestera egin zuena Masinisak gerra honetan, bere interesen eta batez ere Sifaxekiko gorrotoaren arabera. Sofonisba, Asdrubalen alaba, bide zen Masinisa eta Sifaxen arteko etsaigoaren zergatia, Ekialdeko erregeari hitz eman ondoren, Mendebaldekoarekin ezkondu baitzen.

(17) Adiskidetasun arrunta baino gehiago termino politikoa da *amicitia*. Bi herriren arteko harremana definitzen du adiskidetasunean elkartzekak, eta horren arabera lagun eta etsai berak dituzte bi aldeek, ez elkarrekin borrokatzeko, baina bai elkarren lagunei zirkinik ez egiteko nahiz elkarren etsaiei laguntzarik ez emateko.

nus quascumque urbis et agros manu ceperat regi dono dedit. 5. Igitur amicitia Masinissae bona atque honesta nobis permansit. Sed imperi vitaeque eius finis idem fuit. 6. Dein Micipsa filius regnum solus obtinuit, Mastanabale et Gullussa fratribus morbo absumptis. 7. Is Adherbalem et 5 Hiempsalem ex sese genuit, Iugurthamque, filium Mastanabalis fratris, quem Masinissa, quod ortus ex concubina erat, privatum dereliquerat, eodem cultu quo liberos suos domi habuit.

VI. 1. Qui ubi primum adolevit, pollens viribus, decora 10 facie, sed multo maxume ingenio validus, non se luxu neque inertiae corrumpendum dedit, sed, uti mos gentis illius est, equitare, iaculari, cursu cum aequalibus certare; et, cum omnis gloria anteiret, omnibus tamen carus esse; ad hoc, pleraque tempora in venando agere, leonem atque alias feras 15 primus aut in primis ferire, plurimum facere, minimum ipse

10 qui... certare *Macr. Exc. Bob. Gramm.*, V, 645, 22 | qui (hic *Macr.*) ...carus esse *Diom. Gramm.*, I, 341, 5; *Macr. Exc. Paris. Gramm.*, V, 624, 24 | qui... loqui *Fronto*, 108 N | pollens viribus *Arus. Gramm.*, VII, 503, 3 || 13 equitare... certare *Serv. Aen.*, 2, 132 | cursu... certare *Arus. Gramm.*, VII, 459, 3 | et cum... esse *Don. Ter. Andr.*, 65 || 14 pleraque... loqui *Macr. Exc. Paris. Gramm.*, V, 624, 28 || 15 leonem... feras *Serv. Ecl.*, 2, 49; *Aen.*, 10, 836

4 mastanabale *PACD* manastabale *Qn* || 5 adherbalem *PACQn* atherbalem *cert.* || 6 hiempsal *Q²n* hiemsal *PACD* hiensal *Q¹* || 7 quod] eo quod *M²T* || 8 dereliquerat *PC²BQDFuls* reliquerat *AC¹NKMTnme* dereliquerat *H* || 10 qui] hic *Macr.* 624 *Diom. Prob.* | pollens ... validus *om. Diom. Macr.* 624 *Prob.* || 11 luxu *Y* (*praeter NT*) *m Fronto Diom.* luxui *XNTD²Isn Macr.* 645 luxuriae *Macr.* 624 | neque inertiae neque corrumpendum *Fronto* || 13 equitare iaculari *Ω' Serv. Macr.* 645 iaculari equitare *Diom. Macr.* 624 | cursu ... certare *om. Macr.* 624 || 14 gloria] *om. Diom.* | esse] *ex* esset *BNF* esset *PACIm* || 16 facere minimum *Fronto Macr.* facere et minimum *Ω' | ipse] om. Macr.* | de se ipse *nm*

rio zabal eta indartsua izan zuen Sifax harrapatu ondoren¹⁸.
 5. Sendo eta zintzo iraun zuen beraz Masinisaren gurekiko
 adiskidetasunak. Baina bere bizitza bukatzea eta inperioa
 bukatzea dena bat izan zen¹⁹. 6. Bere seme Mizipsak esku-
 5 ratu zuen gero bakarrean agintea, Mastanabal eta Gulu-
 sa, honen anaiak, gaisotuta hil zirenez²⁰. 7. Aderbal eta
 Hienpsal sortu zituen Mizipsak, eta bere semeekiko arreta
 berarekin hazi zuen jauregian Jugurta, Mastanabal anaiaren
 semea, ohaidearengandik jaioa zelako Masinisak seniparterik
 10 gabe utzia zuena²¹.


VI. 1. Eta hau nerabetu bezain laster, indarrez gainezka,
 ederra itxuraz, baina batez ere adimen argikoa izaki, ez zuen
 bere burua gehiegikeriaz eta nagikeriaz galtzen utzi, baizik
 eta, herrialde hartan ohi zenez, zaldiz ibili, geziak jaurtiki
 15 eta bere adinekoekin lasterketan lehiatzen zen; eta bere ospea
 beste guztiena baino handiagoa zen arren guztiek maite zu-
oinazetuta, gure aitarekiko eskertxarra, nire anaiaren hilketa eta ene zorigabeen ordezeko zigor astuna. 22. Ene bihotzeko anaia maite-maitea, gazteegi zinela eta desegokien zenak kendu zizun arren bizitza, mingarri baino pozgarriago dela haatik zure zorigaitza uste dut orain, 23. erresuma bakarrik ez ezik, ihesa, atzerriratzea, txirotasuna eta ni larritzen nauten ezbehar guztiak utzi baitituzu bizitzarekin batera. Ni aitzitik, dohakabe hau, gizarazoen erakusgarri naiz nire aitaren erresumatik zoritxarrik handienetara erorazaraita, neu laguntza beharrean egonik zure aurkako irainen mendekua bilatu ala, neure bizitza eta heriotzaren ahalmena inoren pentsura ditudan honek, nire erresumaren ardura hartu zer egin ez dakidala. 24. Hiltzea izango al da nire zoriarentzat bukaera egokia, eta ez al naute arrazoiz arbuiatuko zorigaitzaren zorigaitzez itota irainaren aurrean etsiko banu. 15 Baina orain bizitzea ez zait atsegingarri eta laidorik gabe hiltzea ez zait zilegi.

25. Senadoreok, emaidazue laguntza dohakabe honi, zeuon izenean, zuen seme eta gurasoenean eta Erromako herriaren handitasunarren⁵²; aurre egiozue zuzengabekeriari eta ez ezazue utz zeuona den Numidiako erresuma gaiztakeria batekin eta gure familiaren odolarekin desegin dadin.»

XV. 1. Erregeak⁵³ bere hitzaldia amaitu zuenean hitz gutxitan erantzun zioten Jugurtaren mezulariek, emandakoan jarrita uste ona zuzentasunean baino gehiago. Bere bihozgabekeriarengatik hil zutela numidiarrek Hienpsal esan zuten; bere bidegabekeria ezin izan zuelako gauzatu kexatzen zela, garaitua izan ondoren, gerra berak bere oldez

(52) Berrito gogorarazten du *maiestas populi Romani* delakoa (ikus lehenago ere *Iug.*, XIV, 7 eta hango oharra).

(53) Hots, Aderbalek.

utrique curia egrediuntur. Senatus statim consulitur. Fautores legatorum, praeterea senatus magna pars, gratia depravata, Adherbalis dicta contemnere, Iugurthae virtutem extollere laudibus; gratia, voce, denique omnibus modis pro alieno scelere et flagitio sua quasi pro gloria nitebantur. 3. 5
 At contra pauci, quibus bonum et aequom divitiis carius erat, subveniendum Adherbali et Hiempsalis mortem severe vindicandam censebant; 4. sed ex omnibus maxume Aemilius Scaurus, homo nobilis, inpiger, factiosus, avidus potentiae, honoris, divitiarum, ceterum vitia sua callide occultans. 10
 5. Is postquam videt regis largitionem famosam inpudentemque, veritus, quod in tali re solet, ne polluta licentia invidiam accenderet, animum a consueta lubricitate continuit.

XVI. 1. Vicit tamen in senatu pars illa quae vero pretium aut gratiam anteferebat. 2. Decretum fit uti decem legati 15
 regnum, quod Micipsa optinuerat, inter Iugurtham et Adherbalem dividerent. Cuius legationis princeps fuit L. Opimius, homo clarus et tum in senatu potens, quia consul, C. Graccho et M. Fulvio Flacco interfectis, acerrime victoriam nobilitatis in plebem exercuerat. 3. Eum Iugurtha, tametsi 20

11 is... (videt regis om.)... impudentemque Non., 306, 5 || 13 animum... continuit Schol. Verg. Bern. Georg., 4, 429 (p. 978 H) || 14 vicit... anteferebat Non., 366, 1

2 senatus magna pars] senatus s.s. Am om. NH magna pars senatus MDFμ || 5 sua] ex suo C suo AQM (sua s.s.) || 11 videt] vidit A²C²Q₅ | videt regis] om. Non. || 12 solet] solet fieri A²CQ fieri solet T || 15 decem legati] decem eras. C om. BI legati decem s || 17 legationis] largitionis P | opimius] opimus MTD_e || 18 quia XY (praeter H) lne a exp. et restit. QD eras. N qui HT²sm | consul ACBQNT²DF_{sme} ibus s.s. et eras. DF s.s. m consulibus HMTμln (in ras. Hn) consuls P

hasi zuen Aderbal; bera Numantzian ezagutu zutena bera zela pentsatzeko eta etsaiaren hitzak ez jartzeko bere ekintzen aurretik eskatzen ziola Jugurtak senatuari. 2. Gero alde biak irten ziren batzar-lekutik eta berehala hasi zen
 5 senatua eztabaidarekin. Mezularien aldekoek eta mesedeekin sobornatutako senatuaren gehiengoak, Aderbalek esandakoa gaitzetsi eta Jugurtaren prestutasuna goratzen zuten gorai-pamenez. Euren ospearen alde bezala ekin zuten inoren bidegabekeria eta laidoaren alde, zieten itzala erabiliz, hitzekin eta
 10 azkenik edozein modutara. 3. Zuzentasuna eta justizia aberastasanak baino maiteago zituzten batzuek aitzitik, Aderbali lagundu eta Hienpsalen heriotzaren mendeku gogorra hartu behar zela uste zuten, 4. Emilio Eskaurok batez ere, noble, bizkor, azpikari, botere, ohore eta aberastasunzale bai-
 15 na bere hobenak taiuz estaltzen zekienak⁵⁴. 5. Erregearen koipekeria⁵⁵ ezagun eta lotsagabea zela ikusirik, halakoetan gertatu ohi den bezala lasaikeria itsusi hark haserrea biztuko zuelako beldurrez, uko egin zion bere ohizko grinari.

XVI. 1. Egiaren aurretik irabazia eta oniritzia jartzen
 20 zituztenen aldekoak nagusitu ziren halere senatuan. 2. Mizipsarena izan zen erresuma, hamar ordezkariaren arartekotasunez, Jugurta eta Aderbalen artean banatzeko erabakia hartu zen. Luzio Opimio, kontsula zelarik, Gaio Grako eta Marko Fulbio Flako hil zituztenean⁵⁶, plebearen aurkako ga-

(54) Oso bestelakoa da Zizeronek eskaintzen digun gizon honen irudia, gizon prestu bezala aurkezten baitu honek behin baino gehiagotan (ikus adibidez *De orat.*, 1, 214, *Brut.*, 111 edota *Sest.*, 103). Tazitok eta Balerio Maximok ere gorai-patzen dute. Salustiok ezin du onartu Emilio Eskaurok izan zuen aristokraziaren aldeko jarrera, baina halere badirudi benetan zintzo jokatu zuela askotan.

(55) Jugurtaren koipekeria, hain zuzen ere.

(56) K.a. 121. urtean, Gaio Grako bere jarraitzaileekin Abentinora alde eginda zegoelarik, Luzio Opimio honek zuzendu zuen eraso, eta berau izan zen ondorengo ikerketa zorrotzetan batzorde buru ere, zigorrik gogorrenak ezarritz.

Romae in <in>imicis habuerat, tamen accuratissime recepit, dando et pollicendo multa perfecit uti famae, fide, postremo omnibus suis rebus commodum regis anteferret. 4. Reliquos legatos eadem via aggressus plerosque capit; paucis crior fides quam pecunia fuit. 5. In divisione, quae pars 5 Numidiae Mauretanium attingit, agro virisque opulentior, Iugurthae traditur; illam alteram, specie quam usu potioem, quae portuosior et aedificiis magis exornata erat, Adherbal possedit.

XVII. 1. Res postulare videtur Africae situm paucis exponere et eas gentis, quibuscum nobis bellum aut amicitia fuit, attingere. 2. Sed quae loca et nationes ob calorem aut asperitatem, item solitudines minus frequentata sunt, de iis haud facile conpertum narraverim; cetera quam paucissimis absolvam.

3. In divisione orbis terrae plerique in parte tertia Africam posuere, pauci tantummodo Asiam et Europam esse, sed Africam in Europa. 4. Ea finis habet ab occidente fretum nostri maris et Oceani, ab ortu solis declivem latitudinem, quem locum Catabathmon incolae appellant. 5. Mare sae-

13 cetera (*pro de iis*)... conperta (*sic*) narraverim *Prisc. Gramm.*, III, 67, 23 || 17 Asiam... quam quidam in alteram duarum, plerique autem in tertiam totius orbis partem posuerunt *Aug. Civ.*, 16, 17 || 20 mare... p. 22, 6 animalia *Fronto*, 109 N (162, 166 H) (*om. nom. Sall.*) | mare saevom importuosum *Serv. Aen.*, 1, 616

1 inimicis *plq. edd.* in amicis Ω' *Jacobs-Wirz* || 2 pollicendo] pollicitando *TDF* || 2 famae fide *aliquot dett. Thomas Jacobs-Wirz Ornstein Ernout* (*nam fide vetus forma dativi est*) fama fide Ω' *Ahlberg* famae fidei *plq. rec.* || 4 aggressus] *ex aggressos D aggressos NMTme* || 6 mauretanium π *BNme mauritaniam CQHIn* i *exp.* e *s.s.* A^2 || 7 usu] *ex usui AN* || 11 quibuscum nobis] i.e. cum quibus *s.s.* *A* cum quibus nobis *H* quibus cum nobis *CDn* quibus nobiscum *M* || 13 de iis] cetera *Prisc.* || 14 conpertum] *comperta Prisc.* || 16 in parte tertia] in partem tertiam *Aug. aliquot rec. aliquot edd.* || 20 catabathmon] *cathabathmon P catabathmon ex catabathmon C cathabatmon ex cathabatmon D*

raipena egiteratzean hain zorrotza izan zelako orduan senatuan indar handia zuen gizon ospetsua izan zen ordezkari-tza honen buru. 3. Jugurtak Erroman areriotzat⁵⁷ bazuen ere begirune osoz hartu zuen halere; bere izen on eta ohorearen aurretik, hau da bere interes guztien aurretik, erregearen onura jartzea lortu zuen opari eta agintzari ugarirekin. 4. Gainontzeko ordezkariengana ere bide beretik hurbildu eta gehienak bereganatu zituen: gutxik izan zuten ohorea dirua baino maiteago. 5. Lurrik onenak eta gizon gehien dituen Mauritaniaren hurreneko Numidiaren zatia eman zioten banaketan Jugurtari, eta bestea hartu zuen Aderbalek, benetan baino itxuraz aberatsagoa, portu eta eraikuntza gehiago dituen.

XVII. 1. Badirudi Afrikako ingurunea hitz gutxitan azaltzea eta gurekin gerra zein adiskidetasun hitzarmena izan zuten herrialdeak aipatzea eskatzen duela gaiaren hariak. 2. Baina ez da erraza izango beroa nahiz malkar edota basamortuengatik jende gutxi dabilen lekuez gauza ziurrik esatea. Eta ahal dezadan gutxien luzatuko naiz gainontzekoarekin.

3. Heren bat egotzi zioten Afrikari geografo gehienek lurbiraren zatiketan; bakarrik Asia eta Europa daudela, eta Europan Afrika, gutxi batzuek uste zuten⁵⁸. 4. Gure itsasoa eta Ozeanoaren bitarteko itsasarteak ezartzen du honen muga

(57) Badirudi editore gehien zuzenketa (*in inimicis*) nahiz eskuizkribuetako irakurketa (*in amicis*) biak onar litezkeela. Zentzu handiagoa du zalantzarik gabe guk ere hemen onartu dugun irakurketak, horrela arazorik gabe ulertzen baita halandagutzizko perpausa (*tametsi... tamen*). Bestela, *in amicis* irakurriz gero, nahiz eta aurrez ere laguntzar euki, are gehiago saiatu zela Jugurta Opimiori harrera ona egiten, ulertu beharko genuke.

(58) Estrabonek onartzen zuen joniarren zatiketa hirukoitza Herodotok kritikatu zuen (Libia edota Afrika Asian sartuz). Barronek bi zati onartzen zituen, Isokratesek bezala. Lukanok (9, 411 hh.) bi iritziak aipatzen ditu, baina zerura eta haizeetara begiratu zuten Libia Europan sartu behar dela zehaztuz.

vom, inportuosum; ager frugum fertilis, bonus pecori, arbori infecundus; caelo terraque penuria aquarum. 6. Genus hominum salubri corpore, velox, patiens laborum. Plerosque senectus dissolvit, nisi qui ferro aut bestiis interiere; nam morbus haud saepe quemquam superat. Ad hoc malefici generis plurima animalia.

7. Sed qui mortales initio Africam habuerint, quique postea adcesserint, aut quomodo inter se permixti sint, quamquam ab ea fama quae plerosque obtinet divorsum est, tamen uti ex libris Punicis, qui regis Hiempsalis dicebantur, interpretatum nobis est, utique rem sese habere cultores eius terrae putant, quam paucissimis dicam. Ceterum fides eius rei penes auctores erit.

XVIII. 1. Africam initio habuere Gaetuli et Libyes, asperi incultique, quis cibus erat caro ferina atque humi pabulum uti pecoribus. 2. Ei neque moribus neque lege aut imperio cuiusquam regebantur; vagi, palantes, quas nox coe-

1 ager frugum fertilis *Arus. Gramm.*, VII, 473, 20 | arbore (*sic*) infecundus *id. VII, 473, 18* || 2 caelo... aquarum *Serv. Aen.*, I, 22; *cf. Curt.*, 4, 7, 6: terra caeloque aquarum penuria || 11 utique... habere *Vlt. Syll. Gramm.*, IV, 248, 13 || 12 penes auctores fides erit *Sen. Nat.*, 4b, 3, 1 (*om. nom. Sall.*)

1 arbori Ω' *Fronto Ablberg Ernout* arbore *Arus. Jacobs-Wirz Ornstein* || 3 patiens] patiensque *B* | plerosque] ac plerosque *Fronto Ablberg* || 4 interiere] interere N^1 (*i s.s.*) interire *MDF* interierit *l* -rint *n* || 5 quemquam] quem A^1 *Fronto* || 6 plurima animalia] ex plurimalia *Ae* || 8 sint *Y* (*praeter N*) *snme* sunt XNl || 11 utique] utque *MTFn* utqui D^1 || 14 initio] in initio *H* | gaetuli] *ge- PACDn* | libyes *vel* lybies *vel* libies *codd.* || 15 quis] i.e. quibus *s.s.* *AC* quibus *QT* || 16 aut] neque *TDFμ* || 17 quas $XN^1 M^1 Dμ^1 \Delta$ qua $N^2 M^2 TFμ^2 l$

- mendebaldetik⁵⁹, eta bertakoek Catabathmos deitzen duten goibehera zabalak ekialdetik⁶⁰. 5. Zakarra eta porturik gabekoa da itsasoa, lurra zitu ugarikoa eta ona abereentzat, baina idorra arbolentzat eta euri nahiz iturrietako ur eska-
 5 sekoa. 6. Osasuntsu, bizkor eta lanerako gogorrek dira giza-kiak. Zahartzak jota hiltzen dira gehienak, burdinak edota basabereek hiltzen dituztenak ez bada, oso noizean behin akabatzen baitu gaisotasunak hauetako inor⁶¹. Horrez gain pizti asko dira arriskutsuetarikoak.
- 10 7. Baina gehienek onartzen duten tradizioetik bestelakoa bada ere, Hienpsalenak⁶² omen ziren liburu kartagoar batzuetatik itzuli diguten modu-moduan eta lur haietakoez egiaztat duten bezala kontatuko dut, ahal dezadan laburren, nortzuk bizi izan ziren Afrikan hasieran eta nortzuk elkartu
 15 zitzaizkien gero edota nola nahasi ziren euren artean. Berri emaleen ardurapekoa da dena dela honen guztiaren egitasuna.

XVIII. 1. Getuliar eta libiarrak bizi izan ziren lehenbizi Afrikan, arlote, zakar eta kulturagabeak, abereak bezala basabereen haragia eta zelaietako belarrarekin bazkatzen zirenak⁶³. 2. Ez zuten ez ohitura, ez arau, ez inoren agintezko

(59) *Fretum Gaditanum* izena hartzen zuen gaurko Gibraltarreko itsasarteaz ari da; *Mare Nostrum* Mediterranearen itsasoa da, noski, eta jakina, *Oceanus* Atlantiar ozeanoa.

(60) 'Goibehera' esan nahi du grekoz *Καταβαθμός* hitzak. Erromatarren Zirene aldeko probintzia eta Egipto arteko lautada aipatzen da honela, gaurko Akabat alegia. Izen hau biltzeak iturri grekoren bat ez ote duen salatzen aipatu izan da.

(61) Lurralde hauetan aurkituriko inskripzioek ere egiaztatu dute Salustioren datu hau, asko eta asko baitira ehun urtetik gora zutela hildakoen epitafioak.

(62) Hemengo hau ez da Aderbalen anaia, beste Hienpsal bat baino, Hienpsal II.a, Gaudaren semea, Ponpeioren aliatu izan zen Jubaren aita hain zuten ere.

(63) Salustioren arabera ipar ekialdeko libiarrak eta mendebaldeko getuliarrak ziren Afrikako lehenbiziko biztanleak. Mediarrak, pertsiarrek eta armeniarrek beranduago heldu bide ziren, eta are beranduago kolonizatzaile feniziarrek. Eguneko herrietan ezagutu nahi izan dira askotan etnia hauen ezaugarriak.

gerat sedes habebant. 3. Sed postquam in Hispania Hercules, sicuti Afri putant, interiit, exercitus eius, conpositus ex variis gentibus, amisso duce ac passim multis sibi quisque imperium petentibus, brevi dilabatur. 4. Ex eo numero Medi, Persae et Armenii, navibus in Africam transvecti, proximos nostro mari locos occupavere. 5. Sed Persae intra Oceanum magis, eique alveos navium invorsos pro tuguriis habuere, quia neque materia in agris neque ab Hispanis emendi aut mutandi copia erat: 6. mare magnum et ignara lingua commercio prohibebant. 7. Ei paulatim per conubia Gaetulos secum miscuere et, quia saepe temptantes agros alia, deinde alia loca petiverant, semet ipsi Nomadas appellavere. 8. Ceterum adhuc aedificia Numidarum agrestium, quae mapalia illi vocant, oblonga, incurvis lateribus tecta quasi navium carinae sunt. 9. Medis autem et Armeniis accessere Libyes —nam ei propius mare Africum agitabant, Gaetuli sub sole magis, haud procul ab ardoribus—, eique mature oppida habuere; nam freto divisi ab Hispania mutare res inter se instituerant. 10. Nomen eorum paulatim Libyes

1 postquam Hercules in Africa, sicut putant, interiit, ex eius variis gentibus permixtus est *Schol. Stat. Theb.*, 6, 512; cf. *Isid. Orig.*, 9, 2, 120 sq. || 12 Numadas dicit, ut ait Sallustius: et quia... Numadas appellaverunt (*sic*) *Schol. Lucan.*, 1, 253; cf. *Isid. l.c.* || 14 mapalia *Serv. Aen.*, 1, 421; cf. *Schol. Verg. Bern. Georg.*, 3, 340: mapalia aedificia Numidarum oblonga incurvis lateribus tecta (-to *var.*) quasi navium carinae; cf. *Sulp. Sev. Dial.*, 1, 3: parvum tugurium... cuius tectum, sicut Sallustius ait, quasi carina navis erat || 16 propius... agitabant *Prisc. Gramm.*, III, 292, 8 || 18 mutare... instituerant *Comment. Lucan.*, 7, 263

1 sed] *om. Lact.* || 5 persae] *s.s. A om. B* | armenii *n -ni cett.* || 10 commercio PAC^1N^1 vel a *s.s. A* commercia *cett.* || 11 secum] *om. Pl* sibi Q^1 (vel secum *s.s.*) || 12 alia deinde alia loca] alia dein deinde alia (loca *s.s.*) AC alia deinde loca H | ipsi] ipsos P^2T^2 *sn* ipsis H *om. m* || 12 nomadas P^1A^1m numadas | *Schol. Lucan.* numidas *cett.* || 14 mapalia (mappalia ACQ) | illi] illi mapalia (mappalia D) $TDF\mu$ | tecta A^2CBQNT^1 *l_{sn}* tecto PA^1Y (*praeter N* vel *ta s.s. D*) e *Schol. Bern. Jacobs-Wirz Pabón* || 16 africum] africanam A^2CBQ (vel -cum *s.s.*) || 17 haud procul magis ab P^1 (magis *exp.*)

aginpiderik: gauak erabakitzen zuen lekuan geratzen ziren harantz honantzeko ibiltari hauek. 3. Baina, afrikarrek uste dutenez, Herkules Hispanian hil zenean laster desegin zen hirulau herrialdetakoek osatzen zuten haren ejerzitua, gidaria galdu zutenean guztiek bilatzen baitzuten alde guztietatik agintea. 4. Hauetarik mediar, pertsiar eta armeniarrek, itsasontzietan egin Afrikarainoko bidea eta gure itsasotik hurreneko lurra hartu zituzten. 5. Baina pertsiarrak barrurago joan ziren Ozeanorantz⁶⁴ eta euren ontziazalak goikoz behera jarri eta txabolatzat erabili zituzten, zelaietan ez baitzegoen egurrik eta ezta Hispanian erosi edo trukatzeko modurik ere, 6. itsaso zabalak eta hizkuntza ezezagunak eragozten zieten salerosketa eta. 7. Getuliarrekin nahasi ziren ezkontza bidez gutxi-gutxika eta nomada izena hartu zuten⁶⁵, sarri lurra ikuskatuz leku batetik bestera ibili zirelako. 8. Honez gain gaur egun ere numidiar nekazarien *mapalia* deitzen dituzten etxetxoak, luzengak, albo makurdun gainarekin, ontzikroskoak bezalakoak dira. 9. Libiarrak —hauek Afrikako itsasotik⁶⁶ hurbilago eta getuliarrek hegoalderantzago, beroaldetik hurrean, bizi ziren eta— elkar-tu zitzaizkien mediar eta armeniarrei eta laster egin zituzten hiriak, hispaniarrengandik itsasarteak bakarrik ba-

(64) Mendebalderantzago, beraz.

(65) Berez grekozko hitza da *νομάδες*, 'ibildaun, ibiltari, alderrai' esan nahi duena, ziurrenik Afrikara Siziliatik eramana. Hitz beraren aldaera dira azken baten *nomadae* eta *numidae*.

(66) Sizilia eta Afrika bitarteko Mediterranearen itsasoa da *mare Africum*.

corrumpere, barbara lingua Mauros pro Medis appellantes. 11. Sed res Persarum brevi adolevit, ac postea nomine Numidae, propter multitudinem a parentibus digressi, possedere ea loca quae proxume Carthaginem Numidia appellatur. 12. Dein, utrique alteris freti, finitimos armis aut metu sub imperium suum coegere, nomen gloriamque sibi addidere, magis ei qui ad nostrum mare processerant, quia Libyes quam Gaetuli minus bellicosi. Denique Africae pars inferior pleraque ab Numidis possessa est, victi omnes in gentem nomenque imperantium concessere. 10

XIX. 1. Postea Phoenices, alii multitudinis domi minuendae gratia, pars imperi cupidine, sollicitata plebe et aliis novarum rerum avidis, Hipponem, Hadrumetum, Leptim aliasque urbis in ora maritima condidere, eaeque brevi multum auctae, pars originibus suis praesidio, aliae decori fuere. 15
2. Nam de Carthagine silere melius puto quam parum dicere, quoniam alio properare tempus monet.

3. Igitur ad Catabathmon, qui locus Aegyptum ab Africa

4 proxuma... appellatur *Arus. Gramm.*, VII, 498, 17; cf. *Diom. Gramm.*, I, 410, 9: proxima Carthagini loca || 13 Hipponem... ceterasque civitates (*sic*) *Sacerd. Gramm.*, VI, 470, 18 (*om. nom. Sall.*) || 16 nam... dicere *Quint. Inst.*, 2, 13, 14; *Serv. Aen.*, 1, 342; cf. *Apul. Mund.*, 24: non, ut ait ille, silere melius est, sed vel parum dicere; cf. *Hier. Epist.*, 53, 8: super quo tacere melius puto quam pauca scribere

1 corrumpere] corrumpere *Bi* || 2 nomine] *eras. m om. e sc. sub s.s. C sub s.s. Q* de nomine *s* || 2 numidae *MTD²n* numidae *cett.* || 3 possedere] *ex* possidere *ut vid. P* possidere *B²MFne* || 4 proxime carthaginem *Ω² Ernout* proxima carthagine *Arus. Ahlberg Jacobs-Wirz* proxima carthagini *Diom.* proxime carthagine *Ahlberg 1915 Ornstein* | appellatur] appellatur *QMs* || 6 coegere] *ex* cogere *PBm* || 11 phoenices vel foenices *vgl phoenices codd.* || 12 sollicitata] sollicita *Q* || 13 hadrumetum] hadrimetum *A¹C²* hadrymetum *A²P* adrymetum *Q* (*ex adri-*) adrimetum *Dn* | Leptim *Ω²* (*cf. Klotz, BphW 39, 1919, 1207*) Lepcim *Ahlberg ex Bücheler Rb.Mus. 59, 638 sqq. collato Schmalz Bph W 1916, 511* || 14 aliasque urbis] ceterasque civitates *Sacerd.* || 16 nam] sed *Serv.* | silere melius] tacere satius *Quint.* || 18 catabathmon *P* (*ex catabthmon*) *ACn* cathabatmon *Q* cathabathmon *D*

natzen zituenez hauekin tratuetan hasi baitziren. 10. Gutxi-gutxika hauen izena itxuraldatu zuten libiarrek, mediar deitu beharrean mairu deituta euren hizkuntza arrotzean.

11. Baina aurki areagotu zen pertsiarren indarra eta orduan
5 biztanlegoaren ugaritasunarengatik arbasoengandik banatu eta Kartagotik hurbileko Numidia deitzen den lurra hartu zuten numidiar izenarekin. 12. Gero batak besteari lagundu eta armaz nahiz izuaz uztarperatu zituzten mugetako herriak eta euren izen ona eta entzutea handitu zituzten, gure itsasora hurbildu zirenek batez ere, libiarrak ez baitziren getuliar-
10 rrak bezain guduzale. Azkenik numidiarrek hartu zuten Afrika behearean⁶⁷ zatirik handiena, irabazleen izena hartu eta hauen herrikide egin ziren bentzutuak.

XIX. 1. Gero Hipona, Hadrumeto, Leptis eta beste hiri
15 batzuk eraiki zituzten kostaldean feniziarrek⁶⁸, plebea eta aldaketa guran ziren gainontzekoak zirikatuta, batetik aberriko biztanlegoa gutxitzearren eta bestetik aginte gogoarengatik. Epe laburrean indartu eta batzuk hiriburuaren babesleku eta besteak honentzat ohoregarri egin ziren. 2.
20 Baina Kartagori buruz uste dut hobe dudala isiltzea gauza gutxi batzuk esatea baino, beste zerbaitetara arin pasatzea baita egoki une honetan.

(67) Itsasertzetik hurbilen dagoen aldea da Afrika beheera, Iparraldekoa hain zuzen ere.

(68) Hippo izeneko bi hiri libi-feniziar zeuden Afrikako iparraldeko itsasertzean, Hippo Diarrhytus (edo Zarytus), Uticatik hurbil, gaurko Bizerta, eta Hippo Regius, mendebalderago, gaurko Bonatik hurbil. Badirudi lehenengoaz ari dela hemen Salustio, Agustin Sainduaren Hipona sorterriaz alegia. Hadrumeto berriz, gaurko Susa da, Tunisiako hegoaldeko hiria, Kartago bera baino hiri zaharragoa. Leptis izenarekin ere bi hiri zeuden: batetik Leptis Magna, bi Sirteen artean, gaurko Lebda, eta bestetik Leptis Minor, Hadrumeto eta Thapso bitartean, gaurko Lempta. Badirudi azken honetaz ari dela hemen, eta besteaz, Leptis Nagusiaz, aurrerago, *Iug.*, XIX, 3 eta LXXVII, 1 ataletan.

dividit, secundo mari prima Cyrene est, colonia Theraeon, ac deinceps duae Syrtes interque eas Leptis, deinde Philaenon Arae, quem locum Aegyptum vorsus finem imperi habuere Carthaginienses, post aliae Punicae urbes. 4. Cetera loca usque ad Mauretanium Numidae tenent; proximi Hispanias 5 Mauri sunt. 5. Super Numidiam Gaetulos accepimus partim in tuguriis, alios incultius vagos agitare; 6. post eos Aethiopus esse, dehinc loca exusta solis ardoribus.

7. Igitur bello Iugurthino pleraque ex Punicis oppida et finis Carthaginiensium, quos novissime habuerant, populus 10 Romanus per magistratus administrabat; Gaetulorum magna pars et Numidae usque ad flumen Muluccham sub Iugurtha erant; Mauris omnibus rex Bocchus imperitabat, praeter nomen cetera ignarus populi Romani itemque nobis neque bello neque pace antea cognitus. 8. De Africa et eius incolis ad 15 necessitudinem rei satis dictum.

2 Phil(a)enon arae *Max. Victorin. Gramm.*, VI, 235, 13 || 5 proximi... sunt *Arus. Gramm.*, VII, 498, 18

5 proximi hispanias *Pl Ernout* proximi hispania *Arus. Ablberg Ornstein* proxime hispaniam *cett.* || 7 aethiopus] aethiopes *QT* (as *s.s.*) *n* || 8 dehinc *PB* dein *ACYA* deinde *Q plq. rec.* || 12 numidae] ex numidae *P* numidae *CF plq. rec.* | usque ad] usque *HDFμ*

3. Honenbestez, Egipto eta Afrika banatzen dituen Catabathmosetik hurrean, Zirene theratarren kolonia dago lehenbizi itsasoari jarraiki, gero Sirte biak, eta bien bitartean Leptis; Filenotarren aldareak datoz gero, kartagoarrek Egip-
 5 torekiko muga bezala zuten lekua; azkenik beste hiri puniko batzuk daude. 4. Numidiarrak bizi dira Mauritaniarainoko gainontzeko lurretan. Mairuak dira Hispaniatik hurbile-
 nekoak. 5. Getuliarrak bizi omen dira, batzuk txaboletan eta besteak, basatiago, harat-honatean, Numidia baino harantzago.
 10 go. 6. Gero etiopiarrek omen daude eta azkenik eguzki go-riak kiskalitako lurrak⁶⁹.

7. Honenbestez, Jugurtaren aurkako gerraren garaian, Erromako herriak agintzen zuen magistratu bitartez hiri puni-
 niko gehienetan eta kartagoarrek berriki hartutako lurraldean.
 15 Jugurtaren menpeko ziren getuliar gehienak eta Muluia ibairainoko numidiarrak⁷⁰. Boko erregea zen mairu guztien buru; erromatarrena, izena baino ez zuen ezagutzen honek eta ber gauza gure aldetik ere, ez baikenuen ezagun ez gerran ez bakealdian. 8. Nahiko esan dut hariaren beharrizata-
 20 netarako Afrikari eta hango biztanleei buruz.

(69) Zati hau (XIX, 3-4) ulertzeko kontutan izan behar da, lehenik eta behin, Asian sartzen zutela antzinakoek Egipto. Catabathmos goibeherari buruz, ikus *Iug.*, XVII, 4 oh. Hain aberatsa izango zen Zirene hiria, K.a. 631. urtean sortu bide zuen Battos theratarrek, battiaden dinastiako lehenak (Zikladetako irla bat zen Thera, gaurko Thira edo Santorini). Ekialdetik mendebalderantz joanez gero da Zirene lehenengo hiria (*secundo mari prima*), gaurko Libian. Ondoren aipatzen dituen Sirte biak, Sirte Nagusia, gaurko Sidrako golkoa, eta Sirte Txikia, gaurko Gabeseko golkoa dira. Bien bitartean geratzen den Leptis, berriz, Leptis Nagusia (cf. *Iug.*, XIX, 1 oh). Filenotarren aldareei buruz ikus *Iug.*, LXXIX kapitulua. Salustiok aipatzen duen Mauritania, gaurko Maroko da, eta Muluccha ibaia (gaurko Muluia) zen honen eta Numidiaren arteko muga. Orduko Mauritaniako biztanleak dira, hain zuzen ere, hemen «mairu» (*Mauri*) deitzen dituenak. Getuliarrak «hegoalderago» aurkituko ditugu, hori esan nahi baitu hemengo *super Numidiam* honek, goragoko (*Iug.*, XVIII, 12) *Africae pars inferior* iparraldea baldin bazen.

(70) Antzinatean Muluccha eta Molochath izenak hartzen zituen ibai hau gaurko Muluia da, egun Algeria eta Marokoko lurretatik doana.

XX. 1. Postquam diviso regno legati Africa decessere, et Iugurtha contra timorem animi praemia sceleris adeptum sese videt, certum esse ratus, quod ex amicis apud Numantiam acceperat, omnia Romae venalia esse, simul et illorum pollicitationibus accensus quos paulo ante muneribus exploraverat, in regnum Adherbalis animum intendit. 2. Ipse acer, bellicosus; at is quem petebat, quietus, inbellis, placido ingenio, opportunus iniuriae, metuens magis quam metuentus. 3. Igitur ex improviso finis eius cum magna manu invadit, multos mortalis cum pecore atque alia praeda capit, aedificia incendit, pleraque loca hostiliter cum equitatu adcedit; 4. deinde cum omni multitudine in regnum suum convortit, existumans Adherbalem dolore permotum iniurias suas manu vindicaturum eamque rem belli causam fore. 5. At ille, quod neque se parem armis existumabat et amicitia 15 populi Romani magis quam Numidis fretus erat, legatos ad Iugurtham de iniuriis questum misit. Qui tametsi contumeliosa dicta rettulerant, prius tamen omnia pati decrevit quam bellum sumere, quia temptatum antea secus cesserat. 6. Neque eo magis cupido Iugurthae minuebatur, quippe qui totum eius regnum animo iam invaserat. 7. Itaque non uti antea cum praedatoria manu, sed magno exercitu comparato, bellum gerere coepit et aperte totius Numidiae imperium 20

6 in regnum... metuendus *Fronto*, 109 N (162 H) (*om. nom. Sall.*) || 8 opportunus iniuriae *Arus. Gramm.*, VII, 496, 15 || 15 et amicitia... fretus *Arus. Gramm.*, VII, 474, 28

1 decessere] discessere *BMm*¹ || 3 esse ratus] ratus esse *n* esse *om. e s.s. m*² || 11 loca hostiliter] hostiliter loca *HTme* || 12 deinde] *ex* dein *A*² (*de s.s.*) dein *Q* || 13 dolore permotum adherbalem *HTme* || 22 cum] *exp. A*² *om. C*

XX. 1. Erresumaren banaketa eginda ordezkariak Afrikatik alde egin zutenean eta Jugurtak, bere baitan beldur zuenaren kontra, bidegabekerien ordezkariak jasotzen zituela ikusi zuenean, Numantziar adiskideek esandakoa, Erromanena dena zegoela salgai alegia⁷¹, ulertu zuen eta arestian opariz asetu zituen haien agintzariak zirikatuta, Aderbalen erresumara zuzendu zituen bere asmoak. 2. Gogorra eta gudazalea zen bera, erasoak pairatuko zuen hura aldiz lasaia, bakezalea, izaera baketsukoa, laidoztatzeko modukoa, beldurgarri baino beldurriagoa. 3. Honenbestez gudatalde handi batekin hartu zituen ezustean haren mugak⁷², eta gizon asko, abereak eta bestelakoak harrapatu; su eman zien etxeei eta zaldieriarekin sartu zen indarrez leku askotara. 4. Gero guztiakin itzuli zen bere erresumara, Aderbalek minaren minenez laidoen mendeku hartuko zuela indarrez eta hau guztia gerra hasteko arrazoia izango zela pentsaturik. 5. Baina honek ez zuenez bere burua armatan bestearen pareko ikusten eta uste handiagoa zuenez Erromako herriaren adiskidetasunean numidiarrengana baino, mezulariak bidali zituen Jugurtarengana laidoez kexatzeko, baina hauek erantzun iraingarria ekarri zuten arren nahiago izan zuen haatik dena jasan gerra hastea baino, oker atera baitzitzaion aurreko ekinaldia. 6. Baina ez zen horrekin Jugurtaren goranahia baretzen, asmoz hartua baitzuen ordurako erresuma osoa⁷³. 7. Ez lehenago bezala harrapari talde batekin baizik eta ejerzitu handi bat paratuta hasi zen, beraz, gerra egiten eta Numidia osoko agintea nabarmenki bi-

(71) Gorago ere agertu da Salustio zio honengatik arrenkuraz (ikus *Iug.*, VIII, 1).

(72) Erresumaren zatiketaren eta eraso honen artean lau edo bost urteko tartea izan zen. K.a. 118. edo 117. urtean gauzatu zen zatiketa eta 113 edo 112.ean erasoak.

(73) Ikus Zizeronek ere Berresi buruz aritzean dioena (*Verr.*, II, I, 51, 135): «Iste, qui iam spe atque opinione praedam illam devorasset» 'Gogoz eta ustez bilkina ordurako garbituta zuen hura'.

petere. 8. Ceterum, qua pergebat, urbis, agros vastare, praedas agere, suis animum, terrorem hostibus augere.

XXI. 1. Adherbal uti intellegit eo processum uti regnum aut relinquendum esset aut armis retinendum, necessario copias parat et Iugurthae obvius procedit. 2. Interim haud longe a mari prope Cirtam oppidum utriusque exercitus consedit, et quia diei extremum erat, proelium non inceptum. Sed ubi plerumque noctis processit, obscuro etiam tum lumine milites Iugurthini signo dato castra hostium invadunt; semisomnos partim, alios arma sumentis fugant funduntque. Adherbal cum paucis equitibus Cirtam profugit et, ni multitudo togatorum fuisset quae Numidas insequentis moenibus prohibuit, uno die inter duos reges coeptum atque patratum bellum foret. 3. Igitur Iugurtha oppidum circumsegit; vineis turribusque et machinis omnium generum expugnare aggreditur, maxime festinans tempus legatorum antecapere, quos ante proelium factum ab Adherbale Romam missos audiverat.

4. Sed postquam senatus de bello eorum accepit, tres adulescentes in Africam legantur, qui ambos reges adeant,

6 consedit exercitus *TDFμ* || 7 inceptum] sc. fuit *s.s.* A inceptum est *QD* est inceptum *l* || 10 semisomnos] *is* vel *es s.s.* *Q²* semisomnes *l* (*o s.s.*) | fugant funduntque] *ex* fudant fundantque *P* || 14 bellum foret] foret bellum *HTne* bellum *om.* *l* || 17 romam ab adherbale *HTne*

latzen. 8. Gainera hiri eta soroak errausten zituen, bilkinak eskuratu eta beretarren adorea gehitu ahala etsaien izua areagotzen zuen igarotzen zen lekuetatik.

XXI. 1. Noraino heldu ziren gauzak ulertu zuenean Ader-
 5 balek, edo utzi edo armaz eutsi behar ziola bere erresumari hain zuzen ere, ezinbestean gudataldeak paratu eta bidera irten zion Jugurtari. 2. Cirtako hiritik hurbil⁷⁴, itsasotik ez urruti geratu ziren bi ejerzituak bidean, eta iluntzea zenez gudaldia ez zen hasi. Baina gaua ondo sartu zenean, oraindik ilunetan, seinalea
 10 eman eta etsaiaren kanpamendua hartu zuten Jugurtaren soldaduek; batzuk erdilotan eta besteak armak hartu nahian zihardutela ihes eginarazi eta barreiatu zituzten. Cirtara itzuri zen Aderbal zaldizko batzuekin eta egun bakar berean hasi eta amaituko zatekeen bi erregeen arteko gerra hura, togadun talde
 15 ugari batek geldiarazi ez balitu harresian haren atzetik zetozen numidiarrak⁷⁵. 3. Honenbestez Jugurtak hiria inguratu eta gudaparrapeekin⁷⁶, dorreekin eta bestelako tramankuluekin erasotzen hasi zen, borrokaldiari ekin baino lehen Aderbalek Erromara bidali omen zituen mandatariei aurrea hartzearren
 20 lehiatuz batez ere.

4. Baina senatuak hauen gerraren berri izan zuenean, hiru gazte bidali zituen Afrikara⁷⁷, bi erregeekin egon eta Erromako

(74) Masinisa, Mizipsa eta Numidiako beste errege batzuen egoitza izan zen berez gotorturiko hiri hau. Algeriako Konstantina hiria dago gaur haren lekuan.

(75) Erromatarrak eta italikoak denak aipatzen ditu hemen *togati* hitzarekin. Cirtako hirian salerosketan ziharduten hauetaz aritzean *Italici* (*Iug.*, XXVI, 1) eta *negotiatores* (*Iug.*, XXVI, 3) hitzak ere badarabiltza aurrerago Salustiok.

(76) Gurpildun egurrezko txabolatxoak ziren *vinea* 'gudaparrapeak, guda-mahatsareak' direlakoak eta erasoan etsaien harresietara hurbiltzeko erabiltzen ziren. Bustiriko larru nahiz zakuz estaltzen zituzten, surik ez hartzeko, eta azpian joaten ziren, parrapean bezala, gudariak. Bata besteari lotuta erabil zitezkeen.

(77) Aldera bitez hemen aipatzen den mandataritzaren osaketa (*tres adulescentes*) eta XXV, 4 atalean aipaturikoarena (*maiores natu nobiles*). Badirudi oraingoan senatuari ez zitzaiola garrantzizko iruditu arazoa eta ez zuela ordezkaritza handirik bidaltzeko beharrianik ikusi. Gero ordea larriagoa iruditu zitzaion kontua.

senatus populique Romani verbis nuntient velle et censere eos ab armis discedere [, de controversiis suis iure potius quam bello disceptare]: ita seque illisque dignum esse.

XXII. 1. Legati in Africam maturantes veniunt, eo magis quod Romae, dum proficisci parant, de proelio facto et oppugnatione Cirtae audiebatur; sed is rumor clemens erat. 2. Quorum Iugurtha accepta oratione respondit sibi neque maius quicquam neque carius auctoritate senatus esse. Ab adulescentia ita se enisum ut ab optumo quoque probaretur; virtute, non malitia P. Scipioni, summo viro, placuisse; ob easdem artis a Micipsa, non penuria liberorum, in regnum adoptatum esse. 3. Ceterum, quo plura bene atque strenue fecisset, eo animum suum iniuriam minus tolerare. 4. Adherbalem dolis vitae suae insidiatum; quod ubi conperisset, sceleri eius obviam isse; populum Romanum neque recte neque pro bono facturum si ab iure gentium sese prohibuerit. Postremo de omnibus rebus legatos Romam brevi missurum. 5. Ita utrique digrediuntur. Adherbalis appellandi copia non fuit.

6 sed... erat *Prisc. Gramm., III, 353, 11*

1 senatus populique romani] senatus populi romani *lm* senatus populique *M* || 2 de controversiis... disceptare] *om. mutili, leguntur in paucis integris, a plerisque edd. receptum, secl. Ernout* || 6 clemens] non nimius *in mg. A s.s. C* i.e. non nimius *s.s. D* || 7 oratione] ratione *BM* || senatus] senati *Cs* || 8 carius auctoritate senatus esse] c.e.a.s. *HFme* || 12 quo] quod *PA²CQDn* || 16 prohibuerit] prohibuerint *Fn*

senatuaren eta herriaren izenean iragar ziezaieten armak utz zitzaten nahi zutela eta horrela agintzen, [egokiago zela euren gorabeherak gerran barik legebidean eztabaidatzea]⁷⁸, eta hori zegokiola bai euren eta bai erromatarren ohoreari.

- 5 XXII. 1. Hainbat azkarren abiatu ziren ordezkariak Afrikara, are azkarrago burututako borrokaldiaren eta setioaren berri zabaldu zelako Erroman irtezeko prestaketan ari ziren bitartean: baina esamesa hutsak ziren. 2. Beretzat ez zegoela senatuaren manua baino gauza handi ez maiteagorik
10 erantzun zuen Jugurtak hauen hitzak entzun ondoren; gazte-
-gaztetarik saiatu zela gizon on orok onar zezan; bere adorea-
-rengatik hartu zuela eta ez gaiztakeriarengatik Publio
Eszipion handiaren oniritzia; antze hauengatik eta ez seme-
-rik ezean onartu zuela Mizipsak bere erresuman partaide; 3.
15 gainera zenbat eta gehiago izan berak prestutasun eta adorez
egindakoak are gutxiago jasaten zuela bere bihotzak iraina;
4. azpijokoz ihardun zuela Aderbalek bere bizitzaren aurka
eta hau jakitean egin ziola haren gaiztakeriari aurre esan
zuen; Erromako herriak ez zuela ez zuzentasunez ez gizabidez
20 jokatu herrien eskubideaz baliatzea eragozten bazioten⁷⁹;
azkenik, laster baten bidaliko zituela Erromara mandatariak
honen guztiaren berri emateko. 5. Honela bi aldeetakoak
elkarrengandik aldendu ziren eta ez zen izan Aderbalekin
hitz egiteko aukerarik.

(78) Editore gehienek erabili dituzten eskuizkribu nagusietan ez da *de controversiis... disceptare* zatia azaltzen, baina bai bigarren mailakotzat hartu izan diren batzuetan. Zesarren hitzetatik (*Civ.*, 3, 107, 2) hartua izan daitekeelakoa aipatu izan da, baina erraz ulertzen da kopiagileen huts bezala ere, *ab armis discedere* baita eskuizkribu nagusien bukaera, eta *bello disceptare* zati honena; ez da zaila begiak batetik besterako jauzia egitea eta kopiagileak tartekoa jatea.

(79) Erromako hiritartasuna ez zuten gizon eta herrialde guztiei berezko bezala onartzen zizkieten eskubideak sartzten dira *ius gentium* delakoan.

XXIII. 1. Iugurtha ubi eos Africa decessisse ratus est, neque propter loci naturam Cirtam armis expugnare potest, vallo atque fossa moenia circumdat, turris exstruit easque praesidiis firmat; praeterea dies noctisque aut per vim aut dolis temptare; defensoribus moenium praemia modo, modo 5 formidinem ostentare; suos hortando ad virtutem arrigere; prorsus intentus cuncta parare. 2. Adherbal ubi intellegit omnis suas fortunas in extremo sitas, hostem infestum, auxilii spem nullam, penuria rerum necessariorum bellum trahi non posse, ex eis qui una Cirtam profugerant duos maxime inpi- 10 gros delegit; eos multa pollicendo ac miserando casum suum confirmat uti per hostium munitiones noctu ad proximum mare, dein Romam pergerent.

XXIV. 1. Numidae paucis diebus iussa efficiunt. Litterae Adherbalis in senatu recitatae, quarum sententia haec fuit: 15

2. «Non mea culpa saepe ad vos oratum mitto, patres conscripti, sed vis Iugurthae subigit, quem tanta lubido extinguendi me invasit ut neque vos neque deos immortalis in animo habeat, sanguinem meum quam omnia malit. 3. Itaque quintum iam mensem socius et amicus populi Romani 20 armis obsessus teneor, neque mihi Micipsae patris mei

5 modo modo] modo *semel* BM || 6 arrigere *Xl*se erigere *Ynm plq. rec.* || 8 fortunas suas *Ynm* | infestum] sc. sibi *Q*² infestum sibi *A*²*C*² || 15 fuit haec *TDFμ* || 16 ad vos] vos *V* || 17 subigit] *m. secunda* ex subicit *C* vel subiit *al. man. in. mg. s.s. Q* subiit *PA*² (*ex subicit; vel subigit s.s.*) *MI* || 18 me extinguendi *HΓne* || 19 malit] mallit *V* || 20 iam quintum *TDFμ* || 21 mei] *om. V*

XXIII. 1. Hauek Afrikatik joanak zirela pentsatu zuenean Jugurtak, Cirta armaz hartzea lekuarengatik ezinezko zitzaionez, latesi eta lubakiz inguratu zuen harresia⁸⁰, dorreak eraiki eta babestaldez sendotu zituen. Gainera gau eta egun egiten zituen eraso saioak indarrez nahiz azpijokoz; bateko ordain-opariak eskaini eta besteko mehatxuak botatzen zizkien harresia babesten zutenei; gogoak biziagotuz ematen zien beretarrei adorea; labur esanda, adi-adi zegoen denari adi. 2. Bere aberastasun guztiak galzorian zirela, etsaia urrikalgaitza zela, ez zuela batere laguntza itxaropenik eta behar beharrezko gauzen gabezia ezin zela gerra luzatu ulertu zuenean Aderbalek, ausartenak ziren biak aukeratu zituen berarekin batera Cirtara ihesean joandakoetatik. Agintzari askorekin eta bere egoeraz errukiaraziz berotu zituen etsaien babespeide artetik gauzez hurbileneko itsasbazterrera eta gero Erromara abia zitezen.

XXIV. 1. Handik egun gutxigarrenera burutu zuten numidiarrek manatua eta senatuan irakurri zen gutxi gora behera honako hau zioen Aderbalen gutuna⁸¹:

20 2. «Ez ditut neure erruz bidaltzen honen sarri zuengana nire erreguak, senadoreok; Jugurtaren indarkeriak behartzen nau ordea, zeren hain du honek ni hondatzeko gogo handia non ez baituen ez zuen ez jainko hilezkorren arretarik, neure odola baitu beste ezer baino nahiago. 3. Bosgarren hilabetez naukate bada Erromako herriaren aliatu eta adiskide naizen hau armaz inguratuta⁸², eta ez dut ez nire aita Mizipsak

(80) Lubakia (*fossa*) egitean ateratzen zen lurrarekin egiten zen lubeta (*agger*) eta honen gainean ezartzen ziren enbor eta taketek osatzen zuten latesia (*vallum*).

(81) *Iug.*, XIV ataleko hitzaldian Aderbalen ahotan jartzen zituen argudioak biltzen ditu berriro gutun honetan Salustiok.

(82) *socius et amicus populi Romani* izateaz, ikus *Iug.*, XIV, 2 oh.

beneficia neque vostra decreta auxiliantur; ferro an fame acrius urgear incertus sum. 4. Plura de Iugurtha scribere dehortatur me fortuna mea; et iam antea expertus sum parum fidei miseris esse. 5. Nisi tamen intellego illum supra quam ego sum petere, neque simul amicitiam vestram et regnum meum sperare: utrum gravius existimet nemini occultum est. 6. Nam initio occidit Hiempsalem fratrem meum, deinde patrio regno me expulit. Quae sane fuerint nostrae iniuriae, nihil ad vos. 7. Verum nunc vestrum regnum armis tenet; me, quem vos imperatorem Numidis posuistis, clausum obsidet; legatorum verba quanti fecerit, pericula mea declarant. 8. Quid est relicuum, nisi vis vestra, quo moveri possit? 9. Nam ego quidem vellem, et haec quae scribo, et illa quae antea in senatu questus sum, vana forent potius quam miseria mea fidem verbis faceret. 10. Sed quoniam eo natus sum ut Iugurthae scelerum ostentui essem, non iam mortem neque aerumnas, tantummodo inimici imperium et cruciatus corporis deprecor. Regno Numidiae, quod vestrum est, uti lubet consulite; me manibus iniis eripite, per maiestatem imperi, per amicitiae fidem, si ulla apud vos memoria remanet avi mei Massinissae.»

13 nam... faceret *Serv. Aen.*, 1, 392

2 incertus sum Ω' vel incertum est *s.s.* Q incertum est VP^2 (*mg.*) | plura ... expertus sum] *om. et in mg. inferiore add. P* || 4 nisi] *ni TDF μ* || 7 fratrem meum hiempsalem *TDF μ* || 8 deinde] *dein VMTF* | expulit] *expuli V* || 9 regnum vestrum *CQDF μ* || 11 clausum obsidet] *clausum tenet atque obsidet TDF μ* || 12 vestra vis V || 13 quo moveri *HTD¹F μ* quo movere N con moveri V a quo moveri $A^1 MIsme$ qua moveri $A^2 CBQn$ a qua moveri PD^2 || 14 scribo] *scripsi V* || 16 ut iugurthae] et iugurthae V^1 || 18 cruciatus] *cruciatum V* | deprecor] *sc. averti a me s.s. A sc. ut evadam s.s. H deprecor ut evadam Γ (eras. T) evadere s.s. me evadere deprecor I* || 19 manibus *VPBQ¹s* ex manibus *ACYnme*

eskainitako ontarteen ez zuen erabakien laguntzarik⁸³; ez dakit burdinak ala goseak larritzen nauen bortizkiago. 4. Neure zoriak kentzen dit Jugurtari buruz gehiago idazteko gogoia, lehenago ere dagoeneko ikusi baitut ez dela dohaka-beengan uste handirik izaten. 5. Baina ni naizena baino gehiagoren bila dabilela hura ulertzen dut ordea, eta ez dituela aldi berean zuen adiskidetasuna eta nire erresuma espero. Inori ez zaio ezkututzen bietatik zein duen estimagarriago. 6. Hienpsal nire anaia hil zuen lehenbizi, gero nire aitaren erresumatik ohildu ninduen; eta bakarrik geure aurkako laidoak izan zitezkeen hauek, ez zuekikoak. 7. Baina orain zeuen agintea da armaz hartuta duena; numidiarren agintari izendatu ninduzuen hau nauka lotu eta inguratuta; nire arriskuak salatzen du ze kasu egin dien zuen ordezkarien hitzei. 8. Zer geratzen da, zuen indarra ez bada, harengan eragina duenik? 9. Izan ere nahi izango nuke bai orain idazten ditudan hitz hauek eta bai lehenago senatuan agertutako arrenkurak hutsalak izatea eta ez neure zorigaitza nire hitzen bermagarri. 10. Baina Jugurtaren gaiztakerien oroigarri izateko jaioa naizenez, ez diot dagoeneko ez heriotza ez atsekabeari ihes egiten, bakarrik arerioaren aginte eta gorputz oinazeari. Zeuena den Numidiako erresumarekin egin ezazue nahi dezazuena, baina ni aska nazazue esku donge hauetatik, zuen inperioaren handitasunarren⁸⁴, gure adiskidetasunaren benetakotasunarren, nire aitaita Masinisen oroitzapenik baldin baduzue.»

(83) XIV. kapituluko senatu aurreko hitzaldian ere aipatua zuen esker txar-rerengatiko arrenkura (*Iug.*, XIV, 9).

(84) Gorago gutun honetan (*Iug.*, XXIV, 7: *vostrum regnum*) eta XIV. kapituluko hitzaldian behin eta berriro bezala (*Iug.*, XIV, 7 eta XIV, 25: *maiestas populi Romani*), Erromako herria bera aurkezten du Aderbalek, Jugurtak beroni egiten dion erasoaren pairale bezala.

XXV. 1. His litteris recitatis, fuere qui exercitum in Africam mittendum censerent, et quam primum Adherbali subveniendum; de Iugurtha interim uti consuleretur, quoniam legatis non paruisset. 2. Sed ab eisdem illis regis fautoribus summa ope enisum ne tale decretum fieret. 3. Ita bonum publicum, uti in plerisque negotiis solet, privata gratia devictum. 4. Legantur tamen in Africam maiores natu nobiles, amplis honoribus usi; in quis fuit M. Scaurus, de quo supra memoravimus, consularis et tum senatus princeps. 5. Ei, quod res in invidia erat, simul et ab Numidis obsecrati, triduo navem ascendere; dein brevi Vticam adpulsi litteras ad Iugurtham mittunt quam ocissime ad provinciam adcedat, seque ad eum ab senatu missos. 6. Ille ubi accepit homines claros, quorum auctoritatem Romae pollere audiverat, contra inceptum suum venisse, primo conmotus, metu atque lubidine diversus agitabatur. 7. Timebat iram senatus, ni paruisset legatis; porro animus cupidine caecus ad inceptum scelus rapiebat. 8. Vicit tamen in avido ingenio pravom consilium. 9. Igitur exercitu circumdato, summa vi Cirtam irrumpere nititur, maxume sperans diducta manu hostium

1 in africam] in africa Pl || 4 illis] om. Ml || 5 enisum $P^1 A^1 Q^1 N^1$ lsm Ernout Ablberg enisum est $P^2 A^2 BCQ^2 H\Gamma$ (praeter M) N^2 Jacobs-Wirz Ornstein nisum est Mn nisum e || 7 devictum] sc. est s.s. AQ devictum est HTDF μ || 8 usi] ex uti n om. H Γ me s.s. al. man. HTFm vel usi s.s. D sec. m. || 9 senatus $PA^1 \Gamma$ es in senatu $A^2 \Sigma lmn$ s.s. D^2 Ornstein || 10 in invidia] in om. BH | simul et] et exp. A om. C | ab PBQ edd. a cett. || 11 navem $P^1 ACN^1 Mls$ Ablberg Ernout navim cett. Jacobs-Wirz Ornstein || 15 primo] primum MTD || 16 diversus] diversis MF μ || 18 rapiebat $P^1 Nls$ Ablberg Ornstein Ernout rapiebatur cett. Dietsch | in avido] in del. m om. Γ || 20 diducta $N^1 TDF\mu snm$ diducta HM ducta Xl conducta $N^2 e$

XXV. 1. Gutun hau irakurri zenean izan ziren ejerzitua Afrikara bidali eta hainbat arinen lagundu behar zitzaiola Aderbali uste zutenak eta bitartean mandatarien esanik egin ez zuen Jugurtarekin zer egin erabaki behar zela ziotenak. 2. 5 Baina lehenagoko erregearen aldekoak eurak, indar guztiekin ahalegindu ziren erabaki hura har ez zedin. 3. Horrela, arazo gehienetan gertatu ohi den bezala, batzuen interesa nagusitu zitzaion guztien onari. 4. Adineko noble batzuk bidali ziren haatik Afrikara⁸⁵, estatuan ardura handiak izandakoak, eta 10 hauen artean gorago aipatu dudan Marko Eskauro⁸⁶, kontsul izandakoa eta orduan senatuko buru zena⁸⁷. 5. Handik hiru egunetara ontziratu ziren hauek, haserrea zelako nagusi eta numidiarren erreguei ere erantzunez. Gero aurki Uticara heldu eta gutun bat bidali zioten Jugurtari⁸⁸, hainbat azkarren 15 probintziara hurbiltzeko eskatu⁸⁹ eta senatuak bidaltzen zituela beregana esanez. 6. Erroman itzaleko eta ahaltsu omen ziren gizon argi haiek bere asmoen aurka zetozela jakin zue-
nean larritu egin zen hasieran, beldurak eta grinak eraginda noraezean: 7. beldurra zion, mandatarien esana ez egitekoan, 20 senatuaren haserreari; nahikeriak itsututako bihotzak aitzitik gaiztakeriara zeraman. 8. Baina asmo txarrek irabazi zuten haren arima handizalea. 9. Honenbestez ejerzitua inguruan jarri eta indarrez Cirtara sartzeko ahalegin guztiak egin zituen, etsaien gudataldeak zatituz gero nahiz indarrez nahiz

(85) Mandataritzaren seriotasunari buruz ikus *Iug.*, XXI, 4 oh.

(86) *Iug.*, XV, 4 atalean aipatua da.

(87) Senadore zerrendan lehenbizikoa zen *princeps senatus* zelakoa eta honenbestez berari galdetzen zitzaion lehenbizi bere iritzia.

(88) Mediterranear Itsasoko hiri hau tiriarrak Afrikan zuten koloniarik zaharrena zen. Kartagotik iparmendebalderantz zegoen, Bagrada ibaiaren bokalean, ezkerrealdean. Hirugarren gerra punikoan ordurarteko lagun kartagoarrak utzi eta erromatarren adiskide egin ziren, Afrikako Probintziako hiriburu bihurtuz.

(89) Erromatarren Afrikako Probintziaren mugetara alegia.

aut vi aut dolis sese casum victoriae inventurum. 10. Quod ubi secus procedit neque quod intenderat efficere potest ut prius quam legatos conveniret Adherbali potiretur, ne amplius morando Scaurum, quem plurimum metuebat, incenderet, cum paucis equitibus in provinciam venit. 11. Ac tametsi senati verbis graves minae nuntiabantur, quod ab oppugnatione non desisteret, multa tamen oratione consumpta legati frustra discessere.

XXVI. 1. Ea postquam Cirtae audita sunt, Italici, quorum virtute moenia defensabantur, confisi deditioe facta propter magnitudinem populi Romani inviolatos sese fore, Adherbali suadent uti seque et oppidum Iugurthae tradat, tantum ab eo vitam paciscatur: de ceteris senatui curae fore. 2. At ille, tametsi omnia potiora fide Iugurthae rebatur, tamen quia penes eosdem, si advorsaretur, cogendi potestas erat, ita uti censuerant Italici deditioem facit. 3. Iugurtha in primis Adherbalem excruciatum necat; dein omnis puberes Numidas et negotiatores promiscue, uti quisque armatus obvius fuerat, interficit.

XXVII. 1. Quod postquam Romae auditum est et res in senatu agitari coepta, idem illi ministri regis interpellando ac saepe gratia, interdum iurgiis trahendo tempus, atrocita-

2 ut... potiretur *Non.*, 498, 29; *Arus. Gramm.*, VII, 498, 4; *Serv. Aen.*, 3, 278 || 3 priusquam... potiretur *Prisc. Gramm.*, III, 334, 4 || 13 tantum... paciscatur *Arus. Gramm.*, VII, 498, 9

3 poteretur *Arus.* || 6 tametsi] tum etsi *MDμ* tamen etsi *C* | senati *PACNe* *edd.* senatui / senatus *cett. codd.* | graves minae] *ex* gravissimae *P* || 8 legati frustra] legati *s.s.* *AC* frustra legati *Q* || 9 italici] *ex* itali *T* itali *HMDFμs* || 13 curae fore] *ex* curae esse *M* curae esse *TDFμ* curae foret *N* || 14 fide] *ex* fidei *M* fidei *ACm* || 16 facit *XΔ* fecit *Y* || 18 armatus *PA²CBIn* *edd.* armatis *A¹* *cett.* || 19 interficit *XlSn* interfecit *Yme* || 21 coepta] *sc.* est *s.s.* *CQ* vel coepit *s.s.* *Q* coepit *MT²Nn*

azpijokoz irabazteko unea aurkituko zuelako itxaropenaz⁹⁰.

10. Hau guztia oker atera eta mandatariekin elkartu baino lehen Aderbal atzemateko asmoa ezin burutu izan zuenean, zaldizko gutxi batzuekin joan zen probintziara, beldur handia zion Eskauro sumin ez zedin gehiago itxaron behar-
5 rekin. 11. Baina setioa ez bukatzeagatik senatuaren izenean egiten zituzten mehatxuak handiak baziren ere, esku hutsik joan ziren halere mandatariak bokantza agerpen handiak egin ondoren.

10 XXVI. 1. Cirtan hau dena jakin zenean, euren adoreaz harresia babesten zuten italikoek⁹¹, errendituz gero Erromako herriaren handitasunari esker inongo bortxarik jasango ez zutelako ustean, hala bere burua nola hiria Jugurtari eman eta trukean bizitza bakarrik eskatzeko aholkua eman zioten
15 Aderbali, gainontzekoaz senatua arduratuko zelakoan. 2. Eta Jugurtaren hitza baino beste edozer zela fidagarriago uste bazuen ere, italikoen aurka joanez gero hauek hartara behar-
tzeko modua zutenez, eskatu bezala burutu zuen Aderbalek errenditzea. 3. Jugurtak Aderbal oinazetu eta ero zuen lehen-
20 bizi eta gero, soldaduen aurrera etorri ahala, haurrak ez beste numidiar guztiak eta merkatariak bereizketarik gabe hil zituen⁹².

XXVII. 1. Erroman hau jakin ondoren arazoa senatuan eztabaidatzen hasi zirenean, erregearen morroi haiek beraiek
25 saiatu ziren⁹³, tarteka mintzatuz eta bateko euren itzalari esker besteko eztabaidekin denbora emanaz, haren gaiztake-

(90) Inguru osoan zuten etsaiari aurre egiteko zatitu eta sakabanatu beharra izango zutela espero zuen.

(91) Italikoei buruz ikus *Iug.*, XXI, 2 oh.

(92) Merkatariari buruz ikus *Iug.*, XXI, 2 oh. eta XXVI, 1.

(93) Ikus pertsonaia hauen jokabidearen goragoko aipamenak (*Iug.*, XIII, 5; XV, 2; XX, 1; XXV, 2).

tem facti leniebant. 2. Ac ni C. Memmius, tribunus plebis designatus, vir acer et infestus potentiae nobilitatis, populum Romanum edocuisset id agi ut per paucos factiosos Iugurthae scelus condonaretur, profecto omnis invidia prolatandis consultationibus dilapsa foret: tanta vis gratiae 5 atque pecuniae regis erat. 3. Sed ubi senatus delicti conscientia populum timet, lege Sempronia provinciae futuris consulibus Numidia atque Italia decretae; 4. consules declarati P. Scipio Nasica, L. Bestia Calpurnius; Calpurnio Numidia, Scipioni Italia obvenit. 5. Deinde exercitus qui in Africam 10 portaretur scribitur; stipendium aliaque quae bello usui forent decernuntur.

XXVIII. 1. At Iugurtha, contra spem nuntio accepto, quippe cui Romae omnia venire in animo haeserat, filium et

3 ut (per paucos factiosos *om.*) ...condonaretur *Arus. Gramm., VII, 461, 3*

1 leniebant] laniebant *B ex* liniebant *D* liniebant *HM* || 3 per paucos factiosos] *om. Arus.* || 8 decretae] *sc. sunt s.s. CQ* sunt *s.s. m* decretae sunt *MFμ* | consules] *que s.s. m* consulesque *M* || 9 l. bestia calpurnius *CBQYΔ* (l. calpurnius bestia *Ns*) l. bestia *PM¹DI* (calpurnius *s.s. M corr. D² ante* bestia) calpurnius l. baestiae *A* calpurnius l. bestia *c.* (l. bestia *c. eras.*) *C* bestia *c.* calpurnius *B* l. calpurnius bestia *Ns* || 11 aliaque quae] vel alia quaeque *s.s. C* alia quaeque *Pe* atque alia *B* || 11 forent] florent *P* || 14 venire *PA¹NT¹le* venalia *Q* (*sc. esse i.e. vendi vel venum ire s.s.*) venum ire *A²CBHms* | haeserat] in *s.s. A* inhaeserat *CB*

riaren gordintasuna zuritzen. 2. Eta plebearen tribuno izateko izendatua zen Gaiο Memiok⁹⁴, gizon kementsu eta nobleteriaren agintearen etsai zenak agertu ez balio Erromako herriari zer zegoen auzitan, azpijokozale gutxi batzuei esker
 5 Jugurtaren gaiztakeria barkatzea alegia, eztabaidak luzatu eta zinez haserre guztia ezereztuko zatekeen; horrainokoa zen erregearen diru eta itzalaren indarra⁹⁵. 3. Baina lege-haustearen jakinaren gainean senatuak herriari beldurra hartu zionean, Numidia eta Italiako probintziak eman zitzaizkien
 10 hurrengo kontsulei, bakoitzari berea, lege senproniarren arabera⁹⁶. 4. Publio Eszipion Nasika eta Luzio Bestia Kalpurnio izendatu ziren kontsul⁹⁷; Kalpurniori egokitu zitzaion Numidia eta Eszipioni Italia. 5. Orduan ejerzitua bildu zen Afrikara joateko eta soldatak eta gerrarako beharrezko ziren gainerakoak erabaki ziren.

XXVIII. 1. Baina Jugurtak, Erroman dena saltzen zelako uste sendoa zuenez, espero zuenaren kontrako berria hartu

(94) K.a. 110. urtean izan zen plebearen tribuno eta 104.ean pretore. Saldukeria salaketa leporatu zioten, baina epaiketaren ondoren errugabetzat hartu zuten. 100. urtean hil zuten Saturnino tribunoaren aginduz. Zizeronek aipatzen duenez (*Brut.*, 136), bai Memio eta baita Luzio bere anaia ere hizlari eskasak baina salatzaile trebe eta beldurgarriak ziren, Salustiok Memioren hitztorriaren ospea gogorarazten badu ere (*Iug.*, XXX, 4 hh.).

(95) Hots, Jugurtarena.

(96) Gaiο Senpronio Grakok K.a. 123-122. urtean proposaturiko lege honen arabera hauteskunde aurretik erabaki behar zuen senatuak zeintzuk ziren hurrengo kontsulek euren ardurapean hartuko zituzten lurrak. Zeinek zer hartzen zuen jakiteko kontsulak eurak konpon zitezkeen izendapenaren ondoren eta bestela zozketatu egiten zen.

(97) K.a. 111. urterako egin zen izendapena. Meteloren zaleetakoa zen Nasika, Tiberio Grako hil zuenaren semea; urte berean hil zen, kontsul zela, eta ez zitzaion ordezkorik izendatu. Kalpurnio Grakotarren zaleetakoa izana zen, 121. urtean plebearen tribuno izana, baina nobleekin elkartu zen kontsul egin zutenerako; Jugurtarekin saldukeriaz jokatzearagatik epaitu eta atzerriaratu zuten gero. Kalpurnio honen izazera ikus *Iug.*, XXVIII, 5 hh.

cum eo duos familiaris ad senatum legatos mittit eisque, uti illis quos Hiempsale interfecto miserat, praecipit omnis mortalis pecunia adgrediantur. 2. Qui postquam Romam adventabant, senatus a Bestia consultus est placeretne legatos Iugurthae recipi moenibus; eique decrevere, nisi regnum ipsumque deditum venissent, uti in diebus proxumis decem Italia decederent. 3. Consul Numidis ex senatus decreto nuntiari iubet; ita infectis rebus illi domum discedunt. 4. Interim Calpurnius, parato exercitu, legat sibi homines nobilis, factiosos, quorum auctoritate quae deliquisset munita fore sperabat; in quis fuit Scaurus, cuius de natura et habitu supra memoravimus. 5. Nam in consule nostro multae bonaeque artes et animi et corporis erant, quas omnis avaritia prae-
 diebat: patiens laborum, acri ingenio, satis providens, belli haud ignarus, firmissimus contra pericula et invidias. 6. Sed legiones per Italiam Regium atque inde Siciliam, porro ex Sicilia in Africam transvectae. 7. Igitur Calpurnius, initio paratis com meatibus, acriter Numidiam ingressus est, multosque mortalis et urbis aliquot pugnando cepit.

XXIX. 1. Sed ubi Iugurtha per legatos pecunia temptare,

12 in consule... invidias *Fronto*, 109 N (162 H) (*om. nom. Sall.*)

2 praecipit *Xs* praecipit *cest.* | omnes mortales] ut *supra* adgrediantur *scr. et eras.*
 A ut omnes mortales *T* omnes mortales ut *Q* omnes ut mortales *HMDFμ* || 3 ab pecunia usque ad 31, 12 rem publicam lacuna in *M* quam explevit *man. rec. saec. XIII* || 7 italia] italiae *Pl* | senatus] senati *Dietsch* || 8 ita... discedunt] illi infectis rebus ita domum reversi sunt *TDFμ* || 10 auctoritate *CQT* (*praeter D*) $A^2 B^2 N^2 H^2 D^2 e^2$ auctoritas *PABNHDImne* s.s. *Q* || 13 artes et animi *Fronto plq. edd.* artes animi Ω' || 15 invidias *PANIm* *Fronto (Hauler) Ernout* insidias *cest. Fronto (Naber) Ablberg plq. edd.* || 16 regium] rheimium *P* hegium $A^2 C^2 Bn$ hegeum *Q* || 17 transvectae] sc. sunt s.s. *CQ* sunt s.s. e transvectae sunt *TDFμ* || 19 aliquot] ex aliquod *AN* aliquod *P* ut *vid.*

zuenean bere semea eta bi senitarteko bidali zituen senatura
mandatari eta denak diruarekin zirikatzeke ardura eman
zien, Hienpsal hil zuenean bidali zituenei bezala⁹⁸. 2. Hauek
Erromara hurbiltzen ari ziren unean, Jugurtaren mandatariak
5 harresi barruan onartzea ontzat emango zutenentz galdetu
zuen Bestiak senatuan eta hala erresuma nola erregea euren
eskuetan uztera ez bazetozen hamar egunen barruan utzi
behar zutela Italia erabaki zuten. 3. Numidiarrei senatuaren
erabakiaren berri emateko agindu zuen orduan kontsulak eta
10 euren eginkizuna bete gabe itzuli ziren hauek aberrira. 4.
Bitartean Kalpurniok bere ejerzitua paratu eta bere lege-
hausteak euren itzalaren eraginez estaliko zituztela espero
zuen noble azpijokozale batzuk aukeratu zituen laguntzaile-
tzat⁹⁹. Gorago aipatu ditugun izaera eta jokabideko Eskauro
15 zegoen hauen artean¹⁰⁰. 5. Bereiztasun on ugari zituen gure
kontsulak, hala fisikoak nola bihotzekoak, baina diruzaleke-
riak galarazten zituen guztiak: gogorra zen lanean, zorrotza
eta nahiko zuhurra, gerra kontuetan ikasia, sendoa arrisku
eta ezinikusien aurrean. 6. Italiatik zehar Regiora eta gero
20 Siziliara eta azkenik Siziliatik Afrikara eramán zituen le-
gioak¹⁰¹. 7. Honenbestez Kalpurniok beharrezko horniketa
egin eta garretan sartu zen Numidiara eta gizon asko eta
zenbait hiri hartu zituen borrokan.

XXIX. 1. Baina mandatarien bitartez diruarekin ziri-

(98) *Iug.*, XIII, 6 atalean agertzen dira Salustiok hemen aipatzen dituen lehenagoko mandatariak.

(99) Berez senatuak izendatzen ditu laguntzaile hauek, baina hemen ondo azaltzen denez (*legat sibi*) kontsularen beraren esku zegoen neurri handi baten aukeraketa.

(100) *Iug.*, XV, 4 eta XXV, 4 ataletan aipatu du gorago Eskauro.

(101) Gaurko Reggio di Calabria da aipaturiko Regio hiria, Italiako hegonden-debaldekoa. Sizilia, K.a. 210. urtetik zen probintzia erromatar, lehen gerra punikoan kartagoarrak uharte honetatik kanporatu ondoren.

bellique quod administrabat asperitatem ostendere coepit, animus aeger avaritia facile convorsus est. 2. Ceterum socius et administer omnium consiliorum adsumitur Scaurus; qui, tametsi a principio, plerisque ex factione eius corruptis, acerrume regem inpugnaverat, tamen magnitudine pecuniae a 5 bono honestoque in pravom abstractus est. 3. Sed Iugurtha primum tantummodo belli moram redimebat, existumans sese aliquid interim Romae pretio aut gratia effecturum. Postea vero quam participem negoti Scaurum accepit, in maxumam spem adductus recuperandae pacis, statuit cum 10 eis de omnibus pactionibus praesens agere. 4. Ceterum interea fidei causa mittitur a consule Sextius quaestor in oppidum Iugurthae Vagam; cuius rei species erat acceptio frumenti quod Calpurnius palam legatis imperaverat, quoniam deditionis mora indutiae agitabantur. 5. Igitur rex, uti 15 constituerat, in castra venit ac pauca praesenti consilio locutus de invidia facti sui atque uti in deditionem acciperetur, relicua cum Bestia et Scauro secreta transigit; dein postero

18 dein(de)... p. 36, 1 accipitur *Fest.*, 314, 34 (*om. nom. Sall.*); *Diom. Gramm.*, I, 486, 15

3 et administer] et minister *M* ac minister *nonn. rec.* || 6 in pravum] *ex* in parvum *B* || 7 primum *X* (*praeter A*) *nl* primo *A¹Ysme* || 8 sese] se *I¹me* || 9 quam] quem *Mn* || 9 accepit] acceperat *HMTDF¹μme* || 10 adductus spem *TDF¹μ* | cum eis] *ex* cum eis *Q* cum eo *A¹* (cum eis *s.s.*) *e* || 12 sextius] vel sexius *s.s.* *D* sexius *m* setus *e* sext**s *l* || 13 vagam *ANHDsme* c *s.s.* *ANH* cc *s.s.* *D* vacam *C* (c *s.s.*) vaccam *P cett.* || 16 locutus consilio *TDF¹μ* || 19 secreta] *ex* secreto *A* secreto *Mn* || 19 transigit] transegit *N²HTsne* || 18 dein] deinde *Diom.* | postero] postera *P¹n* vel a *s.s.* *Q* | postero die] *om. Diom.*

katzen eta berak zuzentzen zuen gerra zein latza zen erakusten hasi zitzaionean Jugurta, erraz aldatu zen diruzalekeriak jota zegoen haren gogoan. 2. Gainera Eskauro hartu zuen bere erabaki guztietako lagun eta eragile bezala eta honek hasieran, bere alderdiko gehienak ustelkerian erorita zeudenean, erregearen aurka zorrotz jokatu zuen arren, galbideratu egin zuen halere dirutzak zuzen eta zintzoa zena. 3. Hasieran bakeune bat bakarrik erosten saiatu zen Jugurta, bitartean Erroman bere dirua nahiz itzalari esker lortuko zuela zerbait 10 pentsaturik. Eskauro tratuan parte zela jakin zuenean, ordea¹⁰², bakea erdiesteko itxaropena berrituta, hitzarmen elkarrizketa guztietan bera egotea haiekin ebatzi zuen. 4. Baina anartean Sextio kuestorea bidali zuen kontsulak bermagarri izatearren Jugurtaren Vaga hirira¹⁰³. Errenditzearen 15 atzerapenarengatik su etena ezarri zenez, Kalpurniok mandatariei agerian eskatutako gari-horniketa eskuratzea zen honen aitzakia. 5. Honenbestez erregea, erabaki bezala, kanpamendura joan zen, labur-laburrean mintzatu zen batzarren aurrean berak gaizki egindakoez eta errenditzea onar 20 ziezaioten¹⁰⁴, eta Bestia eta Eskauroekin eztabaidatu zituen gainerakoak isilean. Gero, biharamonean, iritzi bilketa naha-

(102) Kontutan izan behar dira *negotium* hitzaren bi esanahiak, bai eginkizun hutsa eta baita irabaziaren bila doan tratua ere esan nahi baitu.

(103) Senatuak ematen zizkien eginkizunak zituzten kuestoreek, baina euren artean banatzen zituzten zozketaz. Ohore bidea (*cursus honorum* delakoa) hasteko lehenengo maila zen, mailarik apalena. Hiriko kuestoreak Erroman bizi ohi ziren, dirukontuen eta agiritegien ardurarekin. Kuestore militarrek bakoitza bere gudarostearekin joan ohi ziren eta eurak ziren zergak hartu, harrapakina gorde, atxilotuak saldu, horniketa zaindu edota diru kontuak eramateko ardura zutenak. Senaturako bidea zabaltzen zuen kargu honek. Vaga hiriar buruz ikus *Iug.*, XXVII, 2 oh.

(104) Batzar hau (*consilium*) ejerzituko ofizialek, mandatariek, tribunoek, ehuntari primipiloek eta senadore herronkakoek osatzen zuten. Beste leku batzuetan ere aipatzen du Salustiok (*Iug.*, LXII, 4 eta CIV, 1).

die, quasi per saturam sententiis exquisitis in deditionem accipitur. 6. Sed, uti pro consilio imperatum erat, elephanti triginta, pecus atque equi multi cum parvo argenti pondere quaestori traduntur. 7. Calpurnius Romam ad magistratus rogandos proficiscitur. In Numidia et exercitu nostro pax agitabatur. 5

XXX. 1. Postquam res in Africa gestas quoque modo actae forent fama divulgavit, Romae per omnis locos et conventus de facto consulis agitari. Apud plebem gravis invidia; patres solliciti erant. Probarentne tantum flagitium an decretum consulis subverterent parum constabat; 2. ac maxume eos potentia Scauri, quod is auctor et socius Bestiae ferebatur, a vero bonoque impediabat. 3. At C. Memmius, cuius de libertate ingeni et odio potentiae nobilitatis supra diximus, inter dubitationem et moras senatus, contionibus populum ad vindicandum hortari; monere ne rem publicam, ne libertatem suam desererent; multa 15 superba et crudelia facinora nobilitatis ostendere: prorsus intentus omni modo plebis animum accendebat. 4. Sed, quoniam ea tempestate Romae Memmi facundia clara pollensque fuit, decere existimavi unam ex tam multis orationem perscribere, ac potissimum ea dicam quae in contione post reditum Bestiae 20 huiusmodi verbis disseruit:

10 potentia Scauri eos (quod... ferebatur *om.*)... impediabat *Arus. Gramm., VII, 486, 7* || 13 inter dubitationem *Arus. Gramm., VII, 482, 2*

1 satiram *XNHem* sc. legem *s.s. ACBQ* per legem satiram *n* per scaurum N^2Tlse^2 (satiram sc. legem *s.s. D* scaurum *sup. ras. Fl*) || 3 parvo] non *s.s. B^2N^2D^2\mu^2* magno *M* || 4 magistratos rogandus P^1 || 5 et exercitu] et *mg. P s.s. e* et in exercitu *n* | agitabatur] *ex* agebatur *C* agebatur A^1 (vel agitabatur *s.s.*) || 6 africa] *ex* africanam *C* africanam A || 11 quod... ferebatur *om. Arus.* || 14 monere ne rem publicam ne libertatem Nm *plq. edd.* monere populum romanum (p.r. *saepe notatum*) ne rem publicam ne libertatem Y (*praeter N*) *e* monere rem publicam ne libertatem A^1 monere (movere B) populum romanum ne libertatem X (*praeter A^1*) *Isn Ornstein* || 16 superba et] et *s.s. D om. Fu* superba atque T || 17 accendebat] incendebat PM^1 || 19 multis] sc. orationibus *post* multis *s.s. CQ* multis eius orationibus Γm multis orationibus eius N || 20 ea ... quae $A^1NHDF\mu$ eam ... quae PB^1Q eam ... quam A^2CB^1MT

si bat egin¹⁰⁵ eta errenditzea onartu zitzaion. 6. Baina hogei-ta hamar elefante, zaldi eta abere ugari eta zilarrezko txanpon batzuk eman zitzaizkion, batzar aurrean erabaki bezala, kuestoreari. 7. Erromarantz abiatu zen Kalpurnio hauteskunde 5 buru izateko. Bakea zen Numidian eta gure ejerzituan nagusi.

XXX. 1. Afrikan zer eta nola gertatu zen zabaldu zenean, Erromako batzar eta bazter guztietan hitz egiten zen kontsularen jokabideari buruz. Haserre handia zuen herri xeheak 10 eta kezkatuta zeuden senadoreak. Ez zegoen batere argi hain itsuskeria handia onetsi ala kontsularen erabakia indargabetu zer egingo zuten. 2. Baina Bestiaren aholkulari eta lagun zen Eskauoren ahalmena zen garbitasuna eta zuzentasuna gehien eragozten zituena. 3. Gaio Memiok ordea, zeinaren izaera 15 askea eta nobleteriaren agintarekiko gorrotoa gorago aipatu baititugu¹⁰⁶, mendekurako dei egiten zion herriari oihuka herribatzarretan¹⁰⁷; errepublika eta askatasunaren ardura ez uzteko aholkua ematen zien eta nobleteriaren lotsagabekeria eta ankerkeria asko azaltzen zizkien, senatuak zalantza eta 20 luzapenetan jarraitzen zuen bitartean: labur esanda, burubelarri saiatzzen zen era guztietara plebearen haserre bizten. 4. Baina garai hartan ezagun eta ahaltsua zenez Erroman Memioren hitzetorria, egoki iruditu zait haren hitzaldi ugaritatik bat ekartzea hona idatzita. Bestiaren itzuleraren 25 ondoren herribatzarrean honelatsuko hitzekin adierazitakoa azalduko dizuet:

(105) Nahastean, arazoa ganoraz aztertu gabe eta bidezko bozketarik gabe hartu zela erabakia esan nahi du *quasi per saturam* esaldiak.

(106) *Iug.*, XXVII, 2 atalean aritu da Gaio Memiori buruz (ikus hango oharra).

(107) Bozketarik gabe, herriari nahiz gudarosteari zerbait azaltzeko, aginduren bat emateko, arazoren bat aztertzeko edo bozketadun batzarren baten aurretik iritzi bat edo beste bultzatzeko egiten ziren herribatzar edo batzar nagusi hauek (*contiones*).

XXXI. «1. Multa me dehortantur a vobis, Quirites, ni
studium rei publicae omnia superet: opes factionis, vostra
patientia, ius nullum, ac maxume quod innocentiae plus
periculi quam honoris est. 2. Nam illa quidem piget dicere
his annis quindecim quam ludibrio fueritis superbiae pau- 5
rum, quam foede quamque inulti perierint vestri defensores;
ut vobis animus ab ignavia atque socordia corruptus sit, 3
qui ne nunc quidem obnoxii inimicis exsurgitis atque etiam
nunc timetis eos quibus decet terrori esse. 4. Sed quamquam
haec talia sunt, tamen obviam ire factionis potentiae animus 10
subigit. 5. Certe ego libertatem, quae mihi a parente meo
tradita est, experiar; verum id frustra an ob rem faciam, in
vostra manu situm est, Quirites. 6. Neque ego vos hortor,
quod saepe maiores vestri fecere, uti contra iniurias armati
eatis. Nihil vi, nihil secessionem opus est: necesse est suomet 15
ipsi more praecipites eant. 7. Occiso Ti. Graccho, quem reg-
num parare aiebant, in plebem Romanam quaestiones habi-
tae sunt. Post C. Gracchi et M. Fulvi caedem, item vestri
ordinis multi mortales in carcere necati sunt; utriusque
cladis non lex, verum lubido eorum finem fecit. 8. Sed sane 20

7 ab ignavia... corruptus *Arus. Gramm., VII, 460, 10*

5 quindecim *V xv πQ xx nonn. edd. xxv Jacobs-Wirz* || 6 quamque] quam *A¹m*
| inulti] multi *BMDn* inviti *V* || 8 obnoxii *VXn* obnoxii** *Nlm* obnoxii *Γse* obnoxii
H || 10 talia haec *TDFμ* | sunt] sint *HΓsne* | ire obviam *BTDFμ* | potentiae factionis
VP²n || 11 certe] *ex certo A* ceterum *D* || 13 est quirites] estq. *V* | vos ego *DFμ* || 14
vestri] nostri *BHFm* || 15 suomet] suimet *A²Σn* || 18 c. gracchi] c. *om. TDFμ* |
vestri ordinis multi mortales] multi vestri ordinis *DFμ*

XXXI. «1. Gauza askok —noble alderdiaren indarrak, zuen geldotasunak, zuzentasunik ezak, eta batez ere zintzotasuna ohoregarri baino arriskugarriago izateak— urrunduko ninduke zuengandik, hiritarrok, nire aberriarekiko maitasunak denak gaingituko ez balitu. 2. Zinez lotsa ematen dit zenbait gauza aipatzeak: noraino izan zareten hamabost urte hauetan¹⁰⁸ gutxi batzuen ozartasunaren jostagarri, norainoko lotsaz hil ziren zuen aldekoak inor zigortu gabe, nola usteldu den zuen barrua axolagabekeria eta utzikeriaz, 3. gaur egun 10 etsaiak menperatu¹⁰⁹ ondoren ere zuek altxatzeko adorerik ez izateraino eta izua izan beharko lizueketen horien beldur izateraino. 4. Baina hau guztia horrela bada ere alderdi horren agintearen aurka jokatzera narama haatik nire bihotzak. 5. Aitarengandik jaso dudan askatasunaz baliatuko naiz ni 15 behintzat¹¹⁰: zuen esku dago ordea, hiritarrok, nik egin dezadana alferreko ala probetxuzko izatea. 6. Eta ez dizuet dei egiten, zuen arbasoek sarri egin duten moduan, armaz ekin dezazuen irainaren aurka. Ez da ez indarkeriaren ez banaketaren batere beharrik; eurak euren okerbidean erortzea da 20 behar dena. 7. Erregetzaren bila zebilela esanez salatzen zuten Tiberio Grako ero ondoren, Erromako herri xehearen jazarpenak burutu zituzten; Gaio Grako eta Marko Fulbio-ren hilketen ostean ere era berean hil zituzten kartzelan zuen herronkako asko¹¹¹. Eta nobleteriari gogoak eman zio- 25 nean amaitu ziren, eta ez lege baten bitartez, bi sarraskiak.

(108) Guk «hamabost urte hauetan» hautatu dugun lekuan, «hogeita bost urte hauetan» irakurri dute zenbait editorek, 133. urtean zendu zen Grakotarretako zaharrenaren heriotzaren ondorengo urteak kontaturik.

(109) Zordun eginez menperatu, alegia.

(110) Hiritarrak dituen eskubide guztiak sartzen dira hitz honetan plebearen tribuno batek *libertas* delakoa aipatzen duenean.

(111) Hemen aipatzen diren garaiei buruz ikus *Iug.*, XVI, 2 eta oh.

fuerit regni paratio plebi sua restituere; quicquid sine sanguine civium ulcisci nequitur, iure factum sit. 9. Superioribus annis taciti indignabamini aerarium expilari, reges et populos liberos paucis nobiles vectigal pendere, penes eosdem et summam gloriam et maximas divitias esse; tamen 5 haec talia facinora inpune suscepisse parum habuere; itaque postremo leges, maiestas vostra, divina et humana omnia hostibus tradita sunt. 10. Neque eos qui ea fecere pudet aut paenitet, sed incedunt per ora vostra magnifici, sacerdotia et consulatus, pars triumphos suos ostentantes, proinde quasi ea 10 honori, non praedae habeant. 11. Servi aere parati iniusta imperia dominorum non perferunt; vos, Quirites, in imperio nati, aequo animo servitutem toleratis?

12. At qui sunt ei qui rem publicam occupavere? Homines sceleratissimi, cruentis manibus, immani avaritia, nocentissimi et idem superbissimi, quibus fides, decus, pietas, postremo honesta atque inhonesta omnia quaestui sunt. 13. Pars eorum occidisse tribunos plebis, alii quaestiones iniustas, plerique caedem in vos fecisse pro munimento habent. 14. Ita, quam quisque pessime fecit tam maxime tutus est; 20 metum ab scelere suo ad ignaviam vestram transtulere, quos

9 sed incedunt... magnifici *Serv. Aen.*, 1, 46 || 20 ita... tutus est *ibid.* 7, 787 || 21 quos (omnis... cupere *om.*)... coegit *Don. Ter. Hec.*, 170

2 nequitur] nequit $B^2D^2s^2MTF\mu$ || 3 indignabamini] indignabimini PA | expilari] *ex* expilavit A expoliari n || 7 hostibus omnia $TDF\mu$ || 9 magnifici] vel magnifice *s.s.* Q magnifice $A^2HTF\mu sn$ || 10 proinde $VP^1A^1N^1me$ perinde *cett.* || 11 honori non praedae] honores non praedas V -res *mg.* P | servi aere parati] servi ** reparati P (*ae eras.*) servire parati A^1 (*al.* (vel ?) servi qui ere (et ?) parati i.e. comparati sunt *mg.*) | imperia iniusta $NDF\mu$ || 12 quirites] *om.* V || 14 rem publicam] rem P^1 || 16 et idem $VPCBl sn$ idemque $AQYme$ || 18 tribunos plebis] $TR. PL. A^1QD$ p. 1. N^1 rem p. M || 20 ita] itaque V || 21 ab scelere VP a scelere *cett.* | transtulere vestram $TDF\mu m$

8. Baina eman dezagun erregetzaren bila zebilela herri xeheari berea ematean; eta eman dezagun zuzentasunez egiten dela hiritarren odolarekin baino ezin mendeka daitekeen oro¹¹².

9. Isilean sumintzen zineten aurreko urteetan herri ondasunak hondatzen zirelako, errege eta herri askeak noble gutxi batzuei ordaintzen zitelako zerga edota hauen eskuetan zirelako ohore eta aberastasunik handienak; halere honenbesteko gaiztakeria hauek zigorrik gabe burutzea ez zuten aski izan: bukatzeko legeak, zuen burujabetasuna, eta jainkoei zein gizakiei dagokien guztia eman diete etsaiei. 10. Eta ez dute batere lotsarik ez damurik hau egin dutenek; zeuen muturren aurrean dabilta harro, batzuk apaizgoa edota kontsulgoa eta beste batzuk garaipenak erakusten, harrapakinak gabe ohoreak balira bezala. 11. Diruaren ordainean erositako jopuek ez dituzte nagusien bidegabeko manuak pairatzen eta zuok, hiritarrok, aginterako jaio zaretenok, etsi onean jasan-go duzue uztarpea¹¹³?

12. Baina nortzuk dira gure aberria hartu duten horiek? Gaizkile hutsak, eskuak odolgorrituta dituzten gizakiak, dirugose aseezinekoak, gaiztaginak oso, eta era berean harro-harroak, zintzotasuna, prestutasuna, labur esanda ona dena eta ez dena guztia tratubiderako dutenak. 13. Hauetariko batzuek plebearen tribunoak hil izana¹¹⁴, beste batzuek bidegabeko jazarpenak, eta gehienek zuen aurkako sarraskiak burutu izana agertzen dituzte zuribidetzat. 14. Horrela zenbat eta gaizkileago izan lehen, hainbat ziurrago orain; zeuen

(112) Ironiazko hitzak dira atal honetakoak.

(113) Katonen behinolako hitzak «in Q. Minucium Thermum de falsis pugnibus» gogorarazten ditu zati honek: «Servi iniurias nimis aegre ferunt; quid illos bono genere natos, magna virtute praeditos opinamini animi habuisse atque habituros, dum vivent?».

(114) Lege bereziek babesten zituzten plebearen tribunoak, baina anaiarteko gatazkan horri ere ez zitzaion begirunerik izan.

omnis eadem cupere, eadem odisse, eadem metuere in unum coegit. 15. Sed haec inter bonos amicitia, inter malos factio est. 16. Quod si tam vos libertatis curam haberetis quam illi ad dominationem accensi sunt, profecto neque res publica sicuti nunc vastaretur, et beneficia vostra penes optumos, 5 non audacissimos, forent. 17. Maiores vestri, parandi iuris et maiestatis constituendae gratia, bis per secessionem armati Aventinum occupavere; vos pro libertate quam ab illis accepistis, nonne summa ope nitentini, atque eo vehementius quo maius dedecus est parta amittere quam omnino non 10 paruisse?

18. Dicit aliquis: «Quid igitur censes? Vindicandum in eos qui hosti prodidere rem publicam?» Non manu neque vi, quod magis vos fecisse quam illis accidisse indignum est, verum quaestionibus et iudicio ipsius Iugurthae. 19. Qui si 15 dediticius est, profecto iussis vestris oboediens erit; sin ea contemnit, scilicet existumabitis qualis illa pax aut deditio sit, ex qua ad Iugurtham scelerum impunitas, ad paucos potentis maxumae divitiae, ad rem publicam damna atque dedecora pervenerint. 20. Nisi forte nondum etiam vos dominationis 20

2 inter bonos... factio *Non.*, 304, 23 || 16 iussis... erit *Arus. Gramm.*, VII, 496, 26

1 omnis eadem cupere] *om. Don.* | eadem cupere] idem cupere *VI mg. P²* | odisse et eadem *Don.* || 2 factio] fastio *V* || 3 tam vos] tantam vos *QM* vos tantam *T¹D¹Fμ* (vel tam *s.s. TD*) | curam libertatis *Vn* || 4 profecto neque] profectio que *V* || 8 aventinum] sc. montem *s.s. C²* aventinum montem *QHTn* || 10 quo maius] *ex* quo magis *F* quo magis *PCD¹μme* quod magis *n* | amittere] omittere *N²TDFμme* || 12 dicit] dicit *Fμe* | censes] *ex* censet *PA* || 14 vos] vobis *VA¹* || 16 dediticius] *ex* dediticius *BM¹D²* dediticius *CD¹Im* de Iugurtha dicit *n* | vestris (vel vestris)] nostris *BΓm* || 17 contemnit] contemnet *V* || 19 ad rem publicam *A²VXI* in rem publicam *A cett.* at in rem publicam *n* | atque] *om. MF*

koldarkeriari eratziki diote euren hilketengatiko beldurra, gauza bera nahi izateak, gauza bera gorrotatzeak, gauza beraren beldur izateak bat egitera behartu dituzten hauek. 15. Baina onbidekoen artean adiskidetasuna eta txarbidekoen artean alderdikeria da hori¹¹⁵. 16. Hauen nagusigo egarriaren besteko askatasunarekiko ardura izango bazenute, ez litzateke, zinez, gure herria gaur bezain hondatuta egongo, eta prestuenekikoa izango litzateke eta ez ausartenekikoa zuen abegi ona¹¹⁶. 17. Birritan joan ziren euren aldetik zuen arbasoak, euren eskubideak eskuratu eta burujabetasuna lortzearen, armak hartu eta Abentinora¹¹⁷. Ez al duzue zuek haiengandik hartu duzuen askatasunaren alde gogor ekingo? Eta are gehiago hainbat lotsagarriago denean jadetsitakoa galtzea inoiz ez lortu izana baino¹¹⁸.

15 18. «Zer aholkatzen duzu zuk bada?» —esan lezake norbaitek— «Gure herria etsaiaren esku utzi dutenak zigortu egin behar direla?» Ez armekin edota indarrez, ezegokiago izango bailitzateke zuentzat hori egitea eurentzat jasatea baino, baina bai ordea epaibidez eta Jugurta beraren lekukotasunaz. 19. Benetan errenditua baldin bada, zuen aginduetara etorriko da; baina aginduok aintzat hartzen ez baditu, aldiz, garbi jakingo duzue zelako bakea eta errenditzea izan zen Jugurtarentzat bere hilketen barkamena, boteretsu gutxi batzuentzat aberastasun handiak, eta herriarentzat kalteak 25 eta lotsabidea ekarri dituen. 20. Halaxe gertatuko da haien

(115) Ikus *Catil.*, XX, 4: «nam idem velle atque idem nolle, ea demum firma amicitia est.»

(116) Abegi ona, hauteskundeetan.

(117) Bertsio ezberdinak daude plebearen lehenbiziko ekintza gogorren lekuari buruz. Tito Libiok ere agertzen duen tradiziokoa ematen du, adibidez, Salustiok berak ere *Katilinaren zimarkua*-n (*Catil.*, XXXIII, 3), Mons Sacer edo Mendi Sagartura joan zirela hain zuzen ere (K.a. 493. urtean). Abentinora K.a. 449.ean aldendu zen plebea lehenbizikoz eta 287.ean Janikulora joan ziren protesta modura.

(118) Tuzididesen hitzak (II, 62, 3) gogorarazten ditu zati honek.

eorum satietas tenet, et illa quam haec tempora magis placent, cum regna, provinciae, leges, iura, iudicia, bella atque paces, postremo divina et humana omnia penes paucos erant, vos autem, hoc est populus Romanus, invicti ab hostibus, imperatores omnium gentium, satis habebatis animam retinere; nam servitutem quidem quis vostrum recusare audebat?

21. Atque ego, tametsi viro flagitiosissimum existimo inpune iniuriam accepisse, tamen vos hominibus sceleratissimis ignoscere, quoniam cives sunt, aequo animo paterer nisi misericordia in perniciem casura esset. 22. Nam et illis, quantum inopportunitatis habent, parum est inpune male fecisse, nisi deinde faciundi licentia eripitur, et vobis aeterna sollicitudo remanebit, cum intellegitis aut serviendum esse aut per manus libertatem retinendam. 23. Nam fidei quidem aut concordiae quae spes est? Dominari illi volunt, vos liberi esse; facere illi iniurias, vos prohibere; postremo sociis nostris veluti hostibus, hostibus pro sociis utuntur. 24. Potestne in tam divorsis mentibus pax aut amicitia esse?

25. Quare moneo hortorque vos ne tantum scelus inpunitum omittatis. Non peculatus aerari factus est neque per vim sociis ereptae pecuniae. Quae quamquam gravia sunt, tamen

2 iudicia... paces *Beda Gramm.*, VII, 283, 16 | bella atque paces *Pomp. Gramm.*, V, 176, 21; (exercebant *add.*) *Cledon. Gramm.*, V, 42, 25 || 3 paces *Serv. Gramm.*, IV, 432, 21 || 4 vos... Romanus *Serv. Aen.*, I, 46 || 5 imperatores omnium gentium *Arus. Gramm.*, VII, 481, 20

6 audebat recusare *TDFμ* || 7 viro *VPMF¹μ* s. s. s. *F²* viros *A¹N¹s* virum *A²N²* *cett.* | flagitiosissimum *VPA²N²* flagitiosum *HM* flagitiosissimo *F* (s. s. s.) *m* flagitiosissimos *A¹N¹s* | existimo] aestimo *QTD* || 8 iniuriam inpune *TBFμ* || 9 nisi] nisi *AQNHTDme* || 10 quantum] qui tantum *AF²* || 12 aeterna *AQY* (*praeter D*) *sme* l. s. s. *A* i. e. dupla s. s. *Q* i. e. alternus timor s. s. *AQ* alterna *VPCEln* || 13 intellegitis] intellegitis *A¹D* || 17 hostibus *bis P¹CQnT²* *semel cett.* || 20 omittatis] amittatis *V* || 21 sunt] sint *QM²DFμm*

nagusikeriarekin oraindik ere nekatuta ez bazarete behintzat eta oraingoak baino lehenagoko denborak atseginago ez bazaikizue, hots, erresumak, lurraldeak, legeak, eskubideak, epaiak, gerra eta bakea, jainko eta gizabidezko arazo guztiak
 5 gutxi batzuen esku zireneko sasoiak; zuok berriz, Erromako herriak, etsaiek garaitu ez zaituztenek, herri guztien agintariek, bizitzari eustearekin aski zenuteneko denborak alegia. Zeren zuetariko zein ausartzen zen morroitza ez onartzen¹¹⁹?

21. Eta niri dagokidanean, mendekurik gabe iraindua
 10 izatea gizonarentzat dagoenik eta lotsagarriena iruditzen bazait ere, gogo onez onartuko nuke haatik, zeuen hirikide direnez, gaizkilerik handienak diren hauei barka diezaiezuen, zuen errukia zeuen galbide bihurtuko ez balitz behintzat.

22. Zeren hain dira lotsagabeak non ez baitute aski izango
 15 zigorrik gabeko gaizkile izana, berriro ere horrela egiteko aukera kentzen ez badiezue, eta betiereko kezka geratuko zaizue zuei edo morroi izan edo indarrez eutsi behar diozuela zuen askatasunari uler dezazuenean. 23. Zeren ze itxaropen
 20 nahi dute hauek eta askatasuna zuek; laidoak burutu nahi dituzte hauek eta eragotzi zuek; azkenik, etsai bezala darabiltzate zuen aliatuak eta aliatu legez etsaiak. 24. Izan al daiteke bakerik edo adiskidetasunik hain izaera ezberdinen artean?

25 25. Horregatik aholkatzen dizuet eta erregutzen ez dezazuen hain gaiztakeria handia zigorrik gabe utz. Ez da bidegabe xahututako herri-dirua oraingo arazoa, eta ezta aliatuei

(119) Plebearen ohizko arrenkurak agertzen dira hemen senatuaren eta optimateen kontra, baina garai berrietan, aurrekoetan ez bezala, errudunak zigortzeko aukera dela gogoraraziz.

(120) Hitz honen garrantziaz ikus *Iug.*, X, 6 oh. Oinarrizkoa den *concordia* honen bideragarritasuna zalantzan jartzen du Salustioi Memioren ahotan.

consuetudine iam pro nihilo habentur. Hosti acerrumo prodita senatus auctoritas, proditum imperium vostrum est: domi militiaeque res publica venalis fuit. 26. Quae nisi quaesita erunt, nisi vindicatum in noxios, quid erit relicuom, nisi ut illis qui ea fecere oboedientes vivamus? Nam inpune 5 quae lubet facere, id est regem esse.

27. Neque ego vos, Quirites, hortor ut malitis civis vestros perperam quam recte fecisse, sed ne ignoscendo malis bonos perditum eatis. 28. Ad hoc in re publica multo praestat benefici quam malefici inmemorem esse. Bonus tantummodo segnior fit, ubi negligas; at malus improbior. 29. Ad hoc si iniuriae non sint, haud saepe auxili egeas.»

XXXII. 1. Haec atque alia huiuscemodi saepe dicendo, Memmius populo persuadet uti L. Cassius, qui tum praetor erat, ad Iugurtham mitteretur eumque interposita fide publica Romam duceret, quo facilius indicio regis Scauri et relicuorum, quos pecuniae captae arcessebat, delicta patefierent. 2. Dum haec Romae geruntur, qui in Numidia relictus a

3 nisi... noxios *Diom. Gramm., I, 365, 2*

1 consuetudine tamen (*om. iam*) *TDFμ* || 2 est *PAKInm om. cett.* || 4 vindicatum] vindicantur V vindicatum fuerit *Diom.* vindicandum *nonn. rec.* || 7 ut malitis] ut iam malitis A (*iam exp.*) *QM* iam *s.s. m* || 10 beneficii quam maleficii inmemorem esse *edd.* beneficii quam maleficii memorem esse *Ω'* (in *ante* memorem *eras.* N *s.s.* *KTF* esse memorem *Q* memorem *ex* memores *C* memoriam *M*) beneficii memorem esse quam maleficii *VP*² || 13 saepe dicendo *sm Ernout* saepe indicendo *cett. codd.* saepe inducendo *Thomas Ornstein* in *vulgo delent sed post in aliquid videtur excidisse velut* contionibus *Ahlberg* saepius dicendo *Iordan ed. I Jacobs-Wirz* || 17 captae] acceptae *TDFμ* | arcessebat *A¹D* vel accersebat *s.s. D* accersere *P* n *al. manu s.s. A²* accersebant *CQn*

indarrez kendutako aberastasuna ere, hauek guztiak okerkeria astunak badira ere ezerezkotzat baititugu, egun ohituraren ohituraz¹²¹; etsairik amorratuenaren esku utzitako senatuaren aginpidea eta hari emandako zeuen burujabetasuna dira orain 5 arduratzen nautenak, salgai jarri baita gure herria bai etxean eta bai kanpoan. 26. Hau dena aztertu eta errudunak zigortu ezean, zer geratzen zaigu dena burutu dutenen esanetara bizitzea ez bada? Zeren nahi dena zigorrik gabe egitea, horixe da errege izatea da.

10 27. Eta ez dizuet, hiritarrok, zuen hirikoek zuzen barik oker jokatzearn nahiago izan dezazuen eskatzen¹²², gaiztoei barkatzearen ez onbidekoak galtzeko baino. 28. Gainera hobe da politikagintzan ondo egindakoa eta ez gaizki egindakoa ahaztea. Alfertu baino ez da egiten ongilea kasurik 15 egin ezean, gaiztoa berriz are gaiztoagotu. 29. Gainera laidorik izan ezik ez litzateke laguntza beharrik sarri izango¹²³.

XXXII. 1. Halakoak eta antzekoak behin eta berriro esanez lortu zuen Memiok herriak orduan pretore zen Luzio Kasio¹²⁴ Jugurtarengana bidaltzea, Erromako herriaren babespean ekar zezan hau Erromara¹²⁵, horrela errazago izan zedin erregearen lekukotasunarekin Eskauoren eta dirua hartzeagatik salatzen zituen gainerako bidegabekeriak argitzea. 2. Erroman hau gertatzen zen bitartean, Bestiak Nu-

(121) Konkusioa zigorrik gabe uzten zen sarri.

(122) Mendekurako bidea ere ez duela onartzen argitu nahi du Salustiok.

(123) Era askotara ulertu izan da *auxilium* hitzak hemen duen zentzua. Ziurrenik tribunokoak plebeari eskaini diezaioketen laguntzaz ari da.

(124) Luzio Kasio Rabilla Longino 111. urtean pretore, 109.ean zentsore eta 107.ean, Mariorekin batera, kontsul egin zen. Epaile zuzen, zorrotz eta trebetzat zuten.

(125) *Catil.*, XLVII, 1-eko pasartean ikusten da polito norainoko eragina izan zezakeen zerbaite *fide publica* herriaren babespean egiteak, benetakoste ona sortzen baitzuen. Zimarkuaz galdetzen zaionean ezer ez du esaten Bolturtziok, baina bere hitzak *fide publica* entzungo zaizkiola agintzen zaionean dakien dena salatzen du.

Bestia exercitui praeerant, secuti morem imperatoris sui, plurima et flagitiosissima facinora fecere. 3. Fuere qui auro corrupti elephantos Iugurthae traderent; alii perfugas vendere; pars ex pacatis praedas agebant: 4. tanta vis avaritiae [in] animos eorum veluti tabes invaserat.

5. At Cassius praetor, perlata rogatione a C. Memmio ac percussa omni nobilitate, ad Iugurtham proficiscitur; eique timido et ex conscientia diffidenti rebus suis persuadet, quoniam se populo Romano dedisset, ne vim quam misericordiam eius experiri mallet. Privatim praeterea fidem suam 10 interponit, quam ille non minoris quam publicam ducebat: talis ea tempestate fama de Cassio erat.

XXXIII. 1. Igitur Iugurtha contra decus regium cultu quam maxime miserabili cum Cassio Romam venit. 2. Ac tametsi in ipso magna vis animi erat, confirmatus ab omnibus 15 quorum potentia aut scelere cuncta ea gesserat quae supra diximus, C. Baebium tribunum plebis magna mercede parat, cuius inpudentia contra ius et iniurias omnis munitus foret. 3. At C. Memmius, advocata contione, quamquam regi infesta plebes erat et pars in vincula duci iubebat, pars, nisi 20 socios sceleris sui aperiret, more maiorum de hoste supplicium sumi, dignitati quam irae magis consulens, sedare motus et animos eorum mollire, postremo confirmare fidem

9 ne... mallet *Don. Ter. Hæ.*, 766 bis || 13 cultu... (cum Cassio om.)... venit *Serv. Georg.*, 1, 3

3 vendere *edd.* venderent Ω' || 4 agebant] agebat PH^1 agerent I || 5 animos 'nusquam ap. Sall. invadere cum in invenitur' Ernout in animos Ω' praeter P^2 (in eras. animos ex animo) $N^2M^2F^2n$ || 6 cassius praetor perlata Γme cassius P.R. (vel p.r.) perlata $PACQNKIn$ cassius perlata (*ras. post cassius*) B cassius praetor p.r. perlata Hs || 8 quoniam PA^1I quo *cert.* || 9 ne] nam *Don.* 2 | vim quam] umquam PNI vim D (quam s.s. D^2) | quam] magis quam *Don.* 1 | misericordiam] benivolentiam *Don.* 1 || 10 eius] s.s. TD om. N | mallet] malle *Don.* 1 || 14 cum cassio] om. *Serv.* || 15 animi erat] erat animi $QF\mu$ erat om. D || 17 diximus] narravimus TD memoravimus $F\mu$ || 20 plebes] plebs A^2HTB (e s.s.) lne | iubebat] debebat P^1 | nisi] ni $ANHMF\mu e$ || 22 sedare] ex sedari P

midian ejerzituaren buru utzi zituenek, beren gudaiburuak ohi bezala, makurkeria lotsagarri ugari burutu zuten. 3. Elefanteak eman zizkieten Jugurtari urrez sobornatutako batzuek, ihes egindakoak saltzen zizkieten beste batzuek, 5 bakean zeuden herrietara harrapakin bila joan zirenak ere izan ziren; 4. horrenbestekoa zen haien bihotzak hartu zituen izurria bezalako dirugosearen indarra.

5. Baina nobleteriaren harridurarekin Gaio Memioren eskaria onartu zenean, Jugurtarenganantz abiatu zen Kasio 10 pretorea; beldurrez eta gaizki egindakoak bazekizkielako mesfidati aurkitu bazuen ere, lortu zuen, Erromako herriari errenditu zitzaionez, nahiago izatea honen errukia eta ez indarra probatzea. Erromako herriarena baino gutxiagokotzat ez zuen bere izenean ere agindu zion babes, horrenbestekoa 15 baitzen garai hartan Kasioaren izen ona.

XXXIII. 1. Honenbestez, errege ohorearen kontra, jantzirik errukigarrienarekin etorri zen Erromara Jugurta Kasioarekin¹²⁶. 2. Eta bera berez oso adoretua bazen ere, euren botere eta gaiztakeriarekin gorago aipatu ditugun bige- 20 degabekeria guztiak egiten lagundu zioten guztiek suspertuta, sari handi batekin erosi zuen Gaio Bebio plebearen tribunoa, honen lotsagabekeria zuzenbidearen eta bestelako laidoen aurrean babesgarri izan zekion. 3. Baina Gaio Memiok batzar nagusirako dei egin zuen¹²⁷ eta duintasunari 25 egin zion kasu eta ez haserreari, herri xeheak erregea gorrotatzen zuen arren; hain zuzen ere batzuek Jugurta giltzapertzeko eskatzen zuten eta beste batzuek, bere gaiztakerietako lagunak salatzen ez bazituen, arbasoek ohi zuten bezala etsaiari dagokion heriozigorra emateko¹²⁸. Zalaparta baretu eta haien

(126) Errudun guztien jantziekin, hain zuzen ere.

(127) Gaio Memiori buruz ikus *Iug.*, XXX, 3 eta XXVII, 2 oh.

(128) Norbait herriaren etsai izendatuz gero, bere eskubide guztiak galtzen zituen eta lege orotatik kanpo geratzen zen, gerra-zuzenbidearen esku.

publicam per sese inviolatam fore. 4. Post, ubi silentium coepit, producto Iugurtha verba facit, Romae Numidiaequae facinora eius memorat, scelera in patrem fratresque ostendit. Quibus iuvantibus quibusque ministris ea egerit quamquam intellegat populus Romanus, tamen velle manifesta magis 5 ex illo habere. Si verum aperiatur, in fide et clementia populi Romani magnam spem illi sitam; sin reticeat, non sociis saluti fore, sed se suasque spes corrupturum.

XXXIV. 1. Deinde ubi Memmius dicundi finem fecit et Iugurtha respondere iussus est, C. Baebius, tribunus plebis, 10 quem pecunia corruptum supra diximus, regem tacere iubet; ac tametsi multitudo quae in contione aderat vehementer accensa terrebat eum clamore, vultu, saepe inpetu atque aliis omnibus quae ira fieri amat, vicit tamen inprudencia. 2. Ita populus ludibrio habitus ex contione discedit, Iugurthae 15 Bestiaequae et ceteris quos illa quaestio exagitabat animi aulescunt.

XXXV. 1. Erat ea tempestate Romae Numida quidam nomine Massiva, Gulussae filius, Masinissae nepos, qui, quia in dissensione regum Iugurthae adversus fuerat, dedita 20 Cirta et Adherbale interfecto profugus ex patria abierat. 2.

14 vulgus amat fieri *Quint. Inst.*, 9, 3, 17

3 patrem fratresque] fratres patremque *B* patrem fratris *l* || 6 verum] vera *Y* (*praeter K*) *me* || 6 aperiatur] aperiet *AQ*^l aperiret *NH*^l*me* || 8 saluti] ex salute *P* || 12 aderat] adherat *PA*^l*C* || 18 erat ea tempestate] ex ea tempestate erat *T* ea tempestate erat *Mm* ea erat tempestate *e* || 21 interfecto] interempto *Tm* | ex patria *P* ex africa *cett.*

amorrua lasaitu zuen, eta azkenik herriaren izeneko bermea ez zuela berak hautsiko baieztatu zuen¹²⁹. 4. Gero, isildu zirenean, Jugurta aurrera ekarri¹³⁰ eta hitz egiten hasi zen Memio, Erroma eta Numidian burututako bidegabekeriak
 5 gogoratu eta haren aita eta anaien hilketak agertuz. Erromako herriak bazekien arren noren laguntza eta noren gerizapean gauzatu zituen, bere ahotik entzun nahi zuela haatik esan zuen, egia argituz gero itxaropen handia zegoela harentzat Erromako herriaren babes eta urrikalmenduan, baina
 10 isilduz gero ez zituela bere lagunak onez aterako baina bere burua eta bere itxaropenak alferrikalduko zituela.

XXXIV. 1. Gero, Memiok hitz egiteari utzi zionean eta erantzuteko agindu zitzaionean Jugurtari, erregea isiltzeko agindu zuen plebearen tribuno zen Gaio Bebiok¹³¹, diruaz
 15 sobornatu zutelako aipatu dugunak¹³²; eta batzar nagusian bilduta zegoen jendetza biziki amorratuak bere oihu, keinu, eraso eta haserreak sortu ohi dituen bestelakoekin beldurtzen bazuen ere, gehiago egin zion lotsagabekeriak halere. 2. Horrela isekaz erabilia alde egin zuen herriak batzar nagusitik,
 20 eta Jugurta, Bestia eta auzi harekin arduratuta ziren guztiak berriz adoretu egin ziren.

XXXV. 1. Bazen Erroman garai hartan Masiba izeneko numidiar bat¹³³, Gulusaren semea, Masinisaren iloba, Cirta errenditu eta Aderbal hil zutenean aberritik ihesean alde egin zuena,
 25 erregeen arteko liskarretan Jugurtaren aurkako izana zelako. 2.

(129) "Herriaren izeneko bermea" (*fides publica*) deritzonari buruz ikus *Iug.*, XXXII, 1 oh.

(130) Baten bati galderak egin nahi zizkionenean batzar aurrera eramateko eskubidea zuten tribunoek.

(131) Edonor isilarazteko eskubidea (*ius intercessionis*) zuten tribunoek, batez ere herri-magistratuekin erabiltzen zuten eskubidea bazen ere.

(132) *Iug.*, XXXIII, 2 atalean dago aipatuta.

(133) Masibaren jatorria ikusteko cf. *Iug.*, V, 7 ataleko oharreko genealogi arbola.

Huic Sp. Albinus, qui proxumo anno post Bestiam cum Q. Minucio Rufo consulatum gerebat, persuadet, quoniam ex stirpe Masinissae sit Iugurthamque ob scelera invidia cum metu urgeat, regnum Numidiae ab senatu petat. 3. Avidus consul belli gerundi movere quam senescere omnia malebat. 5 Ipsi provincia Numidia, Minucio Macedonia evenerat.

4. Quae postquam Massiva agitare coepit, neque Iugurthae in amicis satis praesidi est, quod eorum alium conscientia, alium mala fama et timor inpediebat, Bomilcari, proxumo ac maxume fido sibi, imperat pretio, sicuti multa 10 confecerat, insidiatores Massivae paret, ac maxume occulte; sin id parum procedat, quovis modo Numidam interficiat. 5. Bomilcar mature regis mandata exsequitur, et per homines talis negoti artifices itinera egressusque eius, postremo loca atque tempora cuncta explorat; deinde, ubi res postulabat, 15 insidias tendit. 6. Igitur unus ex eo numero qui ad caedem parati erant paulo inconsultius Massivam aggreditur; illum obruncat, sed ipse deprehensus, multis hortantibus et in primis Albino consule, indicium profitetur. 7. Fit reus magis ex aequo bonoque quam ex iure gentium Bomilcar, comes eius 20

13 per... artifices *Arus. Gramm., VII, 456, 3*

2 gerebat] vel regebat *s.s. AQ* regebat *CBn* || 4 urgeat] urgebat *Γ* || 8 praesidii est quod] est *s.s. sm* est quod *eras. l* || 9 mala fama et timor] malae famae timor *A²* || 11 insidiatores] *sc. ut ante* insidiatores *s.s. Q* ut insidiatores *Γm* || 13 mandata regis *M¹Fμm* || 18 ipse] ille *C¹μ* || 19 fit magis ex aequo bonoque reus *DFμ*

Masinisaren jatorrikoa zenez eta Jugurta bere hilketengatik gorrotoak eta beldurak inguratzen zutenez, senatuari Numidiako erresuma eska ziezaion limurtu zuen Espurio Albinok¹³⁴, hurrengo urtean Bestiaren ondoren Kinto Minuzio Reforekin batera kontsul zenak¹³⁵. 3. Gerra egiteko irrikitan zen kontsulak nahiago izan zuen dena iraultzea geldirik egotea baino. Berari egokitu zitzaion Numidiako probintzia eta Minuziori Mazedoniakoa¹³⁶.

4. Masibak honi guztiari ekin zionean, Jugurtak, bere adiskideengan aski babesik ez zuenez, barruko kezkak geldiarazten baitzituen hauetariko batzuk eta izen txarrak edota beldurak beste batzuk, lehenago askotan egin zuen bezala ordainaren truke eta ahalik ezkutuen Masibaren aurkako gaizkileak paratzeko agindu zion bere adiskiderik minen eta fidagarriena zuen Bomilkarri, baina horrela ezin izanez gero edozein modutara hiltzeko numidiarra¹³⁷. 5. Bomilkarrek aurki bete zituen erregearen manuak eta halako eginkizunetan adituak ziren gizonekin haren joan-etorriak, hura zebilen leku eta ordu guztiak zelatatu zituen eta gero, une egokian, lakioa bota. 6. Hilketa burutzeko prest zeuden hauetariko batek eraso egin zion apur bat arin-arinka; hil egin zuen baina bera ere atxilotu egin zuten eta askoren galderen aurrean, eta batez ere Albino kontsularen galderen aurrean dena aitortu zuen. 7. Bomilkar salatu zuten, gehiago zuzentasuna eta zintzotasunaren izenean herri eskubideenga-

(134) Espurio Postumio Albino da 110. urteko kontsul hau.

(135) K.a. 110. urtean beraz.

(136) Probintziak bi kontsulen artean banatzeaz ikus *Iug.*, XXVII, 3 oh.

(137) Hain adiskide min eta ustezko laguntzaile fidagarri izandako numidiar hau, Jugurtak berak hil zuen (*Iug.*, LXXII, 1), hainbeste zerbitzu egin ondoren, Meteloren eskaintzen aurrean limurturik (*Iug.*, LXI, 4 hh.) bere nagusiaren aurkako saldukerietan parte hartzen ari zela jakin zuenean.

qui Romam fide publica venerat. 8. At Iugurtha manifestus
 tanti sceleris non prius omisit contra verum niti quam ani-
 madvortit supra gratiam atque pecuniam suam invidiam fac-
 ti esse. 9. Igitur quamquam in priore actione ex amicis
 quinquaginta vades dederat, regno magis quam vadibus con- 5
 sulens, clam in Numidiam Bomilcarem dimittit, veritus ne
 reliquos popularis metus invaderet parendi sibi, si de illo
 supplicium sumptum foret. Et ipse paucis diebus eodem
 profectus est, iussus a senatu Italia decedere. 10. Sed post-
 quam Roma egressus est, fertur saepe eo tacitus respiciens 10
 postremo dixisse: «Urbem venalem et mature perituram si
 emptorem invenerit!».

XXXVI. 1. Interim Albinus renovato bello commeatum,
 stipendium, aliaque quae militibus usui forent, maturat in
 Africam portare; ac statim ipse profectus uti ante comitia, 15
 quod tempus haud longe aberat, armis aut deditioe aut
 quovis modo bellum conficeret. 2. At contra Iugurtha trahe-
 re omnia et alias, deinde alias morae causas facere, polliceri
 deditioem ac deinde metum simulare, cedere instanti et
 paulo post ne sui diffident instare; ita belli modo, modo 20

11 <o> urbem... invenerit *Liv. Perioch.*, 64; *Aug. Epist.*, 138, 16; *Oros. Hist.*, 5,
 15, 5 (*omnes om. nom. Sall.*)

3 supra *PBKse* super *cert.* || 4 priore] priori *TDFμnme* || 6 dimittit] demittit
ANHe dimisit *m* || 10 eo tacitus] et tacitus *l* tacitus eo *TDFμ* || 11 urbem *PY Ernout*
 o urbem *AH²M²* *Liv. Aug. Oros. Ablberg Ornstein* | mature] cito *Liv.* | si emptorem]
 ex sumpturam *P* || 17 ab quovis usque ad deditioem *om.* *P¹* in *mg. superiore suppl.* *P²*
 || 20 modo, modo] modo *P¹* alterum *s.s.* *P²*

tik baino, Erromara herri babespean zetorren baten lagun baitzen¹³⁸. 8. Jugurtak ordea, hain gaiztakeria handiaren salaketapean zegoen arren, ez zion egiaren kontra ekiteari utzi, egindakoarengatik gorrotoa bere itzalaren eta diruaren gai-
 5 netik zegoela ulertu zuen arte. 9. Honenbestez, bermeareki-
 ko baino bere erregetzarekiko arreta handiagoarekin, aurreneko ekitaldian berme bezala berrogeita hamar lagun eman zituen arren¹³⁹, Numidiara bidali zuen isilean Bom-
 millar, honen zigorra gauzatuz gero gainerako herrikideak
 10 bere esanak egiteko beldurrak hartuko zituelako ikaraz. Eta bera ere harantz abiatu zen handik egun gutxigarrenera, Italiatik alde egiteko senatuaren aginduarekin. 10. Baina Erromatik irten zenean honako hau esan omen zuen azkenean, isil-
 isilik hara begira-begira egon ondoren: «Salgai dagoen hiria,
 15 eroslea aurkituz gero laster hondatuko litzatekeena!»¹⁴⁰.

XXXVI. 1. Bitartean gerra berritu eta Albino horniketa, soldatak eta soldaduek behar duten guztia Afrikara eramaten lehiatu zen eta berehala abiatu zen bera armekin, lasterko ziren hauteskundeak baino lehen amaitzearren gerra¹⁴¹,
 20 errenditzearekin nahiz behar zen moduan. 2. Jugurtak aitzitik dena luzatzen zuen eta batean atzerapenarentzat aitzakia bat bestean beste bat ateratzen zuen, errenditzea agintzen zuen eta gero beldur itxurak egin, bat-batean atzerantz egin eta handik gutxigarrenera itxaropena ez galtzeko oihu egiten

(138) Herri babespean (*fide publica*) etortzeari buruz ikus *Iug.*, XXXII, 1 oh.

(139) Bi ekitalditan ospatu behar zen epaiketa; aurreneko ekitaldian (*actio prior*) salaketa irakurri eta lekukoek galderei erantzun ondoren, ustezko errudunak zerbait utzi behar zuen berme bezala, bigarren ekitaldira (*actio secunda*) ez zuela hutsik egingo ziurtatzeko.

(140) Ospe handikoa da esaldi hau: «urbem venalem et mature perituram, si emptorem invenerit!». Tito Libiok, Agustin Sainduak eta Orosiok ere biltzen dute besteak beste.

(141) Urteko kontsulak izan behar zuen hurrengo urtekoa hautatuko zuten hauteskundeetako buru.

pacis mora consulem ludificare. 3. Ac fuere qui tum Albinum haud ignarum consili regis existumarent, neque ex tanta properantia tam facile tractum bellum socordia magis quam dolo crederent. 4. Sed postquam dilapso tempore comitiorum dies adventabat, Albinus, Aulo fratre in castris pro praetore relicto, Romam decessit.

XXXVII. 1. Ea tempestate, Romae seditionibus tribuniciis atrociter res publica agitabatur. 2. P. Lucullus et L. Annius tribuni plebis resistentibus conlegis continuare magistratum nitebantur, quae dissensio totius anni comitia impediabat. 3. Ea mora in spem adductus Aulus, quem pro praetore in castris relictum supra diximus, aut conficiendi belli, aut terrore exercitus ab rege pecuniae capiundae, milites mense Ianuario ex hibernis in expeditionem evocat, magnisque itineribus hieme aspera pervenit ad oppidum Suthul,

1 pacis... ludificari (*sic*) *Arus. Gramm.*, VII, 490, 22 || 15 oppidum Suthul *Prisc. Gramm.*, II, 147, 21 (*om. nom. Sall.*)

1 consulem] principem *Arus.* | ludificare] ludificari *Arus.* | ac] at *HΓm* || 5 adventabat] adventabant *H²DFμ* || 8 p. lucullus] p. l. lucullus *AQNK* l. lucullus *M* || 9 tribuni] ex tribunis *MFμe* vel nis *s.s.* *D* || 11 aulus] in ras. *P* ex aulinus (u in ras. in *exp.*) *N* albinus *AKle* (vel aulus *s.s.* *A*) pro aulo *s.s.* *l* (*sic quoque* 38, 2; 38, 4; 38, 9; 39, 1; 43, 1) | pro praetore] praetorem *T¹* (pro *s.s.*) *DFμe* quem praetorem p. r. *H* || 14 magnisque] que *om.* *Γ* (*s.s.* *T add. F*)

zien beretarrei; horrela bateko gerraren atzerapenarekin eta besteko bakearenarekin iseka egiten zion kontsulari. 3. Eta baziren orduan Albino ez zegoela erregearen asmoetatik at uste zutenak eta ezinarenatik baino gehiago saldukeriarengatik ez ote zen hainbesteko premiaz hasitako gerra hain erraz luzatu susmatzen zutenak. 4. Baina denborak aurrera egin eta hauteskunde eguna gainera etorri zenean¹⁴², Aulo anaia¹⁴³ utzi kanpamenduan pretoreorde bezala¹⁴⁴ eta Erromarantz abiatu zen Albino.

10 XXXVII. 1. Izugarri astintzen zuten garai hartan tribuno arteko gatazkek bizitza publikoa Erroman. 2. Publio Lukulo¹⁴⁵ eta Luzio Anio plebearen tribunoak euren karguetan jarraitzen saiatzen ziren¹⁴⁶, kideak aurka agertu arren, eta urte guztiko hauteskundeak geldiarazten zituen eztabaida
15 honek. 3. Edo gerra bukatu edo ejerzituaren ikaraz erregearendik dirua hartzeko itzaropena sortu zitzaion luzapen honekin kanpamenduan pretoreorde bezala utzi zutela esanez gorago aipatu dugun Aulori. Soldaduak urtarrilean atera zituen neguko gudalregietatik ibilaldirako¹⁴⁷, eta abialdi lu-

(142) Historian zehar ohitura ezberdinak izan ziren Erroman hauteskunde egunei buruz. Silaren garaian eta ondoren, uztailleko azken egunetan edo abuztuko aurrenekoetan ospatzen ziren, arazo bereziren batengatik atzeratzen ez baziren, baina garai honetarako ez daukagu datu zehatzik. Badirudi, dena dela, udazken buruan egin zirela 110. urteko hauteskunde hauek, 109.eko kontsulak hautatu behar zituztenak hain zuzen ere.

(143) Aulo Postumio Albino alegia.

(144) Pretorearen eginkizun eta botere guztiak hartzen zituen pretoreordeak, Erromatik kanpo soilik noski.

(145) Publio Lizinio Lukulo.

(146) Legez kontrakotzat jotzen zen tribunotza luzatzen saiatzea; horretan ahalegintzeagatik akabatu zuten Tiberio Grako, eta Gaio Grakok behin lortu bazuen ere bigarren goan ez zitzaion onartu.

(147) Kronologi arazoak sortzen ditu zati honek ere: aurreko abendukoa izan behar du ibilaldi honek, geroztik ere (XXXIX, 2 eta XLIII, 1) Albino agertzen baita kontsul bezala eta urtarrilean gauzatzen baitzen kontsul aldaketa.

ubi regis thesauri erant. 4. Quod quamquam et saevitia temporis et opportunitate loci neque capi neque obsideri poterat —nam circum murum, situm in praerupti montis extremo, planities limosa hiemalibus aquis paludem fecerat—, tamen aut simulandi gratia, quo regi formidinem adderet, aut cupidine caecus ob thesauros oppidi potiundi, vineas agere, aggerem iacere, alia quae incepto usui forent properare. 5

XXXVIII. 1. At Iugurtha, cognita vanitate atque inperitia legati, subdole eius augere amentiam, missitare supplicantes legatos; ipse, quasi vitabundus, per saltuosa loca et tramites exercitum ductare. 2. Denique Aulum spe pactionis perpulit uti relicto Suthule in abditas regiones sese veluti cedentem insequeretur; ita delicta occultiora fore. 3. Interea per homines callidos diu noctuque exercitum temptabat, centuriones ducesque turmarum, partim uti transfugerent corrumpere, alii signo dato locum uti desererent. 4. Quae postquam ex sententia instruxit, intempesta nocte de improviso multitudine Numidarum Auli castra circumvenit. 5. Milites Romani, perculti tumultu insolito, arma capere alii,

4 aquis hiemantibus *Sen. Epist.*, 114, 19 || 7 aliaque (quae... forent *om.*) properare *Arus. Gramm.*, VII 502, 11 || 10 quasi... ductare *Serv. Aen.*, 10, 341 | vitabundus per saltuosa loca recedebat (*sic*) *Diom. Gramm.*, I, 403, 5; cf. *Quint. Inst.*, 8, 3, 44: ductare exercitus

1 quod] *om.* *Γ* (*s.s. T*) || 4 hiemalibus aquis] aquis hiemantibus *Sen.* || 5 adderet] *ex* aderat *P* || 7 iacere] *ex* iacerem (*m exp.*) *A* iace**re (*ras. inter* iace- et -re) *P* | quae... forent] *om.* *Arus.* | properare] praeparare *Γsm* || 9 subdole] subdolo *PQ* subdolos *ANK¹D²e Dietsch Pabón* || 10 tramites et saltuosa loca *Serv.* | et tramites] *om.* *Diom.* | exercitum ductare] recedebat *Diom.* | aulum] *ut in Lug.*, 37,3 | perpulit spe pactionis *TDFμ* || 13 ita delicta occultiora fore *nonn. rec. Ernout* ita delicta occultiora fuere *Ω'* (*praeter A*) *Ahlberg Ornstein* ita delicto occultiore fuit *A* (-tiora *in ras.* *P* delicta occultiore fuit *P²*) *secl. Dietsch Jacobs-Wirz* || 14 diu *PA²N* die *sett.* || 15 partim *Q¹TD²Fμsn¹m* vel *um s.s. n* partium *sett.* (*sc. duces s.s. A sc. aliquarum s.s. C vel partim s.s. D*) || 19 tumultu perculti *HI¹me* | arma capere alii, alii] alii *semel Qmn* arma capere et alii *n* alii capere arma alii *Te*

zeekin, negu gorrian, erregearen altxorra zegoen Suthuleko hirira heldu zen¹⁴⁸. 4. Hala aro txarrarengatik nola lekuaren egokitasunarengatik —aintzira bihurtu baitzuten neguko euriteek mendi malkartsu baten gailurrean egindako harresiaren inguruan zegoen lautada lupetsua— ez hiria hartu ez inguratu ezin egin zezakeen arren, dela erregea izutzeko itxurak egiteagatik, dela altxorrak zirela eta hiria hartzeko irrikak itsutu zuelako, gudamahatsareak gerturatu¹⁴⁹, lubeta eraiki¹⁵⁰ eta bere asmoa burutzeko beharrezko zen guztia 10 egiten lehiatu zen halere.

XXXVIII. 1. Baina Jugurtak, ordezko honen handinahiaz eta moldagaiztasunaz jabetuta, maltzurkeriaz areagotzen zuen honen burugabetasuna; behin eta berriro bidaltzen zizkion mandatariak erreguka eta berak, ihesean 15 dabilenaren gisa, leku oihantsu eta bidesketatik harahonakutzen zuen ejerzitua. 2. Azkenik Suthul utzi eta urrutiko lurraldeetara segiarazi zion hitzarmenaren itxaropenarekin Aulori, bera atzeraka zihoalakoan, horrela lege-haustea ezkutuagoan egingo zutela eta. 3. Anartean gau eta egunez zirikatzzen zuen gizon artatsuen bitartez ejerzitua, ehuntariak eta zaldieriako buruzagiak lausengatzen zituen, batzuk ihesa hartu eta bere aldera igaro zitezen eta beste batzuek seinalea ematerakoan leku hartatik alde egin zezaten. 4. Eta hau guztia bere asmoen arabera paratua zuenean, ezustean gau 25 beltzean Auloren kanpamendua inguratu zuen numidiar andanarekin. 5. Soldadu erromatarrek armak hartzen zituzten

(148) Suthul hiria ez dugu beste inondik ezagutzen. Orosiok (V, 15, 6) Aulo Postumio aipatzean, Hipona eta Cirta bitartean zegoen Calama-n (gaurko Kalmah / Guelma) harrapatu zutela erregearen altxorren bila zihoala esaten duenez, hiri hone-tatik hurbil bide zegoen Suthul.

(149) Gudamahatsareei buruz ikus *Iug.*, XXI, 3 oh.

(150) Gotortze lanei buruz ikus *Iug.*, XXIII, 1 oh.

alii se abdere, pars territos confirmare, trepidare omnibus locis. Vis magna hostium; caelum nocte atque nubibus obscuratum, periculum anceps; postremo fugere an manere tutius foret in incerto erat. 6. Sed ex eo numero quos paulo ante corruptos diximus, cohors una Ligurum cum duabus 5 turmis Thracum et paucis gregariis militibus transiere ad regem; et centurio primi pili tertiae legionis per muniti-
 onem, quam uti defenderet acceperat, locum hostibus introeundi dedit, eaque Numidae cuncti irrupere. 7. Nostri foeda fuga, plerique abiectis armis, proximum collem occupave- 10 runt. 8. Nox atque praeda castrorum hostis quo minus victoria uterentur remorata sunt. 9. Dein Iugurtha postero die cum Aulo in colloquio verba facit: tametsi ipsum cum exercitu fame et ferro clausum teneret, tamen se memorem hu-
 manarum rerum, si secum foedus faceret, incolumis omnis 15 sub iugum missurum; praeterea uti diebus decem Numidia

9 nostri foeda fuga *Don. Ter. Eun.*, 313

1 trepidare] et trepidare *TDFμ* || 2 magna vis *TDFμ* | nubibus atque nocte *MTDFme* || 6 transiere *XDA* transire *Y* (*praeter D e s.s. T*) || 9 irrupere] irrumppere *P¹* irrumppere *n* erupere *CBI* || 10 occupaverunt] occupavere *Q¹TDFμlsm* || 12 remorata] remota *Pm* removit *M* || 13 facit *PANDsm* fecit *ceit.* || 14 fame et ferro] ferro et fame *Q* fame ferroque *TDFμ* fame ferro *m* | teneret *unus rec. edd.* teneat *nonn. rec.* tenet *Q¹*

batzuek, ezkutatu egiten ziren beste batzuk, izututa zirenei bihotz ematen zietenak ere baziren, eta alde batetik bestera zebiltzan, ohigabeko zalaparta hark asaldatuta. Handia zen etsaien indarra, gauak eta lainoek ilundutako zerua arrisku bikoitza zen, eta inork ez zekien zer zen ziurrago, ihes egitea ala geratzea. 6. Baina sobornatuak izan zirela esanez arestian aipatu ditugunetariko liguriar kohorte bat¹⁵¹, bi traziar zaldizkosail¹⁵² eta soldadu arrunt gutxi batzuk erregearen aldera igaro ziren, eta hirugarren legioko lehen ehuntariak¹⁵³ sarbi-
 10 dea eskaini zien etsaiei, zaintzekotan hartu zuen babespedetik. Handik egin zuten eraso numidiar guztiek. 7. Ihes lotsagarrian hartu zuten gutarrek, gehienek armak botata, hurbileko mendiska bat. 8. Gauak eta etsaiaren kanpamenduetan harrapakinak biltzeak garaipenaren ospakizuna atze-
 15 ratu zuten. 9. Biharamonean elkarrizketatu zen Jugurta Aulorekin: Aulo bera eta bere ejerzitua gosea eta armekin harrapatuta bazituen ere, halere gizakontuak nolakoak diren bazekienez, berarekin hitzarmena izenpetuz gero minik gabe utziko zituela denak, bere uztarpetik igaro ondoren, esan

(151) Italiako iparmendebaldeko itsasertzean zegoen liguriar herria, Rodano ibaitik Etruriarainoko bitartean. Oinezko laguntza taldeetan egin ohi zuten borrokan erromatarrekin. Kohortea (*cohors*), aliatuen antolaketa militarreko unitatea da K.a. I. menderarte. Erromatarrez osaturiko legioan bezala (cf. *Iug.*, XXXVIII, 6 oh), hiru maila ziren: *bastati* 'lantzadunak', *principes* 'aitzindariak' eta *triarrii* edo *pili* 'azkondunak'. Hiri, hiri multzo edo tribu aliatuaren izena hartzen zuen kohorte bakoitzak.

(152) Zaldizkosaila (*turma*) hogeita hamar zaldigaineko soldaduk osatzen zuten, hiru dekurioi buru zirelarik. Legio bakoitzean hamar zaldizkosail izaten ziren, kohorte bakoitzean bana. Betidanik ospetsuak ziren Traziako zaldiak.

(153) Oinezko soldaduen artean hiru maila ziren (*bastati*, *principes* eta *triarrii* edo *pili*, cf. *supra*) eta maila bakoitzarentzat hogeitahuntari izaten ziren, legio bakoitzean hirurogei beraz. Guztien artean azkondunena zen maila gorena eta ehuntarien artean aurreneko manipuloko lehen ehunekoaren buru zena (*centurio primi pili* edo *primus centurio*) zen nagusi. Gudalburuaren guda-kontseiluko partaide zen, goi mailako ofizialekin batera.

decederet. 10. Quae quamquam gravia et flagiti plena erant, tamen, quia mortis metu mutabantur, sicuti regi lubuerat pax convenit.

XXXIX. 1. Sed ubi ea Romae comperta sunt, metus atque maeror civitatem invasere. Pars dolere pro gloria impetri, pars insolita rerum bellicarum timere libertati, Aulo omnes infesti, ac maxime qui bello saepe praeclari fuerant, quod armatus dedecore potius quam manu salutem quaesiverat. 2. Ob ea consul Albinus ex delicto fratris invidiam ac deinde periculum timens, senatum de foedere consulebat; et tamen interim exercitui supplementum scribere, ab sociis et nomine Latino auxilia accersere, denique omnibus modis festinare. 3. Senatus, ita uti par fuerat, decernit suo atque populi iniussu nullum potuisse foedus fieri. 4. Consul, inpeditus a tribunis plebis ne quas paraverat copias secum portaret, 15 paucis diebus in Africam proficiscitur; nam omnis exercitus, uti convenerat, Numidia deductus, in provincia hiemabat.

4 haec ubi (sic)... comperta sunt *Prisc. Gramm., III, 73, 10* || 6 pars insolita rerum bellicarum *Arus. Gramm., VII, 486, 20*

1 decederet] discederet *CB* || 2 mortis metu mutabantur] metu mortis mutabantur *TDFμ* mortis metu motabantur *N²* mortis metu minitabantur *K²T²M* mortis metus intentabatur *P Thomas* || 4 sed ubi ea] haec ubi *Prisc.* || 5 dolere] dolore *P¹A¹C¹* || 6 aulo] ut in *Iug., 37, 3* || 7 fuerant *QN²K²HF* (*praeter D*) *sm* fuerint *PACBN¹K¹T²Dln* || 8 quaesiverat] quaesierat *QF* quaesiverit *Y* (*praeter F* quaesierit) *e* || 11 ab sociis] a sociis *Fme* || 12 accersere *PA¹CQn* accersere *D* (vel accer *s.s.*) accersire *A¹l* || 15 paraverat] pararet *D* paraverit *e* || 16 uti *XKlsm* ut *A¹NHF* (*praeter T*) *me*

zuen Jugurtak¹⁵⁴; bestalde hamar egunetan utzi behar zuten Numidia. 10. Eta baldintza hauek astunak eta iraingarriak ziren arren, erregearen gogoaren arabera izenpetu zuten haatik bake hitzarmena, heriotza mehatxua baitzegoen bestela.

5 XXXIX. 1. Baina Erroman hau guztia jakin zutenean izua eta goibeltasuna nagusitu ziren hirian: inperioaren ospearengatik sortzen zen batzuegan atsekabea eta beste batzuegan, gerra kontuetan adituak ez zirenean, euren askatasunarengatik beldurra. Guztiak ziren Aulorekin su-
 10 minduta, eta batez ere gerrateetan maiz gailendu zirenak, armak eskuera zituen arren ospegaltzean bilatu zuelako, eta ez borrokan, salbabidea. 2. Horregatik Albino kontsulak, anaiaren lege-haustek sor zitzakeen ezinikusia eta arriskua-
 15 ren beldurrez, senatuaren aurrean galdetu zuen itunari buruz¹⁵⁵; baina bitartean ejerziturako soldadu gehigarri bilketan ziharduen¹⁵⁶, aliatuen eta latindarren arteko talde laguntzaileei dei egiten zien¹⁵⁷, hau da, era guztietako pres-
 20 taketetan estututa zebilen. 3. Senatuaren eta herriaren agindurik gabe ezin zela itunik gauzatu erabaki zuen, bidezko zenez, senatuak. 4. Antolaturiko gudataldeak berarekin erama-
 teatea eragotzi zioten plebearen tribunoek eta bakarrik abiatu zen kontsula Afrikarantz, probintzia hartan baitzegoen ejerzitu guztia, hitz hartu bezala, Numidiatik alde eginda

(154) Garaituaren apalkuntza agerpena da garailearen uztarpetik buru-makur igarotzea. Lurrean bi lantza josi eta bien gainetik zeharretara hirugarren bat ezarri osatzen zuen garaileak uztarria.

(155) Epe jakin baterako estatu bik edo gehiagok hitz hartzen duten ituna da *foedus*. Bi aldeen eginbeharrak eta eskubideak zehazten dira.

(156) Legio berriak sortzeaz gain zaharrak osatzeko ere egin behar izaten zen soldadu bilketa. Aurreko urteetan izandako hutsak betetzeko egiten zen soldadu gehigarri bilketa (*supplementum scribere*).

(157) Aliatu italikoan artean aparteko egoera zutelako aipatzen dira bereziki latindarrak.

5. Postquam eo venit, quamquam persequi Iugurtham et mederi fraternae invidiae animo ardebat, cognitis militibus, quos praeter fugam soluto imperio licentia atque lascivia corruerat, ex copia rerum statuit sibi nihil agitandum.

XL. 1. Interim Romae C. Mamilius Limetanus tribunus 5 plebis rogationem ad populum promulgat uti quaereretur in eos quorum consilio Iugurtha senati decreta neglegisset, quique ab eo in legationibus aut imperiis pecunias accepissent; qui elephantos quique perfugas tradidissent; item qui de pace aut bello cum hostibus pactiones fecissent. 2. Huic 10 rogationi partim conscii sibi, alii ex partium invidia pericula metuentes, quoniam aperte resistere non poterant quin illa et alia talia placere sibi faterentur, occulte per amicos, ac maxime per homines nominis Latini et socios Italicos, impedimenta parabant. 3. Sed plebes incredibile memoratu est 15 quam intenta fuerit quantaque vi rogationem iusserit, magis odio nobilitatis, cui mala illa parabantur, quam cura rei publicae: tanta lubido in partibus erat. 4. Igitur ceteris metu

11 metuens pericula *Arus. Gramm., VII, 493, 1*

3 atque] ac *ls* || 4 agitandum] agendum *HT* (vel agitandum *s.s. D*) *me* || 5 interim] interea *Q* (vel interim *s.s.*) *DFμ* | mamilius] mamillus *PACQDn* mamillius *n* vel mallius *s.s. D* mallius *m* || 6 rogationem] rogatione *P* || 7 senati *PANlme* senatus *SY* (praeter *NF*) *ns om. F* | neglegisset *CB plq. edd. neglexisset cett. codd. Ablberg* || 11 pericula] periculum *TDFμ* || 15 plebes] plebs *HTlne* | memoratu] memoratum *P* || 16 quam] quantum *HTme* | iusserit] vel decreverit voluerit *s.s. A* decreverit voluerit *s.s. P²Q* iusserit decreverit voluerit *cett.*

negua igarotzen. 5. Hara heldu zenean Jugurtari jazarri eta anaiarekiko ezinikusia baretzeko irriki bizitan zegoen arren, egoera hartan ezin zezakeela ezer egin erabaki zuen, itzuriar gain behin agintea laxatu ondoren lasaikeriak eta gehiegikeriak alferrik galdutako soldaduak ikusi zituenen.

XL. 1. Bitartean Erroman Gaio Mamilio Limetano¹⁵⁸ plebearen tribunoak legetasmo bat aurkeztu zion herriari ikerketa has zedin Jugurtari senatuaren erabakien esanik ez egiteko aholkua eman ziotenen aurka, harengandik mandataritzan nahiz agintaritzan dirua hartu zutenen aurka, elefanteak edota iheslariak eskuetan jarri zizkiotenen kontra, eta etsaiarekin bake nahiz gerra hitzarmenetan aritu zirenen kontra. 2. Harako hura eta halakoak onartzen zituztela aitortu gabe ezin argi eta garbi aurre egin ziezaioketenez, ezkutu¹⁵⁹an prestatu zituzten legetasmo honen aurkako oztopoak lagunen bitartez eta batez ere latindar arteko hiritar eta aliatu italikoen bidez¹⁵⁹, batzuek erruaren jakitun zirelako, beste batzuek alderdi arteko ezinikusien arriskuari ikara ziotelako. 3. Baina ezin sinestekoa da zein lehiatsua izan zen plebea eta 20 zein jorantsu onartu zuen legetasmoa, gehiago nobleteriarekiko gorrotoarengatik, honen kalterako izango baitzen hura, aberriarekiko ardurarengatik baino¹⁶⁰: horrainokoak ziren alderdi arteko grinak. 4. Honenbestez gainontzekoak

(158) Ez da oso ezaguna 109. urtean plebearen tribuno izan zen gizon hau, hemen azaltzen den legetasmo edo legearengatik ez bada (*Mamilia rogatio* edota *Mamilia lex*). Ulises eta Zirtzeren semea zen Telegono —Tusculum sortu omen zuena— eta Telegonoren jatorri zahar eta noblekoa Gaio Mamilio.

(159) Politikagintzan zerbait izan nahi zuten kanpotarrak erabiltzen ziren maiz herri batzarreak nahasteko (ikus orobat *Iug.*, XLII, 1).

(160) Kontutan hartu behar da zati hau Salustioaren demokratekiko atxekimendua epaitu nahi baldin bada, hemen beste leku batzuetan bezala (*Catil.*, XXXVII, 1 hh.; XLVIII, 1-2; *Iug.*, LXXXVI, 3) nolabaiteko mespretxua agertzen baitu gorrotoa lege duen plebearekiko, honen jokabidea nobleteriarenekin parekatuz (*Iug.*, XL, 5).

perculsis, M. Scaurus, quem legatum Bestiae fuisse supra docuimus, inter laetitiam plebis et suorum fugam, trepida etiam tum civitate, cum ex Mamilia rogatione tres quaesitores rogarentur, effecerat uti ipse in eo numero crearetur. 5. Sed quaestio exercita aspere violenterque, ex rumore et lubidine plebis. Vti saepe nobilitatem, sic ea tempestate plebem ex secundis rebus insolentia ceperat.

XLI. 1. Ceterum mos partium et factionum, ac deinde omnium malarum artium paucis ante annis Romae ortus est otio atque abundantia earum rerum quae prima mortales 10 ducunt. 2. Nam ante Carthaginem deletam populus et senatus Romanus placide modesteque inter se rem publicam tractabant, neque gloriae neque dominationis certamen inter civis erat: metus hostilis in bonis artibus civitatem retinebat. 3. Sed ubi illa formido mentibus decessit, scilicet ea quae res 15 secundae amant, lascivia atque superbia, incessere. 4. Ita, quod in advorsis rebus optaverant otium, postquam adepti sunt, asperius acerbisque fuit. 5. Namque coepere nobilitas

10 quae... ducunt *Don. Ter. Eun.*, 50

1 fuisse supra] fuisse *om. et s.s.* BQ^2 supra *om. e* supra fuisse $TDF\mu$ || 3 tum etiam $TD^1F\mu$ | mamilia $PAle$ mamillia D mamilli $CBQ\Gamma sn$ mamili AK^2 mamiliana K^1N malliana m || 5 quaestio] *ex* quaesitio A quaestione T^2F^2s | exercita] *ex* excita P^2 (*er s.s.*) *sc.* exculpta *sc.* est *s.s.* A exercita est (*pro* exercitata vel exacta *s.s.*) Q exercitata T^2n || 8 partium $m^1 plq. edd.$ partium popularium $\Omega' Pab\acute{o}n$ | factionum N^1m^1 senatus factionum $CBQnA^2K^2T^2$ senatores factionum PA *cett.* || 14 civitatem in bonis artibus $TDF\mu$ || 15 decessit Xls vel *di s.s.* P vel *dis s.s.* A discessit $Ynme$ || 18 acerbis asperiusque $TDF\mu me$ | fuit $PNKl sn^2$ *ex* fuere D *s.s.* TG fuere $AQH-TF\mu me$ omnia fuere M vel *fit s.s.* A^2Q^2 *fit* CBn

beldurrak jota zeuden bitartean, plebearen poza eta beretarraren hondamendian, oraindik hiritarrak armin zeuden bitartean, Mamilioren legeak hiru epaiargitzaile eskatzen zituenez¹⁶¹, hauetarik bat bera izatea lortu zuen Bestiaren ordeko izan zela gorago aipatu dugun Marko Eskuero¹⁶². 5. Baina zorroztasunez eta bortxaz burutu zen ikerketa¹⁶³, plebearen esamesen eta grinaren arabera: ozartasuna nagusitu zen plebean garai hartako ongialdiarekin, maiz nobleterian nagusitu zen bezala.

10 XLI. 1. Bestalde urte gutxi lehenago sortu ziren Erroman, aisiaren eta gizonen garrantzizkotzat dituzten gauza guztien ugaritasunaren ondorioz, alderdi eta alderdikeren ohitura¹⁶⁴ eta honekin batera usadio txar guztiak. 2. Kartago suntsitu baino lehen eztitasun eta neurritz zaindu zuten herriak eta senatuak, guztien artean, aberria; hiritarren artean ez zegoen ospea ez agintearengatiko lehiarik: etsaierekiko ikarak iraunarazi zion hiriari usadio onetan. 3. Baina beldur hau aldendu zitzaizenean¹⁶⁵ gehiegikeria eta harrokeria etorri ziren, ongialdian etorri ohi direnak hain zuzen ere. 4. Honela gaizkialdian nahi izan zuten aisia erdietsi zutenean, hura baino gogor eta garrantzago gertatu zitzaien. 5. Norbere

(161) Auzipetuak asko zirenez hiru epaimahi osatu eta azkarrago jokatzeko izendatu bide ziren hiru epaiargitzaile.

(162) *Iug.*, XXVIII, 4 eta XXIX, 2 ataletan aipatu du Salustiok hori.

(163) Zizeronen berrien arabera (*Brut.*, 127 ss.) Bestia, Opimio eta Espurio Albino erruduntzat jo zituen epaiak eta atzerriratzeko agindua eman zuen; Eskuero berriz errugabe izendatu zuen, egitekoa herriak eman ziolakoan.

(164) Gehienetan *factio* hitza nobleteriaz aritzean erabiltzen bada ere, Salustiok halako bereizketarik gabe erabiltzen du kolore bateko nahiz besteko alderdikeriak aipatzeko.

(165) K.a. 146. urtean suntsitu zuen Eszipion Emilianok Kartago, hirugarren gerra punikoan. Salustioren iritziz ongarría zen Erromako herriarentzat Kartagoko etsai izugarrierekiko beldur hau eta *metus punicus* honen desagertzea da hain zuzen ere Erromako gizartean ohitura onen beheraldia eragiten duena (ikus halaber *Catil.*, X, 1).

dignitatem, populus libertatem in lubricinam vortere, sibi quisque ducere, trahere, rapere. Ita omnia in duas partis abstracta sunt; res publica, quae media fuerat, dilacerata. 6. Ceterum nobilitas factione magis pollebat; plebis vis soluta atque dispersa in multitudine minus poterat. 7. Paucorum arbitrio belli domique agitabatur; penes eosdem aerarium, provinciae, magistratus, gloriae triumphique erant; populus militia atque inopia urgebatur; praedas bellicas imperatores cum paucis diripiebant. 8. Interea parentes aut parvi liberi militum, ut quisque potentiori confinis erat, sedibus pellentur. 9. Ita, cum potentia avaritia sine modo modestiaque invadere, polluere et vastare omnia, nihil pensi neque sancti habere, quoad semet ipsa praecipitavit. 10. Nam ubi primum ex nobilitate reperti sunt qui veram gloriam iniustae potentiae anteponebant, moveri civitas, et dissensio civilis, quasi permixtio terrae, oriri coepit.

XLII. 1. Nam postquam Ti. et C. Gracchus, quorum maiores Punico atque aliis bellis multum rei publicae addiderant, vindicare plebem in libertatem et paucorum scelera

5 paucorum... agitabantur (sic) *Arus. Gramm., VII, 458, 25* || 12 nihil pensi nihil sancti habuisse *Sulp. Sev. Chron., 2, 50, 2* nihil pensi nihil sancti est *Sidon. Epist., 3, 4* || 13 quoad... praecipitavit *Arus. Gramm., VII, 505, 2*

1 lubricinam] ex libidem *P* || 2 in duas partes omnia *TDFμ* || 3 sunt] sint *P* | dilacerata] sc. est *s.s.* *C* est *s.s.* *D²md* dilacerata est *QH* || 5 in multitudine] in multitudinem *P²* per multitudinem *s* || 6 agitabatur] agitabantur *Arus.* || 8 militia] ex malitia (i *s.s.*) *μ* malitia *P* (militia corr. ut vid.) || 13 ipsa *AN¹m* *Arus.* ipsam *N²* cett. *codd.* || 16 permixtio *Qsn plq. rec.* permixtione *cett.* || 16 terrae oriri] ex terrae riri *P* ex terrae oriri *K* terreri *HT¹D¹Fμ¹* *mg.* *P²* ex terrae fore *N* terrori fore *m* || 19 vindicare] vindicare *KHFsm²*

grinen esku utzi zuten nobleteriak bere goratasuna eta herriak askatasuna; bakoitzak beretzat ihardun, ohostu eta lapurtzen zuen. Honela dena geratu zen bi zatitan eta bien erdian zegoen aberria, zatikatuta. 6. Baina, talde bat osatzen
 5 zuenez, ahalmen handiagoa zuen nobleteriak, eta plebearen indarra eskasagoa zen, barreiatuta eta multzo handian sakabanaturik baitzegoen. 7. Gutxi batzuen gogoen arabera egiten zen guztia bai gerra garaian eta bai bakealdian; esku beretsuetan zeuden herrialtxorra, probintziak, magistraturak,
 10 ohoreak eta garaipenak; soldadutzak eta lazeriak estutzen zuten herria; gerra harrapakinak gudalburuek eurenganatzen zituzten gutxi batzuekin. 8. Bitartean soldaduen gurasoak edota seme txikiak euren bizilekueetatik ohiltzen zituzten ahaltsuagoren baten auzoko zirenean¹⁶⁶. 9. Horrela boterearekin
 15 batera muga eta neurririk gabeko gutziak hartu, kutsatu eta hondatu zuen dena, inongo begirunerik ez itzalik gabe, berak bere burua amilarazi arte. 10. Zeren benetako ospea zuzengabeko boterearen aurretik jarri nahi zuten nobleak aurkitu bezain laster¹⁶⁷, hiria armintzen hasi zen eta anaiarteko liskarra
 20 sortu zen, lur osoaren anabasa bezalakoa.

XLII. 1. Tiberio eta Gaio Grako, zeintzuen arbasoek mesede handia egin baitzioten aberriari gerra punikoan eta beste batzuetan¹⁶⁸, plebearen askatasuna eskatzen¹⁶⁹ eta oligarken

(166) Iruzurrez nahiz indarkeriaz jabetzen ziren soldadutzan ziren jabe txikien lurrez lurjabe ahaltsuenak, batetik latifundioak ugalduz eta bestetik gehiengoaren lazeria areagotuz.

(167) Beherago azaltzen duenez Grako anaiez ari da.

(168) Kornelia, Grakotarren ama, bigarren gerra punikoan Hanibal garaitu zuen Eszipion Afrikar Nagusiaren alaba zen eta gerra honetan gailendu zen aitaren aitona ere. Tiberio Senpronio Grako, bi anaiei aita, zeltiberiarrei (K.a. 179) eta sardiniarrei (K.a. 177) irabazi zielako izan zen ezaguna.

(169) Esaldi hau berau da Salustiok Katilinarenean ahotan ere eskakizun politikoa bezala aurkezten duena: «vindicamus in libertatem» (*Catil.*, XX, 6).

patefacere coepere, nobilitas noxia atque eo perculsa, modo per socios ac nomen Latinum, interdum per equites Romanos, quos spes societatis a plebe dimoverat, Gracchorum actionibus obviam ierat, et primo Tiberium, dein paucos post annos eadem ingredientem Gaium, tribunum alterum, alterum triumvirum coloniis deducendis, cum M. Fulvio Flacco ferro necaverat. 2. Et sane Gracchis cupidine victoriae haud satis moderatus animus fuit. 3. Sed bono vinci satius est quam malo more iniuriam vincere. 4. Igitur ea victoria nobilitas ex lubricitate sua usa multos mortalis ferro aut fuga extinxit, plusque in relicto sibi timoris quam potentiae addidit. Quae res plerumque magnas civitates pessum dedit,

4 dein] dehinc *TDFμl* || 5 alterum alterum *n* alterum *semel cett.* (*s.s. D*) || 7 necaverat *PA²CBQKls* necaverant *A¹Y* (*praeter K*) *nme* || 8 animus moderatus *TDFμ* || 9 vincere] *ex* dicere *P*

okerkeriak agertarazten hasi zirenean beldurrak astindu zuen nobleteria erruduna. Batetik aliatuen eta latin-hirien bitartez¹⁷⁰ eta era berean elkarte onuragarriaren itxaropenarekin plebearengandik aldendu ziren erromatar zaldunen bitartez¹⁷¹ egin zieten aurre Grako anaien ekintzei; Tiberio hil zuten ezpataz lehenbizi¹⁷² eta bide bera hastera zihoan Gaio ero zuten handik urte gutxigarrenera¹⁷³, tribunoa bata, koloniak sortzeko arduradun triunbiroa bestea¹⁷⁴, eta hauekin batera Mario Fulbio Flako¹⁷⁵. 2. Eta zinez aski neurri gabe azaldu ziren Grako anaiak garaipen egarriarengatik. 3. Baina gizon zintzoarentzat bidezkoago da galtzea, laidoa modu txarrean gainditzea baino¹⁷⁶. 4. Honenbestez nobleteriak garaipen hau bere apetaz erabili eta gizon asko kendu zituen aurretik ezpataz nahiz erbesteratuta, eta aurrerantzerako bo-
 15 terea baino gehiago beldurra hartu zuen. Eta gaitz honek erauzi ditu gehienetan herri handiak, hots, elkarri edozein

(170) Kanpotarrak herri batzarreetan erabiltzeari buruz ikus *Iug.*, XI, 2 oh.

(171) Soldadutza zaldierian egiten duten hiritarrak eta aberastasunarengatik eta interesengatik elkartzen den aristokrazia osatzen dutenak dira zaldunak (*equites*). Nobleen pribilegioak izatearren plebea utzi eta nobleteriarekin elkartu nahi izan zutela dio hemen Salustiok.

(172) 133. urtean ekin zion plebearen tribuno bezala lur banaketaren berrikuntzari eta hurrengo urtean hil zuen Eszipion Nasikak senatuaren oneritziarekin.

(173) K.a. 123. urtean izan zen plebearen tribuno, anaiaren lur legea berrindartu zuen eta 122.ean tribuno berraukeratu zuten. Bere hilketari buruz ikus *Iug.*, XVI, 2 oh.

(174) Koloniak sortzeko arduradun triunbiroaren (*triumvir coloniis deducendis*) eginkizun nagusia hiri berria sortu eta lurak zuzentasun eta egokitasunez banatzea zen. Gaio Grakok Kartago ingurura eraman zituen sei milaren bat sendi eta Junonia izeneko nekazari kolonia sortu zuen han, baina bere hilketaren ondoren berak sorturiko hiria ere suntsitu egin zuten.

(175) 125. urtean kontsul izan zen eta 122.ean tribuno, Gaio Grakorekin batera, bi anaien asmoak burutzen lagunduz.

(176) Ez dago argi bi atal hauen zentzua. Badirudi XLII, 2 atalean Grako anaiak neurri gabe jokatzeari leporatu ondoren, azkenean (*sed*) onez jokatu zutela esan nahi duela. Zentzu honetan Grakotarrak eurak izango lirateke laidoa modu txarrean gainditzea baino galtzea nahiago izan zuten gizon zintzoak.

dum alteri alteros vincere quovis modo et victos acerbius ulcisci volunt. 5. Sed de studiis partium et omnis civitatis moribus si singillatim aut pro magnitudine parem disserere, tempus quam res maturius me deseret. Quam ob rem ad inceptum redeo.

XLIII. 1. Post Auli foedus exercitusque nostri foedam 5 fugam, Metellus et Silanus, consules designati, provincias inter se partiverant, Metelloque Numidia evenerat, acri viro, et quamquam advorso populi partium, fama tamen aequabili et inviolata. 2. Is ubi primum magistratum ingressus est, alia omnia sibi cum collega ratus, ad bellum quod gesturus 10 erat animum intendit. 3. Igitur diffidens veteri exercitui, milites scribere, praesidia undique arcessere, arma, tela, equos et cetera instrumenta militiae parare, ad hoc commeatum adfatim, denique omnia quae in bello vario et multarum rerum egenti usui esse solent. 4. Ceterum ad ea patrandam 15 senatus auctoritate, socii nomenque Latinum et reges ultro auxilia mittendo, postremo omnis civitas summo studio adnitebatur. 5. Itaque ex sententia omnibus rebus paratis conpositisque, in Numidiam proficiscitur, magna spe civium, cum propter artis bonas, tum maxume quod advorsum 20 divitias invictum animum gerebat, et avaritia magistratum

6 provincias... partiverant *Serv. Aen.*, I, 194; *Cledon. Gramm.*, V, 59, 13; *Pomp. Gramm.*, V, 233, 32 (*om. nom. Sall.*) || 7 acri... populi *Arus. Gramm.*, VII, 451, 14

2 omnis $P^1 A^1 CB$ vel omnibus *s.s.* A omnibus $P^2 QYnsem^2$ omnium m^1 | moribus] mores A (vel moribus *s.s.*) || 3 singillatim] singulatim *CBn mg. P^2* singillatim Q | parem] ex parum *CF* parum P || 4 me] *s.s.* *ATm om. Q* | deseret] desereret $T^1 In$ deserat $MT^2 m$ *Dietsch* || 5 auli] *cf.* 37,3 (albini *hic quoque Nm*) || 8 advorso] ex adversos A adversus *nm* || 10 alia omnia sibi] *fortasse* alia omnia <communia> sibi *Ernout* || 12 scribere *NMme* (eligere *s.s. m*) eligere *D* eligere scribere *XKHIsn* scribere eligere *Fμ* eligere praesidia scribere *T* | arcessere] accersere *Qn* accersiri A || 13 parare] parere PN^1 || 17 mittendo] **tendo P || 18 adnitebatur] **nitebatur P | ex sententia] i.e. ex voto *s.s. C^2* ex voto *s.s. m* ex voto *K* (et ex sententia *s.s.*) ex voto ex sententia $TDF^1 μ$ (ex voto *eras. F sc.* senatus *s.s. D*) ex voto sententia *M* || 19 magna] *sc.* cum *ante magna s.s. C^2 Q* tum magna $DFμ$ || 20 cum propter] tum propter $Q^2 D^2 MTFμ$

modutan irabazi eta bentzutuaren aurka mendeku gogorre-
gia hartu nahi izateak. 5. Baina banan eta garrantziaren arabera
hitz egiten saiatuko banintz alderdien grinei eta hiri bakoitzaren
ohiturei buruz, lehenago geratuko nintzateke astirik gabe
5 gairik gabe baino. Berriro noa, beraz, neure harira.

XLIII. 1. Auloren hitzarmena eta gure ejerzituaren ihes
lotsagarriaren ondoren¹⁷⁷, kontsul izendatutako Metelok eta
Silanok¹⁷⁸ bien artean banatu zituzten probintziak eta Mete-
lori suertatu zitzaion Numidia¹⁷⁹; gizon zorrotza zen eta he-
10 rriaren alderdiaren kontrakoa izan arren halere luzaroan izen
garbikoa. 2. Kargua hartu bezain laster gerrara zuzendu zi-
tuen bere indar guztiak, gainontzeko guztia kargukidearekin
baterakoa zela pentsaturik. 3. Honenbestez, ejerzitu zaharra-
rekin fidatu gabe soldadu bilketa egiten, nonahiko babestal-
15 deei dei egiten, defentsarako eta erasorako armak, zaldiak eta
bestelako gerra tresnak eta baita jaki-hornidura ugari ere
prestatzen aritu zen, hau da, premia handiko gerra aldakorretan
behar izaten diren guztiak prestatzen. 4. Gainera sena-
tuak bere baimenarekin¹⁸⁰, aliatuek, latin-hiriek, eta
20 erregeek eurenez laguntza taldeak bidaliz, eta azkenik hiri
osoak, lagundu zioten indar guztiekin hau burutzeko eki-
nean. 5. Hortaz dena bere asmoen arabera prestatu eta aton-
du zuenean Numidiarantz abiatu zen hiritarren itxaropenik
onenarekin, batetik bere trebetasunengatik eta bestetik
25 aberastasunzalekeriatik aske zuelako gogo¹⁸¹, magistratuaren

(177) *foedus* eta *foeda fuga* hitzekin jolasten du Salustiok.

(178) K.a. 109. urterako.

(179) Kontsul bakoitzari zegozkion lurren banaketari buruz ikus *Iug.*, XXVII, 3 oh.

(180) Probintzia hornitzeko (*ornatio provinciae*) Metelok aurkezturiko proposa-
men guztiak onartu bide zituen senatuak.

(181) Etika erromatarraren xedea Metelorengan mamiturik ikusten du Salus-
tiok, senadore ez aurrerakoien eredu bezala *virtus* delakoaz ondo jantzirik, *superbia*
piskatxo batez kutsaturik izan arren. Zizeronek ere gorapatzen du Meteloren
zintzotasun hau (*Balb.*, 11).

ante id tempus in Numidia nostrae opes contusae, hostiumque auctae erant.

XLIV. 1. Sed ubi in Africam venit, exercitus ei traditur a Sp. Albino proconsule iners, inbellis, neque periculi neque laboris patiens, lingua quam manu promptior, praedator ex sociis et ipse praeda hostium, sine imperio et modestia habitus. 2. Ita imperatori novo plus ex malis moribus sollicitudinis quam ex copia militum auxilii aut spei bonae accedebat. 3. Statuit tamen Metellus, quamquam et aestivorum tempus comitiorum mora inminuerat, et expectatione eventus civium animos intentos putabat, non prius bellum attingere quam maiorum disciplina milites laborare coegisset. 4. Nam Albinus, Auli fratris exercitusque clade percussus, postquam decreverat non egredi provincia, quantum temporis aestivorum in imperio fuit, plerumque milites stativis castris habebat, nisi cum odor aut pabuli egestas locum mutare subegerat. 5. Sed neque muniebantur <ea>, neque more militari vigiliae deducebantur; uti cuique lubebat, ab signis

3 exercitus... spei bonae adcedebat *Fronto*, 109 N (162 H) || 12 nam... p. 57, 2 confirmavit *Fronto*, 109-110 N (163, 168 H)

1 tempus] tempes (u s.s.) P | in] om. Pn | numidia] numidiam P (m. eras.) n || 3 ei] del. *Fronto*² | traditur] traditus *Fronto* traditur corr. *Fronto*¹ || 3 a sp. albino proconsule *XKT*²*F*²*Isn*² *Fronto* sp. albini proconsulis *cett.* (proconsul e) || 4 imbellis] imbecillis *Bn* || 5 laboris] laborum *Fronto* || 8 bonae spei *Γme* || 12 laborare] labore *PANKI Thomas* || 13 albinus] del. μ albini *MT*¹ || 14 aestivorum temporis *D*¹*TFμ* || 15 in imperio] om. *MT* | stativis] stativi *P*¹ stativis *Q* vel statutos s.s. *AQ* statutos (statutis s.s.) *TD* stativos *H* || 17 sed neque muniebantur ea *Paris. 6087 Leid. 63 Fronto* (om. ea) om. *cett.* || 18 deducebantur] ex ducebantur s ducebantur *K* | libebat] libuit *MFμ*

diruzalekeriak ahuldu baitzituen lehenago gure indarrak eta etsaienak handitu.

XLIV. 1. Baina Afrikara heldu zenean ejerzitu ahul eta txepela eman zion Espurio Albino kontsulordeak¹⁸², ez arriskuari ez lanari aurre egiteko gauza ez zen ejerzitua, mihia eskua baino bizkorragoa zuena, aliatu artean harrapari eta bera etsaien harrapakin, ez aginpiderik ez araubiderik gabekoa. 2. Hortaz handiagoa zen gudalburu berriari ohitura txarrek sortzen zioten kezka, soldadu kopuru handiak ematen zion laguntza edo itxaropen ona baino. 3. Hauteskundeengatik atzerapenarekin udaldia laburtuta geratu zen arren¹⁸³ eta hiritarrak gertakarien zain arretaz adi zirela bazekien ere, soldaduak arbasoen ohizko araupean lan egitera behartu arte gerrari ez ekitea erabaki zuen Metelok. 4. Zeren Albinok, Aulo anaiaren eta ejerzituaren hondamendiarengatik lur jota¹⁸⁴, probintziatik ez irtetea erabaki zuenetik¹⁸⁵, agintean izan zen udaldian kanpamendu iraunkorretan edukitzen zituen soldaduak¹⁸⁶, kiratsak edota zuhain gabeziak leku aldatzera behartzen zuen arte. 5. Baina ez gotortzen zituen ez zaingotaldeak ezartzen zituen gudalohituren

(182) K.a. 110.eko abenduak 31.erate izan zen kontsul eta beraz, kontsulorde bezala (*proconsul*) luzapenarengatik zeukan bere probintziako muge barruan *imperium* delakoa.

(183) Ikus honetaz *Iug.*, XXXVII, 2 oh. Dena dela badirudi hauteskunde atzerapenak ez zuela eraginik izan behar luzamendu honetan, Salustiok berak gorago (XLIII, 3-4) aipatu dituen prestaketek zailtasunak baino.

(184) *Iug.*, XXXVIII, atalean kontatzen ditu Salustiok hemen aipatzen dituen gertakizunak.

(185) *Iug.*, XXXIX, 5 atalean esanda du Salustiok, soldaduak ze egoeratan ziren ikusita ezin zela ezer egin erabaki zuela Albinok.

(186) Unean unerako leku eta modu egokian azkar eraikitzen ziren udako kanpamendu mugikorretan (*aestiva castra*) igaro ohi zuten ejerzituak udaldia, gudaldien arabera, eta udazkenerarte ez zen kanpamendu iraunkorra (*stativa castra*) eraikitzen, hemen gudaldirik gabeko negua igarotzeko.

aberat; lixae permixti cum militibus diu noctuque vagabantur, et palantes agros vastare, villas expugnare, pecoris et mancipiorum praedas certantes agere eaque mutare cum mercatoribus vino advecticio et aliis talibus, praeterea frumentum publice datum vendere, panem in dies mercari; postremo quaecumque dici aut fingi queunt ignaviae luxuriaequae probra, <ea> in illo exercitu cuncta fuere et alia amplius.

XLV. 1. Sed in ea difficultate Metellum non minus quam in rebus hostilibus magnum et sapientem virum fuisse conperior, tanta temperantia inter ambitionem saevitiamque moderatum. 2. Namque edicto primum adiumenta ignaviae sustulisse, ne quisquam in castris panem aut quem alium cibum coctum venderet, ne lixae exercitum sequerentur, ne miles <hastatus aut> gregarius in castris neve in agmine servom aut iumentum haberet; ceteris arte modum statuisse. Praeterea transvorsis itineribus cottidie castra movere, iuxta ac si hostes adessent vallo atque fossa munire; vigiliis crebras ponere et eas ipse cum legatis circumire: item in agmine in primis modo, modo in postremis, saepe in medio adesse, ne quispiam ordine egrederetur, ut cum signis frequentes

4 frumentum... mercari *Arus. Gramm.*, VII, 487, 22 || 5 panem... mercari *Don. Ter. Eun.*, 939 || 16 praeterea... munire *Prisc. Gramm.*, III, 94, 8

1 cum militibus permixti *TDFμ* | diu *PHNMe* *Fronto* die *cett. codd.* || 5 publice datum *codd. Arus.* datum publice *Fronto* | panem] panes *HM* || 7 ea *Fronto om. Ω'* | amplius alia *HΓe* || 8 non minus] nec minus *Fronto* || 9 virum *om. Fronto* || 10 conperior] *r eras. l conperio nonn. rec. comperi s om. Fronto* || 11 namque] nam *QF* || 11 primum] primo *Q²HΓ* (vel primum *s.s. D*) || 12 quem] *om. Fronto quem secuti sunt Ahlberg Ornstein* || 13 cibum coctum *Fronto plq. edd.* coctum cibum *Ω'* | sequerentur] in *s.s. T* insequerentur *Fronto* (sequerentur *corr. man. sec.*) || 14 hastatus aut *Fronto om. Ω'* | neve] neu *A¹Qm* || 15 haberet] habere *Dμme* || 17 hostes adessent] hostis adesset *Prisc.* || 18 eas ipse] ipse eas *Hl* ipsas eas *e* eas ipsas *n* | circumire *PACBNMnm* *Fronto* circuire *QKHTDFμse* || 20 quispiam] quisquam *Γ*

arabera; bakoitzari gogoak ematen zion moduan irtetzen ziren ikurretatik at; soldaduekin batera nahasita ibiltzen ziren gau eta egun hara eta hona jaki-hornitzaileak, eta harat-honatean lurra hondatu, hirisketan oldartu, abereak eta jopuak harrapakin bezala hartzen lehiatzen ziren, dena aldatzen zieten merkatariari kanpoko ardoa eta halakoen truke, eta gainera estatuak emandako garia saldu eta eguneko ogia erosten zuten. Labur esateko, esan nahiz pentsa daitezkeen nagikeria eta gehiegikeriaren gaitzak, horiek denak eta gehiago ziren ejerzitu hartan.

XLV. 1. Baina uste dut gerrateetan bezain handi eta burutsu izan zela Metelo arazo hauekin ere, leunkeria¹⁸⁷ eta zorrozkeriaren arteko neurria zentzunez zainduz. 2. Lehenengo eta behin nagikeriaren eragingarri guztiak kendu zituen agindu baten bitartez, kanpamenduan ogia nahiz beste edozein maneiaturiko jateko saltzea, jaki-hornitzaileak ejerzituarekin joatea eta lantzadunek edota soldadu arruntek¹⁸⁸ kanpamenduan zein ibilaldietan morroia nahiz zamaria izatea debekatuz¹⁸⁹; gainerako gaitzentzat ere taiuzko neurriak ezarri bide zituen. Gainera egunero aldatzen zuen kanpamendua zeharkako ibilbideetatik joanez eta etsaia aurrez aurre balego bezala latesi eta lubakiekin eraikita¹⁹⁰; goaitari ugari jartzen zuen eta bera joaten zen gudalburuordeekin haien ikusketa egitera; ibilaldian ere era berean batzuetan

(187) Soldaduen onespena irabaziz norbere interesen aldeko bihurtzeko erabili ohi zen leunkeria.

(188) Lantzadunak (*bastati*) lehen mailako soldaduak zirenez (ikus *Iug.*, XXXVIII, 6 oh.), soldadu arrunten (*gregarius miles*) aldean nolabaiteko pribilegioak bide zituztelako aipatzen dira bereizirik, debekua denentzat zela azpimarratzeko.

(189) Jatekoa, armak, lan tresnak eta gainerakoak kontutan hartuz gero, handia zen soldaduak ibilaldietan eraman behar zuen pisua. Ez zen beraz harritzekoa soldaduek zamaketariak bilatzea.

(190) Gotortze lan hauei buruz ikus *Iug.*, XXIII, 1 oh.

incederent, miles cibum et arma portaret. 3. Ita prohibendo a delictis magis quam vindicando exercitum brevi confirmavit.

XLVI. 1. Interea Iugurtha, ubi quae Metellus agebat ex nuntiis accepit, simul de innocentia eius certior Roma factus, diffidere suis rebus ac tum demum veram deditioem 5 facere conatus est. 2. Igitur legatos ad consulem cum suppliciiis mittit, qui tantum modo ipsi liberisque vitam peterent, alia omnia dederent populo Romano. 3. Sed Metello iam antea experimentis cognitum erat genus Numidarum infidum, ingenio mobili, novarum rerum avidum esse. 4. Itaque 10 legatos alium ab alio divorsos aggreditur, ac paulatim temptando, postquam opportunos sibi cognovit, multa pollicendo persuadet uti Iugurtham maxime vivom, sin id parum procedat, necatum sibi traderent. Ceterum palam quae ex voluntate forent regi nuntiari iubet. 5. Deinde ipse paucis 15 diebus intento atque infesto exercitu in Numidiam procedit, ubi contra belli faciem tuguria plena hominum, pecora cultoresque in agris erant. Ex oppidis et mapalibus praefecti regis obvii procedebant, parati frumentum dare, commeatum portare, postremo omnia quae imperarentur facere. 6. 20 Neque Metellus idcirco minus, sed pariter ac si hostes

3 ubi... conatus est *Non.*, 325, 31

1 a delictis magis] magis a delictis *T* a delictis *om.* *M* || 4 Roma *Fronto Non. edd. Romae* Ω' || 9 antea] ante *NHMDme* || 15 nuntiari *ACBNKsn* nuntiare *ex* nuntiari *Q* nuntiare *PHI/me* || 17 cultores pecoraque *TDFμ* || 19 obvii *PACBNK¹ls* obviam *QK²HΓnme* || 20 postremo] *om* *A* postremo... facere *mg.* *N* | facere] portare vel ante facere *eras.* *TF* portare vel facere *μ*

aurrekoekin, beste batzuetan atzekoekin eta sarritan erdi-koekin joaten zen, lerroetatik inor atera ez zedin, batak bestearengandik hurbil egin zezaten aurrera ikurren inguruan, soldadu bakoitzak bere jatekoa eta armak zeramatzala. 3.
 5 Honela epe laburrean sendotu zuen bere ejerzitua, ez zigorren bitartez, hutsegiteak eragotziz baino.

XLVI. 1. Bitartean Jugurtak mezularien bitartez jakin zuenean Metelok zertan ziharduen eta aldi berean kalte gabe zegoela hura ziurtatu ziotenean Erromatik, bere egoerarekiko
 10 uste ona galdu zuen eta azkenean benetan errenditzea pentsatzen hasi zen. 2. Honenbestez mandatariak bidali zizkion kontsulari erreguka¹⁹¹, bere eta seme-alaben bizitza bakarrik eskatu eta gainerako guztia Erromako herriari ematekotan. 3. Baina aurretik gertatutakoarengatik Metelok
 15 bazekien numidiarrak sinesgaitzak, izaera aldakorrekoak eta berrizaleak zirena¹⁹². 4. Hortaz banan-banan zuzendu zen mandatari bakoitzarengana eta gutxi-gutxika haztatuz bereganatzeko moduan zituela ikusi zuenean, onenean bizi-rik eta hau ezinezko gertatuz gero hilda eramán ziezaioten
 20 Jugurta limurtu zituen. Bestalde haren gogoko izan zedina iragartzeko erregeari eskatu zien guztien aurrean. 5. Gero handik egun gutxigarrenera Numidiarantz abiatu zen, ejerzitua erne eta borrokarako prest zeramala, eta han txabolak gizonez beteta eta abereak eta laborariak zelaietan aurkitu
 25 zituen, gerra itxurarik gabe. Garia eman, jaki-hornidura garraiatu eta azkenik mana ziezaien oro egiteko prest ateratzen zitzaizkion bidera hiri eta baserrietatik erregearen ordezkariak¹⁹³. 6. Baina ez zion Metelok horratik etsaia bertan bale-

(191) Berez, bake bila zihoazen mandatariak ezaugarri bezala eramaten zituzten erreinotz edo olibondo sortei deitzen zitzaizen *supplicia*.

(192) Ikus ideia berdina *Iug.*, LVI, 5 eta LXVI, 2 ataletan.

(193) *mapalia* hitzari dagokionean ikus *Iug.*, XVIII, 8. Baina hemen etxola taldea, baserria beraz, adierazi nahi duela dirudi.

adessent, munito agmine incedere, late explorare omnia, illa deditionis signa ostentui credere et insidiis locum temptari. 7. Itaque ipse cum expeditis cohortibus, item funditorum et sagittariorum delecta manu apud primos erat, in postremo C. Marius legatus cum equitibus curabat, in utrumque latus 5 auxiliarios equites tribunis legionum et praefectis cohortium dispertiverat, ut cum is permixti velites, quocumque adcederent, equitatus hostium propulsarent. 8. Nam in Iugurtha tantus dolus tantaque peritia locorum et militiae erat ut absens an praesens, pacem an bellum gerens, perniciosior 10 esset in incerto haberetur.

XLVII. 1. Erat haud longe ab eo itinere quo Metellus pergebat oppidum Numidarum, nomine Vaga, forum rerum venalium totius regni maxume celebratum, ubi et incolere et

3 ipse... erat *Non.*, 553, 12 || 7 cumque his (*sic*) permixti velitis *Non.*, 552, 27 (*citatio negligens*)

3 item] dehinc *Non.* || 7 cum] cumque *Non.* unde cum queis (*pro* ut cum iis) *O. Mueller* | is] his *PACQDn Non.* iis *vel* eis *cett.* || 8 in Iugurtha] in *om.* *ls* || 9 erat] inerat *Q* erant *n* || 10 an praesens *Xln* et an praesens an (*et exp.*) *Q* et praesens *K* aut praesens *s* vel praesens *NHIme* || 11 in incerto *KT²F²sm¹* incerto *XNlnm²e* incertum *HI* || 13 vaga] vacca ex vaga *A* (*g eras.* cc *s.s.*) *m* vacca *PCQDn*

go bezala babesturiko erreskadatan aurrera egiteari utzi¹⁹⁴, urrutitik aztertzen zituen lekuak, errenditze seinaleak itxura hutsezkotzat zituen eta zelata lekuaren bila zebilzkiola uste zuen. 7. Hortaz kohorte arinak¹⁹⁵ eta habailari eta gezilari 5 talde aukeratu batekin zihoan bera aurrekoen artean¹⁹⁶; Gaio Mario gudaiburuordea¹⁹⁷ zihoan zaldizkoekin atzekoen arduran; zaldizko laguntza taldeak banatu zituen legioetako tribunoekin eta kohorte-buruekin¹⁹⁸ bi alboetan, hauekin nahasiriko oinezko talde bizkorrek¹⁹⁹ itzularaz zitzaten etsai 10 zaldieriak, nonahitik etorrira ere. 8. Zeren hain zen Jugurta azpikerizalea eta hain zen lekua eta gerra kontuei dagokienean aditua non ezin baitzen ziur jakin nola zen arriskutsuago, aurrean izanda ala izan gabe, gerran ala bakean.

XLVII. 1. Numidiarren Vaga²⁰⁰ izeneko hiria zegoen Me- 15 telo egiten ari zen bidetik urrutira gabe; erresuma osoko azokarik arrakastatsuena zen eta jatorri italikoko asko bizi

(194) Hemen azaltzen den antolabidea (*munito agmine*) eta *Iug.*, C, 1 atalean agertzen dena (*quadrato agmine*) antzekoak dira, biak oinarritzen baitira erdian zama, zaurituak eta soldaduen gehiengoak sartu eta inguruan zaldizkoak eta oinezko talde arinak antolatzean.

(195) Zamalda (*impedimenta*) eta zamarik (*sarcina*) gabe, arma arinekin, beti borrokarako prest joaten ziren oinezko taldeak ziren kohorte arinak (*cobortes expeditae*). Laguntza taldeetakoak ziren eta ez ziren berez legio erromatarretakoak beraz.

(196) Habailariak, Balearetakoak ziren ospetsuenak; gezilariak, Kretakoak.

(197) 107. urtean kontsul egin eta Meteloren ordezkari legioen agintea hartuko duen Mario bera dugu hemengo gudaiburuordea.

(198) Legioetako tribunoak (*tribuni legionum*) zaldun edo senadore herronkako ofizialak ziren, politikagintzan sartzekotan ziren gazteak gehienetan; sei tribuno ziren legio bakoitzeko eta txandaka aritzen ziren agintaritzan. Kohorte buruak (*praefectus cohortis*) taldea osatzen zuten hirietako ofizialak izaten ziren, hiriek eurek izendatuak.

(199) Oinezko talde bizkorrek (*velites*) legioetako ziren baina kohorte edo ehunekoen erakuntzatik kanpo egin ohi zuten borrokan. Etsaia ikuskatzea nahiz zirikatzea zen hauen eginkizuna.

(200) Eskuizkribuetan *Vacca* nahiz *Vaga* agertzen da. Gaurko Tunisiako Beja dagoen lekuan zegoen merkatal hiri hau, Uticatik hegomendebaldera, Bagrada ibaia (gaurko Mejerda) zeharkatzen duen bailara baten berez ondo babesturik.

mercari consueverant Italici generis multi mortales. 2. Huc consul, simul temptandi gratia [et] si paterentur et <ob> opportunitates loci, praesidium inposuit; praeterea imperavit frumentum et alia quae bello usui forent conportare, ratus, id quod res monebat, frequentiam negotiatorum et commeatu iuvaturam exercitum et iam paratis rebus munimento fore. 3. Inter haec negotia, Iugurtha inpensius modo legatos supplicis mittere, pacem orare, praeter suam liberorumque vitam omnia Metello dedere. 4. Quos item uti priores consul illectos ad proditionem domum dimittebat; regi pacem 10 quam postulabat neque abnuere neque polliceri, et inter eas moras promissa legatorum expectare.

XLVIII. 1. Iugurtha ubi Metelli dicta cum factis composuit ac se suis artibus temptari animadvortit, quippe cui verbis pax nuntiabatur, ceterum re bellum asperrimum erat, 15 urbs maxuma alienata, ager hostibus cognitus, animi popularium temptati, coactus rerum necessitudine, statuit armis certare. 2. Igitur explorato hostium itinere in spem victoriae adductus ex opportunitate loci, quas maxumas copias potest omnium generum parat ac per tramites occultos exercitum 20 Metelli antevenit. 3. Erat in ea parte Numidiae, quam Adherbal in divisione possederat, flumen oriens a meridie,

13 ubi... composuit *Non.*, 257, 22 || 17 coactus... certare *Non.*, 354, 1 || 20 per... antevenit *Schol. Stat. Theb.*, 6, 148

1 huc] *ex* hunc (ad oppidum *s.s.*) *A* huic H^2M || 2 simul temptandi (tentandi)] simul *om.* *Kn* tentandi simul *T* | gratia si paterentur et <ob> opportunitates *Schmalz* quem secuti sunt *Ahlberg Ernout* gratia si paterentur et opportunitatis *Jacobs-Wirz* gratia et si paterentur opportunitates (*ex* opportunitatis *ut vid.* πQ) Ω' *Ornstein* || 5 commeatu iuvaturam *Orsini Madvig Adv.* 2,291 commeatum iuvaturum Ω' || 8 suam liberorumque vitam] suam vitam liberorumque *Q* vitam suam liberorumque vitam *n* || 10 dimittebat] demittebat A^1N || 20 occultos] *ex* occultus *P* *ex* occultum *A*

eta merkatalgoan aritu ohi zen han. 2. Gudari-talde bat ezarri zuen han kontsulak, ea onartzen zuten haztatzearren eta lekuaren egokitasunarengatik; gainera garia eta gerran beharrezko diren gainerakoak han biltzeko agindua eman zuen, 5 egoera zegoen moduan, merkataria ugaritasuna ejerzituarentzat horniketean lagungarri eta bildutakoarentzako babesgarri izango zela pentsaturik. 3. Hau guztia egiten zen bitartean Jugurtak are lehiatsuago bidaltzen zizkion mandataria erreguka, bakea galdatzen zion eta bere bizitza eta 10 seme-alabena ezik gainerako guztia eskaintzen zion Metelori.

4. Mandataria hauek ere lehenagokoak bezala bidaltzen zituen kontsulak etxera saldukeriarako erakarrira; erregeari ez zion ez eman ez ukatzen eskatzen zuen bakea eta, luzapen hauekin, mandatariek agindutakoaren zain zegoen.

15 XLVIII. 1. Jugurtak Meteloren hitzak honen ekintzekin alderatu eta berari bere moduekin egiten ziola eraso ohartu zenean, armekin lehiatzea erabaki zuen egoeraren larritasunak behartuta, hitzez bakea iragartzen zitzaion bitartean beste aldetik, egitez, gerrarik gogorrena egiten baitzitzaion, 20 hots, bere hiri nagusiaz jabetu zitzaion, etsaiarentzat lurra ezagun bihurtu zen eta bere herritarren leialtasuna haztatu zion. 2. Honenbestez etsaiaren ibilbidea aztertu zuen eta, lekuaren egokitasunak garaipen itxaropena emanda, era guztietako gudari-taldeak, ahal zituen guztiak, prestatu zituen 25 eta Meteloren ejerzitua baino aurrerago eraman zituen bidetska ezkutuetatik. 3. Zatiketa egitean Aderbalentzat suertatu zen Numidiako alde hartan hegoaldeetik sortzen zen

nomine Muthul, a quo aberat mons ferme milia passuum viginti, tractu pari, vastus ab natura et humano cultu. Sed ex eo medio quasi collis oriebatur, in inensum pertingens, vestitus oleastro ac murtetis aliisque generibus arborum quae humi arido atque harenoso gignuntur. 4. Media autem planities deserta penuria aquae praeter flumini propinqua loca; ea consita arbustis pecore atque cultoribus frequentabantur. 5

XLIX. 1. Igitur in eo colle, quem transverso itinere porrectum docuimus, Iugurtha extenuata suorum acie consedit. Elephantis et parti copiarum pedestrium Bomilcarem praefecit eumque edocet quae ageret; ipse propior montem cum omni equitatu et peditibus delectis suos conlocat. 2. Dein singulas turmas et manipulos circumiens monet atque obtestatur uti memores pristinae virtutis et victoriae seque regnumque suum ab Romanorum avaritia defendant: cum iis certamen fore quos antea victos sub iugum miserint; ducem illis, non animum mutatum; quae ab imperatore decuerint omnia suis provisae: locum superiorem, ut prudentes cum inperitis, ne pauciores cum pluribus aut rudes cum belli 15

1 a quo... viginti *Arus. Gramm.*, VII, 455, 25 | aberat... cultu *Non.*, 185, 12 || 2 vastus... cultu *Serv. Aen.*, 8, 8 || 4 vestitus... arborum *Schol. Stat. Theb.*, 5, 16 || 5 quae... gignuntur *Prisc. Gramm.*, III, 377, 5 | humi... nascuntur (pro gignuntur) *Arus. Gramm.*, VII, 477, 32 humi arido atque arenoso *Hier. In Am. Lib. I Praef. (om. nom. Sall.)* || 9 Iugurtha... montem insedit (sic pro consedit) *Prisc. Gramm.*, III, 321, 5 || 19 rudes... conserere (pro consererent) *Arus. Gramm.*, VII, 492, 3

1 muthul] ex muthula *TF* muthula *Mμm* | a quo] a *om. N s.s. n* | ferme] fere *Non.* | milia passuum viginti *PQKlsn Non. plq. edd.* passuum viginti (*om.* milia) *N* milia viginti passuum *HT* (passuum *eras. F*) e milia viginti *Am Arus. Dietsch Ahlberg Pabón* habens passuum *mg. A²* milia habens passuum viginti *CB* || 2 ab] ac *D²Fμ* | ex eo] ex *s.s. m om. e* || 3 collis] ex colles *AN* | pertingens] pertinens *A (g add. A²)* || 5 humi (humi ex humo *P²*) arido (sc. in *s.s. C* in arido *n*) atque arenoso (sc. in *s.s. C*) humo (vel i *D²*) arida atque arenosa *T³* | gignuntur] nascuntur *Arus.* || 9 suorum acie] acie suorum *Q* suae acie *C* suorum (acie *om.*) *B¹* | consedit] montem insedit *Prisc. e corr. B* || 10 parti] ante *ras. N* ex parte *K* parte *AQ* || 11 quae ageret] quid ageret *DFμ* || 12 dein singulas] ex deinsulas *P* || 13 circumiens] circuiens *K²MDFμ²ls* || 16 miserint] n *exp. K* miserunt *m* || 19 belli *PAI Arus. bello cett.*

Muthul izeneko ibai bat zegoen²⁰¹; mendi bat zegoen hemendik hogeit mila oinartetara edo, urlasterrarekin parez pare²⁰², berez landarerik gabekoa eta gizonak landu gabea. Baina honen erdigunetik mendiska antzeko bat sortzen zen, mugagabe igotzen zena basolibondoaz, mirtoz eta lur idor eta hareatsuetan jaiotzen diren beste mota batzuetako arbolez jantzia. 4. Erdiguneko lautada²⁰³, aldiz, basamortua zen ur gabeziarengatik, ibai ingurua izan ezik; abereak eta laborariak ibiltzen ziren zuhaizkaz landaturiko inguru honetan.

10 XLIX. 1. Honenbestez bidearen saihetsean zegoela esan dugun mendiskan jarri zen Jugurta bere ejerzitua zabal-zabal antolatuta. Bomilkar²⁰⁴ egin zuen elefanteen eta oinezko talde batzuen buru eta zer egin behar zuen azaldu zion; menditik hurbilago kokatu zituen bere gizonak zaldieria
15 guztiarekin eta bere oinezkoetako hoberenekin. 2. Gero banan-banan hurreratu zen zaldizkosail eta manipulo²⁰⁵ bakoitzera eta arrenka aholkatu eta eskatu zien behialako adorea eta garaipena gogoratzeko²⁰⁶ eta euren buruak eta erresuma erromatarren handinahitik babesteko; lehenago garaitu eta uztarpetik igaroarazi zituztenekin lehiatzera zihozela esan zien; gudalburua aldatu zutela baina ez kemena; buruzagiari zegokion guztia prestatu zuela aurrez beretarren onerako: leku garaia eta begirapenez borrokatzea ezer eza-

(201) Numidiako ibai bat, bere urak Bagrada (gaurko Mejerda) ibaira isurtzen zituena. Ziurrenik gaurko Mellegue ibaia edota agian Tessa ibaia izan zitekeela uste da.

(202) Agian gaurko Gorah mendia.

(203) Mendikatearen eta ibaiaren tartean zegoena, hain zuzen ere.

(204) Bomilkarri buruz ikus *Iug.*, XXXV, 4 eta oh.

(205) Ejerzitu erromatarreko legio bakoitzean hamar zaldizkosail (*turma*: ikus *Iug.*, XXXVIII, 6 oh.) eta hogeita hamar manipulo (*manipulus*) izaten ziren. Legioa mugikorrago egiteko beharrezko zen zatiketan osatzen ziren manipuloak. Dena dela ez ahaztu Jugurtaren ejerzitu numidiarraz ari dela hemen Salustio.

(206) *Iug.*, XXXVIII atalean kontaturiko garaipenaz ari da.

melioribus manum consererent; 3. proinde parati intentique
 essent signo dato Romanos invadere; illum diem aut omnis
 labores et victorias confirmaturum, aut maxumarum aerum-
 narum initium fore. 4. Ad hoc viritim, uti quemque ob
 militare facinus pecunia aut honore extulerat, conmonefacere 5
 benefici sui et eum ipsum aliis ostentare; postremo pro
 cuiusque ingenio pollicendo, minitendo, obtestando, alium
 alio modo excitare; cum interim Metellus, ignarus hostium,
 monte degrediens cum exercitu conspicatur. 5. Primo dubius
 quidnam insolita facies ostenderet —nam inter virgulta equi 10
 Numidaeque consederant, neque plane occultati humilitate
 arborum, et tamen incerti quidnam esset, cum natura loci,
 tum dolo ipsi atque signa militaria obscurati—, dein brevi
 cognitis insidiis paulisper agmen constituit. 6. Ibi conmuta-
 tis ordinibus, in dextro latere quod proximum hostis erat, 15
 triplicibus subsidiis aciem instruxit; inter manipulos fundi-
 tores et sagittarios dispertit, equitatum omnem in cornibus
 locat, ac pauca pro tempore milites hortatus, aciem, sicuti
 instruxerat, transvorsis principiis in planum deducit.

L. 1. Sed ubi Numidas quietos neque colle degredi ani- 20
 madvortit, veritus ex anni tempore et inopia aquae ne siti

8 cum... ostenderet *Don. Ter. Eun.*, 384 || 20 Numidas... animadvertit *Arus. Gramm.*, VII, 464, 25

1 consererent] conserere *Arus.* || 6 aliis] alij *AF*² et alios *Q*¹ | pro cuiusque ingenio *edd.* pro *om.* *Q*¹ praeter unum deteriorem (*p*¹) qui scripsit cuiusque pro ingenio (i.e. secundum cuiusque ingenium *s.s.* *C* i.e. secundum ingenium *s.s.* *Q*) || 7 obtestando] *ex* obtestando *P* || 8 interim] interea *Don.* | ignarus hostium] *om.* *Don.* || 9 degrediens *PACN* | *Don.* e *exp.* i *s.s.* *A* digrediens *cett.* | conspicatur *Don.* *s.s.* *m.* *edd.* conspicitur *Q*¹ || 11 consederant] considerant *Je* | occultati] occulti *Frg. Berol.* || 12 cum] vel tum *s.s.* *D* tum *QMs* || 14 constituit] instituit *B* | || 15 hostis] hoste*** *m* hostibus *KT Frg. Berol.* || 16 erat] erant *A* | instruxit] construxit *C* || 17 funditores] *ex* fundibulatores *K* fundatores *ex* funditores *N* || 18 hortatus milites *TDFμ* || 20 colle] colli *Arus.* (*dativum interpretans*) | degredi *PCBN*¹ | digredi *N*² *cett.* (e *exp.* i *s.s.* *A*) *Arus.* || 21 tempore] temperie *D*¹*Fμ*

gutzen ez zuten ezjakinen kontra eta ez gutxiago izanda gehiagoren aurka edota antzegabe izanda guduan adituen aurka. 3. Beraz prest eta arretaz egoteko esaten zien seinalea ematerakoan erromatarren gainera joateko, egun hartan 5 aurkituko baitzuten euren neke eta garaipenen gaina edo bestela zorigaberik handienen hasiera. 4. Gainera gudueginkariren batengatik diruaz nahiz ohorez saritutako soldadu bakoitzari banaka gogorarazi zion bere golardoa eta besteen aurrean eredu bezala aurkezten aritu zen; azkenik ba-
 10 koitzaren izaeraren arabera agintzarien bitartez, mehatxuekin edota arrenka, bakoitza era batera akulatzen ziharduen, halako baten Metelok, etsaien berririk gabe bere ejerzituarekin batera menditik behera zetorrelarik, zerbait ikusi zuenean. 5. Hasieran ez zekien zer esan nahi zuen ikuskari bitxi hark,
 15 —laharrartean baitzeuden numidiarrak eta zaldiak eta, arbolen txapartasuna zela bitarte, ez baitziren erabat ezkututzen baina halere ez baitzegoen argi zer ziren, batetik lekuaren tankerak eta bestetik euren marrokeriak gordetzen baitzitu-
 20 en eurak eta gudaikurrak—, gero handik gutxira zelalaldiaz ohartu zen eta berehala geldiarazi zuen bere ejerzitua. 6. Bertantxe aldatu zuen antolaketa: hiru lerro eratu zituen gualordeekin etsaiarengandik hurbilen zegoen eskuineko alboan, manipuloetatik banatu zituen habailariak eta gezilariak, hegaletan ipini zuen zaldieria guztia, eta bere
 25 soldaduei uneak eskatzen zuenez labur hitz egin ondoren, lautadara jaitsi zituen gudalerroak eratu zituen moduan, lehen lerrokoak zeharka zihoazelarik²⁰⁷.

L. 1. Baina numidiarrak geldirik zeudela eta ez zirela mendiskatik jaisten ohartu zenean, ejerzitua urtaroa eta ur

(207) Lehen lerrokoak ezkerreko hegal bezala eratu zituela esan nahi du zeharka (*transvorsis principiis*) zihoazela esatean.

conficeretur exercitus, Rutilium legatum cum expeditis cohortibus et parte equitum praemisit ad flumen, uti locum castris antecaperet, existumans hostis crebro impetu et transversis proeliis iter suum remoratorios et, quoniam armis diffiderent, lassitudinem et sitim militum temptaturos. 2. 5 Deinde ipse pro re atque loco, sicuti monte descenderat, paulatim procedere, Marium post principia habere, ipse cum sinistrae alae equitibus esse qui in agmine principes facti erant. 3. At Iugurtha, ubi extremum agmen Metelli primos suos praetergressum videt, praesidio quasi duum milium peditum montem occupat qua Metellus descenderat, ne forte cedentibus advorsariis receptui ac post munimento foret; dein repente signo dato hostis invadit. 4. Numidae, alii postremos caedere, pars a sinistra ac dextra temptare, infensi adesse atque instare, omnibus locis Romanorum ordines conturbare. Quorum etiam qui firmioribus animis obvii hostibus fuerant, ludificati incerto proelio, ipsi modo eminus sauciabantur, neque contra feriundi aut conserendi manum copia erat. 5. Ante iam docti ab Iugurtha equites, ubi Romanorum

3 crebro] crebo *Pl* || 6 descenderat] *ex* descenderant *PK* || 9 extremum agmen] extremo agmine romanos *Frg. Berol.* | Metelli] *in ras. K om. Frg. Berol.* || 10 praetergressum *edd.* praetergressos Ω' (*ex* praetergressus *D* vel sum *s.s. Q*) *Frg. Berol.* || 11 montem occupat peditum *HIme* || 12 ac post] et post *F* || 13 dein] deinde *DFμ* | repente *s.s. T om. DFμ* || 14 caedere] cedere *Frg. Berol.* | a sinistra] a *s.s. m. om. HMe* | a sinistra ac dextra] a dextra ac sinistra *BTDFμ* dextra sinistraque *Frg. Berol.* || 15 adesse atque instare] atque *del. A* adesse instare atque *QHn* || 16 obvii hostibus] hostibus *s.s. T²* hostibus obvii *DFμ* || 17 fuerant] fuerunt *NMTDμF²m* fuere *F¹e* || 19 ubi *XN²F²n* ubique *N¹I¹* ubicumque *cett.*

gabeziarengatik egarriz akabatuko zitzaiolako beldurrez, Rutilio²⁰⁸ gudaiburuordea bidali zuen aurretik ibaira kohorte arinekin²⁰⁹ eta zaldizkoetako batzuekin, kanpamendua-
 5 rentzako lekua aurrez har zezaten, etsaiak eraso ugarirekin euren alboetatik borrokatuz saiatuko zirela bere bidea geldiarazten uste baitzuen, eta numidiarrek armetan uste handirik izango ez zutenez soldadu erromatarrak nekadura eta egarriarekin azpiratzeko ahalegina egingo zutela. 2. Gero geldi-geldika abiatu zen bera aurrerantz, egoerak eta lekuak
 10 eskatzen zuten moduan, menditik jaitsi bezala, Mario lehen lerrokoen atze-atzean ipinita eta bera oraingo abialdian aurrekoak ziren ezkerreko hegaleko zaldizkoekin zihoala. 3. Baina Meteloren azken gizonak bere lehenbizikoen²¹⁰ aurretik igaro zirela ikusi zuenean Jugurtak, ia bi mila oinezkodun
 15 gudari-talde batekin hartu zuen Metelo jaitsi zen mendia, aurkakoentzat atzerantz egitean babesgarri eta gero gotorleku izan ez zedin; gero bat-batean seinalea eman eta etsaien gainera oldartu zen. 4. Numidiarrak gure atzekaldekoen gainera erori ziren batzuk, beste batzuk ezker eskuinetik saiatzen ziren, amorruz hurbildu eta hertsatzen zuten, eta alde guztietatik nahasten zuten erromatarren antolakuntza. Eta etsaiari adore sendoenaz aurre egin zioten erromatarrak ere urrundik heriotzaz jotzen zituzten, arau gabeko borrokaldian nahasita, euren inor zauritzeko edota aurrez aurreko borrokaldiari ekiteko
 25 aukerarik izan gabe. 5. Aurretik Jugurtak azaldu zien bezala

(208) Marioren maila berean hau ere Meteloren gudaiburuorde (*legatus*) zen. Publio Rutilio Rufo hau soldaduen tribuno izan zen Numantziako gerran eta 105. urtean kontsul izendatu zuten. Ziurrenik Salustiok ezagutu zituen berak idatzirik oitzapenak eta Erromaren historia.

(209) Kohorte arinei buruz ikus *Iug.*, XLVI, 7 oh.

(210) Metelo etorri zen menditik hurbilen zirenak dira «bere lehenbizikoak» (*primos suos*).

turma insequi coeperat, non confertim neque in unum sese recipiebant, sed alius alio quam maxume divorsi. 6. Ita numero priores, si ab persequendo hostis deterrere nequiverant, disiectos ab tergo aut lateribus circumveniebant; sin oppor-
tunior fugae collis quam campi fuerat, ea vero consueti Numidarum equi facile inter virgulta evadere; nostros asperitas et insolentia loci retinebat. 5

LI. 1. Ceterum facies totius negoti varia, incerta, foeda atque miserabilis; dispersi a suis pars cedere, alii insequi; neque signa neque ordines observare; ubi quemque periculum ceperat, ibi resistere ac propulsare; arma, tela, equi, viri, hostes atque cives permixti; nihil consilio neque imperio agi; fors omnia regere. 2. Itaque multum diei processerat, cum etiam tum eventus in incerto erat. 3. Denique omnibus labore et aestu languidis, Metellus, ubi videt Numidas minus instare, paulatim milites in unum conducit, ordines restituit et cohortes legionarias quattuor advorsum pedites hostium conlocat. Eorum magna pars superioribus locis fessa consederat. 4. Simul orare et hortari milites ne deficerent neu pate-
rentur hostis fugientis vincere; neque illis castra esse neque 20

1 turma] turba *KMTme Ernout* turbam *D* (turba *D*²) | coeperat] *ex* coeperit *N* coeperit *Ke ex* coeperant *D* coeperant *T* | sese] *se* *HΓme* || 3 ab persequendo] a persequendo *QK²M²m²n* || 4 ab tergo] a tergo *QK²Tme* || 5 campi] *us s.s.* *N* campus *corr.* *TF* | fuerat] fuerant *P* (*n exp.*) *e* || 5 ea] i.e. eas fugas *s.s.* *Q* *sc.* loca *s.s.* *C* ea loca *n* ea *ex* *eam* *N* *eam* *A* *o s.s.* *N* *eo* *Tme* || 12 hostes atque cives *XNKlsn* hostes civesque *D* atque *om. cett.* || 19 et hortari] et *om.* *Hs* || 20 neque munimentum ullum *XXIs* neque ullum (illis *Nn*) munimentum *cett.*

bakoitzak bere aldetik egiten zuten atzerantz zaldizkoek ahal bezain barreiatuta eta ez taldetxotan edota denak batera, erromatar zaldizkosailen bat erasotzen hasten zenean. 6. Horrela bizkarretik edota alboetatik inguratzen zituzten sakabana-
 5 natuta zeuden gutarrak kopuruz gehiago ziren numidiarrek, baldin eta lehenago ezin bazuten beldurtu etsaia euren atzetik joan ez zedin; eta mendiska zelaiak baino egokiago zitzaientean iheserako, erraz-erraz alde egiten zuten laharrarretik hartara ohituak ziren numidiarren zaldiek, baina lekua-
 10 ren laztasunak eta ez ezagutzeak geldiarazi egiten zituen gutarrak.

LI. 1. Bestalde borrokaldi osoaren itxura aldakorra, nahasia, beldurgarri eta errukarria zen: batzuek ihes egiten zuten eta beste batzuek jazarri taldekideengandik urrunduta; ez
 15 zeuden ez ikurrei ez lerro antolakuntzari adi; norberak arriskua aurkitzen zuen lekuan han bertan tinko egon eta oldartzen zen bakoitza; babesarmak eta erasokoak, zaldiak eta gizonak, etsaiak eta hiritarrak denak nahasirik ziren; ez zegoen ez egitasmorik ez aginterik hura zuzentzeko eta hala-
 20 beharra zen nagusi. 2. Hortakotz egunak aurrera egin eta oraindik ez zen batere ziurra emaitza. 3. Azkenean, guztiak nekeak eta beroak ahituta zirelarik, numidiarrek gutxiago hertsatzen zutela ikusi zuenean, apurka soldadu guztiak bateratzeari ekin zion, bere lerro antolakuntza berregin zuen
 25 eta etsaietako oinezkoen kontra bidali zituen Metelok lau legio-kohorte²¹¹, lekurik garaienetara igo baitziren haietari-ko gehienak nekearen nekeaz. 4. Ez makaltzeko, eta ez onartzeko ihesean ziren etsaiek irabaz zezaten eskatzen eta

(211) Erromatarrez osaturiko kohorteak dira legio-kohorteak (*cobortes legionariae*), legio bakoitza hauetako hamarrek osatzen zutelarik. Aliatuz osaturikoak *cobortes sociorum* dira.

munimentum ullum quo cedentes tenderent; in armis omnia sita. 5. Sed ne Iugurtha quidem interea quietus erat: circumire, hortari, renovare proelium et ipse cum delectis temptare omnia, subvenire suis, hostibus dubiis instare, quos firmos cognoverat eminus pugnando retinere. 5

LII. 1. Eo modo inter se duo imperatores summi viri certabant, ipsi pares, ceterum opibus disparibus. 2. Nam Metello virtus militum erat, locus advorsus; Iugurthae alia omnia praeter milites opportuna. 3. Denique Romani, ubi intellegunt neque sibi perflugium esse neque ab hoste copiam pugnandi fieri —et iam die vesper erat—, advorso colle sicuti praeceptum fuerat evadunt. 4. Amissa loco Numidae fusi fugatique; pauci interiire; plerosque velocitas et regio hostibus ignara tutata sunt.

5. Interea Bomilcar, quem elephantis et parti copiarum pedestrium praefectum ab Iugurtha supra diximus, ubi eum Rutilius praetergressus est, paulatim suos in aequom locum deducit, ac, dum legatus ad flumen, quo praemissus erat, festinans pergit, quietus, uti res postulabat, aciem exornat, neque remittit quid ubique hostis ageret explorare. 6. Postquam Rutilium consedissee iam et animo vacuum accepit, simulque ex Iugurthae proelio clamorem augeri, veritus ne legatus cognita re laborantibus suis auxilio foret, aciem 15

6 inter... certabant *Arus. Gramm., VII, 459, 4* || 15 quem... (ab Iugurtha om.)... diximus *Arus. Gramm., VII, 499, 2*

1 cedentes] *ex* accedentes *F* accedentes *MTDμ* || 2 ne] nec *NFs* neque *K²M* | circumire *PACBN¹m* circuire *cett.* || 4 dubiis] dubius *A²CBI* (vel is *s.s. D* iis *corr. vel s.s. MF*) || 7 certabant] pugnabant *TDFμ* || 11 die *PABY* (*praeter MF*) *mes²* diei *CQK²H²FIsnm²* om. *M* | vesper erat die(i) *TDFμe* || 12 siguti] sicut *MDFμ* | fuerat *PACQNKIsn* erat *cett.* || 13 plerosque *A¹QY* (*praeter K*) *s²me* vel pluresque *s.s. QA²* pluresque *PCBKIsn* || 14 tutata] tuta *QK* || 15 parti] *ex* partib (b *exp.*) *A* partibus *Q* || 16 ab Iugurtha] om. *Arus.* | rutilius eum *TDFμ* || 22 veritus] veritas (a *exp. u s.s.*) *P*

erregutzen zien aldiberean bere soldaduei; atzez eginez gero ez zutela ez kanpamendurik ez gotorlekurik hara joateko esaten zien, eta armetan zetzala beraz euren itxaropen guztia.

5 5. Baina Jugurta ere ez zegoen bitartean geldirik: lerroz lerro zihonan, sutsu mintzatzen zen, borrokaldia berritzen zuen, aukeraturiko onenekin egiten zituen bere ekinaldiak alde guztietatik, beretarrei laguntzen zien, hertsatu egiten zituen kili-kolo ziren etsaiak eta urrundik borrokatuz geldiarazten zituen sendo ikusten zituenak.

10 LII. 1. Horrela ari ziren elkarren arteko lehian bi gudalburuak, bikainak biak, bata bestearen parekoak eurak, baina baliakizun ezberdinekoak. 2. Soldadu adoretuak zituen Metelok, baina lekua bere kontrakoa; Jugurtak soldaduak izan ezik gainerako guztia zuen alde. 3. Azkenean 15 euren ez zutela ihesbiderik eta etsaiak ez zutela borrokan egiteko aukerarik ematen ulertu zutenean erromatarrek, ordurako iluntzen ari zenez, aurreko mendiskatik gora alde egin zuten manatu bezala. 4. Leku hau galdu zutenean numidiarrek barreiatuak ihes egin zuten; gutxi hil ziren, bizkortasunak eta lurraldea etsaiarentzat ezezagun izateak 20 salbatu zituen gehienak.

5. Bitartean, elefanteen eta oinezko talde baten buru egin zutela esan dugun Bomilkarrek, zelai ondora eramane zituen astiro-astiro beretarrek, Rutilio bere aurretik igaro zenean; 25 eta gudalburuordea ibaira arinka zihonan bitartean, hara aitzinarazi baitzuten, Bomilkar lasai aritu zen, egoerak eskatzen zuen moduan, gudaleroak antolatzen eta ez zuen ahaztu etsaiak non zer egiten zuten ikuskatzea. 6. Rutiliok ezarria zuela kanpamendua eta ardurarik gabe zegoela jakin zutenean Bomilkarrek eta aldiberean gero eta handiagoa zela Jugurtaren borrokalditik zetorren orroa, bere soldaduen adorean uste

quam diffidens virtuti militum arte statuerat, quo hostium itinere officeret, latius porrigit, eoque modo ad Rutili castra procedit.

LIII. 1. Romani ex inproviso pulveris vim magnam animadvertunt; nam prospectum ager arbustis consitus prohibebat. Et primo rati humum aridam vento agitari, post, ubi aequabilem manere et, sicuti acies movebatur, magis magisque adpropinquare vident, cognita re, properantes arma capiunt ac pro castris, sicuti imperabatur, consistunt. 2. Deinde ubi propius ventum est, utrimque magno clamore concurritur. 3. Numidae, tantummodo remorati dum in elephantis auxilium putant, postquam eos inpeditos ramis arborum atque ita disiectos circumveniri vident, fugam faciunt, ac plerique, abiectis armis, collis aut noctis quae iam aderat auxilio integri abeunt. 4. Elephanti quattuor capti; relicui omnes, numero quadraginta, interfecti. 5. At Romani, quamquam itinere atque opere castrorum et proelio fessi laetique erant, tamen, quod Metellus amplius opinione morabatur, instructi intentique obviam procedunt; 6. Nam dolus Numidarum nihil languidi neque remissi patiebatur. 7. Ac primo obscura nocte postquam haud procul inter se erant, strepitu, velut hostes adventarent, alteri apud alteros formidinem simul et tumultum facere; et paene imprudentia admissum facinus miserabile, ni utrimque praemissi equites

4 animadvertunt XNKHls ex animadvertit P animadvertit n advertunt Γme (anim s.s. T anima s.s. m) || 9 sicuti imperabatur] sicut imp. NTe imperabatur m || 15 capti] capti sunt A¹CB || 16 numero quadraginta] quadraginta numero Q vel triginta s.s. D numero triginta Nme || 17 fessi laetique Ω' plq. edd. cf. Liv. 22,60,9 fessi lassique (laetique s.s.) Jacobs-Wirz || 22 adventarent D plq. edd. adventare cett. codd. Ahlberg secl. Jacobs-Wirz | alteros XKlsn alterum Y (praeter K) meT²F² || 24 utrimque] utrumque D¹n utrorumque MTFμ

handirik ez zuenez estu ezarririk zituen gudalerroak zabaldu egin zituen eta modu horretan Rutilioaren kanpamendurantz abiatu zen etsaiari bidea moztearren, gudaiburuordeak egoera ezagutzean arriskuan ziren bere taldekideen laguntzera
5 joango zelako beldurrez.

LIII. 1. Altxatutako hauts handiaz ohartu ziren bat-batean erromatarrak, zuhaiskaz beteriko zelaia urrutira beste ezer ikustea eragozten baitzuen. Hasieran uste zuten haizeak harrotutako lur hareatsua zela; gero beti berdintsu geratzen
10 zela geldirik eta euren gudalerroak mugitu ahala gero eta gehiago hurbiltzen zela ikusi zutenean, gertatzen zenaz jabetu eta lasterka jarri ziren lerrotan, armak hartuta, kanpamendu aurrean, manatu bezala. 2. Gero gehiago hurbildu zirenean bi aldeetatik ekin zioten borrokaldiari garrasi handiz.
15 3. Elefanteak lagungarri zituztela uste zuten bitartean besterik ez zioten eutsi numidiarrek; hauek zuhaitz abarrek nahaspilatzen zituztela eta sakabanatuta etsaiak inguratzen zituela ikusi zutenean ihesari eman zioten eta gehienek, armak bota eta kaltegabe alde egin zuten mendiskaren eta
20 ordurako sartzen ari zen gauaren laguntzaz. 4. Lau elefante harrapatu ziren eta gainerako guztiak, berrogeiraino, hil egin zituzten. 5. Erromatarrak bidearengatik, kanpamenduko lanengatik eta borrokaldiarengatik nekatuta baina pozik ziren; Metelo, ordea, uste baino gehiago atzeratzen zenez, bidera
25 irten zitzaizkion lerrotan eta arretaz, 6. numidiarren maltzurutasunak ez baitzuen nagi edo arduragabe izaten uzten. 7. Hasieran gau hutsean elkarrengandik ez urruti zirenean, etsai balira bezala hurbiltzen ziren zarataka eta bi aldeetan beldurra eta asaldura sortzen zen; eta hondamen
30 negargarria gertatuko zatekeen zentzugabekeriarengatik, zaldizkoak aitzinarazi izan ez balituzte bi aldeetakoek ger-

rem exploravissent. 8. Igitur pro metu repente gaudium mutatur; milites alius alium laeti appellant, acta edocent atque audiunt, sua quisque fortia facta ad caelum fert. Quippe res humanae ita sese habent: in victoria vel ignavis gloriari licet; advorsae res etiam bonos detrectant. 5

LIV. 1. Metellus in isdem castris quadriduo moratus saucios cum cura reficit, meritos in proeliis more militiae donat, univorsos in contione laudat atque agit gratias; hortatur ad cetera, quae levia sunt, parem animum gerant; pro victoria satis iam pugnatum, reliquos labores pro praeda fore. 2. Tamen interim transfugas et alios opportunos, Iugurtha ubi gentium aut quid agitare, cum paucisne esset an exercitum haberet, ut sese victus gereret, exploratum misit. 3. At ille sese in loca saltuosa et natura munita receperat, ibique cogebat exercitum numero hominum ampliorem, sed hebetem 15 infirmumque, agri ac pecoris magis quam belli cultorem. 4. Id ea gratia eveniebat quod, praeter regios equites, nemo omnium Numida ex fuga regem sequitur: quo cuiusque animus fert eo discedunt, neque id flagitium militiae ducitur: ita se mores habent. 20

1 pro metu... mutatur (*pro exortum*) *Prisc. Gramm.*, III, 296, 6 || 7 cum cura *Sen. Benef.*, 4, 1, 1

1 repente] *s.s. F om. HTDμ* | mutatur *plq. edd. ex Prisc. exortum Ω'* || 5 bonos] *ex bono N ex bonis D* | detrectant *P* (*deterrent in mg.*) *ANKHTDFμse* detractant *Mln* decretant *QCBn* || 6 quadriduo *Ω' plq. edd. quadriduom Ablberg* || 7 reficit] *refecit NHMTDm* (*i s.s.*) *ε* || 10 satis iam pugnatum] *iam om. Q* *satis om. Fμ* *iam pugnatum satis B* || 14 saltuosa] *salutuosa P* | natura munita receperat] *munita receperat natura D¹HΓ* || 18 numida *P* (*ex numidia*) *AY* (*praeter MT*) *lm¹* numidarum *CBQMTsneA²N²K²H²F²m²*

tatzen zena ikustatzera. 8. Honenbestez beldurra alaitasun bihurtu zen berehala: pozik dei egiten zieten soldaduek batak besteari, egindakoak esan eta entzuten zituzten, eta ba-koitzak bere egitandiak are handiagotu egiten zituen. 5 Halakoa baita gizakia: garaipenean koldarrak ere harroputz daitezke, egoera latzean gizon prestuak ere apaldu egiten dira.

LIV. 1. Lau egun geratu zen Metelo kanpamendu berean. Arretaz zaindu zituen zaurituak, gudaohituren arabera saritu zituen guduan gailendutakoak²¹², guzti-guztiak laudatu 10 zituen batzar nagusian eta eskerrak eman zizkien; aurre-
rantzean ere, egoera errazagoan, halako adorea izateko eskatu zien, garaipenaren alde aski borrokatu zutela eta gainerako nekeak irabaziaren alderako izango zirela esanez²¹³. 2. Bitar-
tean ordea Jugurta non eta zertan ari zen, gutxi batzuekin 15 zegoen ala ejerzitu osoa zuen, eta nola jasaten zuen garaitua izana ikuskatzera igorri zituen itzurleak eta hartarako egoki ziren beste batzuk. 3. Baina hura leku oihantsu eta berez babestu batera alde egina zen eta ejerzitua biltzen ari zen han, gizon gehiagokoa baina indar gabekoa eta ahula, lurrak 20 eta abereak zaintzen gerra kontuetan baino adituagoa. 4. Bere jagolegoko zaldizkoek ezik beste numidiar garau batek ez diolako erregeari jarraitzen hondamenaren ondoren ger-
tatzen zen hau; bakoitzak nahi duen lekura joaten da eta ez da soldaduentzat lotsagarri²¹⁴. Halakoxe ohiturak dituzte.

(212) *Ing.*, LXXXV, 29 atalean aipatzen dira sarietako batzuk (astamakilak, gudoihala eta burdin-zaflak) baina baziren beste batzuk ere: eskuturrekoak, ezpata-maginarendako katetxoak, orratzak, idunekoak...

(213) Harrapakinarekin gudaldian xahaturikoa berreskuratzen saiatu behar ziren eta era antolatuan egin ohi zen beraz harrapaketa. Herri altxorrerako behar zuen izan lorturikoak oso osoan, baina gudaiburuak eta soldaduek euren arteko banaketa egin ondoren eman ohi zuen geratzen zena, kontu garbirik gabe, gudaiburuak.

(214) Polibiok (1, 74, 7) ere ematen du ohitura honen berri numidiar eta libiarrei buruz aritzean.

5. Igitur Metellus, ubi videt etiam tum regis animum ferocem esse, bellum renovari, quod nisi ex illius lubidine geri non posset, praeterea iniquom certamen sibi cum hostibus, minore detrimento illos vinci quam suos vincere, statuit non proeliis neque in acie, sed alio more bellum gerendum. 5
 6. Itaque in loca Numidiaie opulentissima pergit, agros vastat, multa castella et oppida temere munita aut sine praesidio capit incenditque, puberes interfici iubet, alia omnia militum praedam esse. Ea formidine multi mortales Romanis dediti obsides, frumentum et alia quae usui forent adfatim 10 praebita, ubicumque res postulabat, praesidium inpositum.
 7. Quae negotia multo magis quam proelium male pugnatum ab suis regem terrebant; 8. quippe cuius spes omnis in fuga sita erat, sequi cogebatur; et qui sua loca defendere nequiverat, in alienis bellum gerere. 9. Tamen ex copia quod 15 optimum videbatur consilium capit; exercitum plerumque in isdem locis opperiri iubet; ipse cum delectis equitibus Metellum sequitur, nocturnis et aviis itineribus ignoratus Romanos palantis repente aggreditur. 10. Eorum plerique inermes cadunt, multi capiuntur, nemo omnium intactus 20 profugit; et Numidae, priusquam ex castris subveniretur, sicuti iussi erant, in proximos collis discedunt.

8 puberes interfecit (*sic*) *Prob. Cath. Gramm.*, IV, 16, 23 puberes omnes (*sic*)... iubet *Serv. Aen.*, 5, 546; *cf. Iug.*, XXVI, 3

1 etiam tum regis animum *HTDFμ Ablberg Ormstein Ernout* regis etiam tum (*om.* A) animum *PACNKsmm Jacobs-Wirz Pabón* regis animum (animum regis Q) etiam tum Q l (et post regis eras, ut vid.) etiam regis tum animum *BMe* || 2 ex] *om.* A s.s. M || 3 iniquom *nomn. rec. edd.* inimicum Ω' (s.s. A) || 5 neque in] in eras. K *om.* M non e || 8 puberes] puberes omnes *Serv.* | interfici *AT² Serv.* interfecit *cert. codd.* interfecit *Prob.* || 11 praebita] sc. sunt s.s. C sunt s.s. *Am* praebita sunt *HTDFμ* | impositum] sc. est s.s. C impositum est *I* || 13 cuius] cui *A²CBQ²H²s* || 15 ex copia *edd.* ex c inopia (c *exp.*) μ ex inopia Ω' || 16 consilium capit exercitum] consilium exercitum capit *NHF* (exercitum *exp.* N eras. T) || 18 nocturnis itineribus et aviis D

5. Honenbestez erregeak sutsu jarraitzen zuela oraindik eta bestearen gogoz baino ezin aurrera egin zezakeen gerra hasten zela berriro ikusi zuenean Metelok eta gainera bere aurkakoa zela etsaiekin borroka egitea, beretarrek irabaztean 5 baino kalte gutxiagorekin galtzen baitzuten haiek, gudu-
tan eta ohi bezala gudalerrotan gabe, beste era batera egin behar zuela gerra erabaki zuen. 6. Hortaz Numidiako leku-
rik aberatsenetara zuzendu zen, lurrak hondatu zituen, zuhurtasun gabe eraikitako gazteluak eta hiriskak edota ba-
10 bestalde gabekoak hartu eta erre zituen, haurrak ez beste guztiak hiltzeko manatu zuen eta gainerakoa dena soldaduen harrapakin zela agindu. Halako beldurrarekin asko joan ziren erromatarrengana gatibu bezala, ugari eskaintzen zitzaizkien garia eta beharrezko izan zitezkeen gainerakoak, eta egoerak 15 eskatzen zuen leku orotan ezarri zituzten babestaldeak.

7. Beretarrek galdutako guduak baino gehiago beldur-
tzen zuten ekintza hauek erregea, 8. atzetik joatera behartzen baitzuten itxaropen guztia ihesean jarria zuena eta besteren aldeko lurretan gerra egitera bere aldekoak ezin babestu izan 20 zituena. 9. Halere egoera hartan hoberena zirudien erabakia hartu zuen: ejerzituaren zatirik handienak hantxe bertan itxaroteko agindua eman zuen, aukeraturiko zaldizkoekin joan zen bera Meteloren atzetik eta bat-batean egin zien eraso ezustean, gauez ezkutuko bidezidorretatik hurbilduta, 25 sakabanaturik zebiltzan erromatarrei. 10. Hauek, armarik gabe, erori egin ziren gehienak, bahitu egin zituzten asko eta garau batek ere ez zuen onik ihes egin. Numidiarrek hurbi-
leko mendisketara alde egin zuten, manatu bezala, kanpa-
mendutik laguntza taldeak etorri baino lehen.

LV. 1. Interim Romae gaudium ingens ortum, cognitis Metelli rebus, ut seque et exercitum more maiorum gereret, ut in adorso loco victor tamen virtute fuisset, hostium agro potiretur, Iugurtham magnificum ex Albini socordia spem salutis in solitudine aut fuga coegisset habere. 2. Itaque senatus ob ea feliciter acta dis immortalibus supplicia decernere; civitas trepida antea et sollicita de belli eventu laeta agere; de Metello fama praeclara esse. 3. Igitur eo intentior ad victoriam niti, omnibus modis festinare, cavere tamen necubi hosti opportunus fieret, meminisse post gloriam invidiam sequi. 4. Ita, quò clarior erat, eo magis anxius erat, neque post insidias Iugurthae effuso exercitu praedari; ubi frumento aut pabulo opus erat, cohortes cum omni equitatu praesidium agitabant; exercitus partem ipse, reliquos Marius ducebat. 5. Sed igni magis quam praeda ager vastabatur. 6. Duobus locis haud longe inter se castra faciebant: ubi vi opus erat, cuncti aderant; 7. ceterum, quo fuga atque formido latius cresceret, divorsi agebant. 8. Eo tempore Iugurtha per collis sequi, tempus aut locum pugnae quaerere, qua ventu-

2 seque (sese *Q*) et exercitum] sequeretur exercitum K^1I || 3 ut in PQD^1 (ut *eras.*) T^2 (ut *s.s.*) in *cestr.* | tamen victor fuisset virtute $H\Gamma nm e$ (in virtute) || 4 albini] vel auli *s.s.* AQ auli CBn || 7 antea et] et *om.* *Q* et antea *n* || 8 fama de metello $HTsme$ || 11 anxius $XH^2T^2D^2lsm$ animus H^1 animus anxius NKm animosior Γ || 14 agitabant] agebant H^1MTm^1e (vel agitabant *s.s.* *H* ita *s.s.* *m*) || 15 igni] igne $T^2F\mu m$ || 16 vi] *eras.* *F om.* et *s.s.* *A* || 18 cresceret] crescere A^1N

LV. 1. Bitartean poz handia izan zen Erroman Meteloren gorabeheren berri izan zutenean, hots, arbasoen ohituren araber bizi zirela bera eta bere ejerzitua, kontrako lekuan ere irabazle gertatu zela bere prestutasunarengatik, etsaien lurren jabe egin zela eta basamortuetan edota ihesean izan zezan ziurtasun itxaropena behartu zuela lehenago Albinoren axolagabekeriarengatik hain harroa zen Jugurta. 2. Hortaz ekintza zoriontsu haiengatik eskerronezko ospakizunak eskaintzea jainko hilezkorrei erabaki zuen senatuak²¹⁵, pozik bizi zen lehenago gerraren bilakaerarengatik larrituta eta arduratsu zebilen hiria eta guztientzat ezaguna zen Meteloren ospea. 3. Honenbestez are gogotsuago saiatzen zen hau garai-penaren bila, gauza guztietan zebilen lehiatsu, baina inoiz etsaiaren eskuerara ez geratzeko kontua zuen eta ospearen atzetik bekaizkeria etortzen dela gogoratzen zuen. 4. Horrela zenbat eta ezagunago egin are kezkatuago zebilen eta Jugurtaren zelataren ondoren ez zen ejerzitua barreiatuta harra-pakinetan ibiltzen. Garia nahiz zuhainaren beharra zutenean kohorteak²¹⁶ joaten ziren zaldieria guztiarekin babestalde bezala; berak zuzentzen zuen ejerzituaren zati bat eta Mariok bestea. 5. Baina suarekin hondatzen zuten lurra erasoaldiekin baino gehiago. 6. Bi lekutan ezartzen zituzten kanpamenduak baina bata bestetik urrutira gabe. 7. Indarraren beharra zenean elkarrekin joaten ziren, bestela banatuta ekiten zuten etsaiaren ihesa eta beldurra areagotzeko. 8. Orduan Jugurta mendisketatik joaten zen euren atzetik, borrokarako une eta

(215) Magistratuek, apaizek nahiz senatuak dei egiten zuten gudaiburu baten garaipena ospatzeko *supplicia* direlakoak (*supplicationes* klasikoaren forma zaharra da *supplicia*) egitera. Jainkotegi guztiak izaten ziren zabalik, egun batez nahiz gehiagoz, ospakizunak irauten zuen bitartean. Eskaintzak eta erromesaldiak egiten ziren.

(216) Hemen Salustiok ez du zehazten kohorteak legioetakoak ala laguntza taldeetakoak ziren (kohorte ezberdinei buruz ikus *Iug.*, LI, 3 oh.).

rum hostem audierat, pabulum et aquarum fontis, quorum penuria erat, corrumpere; modo se Metello, interdum Mario ostendere, postremos in agmine temptare, ac statim in collis regredi, rursus aliis, post aliis minitari, neque proelium facere, neque otium pati, tantummodo hostem ab incepto retinere. 5

LVI. 1. Romanus imperator, ubi se dolis fatigari videt neque ab hoste copiam pugnandi fieri, urbem magnam et in ea parte qua sita erat arcem regni, nomine Zamam, statuit oppugnare, ratus, id quod negotium poscebat, Iugurtham laborantibus suis auxilio venturum, ibique proelium fore. 2. 10
At ille, quae parabantur a perfugis edoctus, magnis itineribus Metellum antevenit; oppidanos hortatur moenia defendant, additis auxilio perfugis, quod genus ex copiis regis, quia fallere nequibat, firmissimum erat; praeterea pollicetur in tempore semet cum exercitu adfore. 3. Ita conpositis re- 15
bus, in loca quam maxime occulta discedit, ac post paulo cognoscit Marium ex itinere frumentatum cum paucis

12 hortatur] sc. ut s.s. QD ut add. mg. K || 14 quia PACBNKHT^lse quod QF
(praeter T) nm || 16 discedit] in ras. l discessit KT || 17 frumentatum] frumenta
H¹D¹ (atum s.s. H²) ob frumenta T¹D²F¹μ ob frumentum M

leku egokien bila. Urri ziren zuhaina eta ur iturriak alferrikaltzen zituen etsaia etorriko zela entzuten zuen lekuetan. Batean Metelori eta bestean Mariori jartzen zitzairen aurrean, ibilaldiko atzeko gudariei egiten zien eraso eta berehala itzultzen zen mendisketara. Gero berriro zirikatzen zituen batzuk lehenengo eta besteak gero, borrokarik egin gabe eta bakerik utzi gabe. Etsaiaren asmoak eragotzi baino ez zuen egiten.

LVI. 1. Iruzurrek nekarazten zutela eta etsaiak ez ziola borrokatzeko aukerarik ematen ikusi zuenean, kokatuta zegoen lurraldeko erresumaren babesleku zen Zama izeneko hiri handia²¹⁷ setiatzea erabaki zuen gudalburu erromatarrek, larrialdian izan zitezten beretarren laguntzan etorriko zela Jugurta, behar zen moduan, eta han gauzatuko zela borroka pentsaturik. 2. Baina iheslarien bitartez prestatzen zutenaz ohartu eta aurrea hartu zion honek Metelori lasterka abiatuta. Harresiak babes zitzaizen eskatu zien hiritarrei eta itzurleak ezarri zituen laguntzaile bezala, hauek baitziren, berriro iruzur egiterik ez zutenez, erregearen gudatalderik ziurrena²¹⁸. Gainera une egokian berbera etorriko zela ejerjituarrekin agindu zuen. 3. Gauzak horrela paratuta, leku ahalik ezkutuenera alde egin zuen eta handik gutxigarrenera, Mario, kohorte gutxi batzuekin gari bilketarako bidalita, bidean zetorrela Siccara²¹⁹ jakinarazi zioten, hondamenaren ondoren

(217) Zama izeneko bi hiri zeuden, baina badirudi Zama Regia dela Salustiok aipatzen duena, Numidiako erregeen bizileku izan zena hain zuzen ere. Kartagotik hegoalderantz zegoen, ehunen bat kilometrotara, gaurko Seba-Biar dagoen lekuan, Tunisiako erdialdean. Ikus aurrerago *Ing.*, LVII, 1.

(218) Erromatarren ejerjitutik itzuritakoek bazekiten oinazetik bortitzenak jasanarazten zizkietela erromatarrek harrapatzen zituzten itzurleei: eskuak moztu, gurutzeratu, oinak aizkoraz moztu, elefanteekin zapaldu...

(219) Numidiako barnekaldeko hiria zen Sicca. Feniziarren kolonia izandakoa, gero erromatarren kolonia bilakatu zen *Sicca Veneria* izena hartuz. Mendiska baten gailurrean zegoen, Bagrada ibaiaren ertzean. Gaurko Kef da, Tunisian.

cohortibus Siccam missum, quod oppidum primum omnium post malam pugnam ab rege defecerat. 4. Eo cum delectis equitibus noctu pergit et iam egredientibus Romanis in porta pugnam facit; simul magna voce Siccensis hortatur uti cohortis ab tergo circumveniant: fortunam illis praeclari facioris casum dare; si id fecerint, postea sese in regno, illos in libertate sine metu aetatem acturos. 5. Ac ni Marius signa inferre atque evadere oppido properavisset, profecto cuncti aut magna pars Siccensium fidem mutavissent, tanta mobilitate sese Numidae gerunt. 6. Sed milites Iugurthini, paulisper ab rege sustentati, postquam maiore vi hostes urgent, paucis amissis, profugi discedunt.

LVII. 1. Marius ad Zamam pervenit. Id oppidum in campo situm magis opere quam natura munitum erat, nullius idoneae rei egens, armis virisque opulentum. 2. Igitur Metellus, pro tempore atque loco paratis rebus, cuncta moenia exercitu circumvenit, legatis imperat ubi quisque curaret. 3. Deinde signo dato undique simul clamor ingens oritur, neque ea res Numidas terret; infensi intentique sine tumultu manent. Proelium incipitur. 4. Romani pro ingenio quisque, pars eminus glande aut lapidibus pugnare, alii succedere ac murum modo subfodere, modo scalis aggredi; cupere pro-

2 ab rege defecerat *Prisc. Gramm.*, II, 404, 10 || 7 ac ni... mutavissent *Non.*, 293, 10 || 15 armis virisque opulentum *Arus. Gramm.*, VII, 496, 23 || 21 pars... pugnare *Non.*, 553, 17

4 facit] fecit *nm* || 5 ab] a *HTn* || 7 acturos] acturum *n* || 10 gerunt *XK* (gerunt numidae) *ls* vel deducunt vel agunt *s.s.* *Q* agunt *Y* (*praeter K*) *nme* || 11 ab] a *P¹C¹QKe* || 15 rei] ex regi *Ae* || 18 deinde] dein *A* (de *s.s.*) *Q* denique *MT* | signo dato] *om.* *Q¹* (de signo dato *s.s.* *Q²*) || 21 alii succedere (succedere *ex* succedere *B* succedere *C*) ac murum *XKDlsn* alii evadere ut succedere vel muros ascendere ac murum *D* alii evadere vel succedere vel murum ascendere ac murum *TFμ* alii evadere succedere (*n s.s.*) ac murum *N* alii (aut *M*) evadere ac (aut *e*) murum *HMF²me*

erregea lehenen utzi zuen hirira hain zuzen ere. 4. Aukeraturiko zaldizkoekin joan zen hara gauzez eta atean aurre egin zien ordurako irtetzera zihoazen erromatarrei; aldiberean kohorteak atzetik inguratzeko eskatu zien oihuka siccatarrei, 5 zoriak egite handirako aukera eskaintzen ziela eta horrela eginez gero bera bere erresuman eta eurak askatasunean biziko zirela aurrerantzean beldurrik gabe esanez. 5. Eta aurrera egin eta hiria uzteko azkar ibili ez balitz Mario, ziurrenik siccatar guztiek edo gehienek aldatuko zuketena laguna, 10 horrenbestekoa baita numidiarren aldakortasuna²²⁰. 6. Jugurtaren soldaduak une batez izan zituen sendo erregeak, baina ihesean alde egin zuten, gizon banaka batzuk galduta, etsaiek indar handiagoz hertsatu zituztenean.

LVII. 1. Mario Zamara heldu zen. Lautadan kokaturiko 15 hiri hau berez baino gehiago gizonaren lanarengatik zen gortorleku, beharrezkoa den ezer ez zitzaion falta eta aberatsa zen arma eta gizonetan. 2. Honenbestez Metelok uneari eta lekuari zegozkion prestakuntzak egin eta harresi guztiak inguratu zituen ejerzituarekin, eta gudalburuorde bakoitzak 20 zein lekuren ardura izan behar zuen esan zuen. 3. Gero seinalea eman eta alde guztietatik sortu zen batera abarrots handi bat, baina horrek ez zituen numidiarrak beldurtu; sendo eta adi zirauten nahaspilarik gabe, eta borrokaldia hasi zen. 4. Erromatarrek, bakoitzak bere trebetasunaren arabera, 25 batzuek urrundik borrokatzen zuten habaila-balak²²¹ nahiz harriak jaurtikiz, beste batzuek hurbilagotu eta harresiari azpia jaten zioten edota zurubiekin eraso, aurrez aurre egin

(220) Ikus ideia bera *Iug.*, XLVI, 3 eta LXVI, 2 ataletan.

(221) Nahiz berunezkoak nahiz buztinezkoak izan zitezkeen habailaz jaurtikitzen ziren bala hauek eta gudalburuaren izena, habailariaren taldearen zenbakia nahiz bestelako «oharrak» idatzita izaten zituzten sarritan.

LXXXV. 1. «Scio ego, Quirites, plerosque non isdem artibus imperium a vobis petere et, postquam adepti sunt, gerere: primo industrios, supplicis, modicos esse; dein per ignaviam et superbiam aetatem agere. Sed mihi contra ea videtur. 2. Nam quo pluris est univorsa res publica quam consulatus aut praetura, eo maiore cura illam administrari quam haec peti debere. 3. Neque me fallit quantum cum maximo beneficio vestro negoti sustineam. Bellum parare simul et aerario parcere, cogere ad militiam quos nolis offendere, domi forisque omnia curare, et ea agere inter invidos, occursantis, factiosos, opinione, Quirites, asperius est. 4. Ad hoc, alii si deliquere, vetus nobilitas, maiorum fortia facta, cognatorum et adfinium opes, multae clientelae, omnia haec praesidio adsunt; mihi spes omnes in memet sitae, quas necesse est virtute et innocentia tutari; nam alia infirma sunt. 5. Et illud intellego, Quirites, omnium ora in me convorsa esse, aequos bonosque favere, —quippe mea bene facta rei publicae procedunt—, nobilitatem locum invadendi quaerere. 6. Quo mihi acrius adnitendum est uti neque vos capiimini et illi frustra sint. 7. Ita ad hoc aetatis a pueritia fui uti

13 haec omnia (sic)... adsunt *Don. Ter. Phorm.*, 130

1 ego] *ex ergo A om. Q* | *quirites*] *o s.s. Q nonn. codd. querites l* || 3 supplicis *A¹* supplicis *NHΓ* (*praeter T*) *sme supplices cett.* | *dein*] *dehinc Ylnme* || 5 quo *XY* (*praeter T¹*) *sme* quando *VT¹* (quo *T²*) *l* i.e. quanto *s.s. C* vel quanto *s.s. A* i.e. in quantum *s.s. Q* quam *n* || 6 illam] *illa VI* || 8 beneficio vestro *PAY* (*praeter T*) *Δ* (*praeter s*) *Jacobs-Wirz Ernout* vestro beneficio *VΣ* (cum vestro maximo beneficio *Q*) *Ts Ablberg Ornstein* | *sustineam*] *sustineo P* || 9 simul et] *simul VI* || 11 ad hoc] *adhaec ex adhuc N* ad haec *T* || 12 deliquere] *ex dereliquere HM* | *facta*] *om. HMDFμ* || 13 haec omnia *Don.* || 14 omnes] *omnis ACMn* || 15 virtute] *et virtute NMm* ex virtute *HT¹DFμe* || 17 bene facta rei publicae] *beneficia in rem publicam Vn* benefacta rem publicam *Q¹* (vel rei publicae *s.s.*) || 18 procedunt] *praecedunt Σ* (vel pro *s.s. Q*) *Hn* || 19 uti] *ut AQNKMm* || 20 fui] *ex fuit CNDe* fuit *μ* | *uti*] *ut AQNKHDμn*

LXXXV. 1. «Badakit²⁸⁹, hiritarrok, gehienek ez dutela ihardunbide bera izaten zuei agintea eskatzen dizuetenean eta behin lortuz gero hartaz baliatzen direnean; hasieran langile, lehiatsu eta neurriko izaten dira, gero nagikeriaz eta harrokeriaz bizitzen dira. 2. Baina nire iritzia horren kontra-koa da. Zenbat eta garrantzitsuagoa izan Errepublika osoaren handitasuna kontsulgoaren edota pretoregoaren aldean, are ardura handiagoa izan behar baitugu hura zuzentzen hauek bilatzen baino. 3. Ez nago zuen ontartez zerenbesteko egin-
 10 beharra hartzen dudan jakin gabe: gerra paratu eta aldiberean herri ogasuna aurreratzea, mindu nahi ez dituzun horiek soldaduzkara joaten behartzea, etxeko eta kanpoko arazo guztien ardura izatea gorroto zaituztenen artean, arerioen eta zalapartazaleen artean, hiritarrok, uste baino latzagoa da. 4.
 15 Gainera aintzinako noblezasuna, arbasoen egitandiak, senide eta lagunen aberastasunak eta zainpeko ugari dituzte beste batzuek babesgarri bezala, huts eginez gero; nik neuregan dut itxaropen guztia, eta prestutasunaz eta neure zuzentasunaz zaindu behar dut, gainerako laguntzak ahulak baititut. 5. Erromatar guztien begiak neuri adi daudela ere
 20 ulertzen dut, hiritarrok, zuzen eta zintzoak neure alde ditudala nire ekintzek on egiten diotelako herriari, eta nobleteria niri eraso egiteko aukeraren bila dabilela. 6. Horregatik are gogorrago ekin behar dut zuek ez zaitzaten harrapa eta haiek
 25 huts egin dezaten. 7. Neke eta arrisku guztiak niretzat oso

(289) Nobleberri edo *homines novi* direlakoan agiri politiko bezala ezagutu izan da hitzaldi hau, hemen biltzen dituelako Salustiok hauen xedeak.

omnis laboris et pericula consueta habeam. 8. Quae ante
 vostra beneficia gratuito faciebam, ea uti accepta mercede
 deseram non est consilium, Quirites. 9. Illis difficile est in
 potestatibus temperare qui per ambitionem sese probos si-
 mulavere; mihi, qui omnem aetatem in optumis artibus egi, 5
 bene facere iam ex consuetudine in naturam vortit.

10. Bellum me gerere cum Iugurtha iussistis; quam rem
 nobilitas aegerrume tulit. Quaeso, reputate cum animis vos-
 tris num id mutare melius sit, si quem ex illo globo nobilita-
 tis ad hoc aut aliud tale negotium mittatis, hominem veteris 10
 prosapiae ac multarum imaginum et nullius stipendi; scilicet
 ut in tanta re ignarus omnium trepidet, festinet, sumat ali-
 quem ex populo monitorem officii sui. 11. Ita plerumque
 evenit ut quem vos imperare iussistis, is sibi imperatorem
 alium quaerat. 12. Atque ego scio, Quirites, qui postquam 15
 consules facti sunt, et acta maiorum et Graecorum militaria
 praecepta legere coeperint, praeposteri homines; nam gerere
 quam fieri tempore posterius, re atque usu prius est. 13.
 Conparate nunc, Quirites, cum illorum superbia me homi-
 nem novom. Quae illi audire aut legere solent, eorum partem 20
 vidi, alia egomet gessi; quae illi litteris, ea ego militando

1 et... haberem (*pro* habeam) *Arus. Gramm., VII, 460, 19* || 10 homines (*sic*)...
 stipendi(i) *Prisc. Gramm., III, 221, 19; 360, 1; 365, 21* || 11 scilicet... sui *Non., 396, 25*

1 et *VPACBT*'s *Arus. om. cett.* | habeam] haberem *Arus.* | ante] antea $A^1 N F e$ || 6
 vertit $X N K^1 D F \mu \Delta$ verti *V* vertitur $H T \mu^2$ vel vertitur *s.s.* *Q* venit $K^2 M$ || 7 quam]
 quem *P* || 8 quaeso] quasore *P* || 9 mutare $V P C B Q^2 T$ putare *I* mutari *cett.* || 10 aut
 aliud tale] ad *s.s.* *P* aut ad tale (aliud *s.s.*) *m* | hominem] homines *Prisc. ter* | veteris
 prosapiae ac *om. Prisc. 2* || 11 ac] aut *CB om. V Prisc. 1 et 3* || 11 et] ac *Prisc. ter* || 12
 trepidet] trepide *Non.* | sumat] sumet $H^1 M^1 D F \mu e$ || 13 sui officii $Q T F \mu$ || 14
 imperare] imperatorem $V P^2$ | is sibi $V A^1 Q Y \Delta$ (*praeter I*) sibi *exp. A^2 om. PCB* || 15
 atque $V X I$ s at *Y* (qui *s.s.* *T* que *s.s.* K^2) *nme* | quirites] *s.s. A om. QNM* || 16 et acta
*VPCB*l et *s.s. A om. cett.* | maiorum] malorum *V* || 17 coeperint (ce- $C Q D$) coeperunt
e receperint *I* || 20 aut $V A Q$ et *cett.* || 21 alia] *ex* talia $H F$ talia Γ (alia *s.s. T^2*) *e*

ezagun izateko moduan bizi izan naiz haurtzarotik orain arte.
 8. Eta ez da nire asmoa, hiritarrok, zuen ontartea jaso baino lehen dohainik egiten nuena orain hura jaso ondoren lagatzea. 9. Herri atxikimendua bilatzearren hauteskunde garaian zintzoarenak egin dituztenei izaten zaie zaila agintean neurrizko izatea; bizitza guztia ihardunbiderik onenetan eman dudan honi dagokidanean, aitzitik, neure izaerako zer-bait bihurtu zait, ohituraren ohituraz, on egitea.

10. Jugurtaren aurkako gerra zuzentzea eskatu didazue eta txartzat hartu du nobleteriak. Ondo pentsa ezazue zeuen barruan, arren, ea hobe den erabaki hura aldatzea, ea noble taldeko norbait bidal dezakezuen eginkizun honetara edota antzekoren batera, jatorri zaharra eta arbaso irudi ugari²⁹⁰ baina batere esperientzia militarrik ez duen gizonen bat; jakina, halako betekizun garrantzitsu baten aurrean, ezjakina denez, dardarka, lasterka eta herritarren artean bere eginkizunean aholkulari izango duen norbaiten bila has dadin. 11. Horrela gertatzen da gehienetan, zuek agintzeko aurkitu duzuenak beste agintari bat bilatzen du. 12. Ezagutzen ditut baita, hiritarrok, arbasoen egitandiak eta greziarren gerrarako aholkuak irakurtzen kontsul egin eta gero hasi diren batzuk ere. Gizon aldrebesak halakoak! Denborari dagokionean iharduera izendapenaren ondoren badator ere, aurretik baitator berez ekiteari dagokionean. 13. Aldera nazazue orain, hiritarrok, nobleberri naizen hau noble harro horiekin. Haiek entzun edota irakurri ohi dutena ikusi egin dut nik

(290) Irudi hauei buruz ikus *Iug.*, IV, 5 oh.

didici. 14. Nunc vos existumate facta an dicta pluris sint. Contemnunt novitatem meam, ego illorum ignaviam; mihi fortuna, illis probra obiectantur. 15. Quamquam ego naturam unam et communem omnium existumo, sed fortissimum quemque generosissimum. 16. Ac si iam ex patribus 5 Albini aut Bestiae quaeri posset mene an illos ex se gigni maluerint, quid responsuros creditis, nisi sese liberos quam optimos voluisse? 17. Quod si iure me despiciunt, faciant item maioribus suis quibus, uti mihi, ex virtute nobilitas coepit. 18. Invident honori meo; ergo invideant labori, innocentiae, periculis etiam meis, quoniam per haec illum cepi. 19. Verum homines corrupti superbia ita aetatem agunt quasi vestros honores contemnant; ita hos petunt, quasi honeste vixerint. 20. Ne illi falsi sunt, qui divorsissimas res pariter expectant, ignaviae voluptatem et praemia virtutis. 21. 15 Atque etiam cum apud vos aut in senatu verba faciunt, pleraque oratione maiores suos extollunt; eorum fortia facta memorando clariores sese putant. 22. Quod contra est. Nam quanto vita illorum praeclarior, tanto horum socordia flagitiosior. 23. Et profecto ita se res habet: maiorum gloria 20

20 maiorum... (eorum om.)... patitur *Schol. Iuv.*, 8, 139

1 nunc vos] *ex* nunciis *A* vos *om.* *e* || 3 obiectantur] obiciuntur *VP*²*e* || 5 generosissimum] generosissime (*e exp.* um *s.s.*) *P* et generosissimum *n* generosissimum esse *H* generosum esse *I* || 5 patribus] matre *V* || 6 posset] possent *A* possit *V* || 8 voluisse] maluisse *V* | faciant] faciunt *PA*¹*Q*²*s*² facient *n* || 9 item *VA*¹*Nm* idem *ett.* (*praeter M* id. *Q* tam) || 10 labori innocentiae] labori et innocentiae *QNKHM* (*et eras.*) *se* et labori innocentiae *A* et innocentiae (*labori eras. et s.s. m*²) *m* || 11 per haec illum] haec per illa *V* || 14 sunt] sint *Bn* || 15 expectant] expectent *AQ* | voluptatem] voluntatem *B*¹*n* || 17 maiores] mores *m* || 18 memorando] memorandae *A*¹ memoranda *H* commemorando *e* | sese] *se A*¹*Q* || 19 quanto] quantum *HF* (*ex* quanto *D s.s.* um) *sme* quanta *K* | vita illorum *VAΣNKIse* illorum vita *P* vita eorum *HTnm* | tanto] tantum *HM* tanta *QK* || 20 se res] res se *Dm* res sese *T* sese *MI* | habet] habent *V*

zati bat eta bestea egin; haiek liburuetan ikasi dutena guda-
 zelaian ekinez ikasi dut nik. 14. Orain erabaki ezazue zeuek
 zer den baliotsuago, egiten dena ala esaten dena. Nire jatorri
 berria mespretxatzen dute haiek eta nik euren nagikeria; zo-
 5 ria alatzen didate niri, eurei euren irainak. 15. Dena dela
 giza izaera bakarra eta denontzat berdina dela uste dut, eta
 adoretsuen dena hura dela jatorri hoberenekoa. 16. Ea ni ala
 haiek sortaraztea nahiago izango zuketen galdetu ahal izango
 bagenie orain Albinoren edota Bestiaren gurasoei²⁹¹, zer
 10 erantzungo luketela uste duzue, ahal den semerik onenak
 nahi zituztela ez bada? 17. Eta arrazoiz gutxiesten banaute,
 egin dezatela berdin euren arbasoekin ere, nirea neurean be-
 zala euren prestutasunean hasi baitzen haien nobletasuna. 18.
 Jaso dudan ohorearen bekaizti dira; izan daitezela bada baita
 15 nire lanaren, zintzotasunaren eta arriskuen bekaizti ere,
 hauen bitartez lortu baitut hura. 19. Baina harrokeriak alfe-
 rrikaldu dituen hauek zuen ohoreak erdeinu izango balituzte
 bezala bizi dira, eta zintzotasunez bizi izan balira bezala
 eskatzen dituzte ohoreak. 20. Zinez erratuta daude nagike-
 20 riaren gozotasuna eta prestutasunaren sariak, hain ezberdinak
 diren bi gauza era berean nahi dituztenak. 21. Are gehiago,
 zeuen aurrean nahiz senatuan hitz egiten dutenean, euren
 arbasoak goratzen dituzte hitzaldi gehienetan, eta haien
 ekintza adoretsuak gogoratuz euren buruak ospetsuago egi-
 25 ten dituztela pentsatzen dute. Eta egia kontrakoa da. 22.
 Zenbat eta ospe handiagokoa izan haien bizitza, are lotsaga-
 rriagoa baita hauen axolagabekeria. 23. Izatez honela da, ar-

(291) Albinori (ikus *Iug.*, XXXV-XXXVI, XXXIX eta XLIV) eta Bestiari (ikus *Iug.*, XXVII-XXXII) bie leporatu zitzaien Jugurtarekin harremanak izatea eta biak epaitu zituzten Mamilioren legearen arabera. Biak ziren familia zahar eta ezagunekoak, Albino Postumiotarretakoa baitzen (*gens Postumia*) eta Bestia Kalpurniotarra (*gens Calpurnia*).

posteris quasi lumen est; neque bona neque mala eorum in occulto patitur. 24. Huiusce rei ego inopiam fateor, Quirites; verum, id quod multo praeclarius est, meamet facta mihi dicere licet. 25. Nunc videte quam iniqui sint: quod ex aliena virtute sibi adrogant, id mihi ex mea non concedunt, 5 scilicet quia imagines non habeo, et quia mihi nova nobilitas est, quam certe peperisse melius est quam acceptam corrupisse.

26. Equidem ego non ignoro, si iam mihi respondere velint, abunde illis facundam et compositam orationem fore. Sed in maximo vostro beneficio, cum omnibus locis me 10 vosque maledictis lacerent, non placuit reticere, ne quis modestiam in conscientiam duceret. 27. Nam me quidem ex animi mei sententia nulla oratio laedere potest; quippe vera necesse est bene praedicent, falsa vita moresque mei superant. 28. Sed quoniam vostra consilia accusantur, qui mihi 15 summum honorem et maxumum negotium inposuistis, etiam atque etiam reputate num eorum paenitendum sit. 29. Non possum fidei causa imagines neque triumphos aut consulatus maiorum meorum ostentare; at, si res postulet, hastas,

18 non possum... meorum *Auson. Grat. Act.*, 8, p. 362, 36 P || 19 at... dona *Non.*, 554, 13

1 quasi] *om.* *Ysnme* | neque mala neque bona V | eorum] *om.* *Schol. Iuv.* || 2 huiusce rei] huius rei *m* huiusce *Mn* (modi *eras.* *M*) | fateor *Vs* patior *ceff.* || 3 meamet *VPABQ!* vel meimet *s.s.* *ACQ* meimet *n* mea et *CN* mea me *Y* (*praeter DN*) me mea *Ds²* (met *eras.*) | facta mihi dicere] mihi facta dicere *Q* facta dicere mihi *M* mihi *om.* e || 4 sint] sunt *ln* | sint iniqui *TDFμ* || 8 ego non ignoro] non ego ignoro *Q* non ignoro ego *m* ego *om.* s || 9 facundam *XY* (*praeter TD*) *l¹m¹* facundiam *VTDsmel²m²* vel facundiam *s.s.* *Q* ex facundiam *Mμ* ut *vid.* || 10 vestro maximo *P* | me vosque *XYse* meque vosque *Vln* vos meque *m* || 11 lacerent] lacerarent *A¹Q¹NKD¹F* | reticere] tangere *A¹* (vel reticere *s.s.*) tremere vel reticere *m* || 13 mei *om.* *A¹* (sc. mei *s.s.* *A²*) *QHF* (*praeter D*) e || 14 praedicent *VPH²M²DFμl⁵* praedicet *ceff.* | falsa *VPY* (*praeter H*) *lne* falsam *AΣHD²snm* | vita] vitam *B* (?) *HD¹* | superant] superent *P¹* || 15 *desinit codex* e | mihi] *om.* *T* *s.s.* s || 17 num eorum] numerorum *V* || 18 ostendere imagines meorum *Auson. om.* neque triumphos aut consulatus ... ostentare | aut consulatus] *om.* *Γ* (*s.s.* *T²*) || 19 at] ac *ln* | hastas *VXNA* *Non.* hastam *KHF*

basoen ospea argi bat bezala da oinordekoentzat eta ez ditu ez mendu onak ez txarrak ezkutuan uzten. 24. Nik nire txirotasuna aitortu behar dut halakoetan, hiritarrok, baina neure ekintzez hitz egiteko gauza naiz, eta are ospagarriago da hori. 25. Ikus ezazue orain zein zuzengabe diren hauek. Inoren prestutasunarengatik eurentzat hartzen duten hori berori ez didate niri neurearengatik ematen, jakina, ez dauka-dalako arbaso irudirik eta nire noblezasuna berria delako. Eta zenbat hobe da norberak egitea, hartutakoa alferrikaltzea baina!

26. Badakit, noski, orain erantzun nahi izango baldin balidate izango luketela hitzaldi jori eta antzatsua. Baina zuen ontarte ederraren kariatz leku guztietan gaizki esaka iraintzen gaituztenez zuek eta ni, ez zait ondo iruditu isilik geratzea, ez diezaion norbaitek nire zuhurtasuna ogentasunari egotz. 27. Berez neure barruan badakit ezin nauela inongo hitzaldiak mindu, egia baldin bada ondo hitz egin behar duelako nitaz, eta gezurra baldin bada neure bizitzak eta azturak gehiago egingo diotelako. 28. Baina niri ohorerik handiena eta eginkizun gorena eman didazuenon erabakia salatzen dutenez, hausnar ezazue behin eta berriro ea erabaki hartaz damutu beharra izango duzuen. 29. Ezin ditzaket, berme bezala, nire arbasoen irudiak, garaipenak edota kontsulgoak aurkez, baina bai, behar izanez gero, astamakilak, gudoihala, burdin-zafalak eta bestelako gudasari batzuk²⁹², eta baita aurrez aurreko borrokaldiko minondoak

(292) Burdinezko muturrik gabeko astamakilak (*bastae purae*) izaten ziren garaipenen oroigarrietako batzuk. Urrez nahiz zilarrez bordaturiko oihaltxoak (*vexilla*) ere ematen ziren gudasaritzat. Larruzko uhalei itsatsita oskol gainean eramaten ziren burdin, zilar nahiz urrezko erlebiedun zafalak dira *phalerae* direlakoak. Orokorrean sariei buruz ikus *Iug.*, LIV, 1 eta oh.

vexillum, phaleras, alia militaria dona, praeterea cicatrices adorso corpore. 30. Hae sunt meae imagines, haec nobilitas, non hereditate relicta, ut illa illis, sed quae ego meis plurimis laboribus et periculis quaesivi.

31. Non sunt conposita verba mea; parui id facio. Ipsa se 5
virtus satis ostendit; illis artificio opus est, ut turpia facta oratione tegant. 32. Neque litteras Graecas didici; parum placebat eas discere, quippe quae ad virtutem doctoribus nihil profuerant. 33. At illa multo optuma rei publicae doctus sum: hostem ferire, praesidia agitare, nihil metuere nisi 10
turpem famam, hiemem et aestatem iuxta pati, humi requiescere, eodem tempore inopiam et laborem tolerare. 34. His ego praeceptis milites hortabor; neque illos arte colam, me opulenter, neque gloriam meam, laborem illorum faciam. 35. Hoc est utile, hoc civile imperium. Namque cum 15
tute per mollitiem agas, exercitum supplicio cogere, id est dominum, non imperatorem esse. 36. Haec atque talia maiores vestri faciundo seque remque publicam celebravere. 37. Quis nobilitas freta, ipsa dissimilis moribus, nos illorum aemulos contemnit, et omnis honores non ex merito, sed 20
quasi debitos a vobis repetit. 38. Ceterum homines superbissimi procul errant. Maiores eorum omnia quae licebat

5 non sunt... ostendit *Non.*, 257, 35 || 11 hiemem... pati *Non.*, 322, 3

2 corpore] i.e. pectore *s.s.* C pectore VP^2B (vel corpore *s.s.*) || 3 non] ne *P* | ego meis] egomet VP^2 ego *M* || 5 parui VP^2 *Non.* parum *cott.* || 8 quippe] *s.s.* *Am* || 9 profuerant] profuerunt VP^2HIm | at] ad *V* | multo] multa A^1Q^1NKIm || 10 hostem *VXM* | hostes *Y* (*praeter M*) *snm* | praesidia] praesidium VP^2 || 11 et] atque *Non.* || 13 ego $VCQNKs$ ergo $PABHI$ (*praeter M*) *lnm* igitur *M* | arte] arce CQn || 15 hoc civile] hoc *om.* *Q* hoc est civile *Hn* | namque] nam Vl || 16 mollitiem] mollitiam VQ (?) *Tn* | id] hoc Im || 17 talia AB^2Ynm alia $VPCB^1Qli$ || 19 moribus] maioribus *s* || 21 repetit] *ex* repetunt HMD || 22 errant] *ex* erant *B* (*r.s.s.*) KM *ex* erat *D*

ere. 30. Hauek dira nire irudiak, hau nire nobletasuna, ez seniparte bezala utzi didatena, beste horiena bezala, neuk neure neke eta arriskuekin eskuratua baino.

31. Nire hitzak ez dira antzatsuak; ez dut horren ardurarik. Prestutasunak berak agertzen du bere burua. Eurak dira antzea behar dutenak ekintza lotsagarriak hitzekin esaltzeko. 32. Ez dut greziar literatura ere ikasi²⁹³; ez zitzaidan ondo iruditzen hori ikastea, irakasleei ez baitie prestutasunerako bidean batere mesederik egin. 33. Baina nire herriarentzat mesedegarrien dena ikasi dut: etsaia zauritzen, babestaldeak zuzentzen, beldurra izen txarrarena baino ez izaten, negua eta uda biak onez eramaten, lurreen atsedean hartzen, gabezia eta nekeak batera jasaten. 34. Jokabide hauek irakatsita gogoberotuko ditut nire soldaduak, ez ditut eurak gogor eta neure burua eskuzabalez hartuko, eta ez dut neure ospea euren nekeaz bilatuko. 35. Hau da aginpide onuratsua, berau da gizalegezkoa. Zu zeu biguinke-
 15 rian bizi eta ejerzitua zigorrekin zuzentzen baduzu ez baitzara gudalburua, ugazaba baino. 36. Jokabide honekin goratu zituzten zuen arbasoek euren buruak eta herria. 37. Nobletariak arbaso hauengan ustea jarririk, baina aztura ezberdinez, haien antzeko izan nahi dugunok erdeinu gaitu eta ohore guztiak eskatzen dizkizue beretzat, ez bere merezimen-
 20 duengatik, zor bezala baino. 38. Baina oso erratuta daude gizon harroputz hauek. Ahal izan zuten guztia utzi zieten

(293) Greziakoarekiko mespretxu hau nahiko ondo ikusita zegoen Erromako girorik herrikoienetan, baina sarri isladatu da literaturan ere. Dena dela hemen Marioren hitzekin adierazitakoa ez dator bat Salustiok hitzaldi hau osatzean erabilitako teknikarekin, leku bat baino gehiagotan baitira nabarmen Greziako hizlari eta idazleen oihartzunak.

illis relinquere, divitias, imagines, memoriam sui praeclaram; virtutem non relinquere, neque poterant: ea sola neque datur dono neque accipitur. 39. Sordidum me et incultis moribus aiunt, quia parum scite convivium exorno, neque histrionem ullum neque pluris preti coquam quam vilicum habeo. Quae 5 mihi lubet confiteri, Quirites; 40. nam ex parente meo et ex aliis sanctis viris ita accepi, munditias mulieribus, viris laborem convenire, omnibusque bonis oportere plus gloriae quam divitiarum esse; arma, non supellectilem decori esse. 41. Quin ergo, quod iuvat, quod carum aestumant, id semper 10 faciant: ament, potent; ubi adulescentiam habuere, ibi senectutem agant, in conviviis, dediti ventri et turpissimae parti corporis; sudorem, pulverem et alia talia relinquunt nobis, quibus illa epulis iucundiora sunt. Verum non ita est. 42. Nam ubi se flagitiis dedecoravere turpissimi viri, bonorum 15 praemia ereptum eunt. 43. Ita iniustissime luxuria et ignavia, pessumae artes, illis qui coluere eas nihil officiant, rei publicae innoxiae cladi sunt.

44. Nunc quoniam illis, quantum mei mores, non illorum flagitia poscebant, respondi, pauca de re publica loquar. 20 45. Primum omnium de Numidia bonum habete animum, Quirites. Nam quae ad hoc tempus Iugurtham tutata sunt,

1 illis] *exp.* A s.s. B om. C | reliquere] relinquere MD¹n¹ || 2 non reliquere] non relinquere PB¹MTD¹n || 3 incultis] incultum VB incautum n || 3 moribus] maioribus C || 6 libet mihi V | nam ex] nam et ex AK/n | et ex aliis] et om. A¹ (s.s. A²) ex om. HG || 7 laborem viris PCB/s || 8 omnibusque bonis] que bonis om. PC¹ (sc. bonis s.s. C²) | bonis om. B omnesque bonos corr. K || 9 divitiarum esse] esse om. Ysm s.s. A²K² | decori] decora A¹ND² decor... ante ras. H || 11 faciant] faciunt A¹ (a s.s.) s || 12 conviviis] convivis A¹V || 13 pulverem] om. V s.s. m || 15 flagitiis] omnibus flagitiis Vn | viri] om. V || 19 ab quoniam illis usque ad 88, 2 aut contra lacuna in K | mores mei MD¹Fμs || 21 bonum habete animum] bonum animum habete V habete bonum animum M bonum habete bonum animum l bonum habete de Numidia animum Q || 22 tutata] tuta QF

arbasoek: aberastasunak, irudiak eta gogoangarri ospetsuak; prestutasuna ez zieten utzi, ezin zuten eta; hori da opari bezala ez ematen ez hartzen ez den bakarra. 39. Zakarra eta gaizki hazia naizela diote ez ditudalako oturuntzak txukunki antolatzen, ez daukadalako histrioirik eta ez daukadalako sukaldaria baserritarra baino gehiagotzat. Eta gogoko dut hau guztia aitortzea, hiritarrok. 40. Honako hau ikasi baitut nire aitarengandik eta beste gizon bikain batzuegandik: apainduriak emakumezkoei dagozkiela eta gizonezkoei neke, gizon prestuek aberastasunak baino gehiago ospea izan behar dutela, eta armek ematen dutela edertasuna, ez altzariek. 41. Beraz egin dezatela beti gogoko dutena eta atseginen iruditzen zaiena: maita dezatela, edan dezatela; gaztaroa igaro zuten lekuan bizi daitezela zahartzaroan, oturuntzetan, 15 sabelaren eta gorputzaren zatirik lotsagarrienaren menpe. Izerdia, hautsa eta halakoak utz ditzatela janedanak baino atseginago ditugunontzat. 42. Baina ez da horrela. Gizon lotsagarri hauek euren buruak galbidean itsusitu ondoren prestuei dagozkien sariak kentzera datozkigu. 43. Horrela 20 lizunkerian eta nagikerian bizi direnei ez diete akats izugarri hauek batere kalterik egiten, baina errurik ez duen herriari hondamendia dakarkiozte zuzengabe.

44. Orain, nire azturak, eta ez haien galbideak, eskatzen zuen aina erantzun dudanez gure herriari buruzko hitz 25 batzuk esango ditut. 45. Ezer baino lehen, hiritarrok, Numidiari dagokionean izan zaitezte lasai, urrundu baituzue orain

omnia removistis, avaritiam, inperitiam, atque superbiam. Deinde exercitus ibi est locorum sciens, sed mehercule magis strenuus quam felix; 46. nam magna pars eius avaritia aut temeritate ducum adtrita est. 47. Quamobrem vos, quibus militaris aetas est, adnitimini mecum et capessite rem publicam, neque quemquam ex calamitate aliorum aut imperatorum superbia metus ceperit. Egomet in agmine aut in proelio consultor idem et socius periculi vobiscum adero; meque vosque in omnibus rebus iuxta geram. 48. Et profecto dis iuvantibus omnia matura sunt: victoria, praeda, laus. 10 Quae si dubia aut procul essent, tamen omnis bonos rei publicae subvenire decebat. 49. Etenim nemo ignavia immortalis factus est, neque quisquam parens liberis uti aeterni forent optavit, magis uti boni honestique vitam exigent. 50. Plura dicerem, Quirites, si timidis virtutem verba adde- 15 rent; nam strenuis abunde dictum puto.»

LXXXVI. 1. Huiusmodi oratione habita, Marius postquam plebis animos arrectos videt, prope commeatu stipendio, armis, aliisque utilibus navis onerat; cum his A. Manlium legatum proficisci iubet. 2. Ipse interea milites 20 scribere, non more maiorum neque ex classibus, sed uti

2 sciens horum *Arus. Gramm., VII, 509, 25* || 20 ipse...: p. 104, 4 opportunissimus *Gell., 16, 10, 16*

1 avaritiam inperitiam atque superbiam] atque (*om. MTFμl*) avaritia imperitia atque superbia *ND* avaritia imperitia superbia (vel am *s.s.*) *T* || 2 ibi est] est ibi *HT* (*praeter F*) *nm* ibi *om. F* | sed] et *V* | mehercule] mehercules *VT* me hercle *Q* || 4 adtrita est] est *om. A* (allisa est *s.s. A²*) *Q¹* (*sc. est s.s. Q²*) *M s.s. Nm* || 5 aetas est] est (*inest s.s. T*) aetas *QΓnm* | mecum *om. B* | capessite] capessite mecum *D* || 6 neque quemquam] ne quemquam *N₅* ne quem *M* | aut] *s.s. AT om. Ym* || 8 periculi] periculis *V* || 9 meque *VPA²CBInm* me *cetr.* || 11 omnis bonos] omnibus bonis *A¹Nm* || 11 subvenire r. p. *V* || 12 decebat *VPA²ΣIn* decet *cetr.* | nemo ignavia *VP¹A* ignavia nemo *P²CBYΔ* || 13 est] *om. AYm* | uti] ut *VHG* || 19 aliisque] que *s.s. T om. DFμ* | a. manlium] aulum m. *HTDFμ* || 20 legatum] ligatum *A¹ om. l* || 21 neque] nec *Gell.* | ut libido cuiusque *Gell.*

arte Jugurta babesten zuen guztia, hots, handinahia, ezjakintasuna eta harrotasuna²⁹⁴. Bigarren: lekua ezagutzen duen baina —ala Herkules!— zoria baino gehiago adorea duen ejerzitu bat daukatzue han, 46. haren zatirik handiena gidarien handinahiak eta ozartasunak ahuldu baitute. 47. Horregatik soldaduzkarako adina duzuenok elkar itzazue zuen indarrak nirekin eta defenda ezazue zuen herria, eta ez dadila inor besteen zorigaitzarengatik edota gudalburuen harrotasunarengatik beldur. Bai ibilaldietan eta bai guduan ni neu izango naiz zuen ondoan aholkuemale eta arriskuko lagun bezala, eta arlo guztietan hartuko zaituztet neure burua bezala. 48. Eta zalantzarik gabe garaipena, harrapakinak eta ospea dena duzue eskuerara, jainkoak lagun. Eta hauek guztiak otezkoak edota urrutikoak balira ere hiritar on guztiak lagundu beharko liokete halere herriari. 49. Inor ez da nagitasunez hilezkor egiten arren, eta guraso garau batek ez du nahi izan bere seme-alabak betiereko izatea, zintzo eta deduz bizitzea baino. 50. Esango nuke gauza gehiago, hiritarrok, hitzek adorea emango baliete koldarrei; adoretsuentzat, uste dut aski hitz egin dudala.»

LXXXVI. 1. Honelatsuko hitzaldi baten ondoren plebearen bihotzak berotu zituela ikusi zuenean lasterka ontziratu zituen Mariok jaki-hornidura, soldatak, armak eta bestelako beharrezko gaiak, eta Aulo Manlio gudalburuordea abiarazi zuen hauekin. 2. Berak soldadu bilketa egiten ihardun zuen bitartean, baina ez arbasoek bezala edo herronkaz herronka, nahi

(294) Bere aurreko hiru kontsulen akatsak aipatzen ditu hemen, Bestiaren handinahia, Albinoren ezjakintasuna eta Meteloren harrotasuna.

cuiusque lubido erat, capite censos plerosque. 3. Id factum alii inopia bonorum, alii per ambitionem consulis memorabant, quod ab eo genere celebratus auctusque erat, et homini potentiam quaerenti egentissimus quisque opportunissimus, cui neque sua cara, quippe quae nulla sunt, et omnia 5 cum pretio honesta videntur. 4. Igitur Marius cum aliquanto maiore numero quam decretum erat in Africam profectus, paucis diebus Vticam advehitur. 5. Exercitus ei traditur a P. Rutilio legato; nam Metellus conspectum Mari fugerat, ne videret ea quae audita animus tolerare nequiverat. 10

LXXXVII. 1. Sed consul, expletis legionibus cohortibusque auxiliariis, in agrum fertilem et praeda onustum profiscitur; omnia ibi capta militibus donat, dein castella et oppida natura et viris parum munita aggreditur; proelia multa, ceterum levia, alia aliis locis facere. 2. Interim novi 15 milites sine metu pugnae adesse, videre fugientes capi aut occidi, fortissimum quemque tutissimum, armis libertatem, patriam parentesque et alia omnia tegi, gloriam atque divitias quaeri. 3. Sic brevi spatio novi veteresque coaluere,

5 omnia... videntur *Comment. Lucan., 10, 407*

1 cuiusque] cuique *I* || 3 auctusque] *ex actusque AF* || 6 maiore aliquanto *TDFμ* || 12 onustum] *honustum QP (ex honestum) A (ex honestum)* || 15 levia alia *transp. Ciacconius alia levia Ω'*

- zuten moduan baino, gehienak ezergabekoen erroldakoak zirelarik²⁹⁵. 3. Batzuek gizon prestuen gabeziarengatik eta beste batzuek kontsulak populuaren onespena nahi zuelako egiten zuela horrela zioten, talde hartakoek egin zutelako
- 5 ospetsu, gogorarazten zuten, eta eurek goratu zutelako; bote-rearen bila dabilen gizonarentzat beharrizanik handienak dituztenak baitira egokien, ezer ez dutenez ez dutelako eurenaren begirapenik eta saria dakarren oro iruditzen zaielako deduzko. 4. Honenbestez erabaki zen soldadu kopurua
- 10 baino handiagoarekin abiatu zen Mario Afrikarantz, eta handik egun gutxigarrenera Utican lurreratu zen. 5. Publio Rutilio gudalburuordeak ekarri zion ejerzitua²⁹⁶, Metelok ihes egin baitzion Mariorekin topo egiteari, bere bihotzak entzutea ezin jasan izan zuena ez ikustearren.
- 15 LXXXVII. 1. Legioak eta laguntza kohorteak osatu ondoren lur emankor eta harrapakinez beteriko batera abiatu zen eta han harrapaturiko guztia soldaduei eman zien²⁹⁷. Gero ez lekuak ez gizonak ondo gotortzen ez zituzten gaztelu eta hiri batzuei egin zien eraso; borroka ugari baina garrantzi gabekoetan aritu ziren han-hemenka. 2. Horrela soldadu berriak beldurrik gabe sartzen ziren borrokaldira, itzurleak atxilotu edo hil egiten zituztela eta zenbat eta adoretuago izan are ziurrago zirela ikusten zuten, eta baita armekin askatasuna, aberria, sendia eta gainerako guztia
- 20 babestu eta ospea eta aberastasunak eskuratzen zituztela ere. 3. Horrela epe laburrean soldadu zaharrak eta berriak elkartu

(295) Erroldako klaseetakoek bakarrik zuten halabeharrez soldaduzkara joan beharra. 1500 as baino gutxiago zutenak ziren ezergabekoen erroldakoak, proletariak (*capite censi, proletarii*).

(296) Publio Rutilio Rufori buruz ikus *Iug.*, L, 1 oh.

(297) Sariei buruz ikus *Iug.*, LIV, 1 oh.

et virtus omnium aequalis facta. 4. At reges, ubi de adventu Mari cognoverunt, divorsi in locos difficilis abeunt. Ita Iugurthae placuerat, speranti mox effusos hostis invadi posse: Romanos, sicuti plerosque, remoto metu laxius licentiusque futuros.

LXXXVIII. 1. Metellus interea Roman profectus contra spem suam laetissimis animis accipitur, plebi patribusque, postquam invidia decesserat, iuxta carus. 2. Sed Marius impigre prudenterque suorum et hostium res pariter adtendere, cognoscere quid boni utrisque aut contra esset, explorare itinera regum, consilia et insidias eorum antevenire, nihil apud se remissum neque apud illos tutum pati. 3. Itaque et Gaetulos et Iugurtham ex sociis nostris praedas agentis saepe aggressus in itinere fuderat, ipsumque regem haud procul ab oppido Cirta armis exuerat. 4. Quae postquam gloriosa modo neque belli patrandi cognovit, statuit urbis quae viris aut loco pro hostibus et advorsum se opportunissimae erant, singulas circumvenire; ita Iugurtham aut praesidiis nudatum <iri> si ea pateretur, aut proelio certaturum. 5. Nam Boccus nuntios ad eum saepe miserat, velle populi Romani

4 Romanos... futuros *Prisc. Gramm.*, III, 318, 18 || 15 quae... cognovit *Prisc. Gramm.* III, 310, 19

² cognoverunt] cognovere *QuF* || 7 accipitur *P¹A¹C¹QN¹* vel excipitur *s.s.* *A²C²* excipitur *B* (vel accipitur *s.s.*) *HTsm* || 10 utrisque *PACQT²nm* (*in ras.*) utriusque *BN¹s* utrimque *TDFμ* utri...que *H om.* *M* || 13 praedas *XNK¹* praedam *HTsm* || 14 in] *om.* *Ysn* || 15 gloriosa] facta sunt *s.s.* *Km* (*in ras.*) gloriosa facta sunt *Fμ* gloriosa esse *n* || 16 modo] *s.s.* *TD exp.* *K om.* *Mm* | belli patrandi cognovit *PACBT¹* *Prisc.* deest causa *s.s.* *P²* sc. copiam *s.s.* *ACT* copiam *s.s.* *l* belli patrandi cognovit copiam *NKm* belli patrandi copiam cognovit *HT* (*praeter T*) *sn* patrandi belli copiam cognovit *Q* || 18 singulas] singulis *P* singula *K* | nudatum iri *Meiser quem secuti sunt plq. edd.* nudatum fore *Prammer* nudatum *Ω¹ Jordan qui* in manus venturum *vel aliquid simile post* pateretur *cecidisse conicit* || 19 certaturum] certaretur *B* || 20 nuntios ad eum saepe] ad eum nuntios saepe *B* saepe ad eum (nuntios *om.*) *M*

egin ziren eta denen adorea parekoa zen. 4. Erregeek ordea Marioren etorreraren berri izan zutenean helduezinako lekue-
tara alde egin zuten bakoitzak bere aldetik. Gerora etsaia
barreiatu ondoren eraso egin ahal izango ziola eta erroma-
5 tarrak, guztiak bezala, beldurra galtzean lasaiago eta arauga-
be ibiliko zirela uste zuelako hartu zuen Jugurtak erabaki
hau.

LXXXVIII. 1. Bitartean Metelo Erromara abiatu zenean,
espero zuenaren kontra, pozez hartu zuten, gorrotoa desager-
10 tu ondoren, bai plebearen eta bai senadoreen oniritzia-
rekin²⁹⁸. 2. Mariori dagokionean ekinez baina zuhurtasunez
izaten zen bai beretarren eta bai etsaien egoerari adi, jakiten
zuen zer zen batarentzat eta bestearentzat ona eta zer kontra-
koa, erregeen ibilbideak ikuskatzen zituen, aurrea hartzen
15 zien haien asmo eta zelatei, ez zuen ezer lotu gabe uzten
beretarren artean eta ezta ezer ziurrik ere besteen artean. 3.
Horrela behin baino gehiagotan erasotu eta sakabanarazi zi-
tuen bai getuliarrak eta baita Jugurtaren ejerzitua ere gure
aliatuei²⁹⁹ harrapakinak kenduta bidean zetozela, eta berbe-
20 rak kendu zizkion behin armak erregeari Cirtako hiritik
urrutira gabe. 4. Ekintza hauek ospagarri zirela baina ez
zirela gerra amaitzeko gauza ikusi zuenean, nahiz babestal-
deengatik nahiz lekuarengatik etsaiarentzat egoki eta bere-
ztat kontrako ziren hiriak banan-banan setiatzea erabaki
25 zuen; horrela babeslekurik gabe geratuko zen Jugurta hori
onartuz gero, edo bestela guduan borrokatu beharko zuen. 5.
Bestalde Bokok behin eta berriro bidali zizkion mezulariak

(298) Garaile ohoreak eskaini zizkieten eta *Numidicus* goitizena hartu zuen.

(299) Berez erromatar probintziakoak dira aliatuak, baina une honetan zailegi
bide zen Jugurtarentzat hauei eraso egitea eta ziurrenik Numidiako lurretan aurrez
erromatarrek hartu eta eurenganaturiko hiriez ari da hemen Salustio.

amicitiam, ne quid ab se hostile timeret. 6. Id simulaveritne, quo inprovisus gravior accideret, an mobilitate ingeni pacem atque bellum mutare solitus, parum exploratum est.

LXXXIX. 1. Sed consul, uti statuerat, oppida castellaque munita adire, partim vi, alia metu aut praemia ostentando 5 avortere ab hostibus. 2. Ac primo mediocria gerebat, existumans Iugurtham ob suos tutandos in manus venturum. 3. Sed ubi illum magis procul abesse et aliis negotiis intentum accepit, maiora et magis aspera aggredi tempus visum est. 4. Erat inter ingentis solitudines oppidum magnum atque va- 10 lens, nomine Capsa, cuius conditor Hercules Libys memorabatur. Eius cives apud Iugurtham immunes, levi imperio et ob ea fidelissimi habebantur; muniti advorsum hostis non moenibus modo et armis atque viris, verum etiam multo magis locorum asperitate. 5. Nam praeter oppido propinqua, 15 alia omnia vasta, inculta, egentia aquae, infesta serpentibus quarum vis, sicuti omnium ferarum, inopia cibi acrior. Ad hoc natura serpentium ipsa perniciose siti magis quam alia re accenditur. 6. Eius potiundi Marium maxuma cupido invaserat, cum propter usum belli, tum quia res aspera videbatur et 20

18 <quod genus> siti... accenditur *Serv. Georg.*, 3, 434

1 simulaveritne] simulaveratne T^1n || 2 accideret A^1In acciderat P (accideret *corr.* incurreret *s.s.* P^2) accederet *cett.* | mobilitate] nobilitate A^1m^1 *sup. ras. l* | pacem atque bellum] pacem aut bellum $TF\mu s$ bellum aut pacem D || 3 solitus] solitos H || 4 uti statuerat XHM (statuerat uti) lmm uti (*eras. N*) constituerat Y (*praeter HM*) s || 5 munita] in *s.s.* A^2 immunita C || 11 libys] libyes A (vel libys i.e. de lybia *s.s.*) libris B libis *vel* lybis *cett.* || 12 immunes] munes *in ras. m^2 || 13 adversum] adversus MI || 15 oppido] *ex* oppidum A vel oppidum *s.s.* D oppida Q | propinqua] *sc.* loca *s.s.* C propinqua loca Mn || 16 vasta inculta] vasta et inculta Q vasta incultaque n | aquae] *add. al. manu K ex* atque P atque T *ex* eaque Nl || 17 quarum] *ex* quorum B quorum A^2CHn || 18 natura serpentium ipsa] natura ipsa serpentium n ipsa *s.s.* m *om. HT* || 20 cum propter] vel tum *s.s.* Q tum propter M^2Fsn propter K*

Erromako herriaren adiskidetasuna nahi zuela adieraziz eta berak egindako arerio ekintzarik izango zelako beldurrik ez izateko esanez. 6. Ez dago batere argi horrekin itxurak egiten ari zen gero ustegabeen larri harrapatzeko bestea ala bakera-
 5 ko nahiz gerrarako sarri aldatu ohi zen izaera aldakorrenrengatik zen.

LXXXIX. 1. Erabaki bezala hiri eta gotorlekuetara hurreratu eta, batzuetan indarra erabiliz, beste batzuetan beldurra sortaraziz edo sariak aginduz kentzen zizkien
 10 kontsulak etsaiei. 2. Hasieran ekintza txikiak burutzen zituen, Jugurta beretarrak babestearren borrokatzera etorriko zela pentsaturik. 3. Baina hura urruti zela beste arazo batzuetan arduraturik jakin zuenean, ekintza handi eta zailagoei ekiteko garaia zela iruditu zitzaion. 4. Capsa izeneko hiri
 15 handi eta ahalsua zen basamortu zabalaren erdian³⁰⁰, sortzailea Libiako Herkules omen zuena. Hango biztanleak zergarik gabe eta nagusitasun handirik gabe bizi ziren Jugurtaren arrimuan, eta horregatik oso leial zitzaizkion; etsaien kontra ez zituzten harresiek, armek eta gizonak bakarrik babesten,
 20 batez ere lekuaren laztasunak baino. 5. Hiriaren ingurukoak ezik gainerako lur guztiak mortuak, landugabeak, urik gabekoak eta pizti guztiak bezala janari gabeziarekin are izugarriagoak diren suge arriskutsuz beteak ziren. Gainera sugeen berezko arriskugarritasuna beste ezerekin baino gehiago
 25 areagotzen da egarriarekin. 6. Hiri hartaz jabetzeko apeta sortu zitzaion Mariori, alde batetik gerrarako zuen ga-

(300) Eguneko Gafsa (Tunisia). Numidiako hegoekialdean zegoen, Thala hiria baino hegoalderago.

Metellus oppidum Thalam magna gloria ceperat, haud dissimiliter situm munitumque, nisi quod apud Thalam haud longe a moenibus aliquot fontes erant, Capsenses una modo atque ea intra oppidum iugi aqua, cetera pluvia utebantur. 7. Id ibique et in omni Africa, quae procul a mari incultius 5 agebat, eo facilius tolerabatur quia Numidae plerumque lacte et ferina carne vescebantur, et neque salem neque alia irritamenta gulae quaerebant. 8. Cibus illis advorsum famem atque sitim, non libidini neque luxuriae erat.

XC. 1. Igitur consul, omnibus exploratis, credo dis fretus 10 —nam contra tantas difficultates consilio satis providere non poterat, quippe etiam frumenti inopia temptabatur, quia Numidae pabulo pecoris magis quam arvo student, et quodcumque natum fuerat iussu regis in loca munita contulerant; ager autem aridus et frugum vacuos ea tempestate, nam 15 aestatis extremum erat—, tamen pro rei copia satis providenter exornat. 2. Pecus omne quod superioribus diebus praedae fuerat equitibus auxiliariis agendum adtribuit; A. Manlium legatum cum cohortibus expeditis ad oppidum La-

7 neque salem... gulae irritamenta (sic) *Prisc. Gramm.*, II, 147, 5 neque salem... quaerebant *Prob. Nom. Gramm.*, IV, 209, 12; *Char. Gramm.*, I, 106, 12; *Serg. Gramm.*, IV, 542, 14; cf. *Claud. Don. Aen.*, 1, 210; *Tac. Hist.* 2, 62; *Amm.*, 28, 4, 3; *Hier. Adv. Iovin.*, 2, 10 || 15 ager... vacuos *Non.*, 498, 30 (autem aridum et om.); *Arus. Gramm.*, VII, 514, 13

1 thalam] thala *DFμ* | ceperat] *ex* acceperat *P ras. ante* ceperat *μ* || 4 cetera] per cetera *MTF* || 5 id ibique et $A^2\Sigma K^2H^2M^2D^2n^2$ id ibique et PA^1Y (*praeter T*) *lsm* idque ubique et *T* || 6 agebat] agebatur *n* agebant *T* || 8 gulae irritamenta *Q Prisc.* | illis] *om.* *AQ* (sc. illis *s.s.*) | adversum] *ex* adversus *P* adversus *ex* adversum *A* (s *add. et denuo eras.*) adversus *H* || 9 atque] et *Fm* | libidini] *ex* libidine *PA* || 10 dis (diis) fretus] diffretus *PD*¹ || 12 quia *PACQls* quod *BYnm* || 14 loca *ex loco P* || 15 ager aridus et *om.* *Arus.* || 16 providenter] evidenter *Fs* || 19 manlium] manilium $P^1A^1B^2Nl$

rrantziarengatik eta beste batetik eginkizun zaila zirudielako eta Metelok ospe handiz hartu zuelako honen antzeko lekuan antzeko babespedeekin zegoen Thalako hiria³⁰¹; ezberdintasun bakarra zegoen, hots, Thala ondoan harresietatik urrutira 5 gabe baziren iturri batzuk, Capsakoak ordea ur tira bakar batetaz baliatzen ziren, eta berau hiri barruan zegoen; gainerakoan euri ura erabiltzen zuten. 7. Han eta itsasotik urruti hezigabe bizi diren Afrikako leku guztietan errazago jasaten zen hau, numidiarrek gehienbat esnea eta basapizti haragia 10 jatzen zutelako eta ez zutelako gatzik ez bestelako jatunkeriaren bizgarririk erabiltzen; 8. gosea eta egarría asetzeko zen haiantzat janaria, ez atseginerako edota gehiegikerietarako³⁰².

XC. 1. Honenbestez kontsulak dena aztertu eta³⁰³, nik 15 uste jainkoen laguntzarekin (hainbeste zailtasunen aurrean bere zuhurtasun hutsaz ezin baitzuen dena aurrez ikusi, gari gabeziak ere keinatzen zuen eta; numidiarrek ardura gehiago izaten baitute abereen zuhainarekiko lur landuekiko baino, eta erregearen aginduz babespeko lekuetara eramana baitzuten 20 zegoen guztia; gainera lehor-lehor eta uztarik gabe zeuden zelaiaik urtaro hartan, uda bukaera zen eta), baina dena dela, egoera kontutan izanik, nahiko erabaki zuhurrak hartu zituen horniketarako: 2. laguntzako zaldieriari utzi zizkion aurreko egunetan harrapakin bezala lorturiko abere guztiak

(301) *Iug.*, LXXV-LXXVI ataletan kontaktzen dira Thalako gertakizunak.

(302) Erroman hain zuzen ere janaria atseginerako eta gehiegikerietarako izatea salatzen duela Salustiok bide batez pentsa genezake.

(303) Ironiazko hitzak dira hurren datozenak eta Marioren ausarkeria salatzen dute (ikus aurrerago ere XCII, 2 eta 6).

ris, ubi stipendium et commeatum locaverat, ire iubet dicitque se praedabundum post paucos dies eodem venturum. 3. Sic incepto suo occultato pergit ad flumen Tanain.

XCI. 1. Ceterum in itinere cottidie pecus exercitui per centurias, item turmas aequaliter distribuerat et ex coriis 5 utres uti fierent curabat; simul inopiam frumenti lenire et ignaris omnibus parare quae mox usui forent. Denique sexto die, cum ad flumen ventum est, maxuma vis utrius effecta. 2. Ibi castris levi munimento positus, milites cibum capere atque uti simul cum occasu solis egrederentur paratos esse 10 iubet; omnibus sarcinis abiectis, aqua modo seque et iumenta onerare. 3. Dein, postquam tempus visum, castris egreditur noctemque totam itinere facto consedit; idem proxuma facit; dein tertia, multo ante lucis adventum, pervenit in locum tumulosum ab Capsa non amplius duum milium in- 15 tervallo, ibique quam occultissime potest cum omnibus copiis opperitur. 4. Sed ubi dies coepit et Numidae nihil hostile metuentes multi oppido egressi, repente omnem equitatum et cum his velocissimos pedites cursu tendere ad Capsam et portas obsidere iubet. Deinde ipse intentus prope- 20

1 dicitque] *ex* dicitque *PA* dicit *C* || 3 tanain *PAFμls* tanaim Σ *NH* (*s.s.*) *TD* tanaym *n* tha... *in ras.* *K om.* *Mm* || 5 turmas] *per s.s.* *ATm* *per* turmas *C* || 6 simul *PENKls* simul et *HTnm* statim *A* || 7 parare] *bat s.s.* *C* parabat *m* pararent *N* || 8 effecta] *sc. est s.s.* *AC* est *s.s.* *T* || 12 visum] est *s.s.* *AQTm* visum est *C* (*est add. ut vid.*) *I* || 13 idem] idemque *HTDFμ* item *A* (*idem al. manu s.s.*) *QNK* | proxima] *sc. nocte s.s.* *ACQ* proxima nocte *TDFμ* || 16 ibique] *que s.s.* *m² om.* *M* ubique *A* || 20 ipse intentus] ipse *s.s.* *K om.* *M* intentus ipse *n*

eurek zuzen zitzaten; soldatak eta jaki-hornidura kokatuta zituen Lareseko hirira³⁰⁴ kohorte arinekin³⁰⁵ joateko agindua eman zion Aulo Manlio gudaiburuordeari eta handik egun gutxigarrenera helduko zela bera hara bertara bidean harrapakinak bilduz esan zion. 3. Bere asmoak horrela ezkutatatu eta Tanais ibaira zuzendu zen³⁰⁶.

XCI. 1. Bestalde bidean egunero banatzen zizkion ejerziuari abereak, ehunekoka eta zaldizkosailka beti kopuru berdina emanaz eta larruekin zahagiak egiteko eskatuz; horrela aldiberean gari gabezia arindu eta inork jakin gabe prestatzen zuen laster beharko zutena. Azkenik sei garren egunean ibaira heldu zirenean zahagi kopuru handi bat egina zuen. 2. Han gotorketa handirik gabe ezarri kanpamendua, bazkaria jan eta eguzkia sartzearekin batera irtetzeko prest egoteko agindua eman zien soldaduei; zama guztia kendu eta bai eurek eta bai zamariak ura bakarrik eramateko esan zien. 3. Gero, une egokia zela iruditu zitzaionean, kanpamendutik irten eta gau guztian ibili ondoren gelditu zen. Gauza bera egin zuen hurrengo gauean, eta hirugarrenean eguna argitu baino lehen heldu zen Capsatik bi miliatako bidera baino ez zegoen leku mendiskatsu batera; zain geratu zen han bere gudatalde guztiekin ahal zuen ezkutuen. 4. Eguna egin zutenean eta batere etsaien ekintzen beldurrik gabe irten zirenean numidiar asko hiritik, zaldieria guztiak eta oinezkorik azkarrenek Capsaraino egin zuten laster eta ateak hartzeko agindua eman zuen bat-batean; gero bera zihoan atzetik biz-

(304) Sicca eta Zama bitartean zegoen Lares hiria. Gaur aztarnak baino ez dira geratzen (Lorbeus-en, Tunisian hain zuzen ere), orduko Siccatik (gaurko Kef) hegoaldera, 18 kilometrotara.

(305) Kohorte arinei buruz ikus *Iug.*, XLVI, 7 oh.

(306) Capsatik ehunen bat kilometrotara zegoen ibai hau. Ziurrenik gaurko El Derb ibaia da.

re sequi neque milites praedari sinere. 5. Quae postquam oppidani cognovere, res trepidae, metus ingens, malum inprovisum, ad hoc pars civium extra moenia in hostium potestate coegere uti deditionem facerent. 6. Ceterum oppidum incensum, Numidae puberes interfecti, alii omnes venumdati, praeda militibus divisa. 7. Id facinus contra ius belli, non avaritia neque scelere consulis admissum, sed quia locus Iugurthae opportunus, nobis aditu difficilis, genus hominum mobile, infidum, ante neque beneficio neque metu coercitum. 10

XCII. 1. Postquam tantam rem Marius sine ullo suorum incommodo peregit, magnus et clarus antea maior atque clarior haberi coepit. 2. Omnia non bene consulta in virtutem trahebantur; milites modesto imperio habiti simul et locupletes ad caelum ferre; Numidae magis quam mortalem timere; postremo omnes, socii atque hostes, credere illi aut mentem divinam esse, aut deorum nutu cuncta portendi. 3. Sed consul, ubi ea res bene evenit, ad alia oppida pergit; pauca repugnantibus Numidis capit; plura <deserta> propter Cap- 15

4 coegere] cogere (e *eras.*) *H* cogere *Q*; || 9 ante neque *PΣlsn* *edd.* ante *secl.* *Jacobs-Wirz* neque *A* (ante *s.s.*) *Y* ante metu *m* || 10 coercitum] *ex* coercetur *A* coercetur *N* || 12 peregit *A*²*Σn* gessit *H om. cett.* (effecit *post* incommodo *m* patravit *s.s.* *K*² fecit vel peregit *T*) | et] *om.* *N* ac *m* | antea] tunc *H* | atque] *s.s.* *A* et *C* || 13 non bene] etiam non bene *Jacobs-Wirz* || 16 hostes] cohortes *Nl*¹ || 19 deserta *add. nonn. dett. edd. om. Ω*'

kor, adi-adi, eta soldaduei ez zien uzten harrapakinak biltzen. 5. Hiritarrak gertatzen zenaz jabetu zirenean errenditzaera behartu zituen nahasketak, beldur izugarriak, gaitza ustegabekoa izateak eta gainera hiritarretako batzuk harresietatik kanpo etsaien esku izateak. 6. Baina hiria erre egin zuten halere, hil egin zituzten haurrak ez beste numidiarrak eta gainerako guztiak saldu eta harrapakinak soldaduen artean banatu zituzten. 7. Gerra legeen kontrako ekintza hauek ez ziren onartu kontsularen handinahia edota ankerkeriaren-
 10 gatik, lekua Jugurtarentzat egokia eta gutarrentzat hurbilbide zailekoa zelako eta hango gizakiak aldakorrak, hitzgabekoak, ez ontartez ez beldurrarengatik ez erakartzeko modukoak zirelako baizik.³⁰⁷

XCII. 1. Beretarrek batere kalterik izan gabe burutu zue-
 15 nean Mariok hain ekintza handia, aurretik handia eta ospetsua zena are handiago eta ospetsuago egin zen. 2. Ondo hausnartu gabeko ekintza guztiak, bere adoreari egozten zizkieten, zeruraino jasotzen zuten neurrizko agindupean izan eta aberastu ziren soldaduek, numidiarrek gizaki arrunta bai-
 20 no zerbait gehiagotzat zuten eta beldurra zioten; hau da, edo jainko adimena zuela edo jainkoen keinuz iragartzen zitzaio-
 la egin behar zuen dena uste zuten hala lagunek nola etsaiek³⁰⁸. 3. Capsakoa ondo atera zitzaionean beste hiri batzuetara zuzendu zen kontsula, eta gutxi hartu zituen nu-

(307) Aitzakiak Marioren ikuspuntutik soilik izan daitezke onargarri. Gainera Salustiok ez du aipatzen azken baten ingurukoentzat eredugarri izan behar zena ekintza hau (ikus aurrerago XCII, 3) eta batez ere Mariok bere soldaduak harrapakinarekin asetu beharra zuena.

(308) Erljio hiztegiak hitzak dira bai *nutus* (jainkoak baiezkoa nahiz ezezkoa emateko buruarekin egiten duen keinua) eta bai *portendo* (igarleak zeruan ikusitakoa iragartzeko erabili ohi zuen aditza). Kontutan izan Mario beraren jarrerak ere bultzatu bide zuela sineskera hau: ikus *Iug.*, LXIV, 1 atalean Mario erraiaztiak dioenari kasu egiten.

sensium miserias igni corrumpit; luctu atque caede omnia complentur. 4. Denique multis locis potitus ac plerisque exercitu incruento aliam rem aggreditur, non eadem asperitate qua Capsensium, ceterum haud secus difficilem. 5. Namque haud longe a flumine Muluccha, quod Iugurthae 5 Bocchique regnum diiungebat, erat inter ceteram planitiem mons saxeus, mediocri castello satis patens, in inensum editus, uno perangusto aditu relicto; nam omnis natura velut opere atque consulto praeceps. 6. Quem locum Marius, quod ibi regis thesauri erant, summa vi capere intendit; sed ea res 10 forte quam consilio melius gesta. 7. Nam castello virorum atque armorum satis, magna vis et frumenti et fons aquae; aggeribus turribusque et aliis machinationibus locus inportunus; iter castellanorum angustum admodum, utrimque praecisum. 8. Ea vineae cum ingenti periculo frustra agebantur; 15 nam cum eae paulo processerant, igni aut lapidibus corrumpebantur. 9. Milites neque pro opere consistere propter iniquitatem loci neque inter vineas sine periculo administrare; optumus quisque cadere aut sauciari, ceteris metus augeri.

3 incruento exercitu *Serv. Aen. 11, 421* || 5 namque haud... *cf. Frontin. Strat. 3, 9, 3*

1 corrumpit] comburit *B*¹ (vel corrumpit *in mg.*) corrupit *Qm* corrumuntur *M* || 3 exercitu incruento (-ta *l*) incruento exercitu *n* in exercitu cruento *M* || 5 muluccha (-cha *n* -cca *AQ* maluccha *B*) *XKlsm* muluc(c)hae *Y* (praeter *K*) *m* || 6 diiungebat *PA*¹ *l*¹ disiungebat *A*² *l*² *CYnmse* dividebat *Q* || 7 saxeus] saxus *P*¹ (e *s.s.*) saxius *l* || 8 omnis *Q* *edd.* omnia *X* (sc. per *s.s.* *C* per *s.s.* *A*) *NKls* (sc. per loca *s.s.*) omni *HInm* (ex omnia *nm* vel omnia i.e. per *s.s.* *D* omnia *corr.* per *s.s.* *H* a *s.s.* *T*) omnis a *Dietsch* | velut] velud *CQH* || 10 regis] ex reges *PB* | thesauri reges *H* || 12 satis magna vis et frumenti *Ω' plq. edd.* (comma post satis *Ernout*, post vis et post frumenti *Ornstein*) satis et magna vis frumenti *Iordan* et *om. vulgo* || 13 et alii *Ysn* et altis *Xl* ac talibus *m* || 14 iter] ex inter *AM* || 15 praecisum. ea vineae *Wirz plq. edd.* praecisae vineae *plq. codd.* praecisae vineae *P* (ex praecisae ai ine ut *vid.*) praecisae *** vineae (at ? *eras.*) *N* praiceps (prae post *add.* ceps *in ras.*) eo vineae *n* || 16 cum eae (hae *C*) *PACBm plq. edd.* cum ea *AQ*¹ (vel hae *s.s.* *Q*²) *Γ* (vel eo *s.s.* *D*) *Nls* cum eo *KH* cum haec *n* cum *Ornstein Pabón* || 19 sauciari] ex sociari *P*²

midiarrek aurre eginik, gehienak Capsakoen zorigaitzen be-
 rri izatean hustuta aurkitu eta su emanez suntsitu baitzituen;
 doluz eta heriotzaz bete zen guztia. 4. Azkenean gehienetan
 bere ejerzituaren odolik isuri gabe leku askoz jabetu ondoren
 5 beste eginkizun bat hartu zuen, ez Capsako zailtasunak eurak
 zituena baina ezta errazagoa ere. 5. Jugurtaren eta Bokoren
 erresumak banatzen zituen Muluia ibaitik urrutira gabe ba-
 zen³⁰⁹, lautada zabalean, gainean gaztelu berdingo batentzat
 nahikoa zen mendi arkaitsu bat; mugagabe igotzen zen eta
 10 hurbilbide estu-estu bat bakarrik zuen, gizonak erabaki eta
 eginda bezalako maldatsua baitzen berez. 6. Han erregearen
 altxorrak zirenez hura bereganatzeko gogo bizia sortu
 zitzaion Mariori. Baina eginkizun honetan gehiago lagundu
 zion zoriak bere azterketek baino. 7. Gazteluan nahiko gizon
 15 eta arma zegoen, garia ere nahiko eta larregi zegoen eta baze-
 goen iturri bat ere; lekua ez zen egokia lubetentzat, dorre-
 entzat ez bestelako gudatramankuluentzat eta gaztelukoek
 zerabilten bidea erabat estua zen eta bi aldeetatik haitza
 pikotxez moztuz egindakoa. 8. Gudamahatsareak arrisku
 20 handiz gerturatzen³¹⁰ ziren, eta alferrik, apur bat aurrera egi-
 ten zutenerako suarekin edota harriekin hondatzen baitzituz-
 ten; 9. lekuaren malkartasunarekin soldaduek ezin zuten
 lanen aurrean zutik eutsi eta ezta gudamahatsarepetan
 arriskurik gabe lan egin ere; soldadurik adoretsuenak hilda
 25 edo zaurituta erortzen ziren, eta horrekin gainerakoen beldu-
 rra areagotzen zen.

(309) Ibai honi buruz ikus *Iug.*, XIX, 7 oh.

(310) Tramankulu hauei buruz ikus *Iug.*, XXI, 3 oh.

XCIII. 1. At Marius, multis diebus et laboribus consumptis, anxius trahere cum animo ommitteretne inceptum, quoniam frustra erat, an fortunam opperiretur, qua saepe prospere usus fuerat. 2. Quae cum multos dies noctisque aestuans agitaret, forte quidam Ligus, ex cohortibus auxiliariis miles gregarius, castris aquatum egressus, haud procul ab latere castelli quod avorsum proeliantibus erat, animum advortit inter saxa repentis cocleas. Quarum cum unam atque alteram, dein plures peteret, studio legundi paulatim prope ad summum montis egressus est. 3. Vbi postquam solitudinem intellexit, more ingeni humani, cupido difficilia faciundi animum <alio> vortit. 4. Et forte in eo loco grandis ilex coaluerat inter saxa, paulum modo prona, deinde inflexa atque aucta in altitudinem, quo cuncta gignentium natura fert. Cuius ramis modo, modo eminentibus saxis nisus Ligus, in castelli planitiem pervenit, quod cuncti Numidae intenti proeliantibus aderant. 5. Exploratis omnibus quae mox usui fore ducebat, eadem regreditur, non temere, uti ascenderat,

11 amore (more *Gell.*) humanae cupidinis ignara visendi *Gell.*, 9, 12, 22; *Non.*, 129, 19

2 inceptum] inceptum suum A^2C || 4 fuerat] erat KT est $F\mu$ || 6 aquatum] *ex* aequatum $P l$ (equa-) equatum H^1 (a *s.s.*) || 7 ab] a Dn | aversum $F^2 s$ adversum *ctt.* | animum advertit] animadvertit $QKHn$ || 12 animum alio vortit *Jacobs-Wirz Ernout* animum advertit PA^1 (ad *exp.* A^2) animadvertit QK animum vertit *plq. codd.* animum adorta *Enssner Schmalz Ahlberg Ornstein* animum invasit P . *Thomas alii alia* animum vertit *del. Iordan lacunam post faciundi indicans* || 13 ilex] silex $PT^2 n$ | deinde] dein $F\mu$ | inflexa $PA^1 BQNKl$ flexa *ctt.* || 15 modo modo] modo deinde $A^2 CB$ modo (*semel*) K | nisus] *ex nisi B nisi C* || 16 in castelli planitiem pervenit PA^2 (in *s.s.*) $CB plq. edd.$ castelli planitiem perscribit $Y\Delta$ (perscripsit m describit H) castelli planitiem pervenit AQF^2 (vel perscripsit vel investigavit *s.s.* Q^2) castelli planitiem perscrutatur *Dietsch Pabón* | quod] i.e. quia *s.s.* AQ || 17 proeliantibus] *** proeliantibus $A^1 B^1$ haud proeliantibus P aut proeliantibus l || 18 eadem $PA^1 NT^2 lm^1$ eodem *ctt.* | ascenderat] *ex* escenderat AN

XCIII. 1. Egun asko alferreko lanetan galdu ondoren ar-
tega zebilen Mario alferrik zela eta ekindakoa utzi ala sarri
lagungarri gertatu zitzaion zoriari itxaron zer egin ez zekie-
larik. 2. Gogoeta hauekin oinazetuta izan ondoren gau eta
5 egun luzetan, kanpamendutik uraren bila irten zen laguntza
kohorteetako soldadu arrunt liguriar batek haitzartean
narrazka zihoazen marraskiloak ikusi zituen ustegabea,
gatzeluko borrokan ari ziren aldearen aurkakotik urrutira
gabe; hauetako bat, hurrengo beste bat eta gero asko hartu
10 nahian ia mendi gainera heldu zen gutxi-gutxika, denak
biltzeko ahaleginean. 3. Bakarrik zegoela han konturatu ze-
nean, asmo berri bat bururatu zion, gizakioi ohi bezala, zail-
tasunak gainditzeko gogoak. 4. Leku hartan arte handi bat
haitzartean hazita egotea suertatu zen, hasieran apur bat ma-
15 kurra baina gero arteztu eta naturak landare guztiei eragiten
dien bezala gorantz igotzen zena. Batzuetan haren adarrei eta
beste batzuetan harrimuturrei eutsiz gazteluaren goisapalda-
ra heldu zen liguriarra, borrokan ari zirenei adi baitzeuden
numidiar guztiak. 5. Gero erabilgarri izango zituela uste
20 zuen gauza guztiak aztertu eta lehengo bidetik itzuli zen

sed temptans omnia et circumspiciens. 6. Itaque Marium prope adit, acta edocet, hortatur ab ea parte, qua ipse ascenderat, castellum temptet, pollicetur sese itineris periculique ducem. 7. Marius cum Ligure promissa eius cognitum ex praesentibus misit; quorum, uti cuiusque ingenium erat, 5 ita rem difficilem aut facilem nuntiavere. Consulis animus tamen paulum adrectus. 8. Itaque ex copia tubicinum et cornicinum numero quinque quam velocissimos delegit, et cum eis praesidio qui forent quattuor centuriones; omnisque Liguri parere iubet et ei negotio proximum diem constituit. 10

XCIV. 1. Sed ubi ex praecepto tempus visum, paratis compositisque omnibus, ad locum pergit. Ceterum illi qui escensuri erant, praedocti ab duce, arma ornatumque mutaverant: capite atque pedibus nudis, uti prospectus nisusque per saxa facilius foret, super terga gladii et scuta, verum ea 15 Numidica ex coriis, ponderis gratia simul et offensa quo levius streperent. 2. Igitur praegrediens Ligus saxa et si quae vetustae radices eminebant laqueis vinciebat, quibus adlevati

2 adit *Xlmm* ex adit *D* adit *cett.* | edocet *Xm* docet *cett.* | ascenderat *PΣl* (vel des *s.s. Q*) ascenderet (e *eras. a s.s.*) *A* descenderat *Ysnm* || 3 itineris periculique ducem] ducem itineris periculique (que *om. n*) nihil esse docet *QH²n* || 6 difficilem aut facilem] aut facilem *al. manu A* difficilem *** iud (ex haud ?) facilem *K* facilem aut difficilem *l* || 8 quinque numero *HT³nm* || 10 parere] parare *Q* (e *s.s.*) | et ei] *ex* et se in *N* et se in *l* et (ei *om.*) *K* (*ras. post* et) *HΓ* (*s.s. HTD*) *s* || 11 tempus] temptus *P* || 11 paratis] *ex* paratus *H* paratus *Γ* || 12 compositisque *PCB³nm* que *om. A¹Yl* *add. vel s.s. AKHTD* et compositis *Q* | qui escensuri erant *plq. edd. duce Carrione* qui (qui as (?) *corr.*) ..censuri (in (?) centuriis *corr.*) erant (praecerant (?) *corr.*) *A* qui ascensuri erant *T²F²* *Fabri* qui e centuriis erant *PT* (?) *Iordan* qui centuriis (ex *sec. manu s.s. Q* e centuriis *n*) praecerant *Σn* qui et centuriae praecerant *Ys* qui centurionibus praecerant in *ras. m* et qui centuriones erant *l* || 13 ab] a *H²nm* || 14 atque] *ex* aut *TD* aut *Fμ* | prospectus] *ex* profectus *PDF* profectus *MTμ* (prospectus *s.s. T*) || 18 vetustae *Pl Jacobs-Wirz Ernout* vetustate *cett. codd. e corr. l Ahlberg Ornstein* | vinciebat] *ex* -bant *HM*

baina ez axolagabe gorantzean bezala, dena haztatuz eta begiratuz baino. 6. Horrela Mariorengana joan zen lasterka, egindakoa kontatu zion, gaztelua bera igo zen aldetik hartzen saiatzeko aholkatu zion, eta bere burua eskaini zion biderako
 5 eta arriskueterako gidari bezala. 7. Han ziren batzuk bidali zituen Mariok liguriarrarekin honek ziurtaturikoak aztertzeko, eta bakoitzak bere izaeraren arabera eman zuten hauek ikusitakoaren berri, zaila edo erraza zela eginkizuna esanez; baina kontsularen bihotza apur bat berotu zen. 8. Horrela
 10 bost turutari eta tutajole azkarrenak aukeratu zituen eta hauen babeserako lau ehuntari, eta guztiek liguriarraren aginduak betetzeko manatu zien; hurrengo eguna aukeratu zuen eginkizun honetarako.

XCIV. 1. Agindutakoaren arabera une egokia iruditu
 15 zitzaionean dena paratu eta prestatuta leku hartara zuzendu zen liguriarra. Igo behar zutenek armak eta jantziak aldatu zituzten gidariari kasu eginez; burutsik eta oinutsik zihoazen hobeto ikusteko eta hobeto igotzeko lauoinka haitzartetik; ezpatak eta ezkutuak zeramatzaten bizkarrean, baina azken
 20 hauek numidiarrenak bezalakoak, larruzkoak, aldiberean pisuarengatik eta zerbait jotzean zarata gutxiago egin zezaten. 2. Honenbestez liguriarra zihoan aurretik eta lokarriekin lotzen zituen harrimuturrak eta lurgainera irteten ziren sus-

milites facilius escenderent, interdum timidos insolentia itineris levare manu; ubi paulo asperior ascensus erat, singulos prae se inermos mittere, deinde ipse cum illorum armis sequi; quae dubia nisui videbantur potissimum temptare, ac saepius eadem ascendens descendensque, dein statim digrediens, ceteris audaciam addere. 3. Igitur diu multumque fatigati, tandem in castellum perveniunt desertum ab ea parte, quod omnes sicut aliis diebus advorsum hostis aderant. Marius, ubi ex nuntiis quae Ligus egerat cognovit, quamquam toto die intentos proelio Numidas habuerat, tum 10 vero cohortatus milites et ipse extra vineas egressus, testudine acta succedere, et simul hostem tormentis sagittariisque et funditoribus eminus terrere. 4. At Numidae, saepe antea vineis Romanorum subvorsis item incensis, non castelli moenibus sese tutabantur, sed pro muro dies noctesque agitare, 15 male dicere Romanis ac Mario vecordiam obiectare, militibus nostris Iugurthae servitium minari, secundis rebus feroces esse. 5. Interim omnibus Romanis hostibusque proelio intentis, magna utrimque vi pro gloria atque imperio his, illis pro salute certantibus, repente a tergo signa canere; ac 20 primo mulieres et pueri, qui visum processerant, fugere;

1 escenderent PA^1N^1 ascenderent *cett.*, (-rant *n*) || 3 prae KT^s *om.* Q *mg.* *add.* Q^2 pro P^1 per P^2 *cett.* *codd.* | inermos $PAB^2Q^1NTD^1lm$ vel e *s.s.* QD inermes *cett.* | illorum] aliorum P || 4 nisui PA nisu *cett.* || 5 descendensque XNK (descensque) Ml et descendens *cett.* | digrediens] degrediens P^1ANK^s egrediens F || 6 aut ante audaciam *eras.* AN || 10 toto] tota P^2l | intentos XT^2F^2l intentus Ysm | numidas XT^2n invidias *cett.* || 11 egressus QMK^2F^2mn regressus $PACBY$ (*praeter M*) ls (est *add.* PAY (*praeter H*) Δ) || 13 terrere] terreret P terrore l || 14 vineis] *ex* vineas l *om.* et *al. manu s.s. m* || 15 tutabantur] *ex* utebantur A tuebantur Q || 17 servitium] *ex* servitio A sevitiam K^2D^2 || 18 romanis omnibus B romanis *om. l*

trai zaharrak, horiei eutsita soldaduak errazago igo zitezen; noizbehinka bere eskuarekin laguntzen zien igozten bidearen berritasunarengatik beldurrez zirenei, igoera zailagoa zenean bere aurretik bidaltzen zituen banan-banan armarik gabe eta
 5 gero bera joaten zen atzetik guztien armekin; eusteko badaezpadakoak ziruditen lekuak berak aztertzen zituen lehenbizi eta behin eta berriro bertatik igo eta jaitsiz, eta gero albo batera eginez, adorea ematen zien gainerakoei. 3. Honenbestez luzaroan asko nekatuta azkenean heldu ziren,
 10 beste egunetan bezala guztiak etsaiei aurre egiten ziharduteenez, alde hartatik hutsik zegoen gaztelura. Liguriarrak burututakoaren berri izan zuenean Mariok mezularien bitartez, egun guztian borrokari adi izan zituen arren numidiarrak, orduan soldaduak gogoberotu eta gudamahatsarepetik irten
 15 zen bera, eta gudaturtua osaturik³¹¹ aurrera egiten zuen harrerantz eta aldiberean gudatramankuluak, gezilariak eta habailariak urrundik saiatzen ziren etsaia izutzen. 4. Baina numidiarrak, aurretik sarritan irauli eta erre zituztenez erromatarren gudamahatsareak, ez ziren gazteluaren harresietan
 20 babesten, murru aurrean ibiltzen ziren gau eta egun, irainka aritzen zitzaizkien erromatarrei, bere zorotasuna egozten zioten Mariori, Jugurtaren menpeko morroitzarekin mehatxatzen zituzten gure soldaduak eta egoera euren aldekoa zelarik ozar agertzen ziren. 5. Erromatarrek eta etsaiak guztiak, batzuk ospea eta agintearengatik eta besteak bizitzarengatik bi aldeetan indar guztiakin borrokatuz guduari adi zeudelarik, gudadeia jo zuten bat-batean beste aldetik. Zer

(311) Soldaduak elkarren ondoan jarri eta bakoitzak bere ezkutua buru gainetik ipinita denen artean turtuoskol modukoa osatzen dutenean esaten da gudaturtua (*testudo*) egin dutela. Ezkutuz osaturiko oskol moduko horrekin euren buruak babesturik aurrera egiteko erabili ohi zuten ekinbide hau.

deinde, uti quisque muro proximus erat, postremo cuncti armati inermesque. 6. Quod ubi accidit, eo acrius Romani instare, fundere ac plerosque tantummodo sauciare, dein super occisorum corpora vadere, avidi gloria, certantes murum petere neque quemquam omnium praeda morari. Sic forte 5 correcta Mari temeritas gloriam ex culpa invenit.

XCV. 1. Ceterum dum ea res geritur, L. Sulla quaestor cum magno equitatu in castra venit, quos uti ex Latio et a sociis cogeret Romae relictus erat. 2. Sed quoniam nos tanti viri res admonuit, idoneum visum est de natura cultuque 10 eius paucis dicere: neque enim alio loco de Sullae rebus dicturi sumus, et L. Sisenna, optume et diligentissime omnium qui eas res dixere persecutus, parum mihi libero ore locutus videtur.

3. Igitur Sulla gentis patriciae nobilis fuit, familia prope 15 iam extincta maiorum ignavia, litteris Graecis et Latinis iuxta atque doctissimi eruditus, animo ingenti, cupidus voluptas

9 sed... admonuit *Prisc. Gramm.*, III, 328, 6 || 15 igitur S. patriciae gentis (nobilis om.)... ignavia *Serv. Aen.*, 7, 601

4 occisorum corpora] corpora occisorum P (ex c. super o.) H obeuntium corpora (vel occisorum s.s.) AQ || 5 petere] vel ascendere s.s. C ascendere Qn || 6 correctam] correpta Σ (i.e. arrepta s.s. C) D² corrupta n correctam del. circumdata s.s. K² || 8 quos m quod PBQHT¹D (vel qui s.s.) μls quoniam M quem n qui ACNKT²F || 9 nos tanti viri res] tanti viri nos tempus *Prisc. qui cum Catil.*, 5,9 hunc locum confundere videtur || 11 dicturi sumus] ex dicturimus P dicturi erimus (erimus super ras.) l dictaturi sumus C || 12 et l. sisenna] et (om. D) ex ad sisenna A at l. sisenna Q || 15 patriciae gentis *Serv.* | nobilis] om. *Serv.* || 15 prope iam] ex iam prope n iam prope PBM iam *Serv.* || 16 ignavia] ignavia in ex ignaviam A | et PB atque *cett. codd. Jacobs-Wirz Ahlberg* || 17 atque doctissimi *Jordan Ernout* atque doctissime Ω' del. *Vogel secl. Ahlberg* ac qui doctissimi *Constans* | voluptas] voluntas AC

- zen ikustearren hurbilagotu ziren emakume eta umeek egin zuten ihes lehenbizi, gero murrutik hurbilen ziren guztiek, eta azkenik denek, armadunek eta armagabekoek. 6. Erromatarrek hau ikusi zutenean are gogorrago egiten zuten eraso, 5 barreiatu egiten zituzten eta hil gabe zauritu baino ez zituzten egiten; gero hildakoen gorpuen gainetik joaten ziren eta ospe egarriarekin elkarren lehian bilatzen zuten murrua, harrapakin bilketan inor luzatu gabe. Horrela Marioren arinkeria zoriak zuzendu zuen eta bere hutsetik ospea ekarri zion.
- 10 XCV. 1. Gudalan hau burutzen zuten bitartean Luzio Sila kuestorea³¹² heldu zen kanpamendura zaldizko talde handi batekin, hauek Lazion eta aliatu artean biltzeko utzi baitzuten Erroman. 2. Baina hain gizon handia gogorazi digunez kontakizunaren hariak, badirudi egoki litzatekeela 15 honen izaera eta heziketari buruzko hitz batzuk esatea. Izan ere hau da Silaren ekintzak aipatzera goazen leku bakarra³¹³, eta ez dut uste ekintza horiek aipatu dituztenetatik hoberen eta arreta handienarekin azaldu zituen Luzio Sisenak nahiko askatasunez hitz egin zuenik³¹⁴.
- 20 3. Sila noblea zen, patrizio jatorrikoa, baina arbasoen axolagabekeriarengatik ia desagerturiko sendikoa³¹⁵. Greziako eta Erromako literaturak biak era berean jakintsuenek bezala

(312) Gogoratu 138. urtean jaioa zela Luzio Kornelio Sila, alderdi aristokratiakoaren buru bezala Marioren aurka aritu ondoren diktadore ahalguztidun egingo zena. Kuestoretzari buruz ikus *Iug.*, XXIX, 4 oh.

(313) Hemen dioenetik oraindik ez zuela bere *Historiae* idazteko asmorik dirudi, baina Silak Erromako historian izan zuen garrantziaz jabetuta agertzen da.

(314) 119.etik 67.era bizi izan zen Luzio Kornelio Sisena historialari eta politikari erromatarra. Mario eta Silaren arteko gerraren historiaz gain, Numantziako gerrarena ere hasi zen idazten lehenago.

(315) Korneliotarren jatorrikoa (*gens*) zen Sila, eta baziren hauen artean kontsul izandakoak, baina bere adarrean, bere sendian hain zuzen ere (*familia*), pretoretza baino goragora ez ziren heldu bere aitaita eta birraitaita.

tatum, sed gloriae cupidior, otio luxurioso esse; tamen ab negotiis numquam voluptas remorata, nisi quod de uxore potuit honestius consuli; facundus, callidus, et amicitia facilis; ad simulanda negotia altitudo ingeni incredibilis; multarum rerum ac maxime pecuniae largitor. 4. Atque illi 5 felicissimo omnium ante civilem victoriam numquam super industriam fortuna fuit; multique dubitavere fortior an felicior esset. Nam postea quae fecerit, incertum habeo pudeat an pigeat magis disserere.

XCVI. 1. Igitur Sulla, uti supra dictum est, postquam in 10 Africam atque in castra Mari cum equitatu venit, rudis antea et ignarus belli, sollertissimus omnium in paucis tempestatibus factus est. 2. Ad hoc milites benigne appellare; multis rogantibus aliis per se ipse dare beneficia, invitus accipere, sed ea properantius quam aes mutuuum reddere, ipse ab nullo 15 repetere; magis id laborare ut illi quam plurimi deberent; ioca atque seria cum humillimis agere; 3. in operibus, in agmine atque ad vigiliis multus adesse neque interim, quod prava ambitio solet, consulis aut cuiusquam boni famam laedere; tantummodo neque consilio neque manu priorem 20

8 nam... disserere *Non.*, 424, 11 || 17 ioca atque seria *Non.*, 209, 28 ioca... exercere (*pro agere*) *Serv. Aen.*, 1, 306

5 largitor] largior *P* | illi] *s.s. K om. N* || 8 incertum habeo *om. et s.s. P* | pudeat $P^2N^2H^2M^2$ *Non. nonn. rec.* pudeat *cett.* || 9 an pigeat magis *PACNK* | magis an piget $QH^1\Gamma$ (pigeat H^2M^2) *snm* | magis *om. et post* pudeat *s.s. B^2* || 10 dictum] praedictum *PCB* || 14 ipse *om. et s.s. P* || 15 ab *PANK* a *CBHF* *snm om. l* || 16 repetere] vel rapere *s.s. C* ex rapere *TDF* rapere *HMμ* petere *Qn* | ut illi *Q plq. edd.* ut illi π uti illi *Ornstein* || 17 agere] exercere *Serv.* | magis agere *n* | multus] multos *P* | adesse] adesset (ex adesse?) *A* esset (erat *s.s.*) *Q*

ikasia zen; borondate sendokoa zen, gurikerien apeta zuen baina ospearen are apeta handiagoa; nahikeriaz betea zen haren astialdia, baina nahikundeak ez zituen sekula haren egin-beharrak atzeratu, bere emaztearekiko jokabidea deduzkoagoa izan zitekeelako ez bada³¹⁶; etorri handikoa, zuhurra eta lagunak egiteko erraztasun handikoa zen; ezin sinestekoa zen bere asmoekin itxurak egiteko zuen barru sakontasuna; esku-zabala zen gauza gehienetan eta batez ere diru kontuetan. 4. Eta hiritarrarteko garaipena baino lehen gizonik zoritsuena 10 bazen ere, haren zoria ez zen sekula bere ahalegina baino handiagoa izan, eta askok ez zekiten zer zen gehiago, ahalegintsu ala zoritsu³¹⁷. Geroztik egin zituenei buruz hitz egiteak ez dakit zer ematen didan lotsa ala nazka handiagoa³¹⁸.

XCVI. 1. Honenbestez gorago esan dugun bezala Afrika-
15 ra eta Marioren kanpamendura heldu zenean Sila zaldieriarekin, gerra konturik ez jakin ez ezagutzen ez zuen arren, hartan trebeena bera egin zen handik denbora gutxigarrenera. 2. Gainera atsegina zen soldaduekin hitz egitean; mesedeak egiten zizkien askori eurek eskatuta eta beste batzuei
20 bere aburuz; atsekabez onartzen zituen beretzako mesedeak, eta inoren dirua baino arinago itzultzen zituen; berak ez zion inori zorra eskatzen, eta are lan egiten zuen zordun gehiago izateko; 3. soldadurik apalenekin izaten zituen olgetako nahiz benetako elkarrizketak; kanpamenduko lanetan, ibilal-
25 dietan eta beiletan han izaten zen bera, eta bitartean ez zion, herri atxikimenduaren bila gaiztakeriaz ari direnek ohi beza-

(316) Bost aldiz ezkondu zen eta maitale ugari izan zituen ezkontzaz kanpo ere.

(317) *Felix* izengoitia hartu zuen.

(318) *Katilinaren zimarkua*-n bai aipatzen ditu geroztik egin zituenetako bidegabekeria batzuk (*Catil.*, XI, 4 hh. eta LI, 32 hh.).

alium pati, plerosque antevenire. 4. Quibus rebus et artibus brevi Mario militibusque carissimus factus.

XCVII. 1. At Iugurtha, postquam oppidum Capsam aliosque locos munitos et sibi utilis, simul et magnam pecuniam amiserat, ad Bocchum nuntios mittit quam primum in Numidiam copias adduceret: proeli faciendi tempus adesse. 2. Quem ubi cunctari accepit et dubium belli atque pacis rationes trahere, rursus uti antea proximos eius donis corrumpit, ipsique Mauro pollicetur Numidiae partem tertiam, si aut Romani Africa expulsi aut integris suis finibus bellum conpositum foret. 3. Eo praemio inlectus Bocchus cum magna multitudine Iugurtham accedit. Ita amborum exercitu coniuncto, Marium iam in hiberna proficiscentem, vix decuma parte die relicua invadunt, rati noctem, quae iam aderat, et victis sibi munimento fore et, si vicissent, nullo impedimento, quia locorum scientes erant, contra Romanis utrumque casum in tenebris difficiliorem fore. 4. Igitur simul consul ex multis de hostium adventu cognovit, et ipsi

12 ita amborum... cf. *Frontin. Strat.*, 2, 1, 13 || 13 vix... reliqua *Gell.*, 9, 14, 26

2 factus] sc. est s.s. A factus est *QT*² factus fuit *NK* || 5 amiserat] admiserat ex adhaeserat *P* | mittit *plq. codd. Ahlberg Ernout* misit *PT*² *Jacobs-Wirz Ornstein* || 6 adduceret] ex adducere *AT* adducere *N* || 7 ubi] ibi *P* | et om. *Ysm* || 8 proximos eius] eius s.s. *F om. Tμ* eius proximos *C* | corrumpit] corrumpit *CBTDFμln* (ex corrumpit ut vid.) || 9 ipsique] ipsi *QT*²*DFμm* ipse *MT*¹ | mauro] boccho *post* mauro eras. *K* boccho *QHD* | tertiam partem *HΓl* || 13 hiberna] ex hibernis *B* hibernia *A* | vix] iuxta *P* || 14 die *PA*¹*l*¹ *Gell.* diei *sett.* | aderat et] et s.s. *K om. Γsm Ernout* || 16 quia] quod *HΓ*

la, kontsularen ez beste inoren izen onari eraso egiten³¹⁹; beste inor asmoetan nahiz ekintzetan bere aurretik izatea zen jasaten ez zuen bakarra, eta bera izaten zen guztien aurretik.

4. Mendu eta trebetasun hauekin handik gutxira irabazi zuen
5 Marioren eta soldaduen maitasuna.

XCVII. 1. Jugurtak bestalde, Capsako hiria eta beste leku gotortu eta beretzat baliagarri batzuk, eta honekin batera baita dirutza handia ere galdu zituenean, mezulariak bidali zituen Bokorengana bere gudataldeak hainbat arinen Numidiara eramateko esanez, borrokan hasteko garaia zela eta. 2. Zalantzatan zegoela hura eta, zer egin jakin gabe, gerraren eta bakearen alde on eta txarren kontuak egiten ari zela jakin zuenean, lehenago bezala berriro sobornatu zituen haren ingurukoak opariz³²⁰, eta erromatarrak Afrikatik botatzea edo
15 bere mugak ikutu gabe gerra konpontzea lortuz gero Numidiaren herena emango ziola agindu zion mairuari berari. 3. Agintzari honekin liluratuta talde handi batekin abiatu zen Boko Jugurtarengana. Bien ejerzituak elkartu eta egunaren hamarrena baino geratzen ez zenean egin zioten eraso ja ne-
20 gugudaltegiatarantz abiatzera zihoan Mariori³²¹, gaua egitea —iluntzea baitzen ordurako—, galduz gero babesgarri izango zutela eta irabaziz gero ez zutela eragozpen izango pentsaturik, eurek ezagutzen baitzituzten leku haiek, eta erromatarrentzat ordea bi kasuetan ere zailtasun bat izango
25 baitzen iluntasuna. 4. Honenbestez kontsulak iturri ezberdinetatik etsaien etorreraren berri izatea eta etsaiak ber-

(319) Bestelakoa zen Salustiok dioenaren arabera Mariok Metelorekin izan zuen jarrera. Ikus *Iug.*, LXIV, 5: «Quae res Marium cum pro honore quem adfectabat tum contra Metellum vehementer accenderat.»

(320) *Iug.*, LXXX, 3 hh. ataletan agertzen da aurretik Bokoren adiskideak opariz erakartzen.

(321) 106.etik 105.erako negua zen.

hostes aderant; et prius quam exercitus aut instrui aut sarcinas colligere, denique antequam signum aut imperium ullum accipere quivit, equites Mauri atque Gaetuli, non acie neque ullo more proeli, sed catervatim, uti quosque fors conglobaverat, in nostros incurrunt. 5. Qui omnes, trepidi 5 inproviso metu ac tamen virtutis memores, aut arma capiebant, aut capientis alios ab hostibus defensabant; pars equos escendere, obviam ire hostibus; pugna latrocinio magis quam proelio similis fieri: sine signis, sine ordinibus, equites pedesque permixti; cedere alius, alius obtruncari; multi contra 10 advorsos acerrume pugnantes ab tergo circumveniri; neque virtus neque arma satis tegere, quia hostes numero plures et undique circumfusi erant. Denique Romani veteres novique, [et ob ea scientes belli], si quos locus aut casus coniunxerat, orbis facere; atque ita ab omnibus partibus simul tecti et 15 instructi hostium vim sustentabant.

XCVIII. 1. Neque in eo tam aspero negotio Marius territorium aut magis quam antea demisso animo fuit, sed cum turma sua, quam ex fortissimis magis quam familiarissimis paraverat, vagari passim ac modo laborantibus suis succurre- 20 re, modo hostis ubi confertissimi obstiterant invadere; manu

7 pars... hostibus *Arus. Gramm., VII, 472, 12*

3 quivit] i.e. quivisset *s.s.* AC quivisset B quiviret ex quivit H queunt n || 4 fors] ex fro A sors $D\mu^2$ || 5 incurrunt] ex concurrunt A vel con *s.s.* C, concurrunt B (vel in *s.s.*) n || 6 ac] ex at T at Γm || 8 escendere N^1 *Arus.* scandere A^1 ascendere A^2 *cett.* | latrocinio] latronio P || 10 cedere alius alius obtruncari *Iordan Ornstein Ernout* cedere alios alios obtruncare Ω^1 caedere alios alios obtruncare *Fabri Ahlberg 1915* cedere alii alii obtruncari *Jacobs-Wirz Ahlberg 1919 Pabón* | multi A^1 *plq. edd.* multa *QN* multos *cett.* || 11 circumveniri PA^1N circumvenire *cett.* || 12 quia] quod $H\Gamma sm$ | plures] ex pluresque *TF* pluresque μ || 13 novique *secl. Kritz Ahlberg Ornstein del. Jacobs-Wirz* || 14 et ob ea scientes belli Ω^1 *ut glossam eiecerunt Dietsch Ernout; lacunam post novique indic. Iordan* || 15 facere $A^2CBH\Gamma$ (*praeter M*) *sn fecere cett.* || 18 demisso] dimisso *MT* || 19 quam familiarissimis] quam ex familiarissimis *Qm* quam *** (*cum del.*) familiarissimis T || 21 obstiterant] abstiterant PA astiterant *Ql* ob *in ras. D*

tan izatea dena bat izan zen; gure ejerzitua antolatzeko edota zamak biltzeko astirik eman gabe, eta turuten gudadeia eta gudalburuaren agindua entzuteko modurik eman gabe oldartu ziren gutarregana zaldizko mairu eta getuliarrak, ez gualerrotan edo bestelako gudu antolabideren batez, saldotan baino, zoriak elkartu zituen moduan. 5. Gutar guztiak ustegabeko arriskuarekin asaldatuta ziren arren ez zuten ahaztu ordea euren adorea eta armak hartzen edota armak hartzen ari zirenak etsaiarengandik babesten ihardun zuten; batzuk 10 zaldietara igo eta aurre egiten zioten etsaiari; gudia baino gehiago lapur oldarra zirudien borroka hark: gudoihalik gabe, gudalerrorik gabe, oinezkoak eta zaldizkoak nahasita zebiltzan; batzuek atzez egiten zuten bitartean beste batzuk hilda erortzen ziren; etsaien kontra gogo eta adorez borrokatzen ari ziren batzuk bizkarretik inguratzen zituzten; ez adoreak ez armek ez zuten nahiko babes ematen, kopuruz gehiago baitziren etsaiak eta alde guztietatik inguruan barreiatuta baitziren. Azkenean erromatar soldadu berriak eta [gerra kontuetan adituak ziren]³²² soldadu zaharrak nahiz 20 lekuak nahiz ustegabeak elkartzen zituenean, borobil bat egin eta horrela antolaturik eusten zioten, alde guztietatik batera babesturik, etsaien erasoari.

XCVIII. 1. Hain egoera larrian Mariok ez zuen beldurrik eta ez zegoen lehengo aldean lur jota; adiskiderik handienekin gabe adoretsuenekin osatu zuen bere zaldizkotaldearekin zebilen hara eta hona leku guztietatik, batzuetan ekinean estu zirenei laguntzen eta beste batzuetan gehien

(322) Eskuizkribuetan dakarrenak zentzurik ez duenez, *novique* kendu dute zenbait editorek. Guk nahiago izan dugu itzulpenean nolabait ordena aldatzea, eta zerbait kentzekotan *et ob ea scientes belli* kentzea.

consulere militibus, quoniam imperare conturbatis omnibus non poterat. 2. Iamque dies consumptus erat, cum tamen barbari nihil remittere atque, uti reges praeceperant, noctem pro se rati acrius instare. 3. Tum Marius ex copia rerum consilium trahit, atque uti suis receptui locus esset, collis 5 duos propinquos inter se occupat, quorum in uno castris parum amplo fons aquae magnus erat, alter usui opportunus, quia magna parte editus et praiceps pauca munimenta quaerebat. 4. Ceterum apud aquam Sullam cum equitibus noctem agitare iubet; ipse paulatim dispersos milites, neque 10 minus hostibus conturbatis, in unum contrahit; dein cunctos pleno gradu in collem subducit. 5. Ita reges loci difficultate coacti proelio deterrentur, neque tamen suos longius abire sinunt, sed utroque colle multitudine circumdato effusi consedere. 6. Dein crebris ignibus factis plerumque noctis barbari suo more laetari, exultare, strepere vocibus, et, ipsi duces feroces, quia non fugerant pro victoribus agere. 7. Sed ea cuncta Romanis ex tenebris et editoribus locis facilia visu magnoque hortamento erant.

XCIX. 1. Plurimum vero Marius inperitia hostium confirmatus, quam maximum silentium haberi iubet, ne signa quidem, uti per vigiliis solebant, canere. Deinde, ubi lux adventabat, defessis iam hostibus et paulo ante somno captis,

9 ceterum... iubet *Non.*, 522, 31 || 11 dein... subducit *Non.*, 400, 1

7 usui] visui P^2AMl || 8 editus $B^2K^2H^2MTF\mu sm$ edita $XNKHD$ (vel tus *s.s.*) *In* | munimenta] vel to *s.s.* *D* munimento *NK* | quaerebat *nonn. rec. edd.* gerebant *PA* (gere *in ras.* *A*) *CBD* (vel regebat *s.s.*) regebat *N* (*ex* regebant; vel gerebat *s.s.*) *M* egebat *alii* || 10 dispersos milites paulatim *HTn* milites *om. m* || 11 conturbatis] conturbatos *PAN* (vel tis *s.s.*) *l* | conturbatis hostibus *TDF\mu* || 17 quia] quod *HT* (pro quia *s.s.* *T* vel quia *s.s.* *D*) *n* | fugerant *s.s.* *AC* fugere aut *cett.* (runt *s.s.* *H* a *eras.* *M*) || 21 haberi] *ex* habere *P*

- pilatuta aurre egiten zuten lekuan etsaiei eraso egiten; guztiak nahasita zirelarik ezin agindurik eman ziezaiekeenez bere eskuekin ematen zien laguntza soldaduei. 2. Egun guztia hartan emanda ere basati haiek ez zuten etsitzen eta, erregeek agindu 5 bezala, gaua euren aldeko zela pentsatuz, are gogorrago jaukitzen zuten. 3. Orduan egoeraren araberrako erabakia hartu zuen Mariok, eta elkarren artean hurbil ziren bi mendiska hartu zituen beretarren atzeraldirako lekua izatearren; hauetako baten, kanpamenduarentzako ainako zabala ez zenean, iturri handi bat zegoen; 10 bigarrena erabiltzeko modukoa zen, zatirik handiena garaia eta maldatsua zenez ez baitzuen gotortze lan handirik eskatzen. 4. Gaua uraren inguruan igarotzeko zaldizkoekin agindu zion Silari, eta berak gutxi-gutxika talde bakar baten elkartu ahal izan zituen, etsaiak ere eurak bezain nahasita zirenez, barreiaturik zituen 15 soldaduak; gero denak batera igoarazi zituen mendiskara abiada handiz³²³. 5. Horrela lekuaren zailtasunak behartuta borroka utzi beharra izan zuten bi erregeek, baina beretarrei urrutiratzen utzi ordez bi mendiskak inguratu eta han zehar sakabanatuta kanpatu ziren. 6. Gero basati haiek su handiak egin eta ia gau guztian 20 euren ohituren arabera agertzen zuten poza; saltoka zebiltzan, zarata egiten zuten oihuka, eta gidari ozarrak eurak ere garaile bezala agertzen ziren ez zutelako ihes egin. 7. Baina hau guztia erraz ikusten zuten erromatarrek ilunetatik eta leku garaiagotik, eta kemena ematen zien.
- 25 XCIX. 1. Etsaien moldagabetasunarekin zinez bizkortuta, ahal zuten isilen egoteko eta gaueko zaingotalde aldaketetan ohizko diren seinaleak ere ez jotzeko agindu zuen Mariok³²⁴. Gero, argia hastera zihoanean, etsaiak nekatuta

(323) *Militari gradu* esaten zaio latinez ibilaldietako abiada arruntean joateari (20ren bat milia bost orduko); *pleno gradu* joatean abiada handiagoan doaz (24ren bat milia bost orduko); hortik gorakoari besterik gabe *cursu* joatea esaten zaio.

(324) Gauero lau aldiz egiten ziren zaingotalde aldaketak, iluntzetik egunsentirarte, eta turutaz iragartzen zen aldaketa bakoitza.

de inproviso vigiles, item cohortium, turmarum, legionum tubicines simul omnis signa canere, milites clamorem tollere atque portis erumpere iubet. 2. Mauri atque Gaetuli, ignoto et horribili sonitu repente exciti, neque fugere neque arma capere neque omnino facere aut providere quicquam poterant; 3. ita cunctos strepitu, clamore, nullo subveniente, nostris instantibus, tumultu, formidine, terror quasi vecordia ceperat. Denique omnes fusi fugatique, arma et signa militaria pleraque capta, pluresque eo proelio quam omnibus superioribus interempti; nam somno et metu insolito impedita fuga. 10

C. 1. Dein Marius, uti coeperat, in hiberna; <nam> propter commeatum in oppidis maritumis agere decreverat; neque tamen victoria socors aut insolens factus, sed pariter atque in conspectu hostium quadrato agmine incedere. 2. Sulla cum equitatu apud dextumos, in sinistra parte A. Manlius cum funditoribus et sagittariis; praeterea cohortis Ligurum curabat; primos et extremos cum expeditis manipulis tribunos locaverat. 3. Perfugae, minime cari et regionum scientissimi, hostium iter explorabant. Simul consul, quasi 15

15 Sulla... funditoribus *Prisc. Gramm., II, 95, 5; 98, 13*

1 vigiles *edd. duce Kortte vectigales codd.* || 2 signa (*ex cani A*)] vel tuba *s.s. C* tuba *QH* || 3 atque *QK²* et *m* aut *cett.* | iubet] *secl. Jacobs-Wirz* || 4 et] atque *HΓnm* || 6 cunctos] *ex cuncti A ex cunctis K cunctis N* | strepitu] *ex trepitu A do super strepitu H trepido M* || 7 tumultu formidine terror *A* (*terror e terrore, e expuncto Iordan Jacobs-Wirz Ahlberg 1919 Ernout* tumultu formidine terrore *PCBNKlsm* tumultu terrore formidine *QHDFn* tumultu terrore formido *MT* tumultu formidine *Dietsch* formido *Ahlberg 1915 Ornstein* terror *Thomas* || 8 ceperat *AQMFsm* acceperat *cett.* | fugatique] que *add. A² om. M* || 10 insolito] *insolita (ex insolitu) A* | fuga impedita *TDFμ* || 11 in hiberna *ACBQNKTDfμn* hiberna *P* (*coeperat hiberna om. et s.s. eadem manu*) *HM* in hibernis *m om. ls* | nam] *add. Nipperdey quem secuti sunt Thomas Wirz Ornstein Ernout* it *A²CBm Ahlberg Pabón om. cett.*; alii alia restituerunt: proficiscitur *dett.* pergit *Dietsch*; lacunam post hiberna *indic. Iordan* || 14 atque] ac *QHF* || 15 dextimos *P²AΣK²T* (*dextros manu sec. dextimos manu tert.*) *sn Prisc.* extimos *m* extremos *PY* (*vel dextimos s.s. D*) | | a. manlius] *mallius Prisc.* || 18 regionum] *ex regionem P*

eta loak hartu berri zirelarik, bat-batean goaitariak eta kohorteetako, zaldizkosaitetako nahiz legioetako turutariek guztiek batera erasorako gudadeia jotzeko, eta soldaduak oihuka ateetatik kanpo irtetzeko agindua eman zuen. 2. Mai-
 5 ruek eta getuliarrek, zarata ezezagun izugarriarekin ziplo esnatuta, ezin zuten ez ihesari eman, ez armak hartu, ez ezer egin ez erabaki; 3. horrenbesteko zaratarekin, abarrotsekin, batere laguntzarik ez izatearekin, gutarrak erasoan izatearekin, zalapartarekin eta izuarekin erotasuna bezalako beldu-
 10 rra jabetu zen haietaz. Azkenean guztiak sakabanatu zituzten eta ihes eragin zieten, arma eta gudoihal ugari eskuratu genuen eta aurreko guztietan baino gehiago hil ziren gudu hartan, logureak eta ezohizko beldurrak eragotzi baitzieten ihesa.

15 C. 1. Orduan jaki-hornidura errazago eskuratzearren itsasbaterreko hirietan ezartzeko agindu zuen negugudalgetiarantz abiatu zen Mario, hasia zuen bidetik jarraituz³²⁵. Garaipenarekin ez zen ordea axolagabe eta ozar bihurtu eta etsaia aurrean balego bezala zihoan aurrera, ejerzitua lauki
 20 bezala lerrotuta³²⁶. 2. Sila eskuineko albokoekin zihoan zaldieriaren buru bezala, ezkerreko aldean Aulo Manlio zihoan habailariekin eta gezilariekin, eta gainera berak zuen liguriar kohorteen ardura ere. Aurrean eta atzean tribunoak ezarri zituen manipulo arinen buru. 3. Itzurleek etsaien ibilbidea
 25 ikuskatzen zuten, hauen bizia ez baitzuten estimu handitan

(325) Itsasoz hornitzen zuten ejerzitua neurri handi baten, beharrezko izango zutena Italiatik Afrikako iparraldeko portuetara eramanez, Hippo Regius, Hippo Diarrhytus eta Uticara batez ere.

(326) Antolabide hau (*quadrato agmine*) gorago (XLVI, 6 hh.) agertu denaren antzekoa da (*munito agmine*).

nullo inposito, omnia providere, apud omnis adesse, laudare et increpare merentis. 4. Ipse armatus intentusque item milites cogeat. Neque secus atque iter facere, castra munire, excubitum in porta<s> cohortis ex legionibus, pro castris equites auxilios mittere, praeterea alios super vallum in munimentis locare, vigiliis ipse circumire, non tam diffidentia futurum quae imperavisset, quam uti militibus exaequatus cum imperatore labos volentibus esset. 5. Et sane Marius illoque aliisque temporibus Iugurthini belli pudore magis quam malo exercitum coercebat, quod multi per ambitionem fieri aiebant, <alii> quod a pueritia consuetam duritiam et alia quae ceteri miserias vocant voluptati habuisset; nisi tamen res publica pariter ac saevissimo imperio bene atque decore gesta.

CI. 1. Igitur quarto denique die haud longe ab oppido Circa undique simul speculatores citi sese ostendunt; qua re hostis adesse intellegitur. 2. Sed quia divorsi redeuntes alius ab alia parte atque omnes idem significabant, consul incertus quonam modo aciem instrueret, nullo ordine commutato, advorsum omnia paratus ibidem opperitur. 3. Ita Iugurtham

11 (con)suetam... gesta *Fronto*, 110 N (163 H)

3 facere] *ex* facerent *D* faceret $K^2\Gamma$ (*praeter D*) || 4 portas *edd. duce Justo Lipsio* porta Ω' || 5 auxilios *PCBn* ex auxilios *A* | in munimentis super vallum *HTn* || 6 circumire] circuire *QHMFμlm* | tam] *om. PANK^1* | diffidentia] pro diffidentia *CB* | futurum *aliquot integri rec.* (*cf. Gell. 1,7*) *plq. edd. futuri Ω'* (i.e. futurorum *s.s. AC*) futura *nonn. integri recentissimi Dietsch Jacobs-Wirz* fieri *Kappes Prammer alia alii* | quae] *ex* quod T^2 quod *n* || 9 aliisque] et aliis *N* | iugurthini belli *del. Dietsch* || 11 alii quod *a*] alii *add. Ernout* pars a pauci *dett. Dietsch Iordan Pabón* quod a *plq. codd.* a (quod *del.*) *Ahlberg Ornstein* || 12 habuisset *plq. codd. Ernout* habuisse PA^1NK^1 *Fronto Dietsch Iordan Ahlberg Ornstein Pabón* || 13 res publica (*R. P. vel r. p.*) QNK^1Msm *Fronto* rei *s.s. Q* rei publicae $PA^2CBHTDFμn$ rem publicam A^1 *deest in l* | pariter atque *Fronto* || 15 ab] *om. TD^1Fμ* || 16 citi] *ex* cito *A* || 17 redeuntes] abeuntes Γ (redeuntes *s.s. T*) || 19 instrueret] *ex* instruet *P* strueret *H* || 20 ita PAQ^1K^1Flms item $A^2CBNK^2MTDμ$ vel igitur *s.s. igitur H* (ita *s.s.*)

eta gainera lurraldea oso ondo ezagutzen baitzuten. Aldiberean kontsula bera zebilen, hartarako beste inor ez balego bezala, dena gainbegiratzeko, guztiengana gerturatzeko, bakoitzak merezi zuenaren arabera batzuk laudatzen edo besteeteei agiraka egiten. 4. Armatuta eta adi izaten zen bera eta soldaduak ere hartara behartzen zituen. Ez zuen arreta gutxiago izaten kanpamendua gotortzean ibilbidea egitean baino; legioetako kohorteak ezartzen zituen ateetan goaitan, eta zaldizko laguntzaileak bidaltzen zituen kanpamendu aurrera, 10 eta gainera beste batzuk latesi gainean ezartzen zituen gotortze lanak zaintzen; bera joaten zen beiletako bira egitera, ez hainbeste agindutakoa egingo ez zutelako beldurrez, guda buruarekin batera eginik lana soldaduentzat gogokoago izan zedin baino. 5. Eta zinez Jugurtaren aurkako gerraren 15 egun hauetan eta beste batzuetan, soldaduen ohore nahiarengatik bezatzen zuen Mariok ejerzitua eta ez zigorren bitartez. Herriaren atxikimenduaren bila zebilelako jokatzeko zuela horrela zioten batzuek; beste batzuen iritziz gogoko zituelako bizitza gogorra eta besteek zorigabetzat dituztenak, haietara ohituta baitzegoen haurtzarotik; baina aginterik gogorrenarekin bezain ondo eta deduz zuzendu zuen estatua.

CI. 1. Honenbestez azkenean laugarren egunean Cirtako hiritik urrutira gabe zirelarik alde guztietatik agertu ziren laster baten ikuskatzaileak, etsaia hurbil zela ulertaraziz. 2. 25 Baina bakoitza bere aldetik bide ezberdinetatik zetozenez eta halere denek horixe bera adierazten zuten, kontsulak ez zekien nola antolatu gudalerroak eta antolaketa aldatu gabe han bertan edozertarako prest itxarotea erabaki zuen. 3. Ho-

spes frustrata, qui copias in quattuor partis distribuerat, raturus ex omnibus aequae aliquos ab tergo hostibus venturos. 4. Interim Sulla, quem primum hostes attigerant, cohortatus suos turmatim et quam maxime confertis equis ipse aliique Mauros invadunt; ceteri in loco manentes ab iaculis eminus 5 emissis corpora tegere et, si qui in manus venerant, obtruncare. 5. Dum eo modo equites proeliantur, Bocchus cum peditibus quos Volux filius eius adduxerat —neque in priorie pugna in itinere morati adfuerant—, postremam Romanorum aciem invadunt. 6. Tum Marius apud primos agebat, 10 quod ibi Iugurtha cum plurimis erat. Dein Numida, cognito Bocchi adventu, clam cum paucis ad pedites convertit. Ibi latine —nam apud Numantiam loqui didicerat— exclamat nostros frustra pugnare, paulo ante Marium sua manu interfectum; simul gladium sanguine oblitum ostendere, quem in 15 pugna satis inipigre occiso pedito nostro cruentaverat. 7. Quod ubi milites accepere, magis atrocitate rei quam fide nunti terrentur, simulque barbari animos tollere et in percussos Romanos acrius incedere. 8. Iamque paulum a fuga aberant, cum Sulla, profligatis eis quos advorsum ierat, re- 20 diens ab latere Mauris incurrit. 9. Bocchus statim avortitur.

12 ibi... exclamat *Arus. Gramm.*, VII, 451, 25 || 15 simul... ostentans (*sic*) *Prisc. Gramm.*, II, 530, 13

1 frustrata] est *s.s.* *Mm* frustrata est *QTn* || 2 aliquos] alios *Bμ¹* (qu *s.s.*) || 4 ipse] *ex ipsi A ipsi M* || 6 emissis] missis *Y* (e *s.s.*, *T*) | si qui] si qua (corpora *s.s.*) *B* | venerant] *ex venerat P* || 7 proeliantur *A¹QK¹Γnm* proeliantur *PA²CBK²Is* proeliantes *N* proeliabantur *H* || 8 volux] *ex volox PQ* || 9 adfuerant] vel fuerant *s.s.* *D* fuerant *QMT¹* (af *s.s.*) *F* (ad *add. F²*) || 10 agebat *CBH* agitabat *P²* *s.s.* *n* erat *cert.* (vel agebat *s.s.* *Q²* vel agitabat *s.s.* *A²*) || 13 apud numantiam] ad numantiam *Arus. qui locum laudat propter praepositionem* ad || 14 nostros] nostrum *PA¹N* || 15 ostendere] ostentans *Prisc.* || 19 incedere] incedunt *M* cedere (in *ut vid. eras.*) *N* || 20 quos] *ex quod P ex quod quos I* || 21 ab latere mauris incurrit] mauris ab latere incurrit *HTn* ab latere incurrit mauros *I* | avertitur] *ex advertitur KMμ* advertitur *AN*

rrrela huts egin zion Jugurtari bere itxaropenak, bere soldadu guztietatik baten batzuk behintzat atzetik agertuko zitzaizkiola horrela etsaiari pentsatuz banatu baitzituen gudataldeak lau zatitan. 4. Anartean etsaiaren ikutua lehenbizi jaso zuen Silak beretarrak gogoberotu eta zaldiak ahal zuen tinkoen elkarturik zaldizkosailka antolaturik egin zien eraso berak bere soldadu batzuekin mairuei; gainerakoak bertan geratu ziren eta urrundik botatzen zizkieten geziak ekiditeko estalpetu egiten ziren eta etsaietakoren bat hurbilduz gero lepoa mozten zioten. 5. Zaldizkoak horrela borrokatzen ari ziren bitartean, bidean luzatu zirenez lehenengo guduan parte hartu ez zutenekin egin zion eraso Bokok erromatarren atzerengo lerroari, Bolux semeak ekarritako oinezkoekin hain zuzen ere. 6. Lehenbiziko lerroen artean zen orduan Mario, han zelako gehienekin Jugurta bera ere. Halako baten Boko heldu zela jakin zuenean, gutxi batzuekin itzuli zen numidiarra honen oinezkoengana. Han latinez oihukatu zuen —Numantzian ikasi baitzuen latinez hitz egiten— alferrik ari zirela gutarrak, berak bere eskuz hil zuela arestian Mario. Borroka gogorrean gutariko oinezko bat hiltzean odolztatu zuen ezpata odoldua erakusten zuen aldiberean. 7. Hitz hauek entzutean izutu egin ziren gure soldaduak, gehiago ekintzaren izugarrikeriarengatik mezulariak eskaintzen zuen sinesgarritasunarengatik baino; aldiberean basatien bihotzak berotu egin ziren eta sutsuago oldartzen ziren adoregabeturiko erromatarrengana. 8. Ez zitzaien erromatarrei asko falta iheserako, berak bilatu zituen aurkakoak azpiratu eta itzultzean albo batetik jauki zituenean mairuak Silak. Berehala egin zuen atzera Bokok. 9. Jugurtak beretarrak

appellat dicitque sibi per Dabarem ex Sulla cognitum posse condicionibus bellum poni: quam ob rem regis sui sententiam exquireret. 2. Ille laetus in castra Iugurthae proficiscitur; deinde ab illo cuncta edoctus properato itinere post diem octavom redit ad Bocchum, et ei nuntiat Iugurtham 5 cupere omnia quae imperarentur facere, sed Mario parum confidere: saepe antea cum imperatoribus Romanis pacem conventam frustra fuisse. 3. Ceterum Bocchus, si ambobus consultum et ratam pacem vellet, daret operam ut una ab omnibus quasi de pace in colloquium veniretur, ibique sibi 10 Sullam traderet; cum talem virum in potestatem habuisset, tum fore uti iussu senatus aut populi foedus fieret, neque hominem nobilem non sua ignavia, sed ob rem publicam in hostium potestate relictum iri.

CXIII. 1. Haec Maurus secum ipse diu volvens tandem 15 promisit; ceterum dolo an vere cunctatus, parum comperimus. Sed plerumque regiae voluntates ut vehementes sic mobiles, saepe ipsae sibi advorsae. 2. Postea tempore et loco constituto in colloquium uti de pace veniretur, Bocchus Sullam modo, modo Iugurthae legatum appellare, benigne 20

1 ex sulla per dabarem *F* | ex sulla] a sulla *R*¹ (ex *s.s.*) et per sullam *Q* || 2 condicionibus] condicione *QD* | poni] componi *Qπ* || 3 laetus] *om.* *QD* || 4 deinde] dehinc *Q* | ab illo] *om.* *QHMD* || 5 ei nuntiat] enuntiat *K* ei denuntiat *QMD* || 6 facere] se facere *Cπ* | mario] marium *D*¹ || 7 confidere] fidere *Q*¹ (con *s.s.*) *KHMD* || 8 conventam frustra fuisse] confectam frustra fuisse *K* conventam frustra (ex frustrata) saepe fuisse *C* conventam frustra fieri *M* conventam esse frustra *D* frustra conventam esse *Q* || 8 bocchus] *s.s.* *Q om.* *HMD* || 9 a pacem vellet excipiunt mutuli; duce *Ahlberg lectiones codicum KHMF*, quippe quas scripserit eadem manus quae lacunam supplevit omittunt *plq. edd.* | pacem] *sec. manu s.s.* *B* si pacem *A* || 10 sibi sullam] sullam sibi *C* sibi *sec. manu s.s.* *B* || 11 traderet] ex tradidit *P* traderent *A* | in potestatem] in potestate *N*²*D*²*μ*²*s* || 13 non sua] sua *om.* *N* neque sua *B* || 14 potestate] potestatem *P*¹*D* | iri] *ex ire P* || 15 haec] haec *ex rex A* ex *N*¹ (*eras. N*²) || 16 promisit] promissis *A*¹*N* || 17 vehementes] vehementer *A*¹ || 18 et *om.* *NTDμ* || 19 veniretur] con *s.s.* *N* **veniretur *D* (ex in-?) || 20 benigne**** *P* (ex benigniter?)

taren ordezkariari dei egin eta baldintza batzuekin gerra buka zitekeela jakinarazi ziola Silak Dabarren bitartez esan zion eta horregatik bere erregearen iritziaren berri jakiteko eskatu. 2. Aspar pozik abiatu zen Jugurtaren kanpamendura. 5 Gero honen aginduak hartu eta bidea azkar eginez zortzigarren egunerako itzuli zen Bokorengana eta Jugurtak agin zekion dena egin nahi zuela baina aurretik ere gudalburu erromatarrekin buruturiko bake hitzarmenek sarri huts egin zuten³⁴³, ez zuela Mariorengan uste onik iragarri zion. 3. 10 Baina Bokok bien aldeko zerbaite erabakitzea eta betiereko bakea nahi baldin bazuen, bakeari dagokiona eztabaidatzeko balitz bezala denak batera joan zitezen elkarrizketa bat antolatzeke ahaleginak egin eta han Sila berari saltzeko eskatu zion. Hain gizon garrantzitsua bere esku izanez gero hitzarmena 15 egingo zela senatuaren eta herriaren aginduz eta ez zutela etsaiaren esku utziko, bere axolagabekeriaz barik herriaren onarengatik eroritako noble bat.

CXIII. 1. Hau guztia egingo zuela agindu zuen mairuak azkenean bere baitan luzaroan hausnartu ondoren, ez dakigu 20 ordea iruzurrezkoa ala benetakoa izan zen zalantzaldi hau. Baina gehienetan erregeen borondatea bizia izaten den bezala aldakorra ere izaten da, eta askotan aurrekoaren kontrakoa. 2. Bakeari buruzko elkarrizketara joateko eguna eta ordua ezarri ondoren, batzuetan Silari eta beste batzuetan Jugurta-

(343) Kalpurniorekin (*Iug.*, XXIX, 3 hh.) eta Aulorekin (*Iug.*, XXXVIII, 9-10) egindako hitzarmenak azaldu ditu Salustiok aurretik.

habere, idem ambobus polliceri; illi pariter laeti ac spei bonae pleni esse. 3. Sed nocte ea quae proxuma fuit ante diem conloquio decretum, Maurus, adhibitis amicis ac statim immutata voluntate remotis ceteris, dicitur secum ipse multum agitavisse, voltu <et oculis> pariter atque animo varius; 5 quae scilicet ita tacente ipso occulta pectoris patefecisse. 4. Tamen postremo Sullam accersi iubet et ex illius sententia Numidae insidias tendit. 5. Deinde, ubi dies advenit et ei nuntiatum est Iugurtham haud procul abesse, cum paucis 10 amicis et quaestore nostro quasi obviis honoris causa procedit in tumulum facillum visu insidiantibus. 6. Eodem Numida cum plerisque necessariis suis inermis, uti dictum erat, adcedit, ac statim signo dato undique simul ex insidiis invaditur. 7. Ceteri obruncati; Iugurtha Sullae victus traditur, et ab eo ad Marium deductus est. 15

CXIV. 1. Per idem tempus advorsum Gallos ab ducibus nostris Q. Caepione et Cn. Manlio male pugnatum. 2. Quo metu Italia omnis contremuerat. Illique et inde usque ad nostram memoriam Romani sic habuere: alia omnia virtuti

5 voltu... variis (sic) *Serv. Aen.* 7, 251 || 16 per idem tempus *Pomp. Gramm.* V, 208, 6

1 idem] ex item *D om.* *P et sec. manu s.s.* | polliceri] pollicere *PA* | spei bonae] bonae *om.* *P et sec. manu s.s.* bonae spei *Q* || 2 post ante diem *desinit P* || 4 ceteris] ex celeris *A* celeris *N¹* (*t s.s.*) *om.* *T* || 5 voltu et oculis *Serv.* voltu corporis *Q'* voltu colore motu corporis *complures intt. rec. Pabón* | varius] variis *Serv.* || 6 quae... patefecisse ut *glossema secl. Dietsch Jacobs-Wirz* | ita *plq. edd. secl.* | occulta pectoris *D¹* (vel specie et oris *s.s. sec. manu*) occultare et oris *A* (immutazione *s.s.*) *N* occultare et oris immutazione *Σα* (occultavisse) occulta specie oris *TM* occultam rem et oris *s* | patefecisse] patefecissent *A¹Ns* || 7 accersi] arcessiri *AQ* (vel accersi *s.s.*) arcessi *N* || 8 tendit] tetendit *Q* || 14 victus sullae *Dμ* victus *A¹* (*n s.s.*) || 17 q. (quinto *s.s.* *D* quin^{to} *A*) c(a)epione *AQNDμ* q. cipione *A²s* q. (qⁱnto *α* quinto *C*) scipione *CBTD²α* | gn. manlio *T* men (gaio *corr. ut vid.*) manlium *A* m. manlio *cett. Ahlberg* || 18 contremuerat *A¹QNDMsα* contremuerant *T* contremuit *A²CB* || 18 illique et inde usque] illique et usque *ND* illic et inde usque *α* illincque et usque *s* illimque usque *Dietsch Jordan* || 19 virtuti] virtute *T* virtutis *A*

ren ordezkariari dei egiten zien Bokok, biak hartzen zituen ondo, agintzari berdinak zituen bientzat, eta biak ziren bata bestea bezain pozik eta itxaropenez beteta. 3. Baina elkarrizketarako erabakirik zen egunaren aurreko gauean mairuak
 5 lagunminei dei egin zien eta bat-batean iritzia aldatuta berriro bidali zituen guztiak kanpora; duda handitan ibili omen zen gero bera bakarrik bere barruan eta bere gogoia bezain aldakor omen ziren orduan bere begitartea eta begiak diote, eta jakina, bera isilik zen arren agerian jartzen omen
 10 zuten aldaketa hauek bere bihotzean ezkutuan zuena. 4. Azkenean ordea Silari dei egiteko agindua eman zuen eta honek nahi zuen moduan prestatu zuen zelataldia numidiararren kontra. 5. Gero eguna egin zenean eta Jugurta ez zela urruti iragarri ziotenean, ohore egitearren bezala abiatu zen
 15 lagunmin batzuekin eta gure kuestorearekin, zelatan zirenek erraz ikus zezaketen mendiska bateraino³⁴⁴. 6. Esanda zuten moduan heldu zen hara numidiarra armarik gabe, lagunminik gehienekin, eta behingoan seinalea emanda oldartu zitzaizkion alde guztietatik denak batera zelatariak. 7. Gainerakoak hil egin zituzten eta Jugurta Silarengana eraman zuten lotuta, eta honek Mariorengana zuzendu zuen³⁴⁵.

CXIV. 1. Egun haietan galiarren aurkako guduan galdu zuten Kinto Zepion eta Gneo Manlio gure gidariek³⁴⁶. 2. Hango asaldurekin Italia osoa izutu zen. Beste guztia erraza

(344) Sila da aipatzen den kuestorea.

(345) Jugurta garailearen esku geratzen denean amaitu egiten da Salustioren lana. Ez du ematen Numidiarekin gertatu zenaren berri, baina badakigu hiru zati egin zituztela, bat Bokorentzat, beste bat Gaudarentzat eta hirugarrena probintzia erromatarrarentzat.

(346) K.a. 105.eko urriari garaitu zituzten zinbroek Arausio inguruan (gaurko Orange) Gneo Manlio Maximo kontsula eta Kinto Serbilio Zepion kontsulordea. Galiara sarturiko germaniar herria zen zinbroena.

suae prona esse, cum Gallis pro salute, non pro gloria certari.
 3. Sed postquam bellum in Numidia confectum et Iugurtham Romam vinctum adduci nuntiatum est, Marius consul absens factus est et ei decreta provincia Gallia, isque kalendis Ianuariis magna gloria consul triumphavit. 4. Et ea tempe- 5
 tate spes atque opes civitatis in illo sitae.

1 cum Gallis de salute, non de gloria certari *Diom. Gramm.*, I, 399, 24 || 6 cf. *Fronto*, 117 N: spes opesque omnes in vobis sunt sitae; *Sulp. Sev. Chron.*, 1, 11, 8: ea tempestate spes atque salus Aegypti in illo sita erat; *Dict.* 2,4: neque cuiquam dubium quin ea tempestate... spes omnes atque opes militiae in tali viro sisterentur

1 pro... pro] de... de *Diom.* | certari *A*¹ *Diom.* certare *cett. codd. Ablberg* || 4 est et ei] esset ei AN | gallia provincia Q | isque] ex usque *D s.s. A om. Q* (vel atque *s.s.*) || 5 et *A*²*T* ex *CBQ*²*NDs om. AQ* || 6 sitae] positae *D*² sc. sunt *s.s. Q* sunt *s.s. N* sitae sunt AC

1 dela adoretuentzat baina galiarren kontra norberaren bi-
 zitzarengatik eta ez ospearengatik egiten dela borrokan
 pentsatzen zuten garai hartako erromatarrek eta geroztik
 gaur artekoek. 3. Baina Numidiako gerra bukatu zela eta
 5 lotuta zeramatela Jugurta Erromara jakinarazi zenean,
 kanpoan zen arren kontsul izendatu zuten Mario eta Galiako
 probintzia eman zioten. Urtarrileko kalendetan egin zituen
 arrandiz garaipenaren ospakizunak, kontsul izendatu ondo-
 ren³⁴⁷. 4. Beretzat ziren garai hartan hiriaren itxaropen ona
 10 eta ondasunak.

(347) K.a. 104.eko urtarrilak lehenean egin ziren ospakizun hauek eta Mario-
 ren guriaren aurretik eraman zuten Jugurta kateaturik, bere bi semeekin. Jantziak
 kendu eta Tuliano espexera (kartzela honi buruz ikus *Catil.*, LV, 3-4) jaurti zuten
 gero; Plutarkoren arabera han hil zen hotzez eta gosez, Eutropioren arabera Mario-
 ren aginduz zintzurra tinkatuz itota.

IZENDEGIA

- Adherbal*: Numidiar burua. Masinisaren iloba, Mizipsaren semea, Hienpsalen anaia. Jugurtak hil zuen. V, 7; IX, 4; X, 8; XI, 3; XIII, 1 bis, 3 eta 9; XV, 1, 2 eta 3; XVI, 2 eta 5; XX, 1 eta 4; XXI, 1, 2 eta 3; XXII, 4 eta 5; XXIII, 2; XXIV, 1; XXV, 1 eta 10; XXVI, 1 eta 3; XXXV, 1; XLVIII, 3.
- Aegyptus*: Egipto. Antzinatean ez zuten Afrikan sartzen, Asian baino. Erromatarren adiskide izan ziren 273. urtetik eta gero probintzia erromatar ere bilakatu zen. XIX, 3.
- Aemilius Scaurus, M.*: Senadore garrantzitsua, iraultzaileen etsai gogorra. K.a. 115. urtean egin zuten kontsul. *Princeps senatus* ere izendatu zuten. Hizlari eta idazle izan zen, baina iritzi ezberdinak daude bere izaerari buruz. XV, 4; XXV, 4 eta 10; XXVIII, 4; XXIX, 2, 3 eta 5; XXX, 1; XXXII, 1; XL, 4.
- Aethiopes*: Azal iluneko herri guztiei deitzen zieten greziarrek izen honekin, hori esan nahi baitu grekoz, 'aurpegi erre'. Getuliarren hegoaldera bizi zirentzat darabil Salustiok izen hau. XIX, 6.
- Afri*: Afrikarrak. XVIII, 3.
- Africa*: Gure Afrikari Egipto kendu behar zaio, Asiarena baitzen hau antzinakoentzat. Baina hegoaldea ezezagun zitzaenez iparraldeaz ari ziren Afrika aipatzean. V, 4; XIII, 1; XIV, 10; XVII, 1, 3 bis eta 7; XVIII, 1, 4 eta 12; XIX, 3 eta 8; XX, 1; XXI, 4; XXII, 1; XXIII, 1; XXV, 1 eta 4; XXVII, 5; XXVIII, 6; XXX, 1; XXXVI, 1; XXXIX, 4; XLIV, 1; LXVI, 2; LXXVIII, 2; LXXIX, 2; LXXXVI, 4; LXXXIX, 7; XCVI, 1; XCVII, 2; CIV, 3.
- Africum mare*: Sizilia eta Afrikako itsasertzaren arteko Mediterranearen Itsasoa. XVIII, 9.
- Albinus*: Ikus *Postumius*.
- Annius, C.*: Hiritarren eskariz Metelok Leptis Magnara bidali zuen prefektoa. LXXVII, 4.
- Annius, L.*: K.a. 110. urteko plebearen tribunoa, P. Lukulorekin batera. Hurrengo urterarte luzatu nahi izan zuen bere tribunotza. XXXVII, 2.

IZENDEGIA

- Armenii*: Armeniarrak; Mendebaldeko Asian, Pontus Euxinus (gaurko Itsaso Beltza) eta Kaspiar Itsasoaren artean bizi ziren. XVIII, 4 eta 9.
- Arpinum*: Volsci zirelakoan lurraldean, Liris ibaiaren ibarrean zegoen hiri garrantzitsua. K.a. 305. urtean jabetu ziren erromatarrek hartaz eta 188. urtetik aurrera izan zuen *ius sufragii*. LXIII, 3.
- Asia*: Asia Minor delakoan 133. urtetik aurrera zen probintzia erromatarrari deitzen diote gehienetan Asia izenarekin, berez kontinente osoa bada ere. XVII, 3.
- Aspar*: Jugurtak Bokori bidali zion mandatarari zelataria. CVIII, 1; CIX, 1; CXII, 1.
- Aulus*: Ikus *Postumius*.
- Aventinus mons*: Erromako zazpi mendisketako bat, hegomendebaldekoa. Herri zatiketa zenbaitetan hona egin zuen alde plebeak. XXXI, 17.
- Baebius, C.*: K.a. 111. urteko plebearen tribunoa. XXXIII, 2; XXXIV, 1.
- Balears funditores*: Ospetsu ziren soldataren truke Erromako ejerzitua-rekin joaten ziren Balearetako habailariak. CV, 2.
- Bellienus, L.*: K.a. 106. urtean Afrikako Probintzia Erromatarreko pretore izan zena. CIV, 1.
- Bestia*: Ikus *Calpurnius*.
- Bocchus*: Mauritaniako erregea, Jugurtaren aitagarreba eta Meteloren garaipen ondoren haren aliatua. Erromatarrekin tratubidean aritu zen gero eta berak utzi zuen Jugurta hauen esku. Numidiaren zati bat eman zioten saritan. XIX, 7; LXII, 7; LXXIV, 1; LXXX, 3, 4 eta 6; LXXXI, 1 bis eta 4; LXXXIII, 1 eta 3; LXXXVIII, 5; XCII, 5; XCVII, 1 eta 3; CI, 5, 6 eta 8; CII, 2, 5 eta 12; CIII, 2 eta 7; CIV, 1, 3 eta 5; CV, 1 eta 3; CVI, 1; CVII, 2; CVIII, 1 bis, 2 eta 3; CIX, 4; CXII, 2 eta 3; CXIII, 2.
- Bomilcar*: Jugurtaren adiskide kutun numidiarra; Masiba hil zuen honen aginduz. Jugurtaren aurkako saldukerietan ihardun zuen gero, honek hil zuen arte. XXXV, 4, 5, 7 eta 9; XLIX, 1; LII, 5; LXI, 4; LXX, 1 eta 5; LXXI, 2; LXXII, 1; LXXIII, 1.
- Caecilius Metellus Numidicus, Q.*: K.a. 109. urteko kontsula; Jugurtaren aurkako gerraren ardura izan zuen 109-107 urteetan gudalburu bezala. Araubidean sartu zuen erromatarren ejerzitua, gerra zuhurtasunez eta sendotasunez zuzenduz. Garaipen ospakizunak eskaini zizkioten. Istiluak izan zituen Mariorekin eta ez zuen oner eraman hau bere ordezkoi izendatzea. XLIII, 1 bis; XLIV, 3; XLV, 1; XLVI, 1, 3 eta 6; XLVII, 1 eta 3; XLVIII, 1 eta 2; XLIX, 4; L, 3

bis; LI, 3; LII, 2; LIII, 5; LIV, 1, 5 eta 9; LV, 1, 2 eta 8; LVI, 2; LVII, 2; LVIII, 4 eta 7; LXI, 1; LXII, 4 eta 10; LXIV, 1 eta 4; LXV, 2 eta 4; LVI, 2; LXVIII, 1; LXIX, 1 eta 4; LXX, 5 bis; LXXIII, 1, 3, 5 (eta 7); LXXIV, 2; LXXV, 2 eta 5; LXXVI, 1 eta 2; LXXVII, 1 eta 3; LXXX, 1; LXXXI, 2; LXXXIII, 3; LXXXVI, 5; LXXXVIII, 1; LXXXIX, 6.

Caepio: Ikus *Servilius*.

Calpurnius Bestia, L.: K.a. 111. urteko kontsula. Jugurtaren aurkako gerraren ardura izan zuen gerra horretan. Saldukeriaz jokatu zuen, Jugurtaren agindupean, hau errenditu egin zela sinestaraziz erromatarrei. XXVII, 4 bis; XXVIII, 2, 4 eta 7; XXIX, 4, 5 eta 7; XXX, 2 eta 4; XXXII, 2; XXXIV, 2; XXXV, 2; XL, 4; LXXVII, 2 eta 3; LXXXV, 16.

Capsa: Eguneko Gafsa (Tunisia), Numidiako hegoekialdeko hiria. Su eman zion Mariok 106. urtean. Gero berriro indar hartu zuen. LXXXIX, 4; XCI, 3 eta 4; XCVII, 1.

Capsenses: Capsako biztanleak. LXXXIX, 6; XCII, 3 eta 4.

Carthaginiense bellum: Gerra punikoa. Salustioren aipamenean, bigarrena. XIV, 5.

Carthaginenses: Kartagoko hiriko eta lurraldeko biztanleak. V, 4 bis; XIV, 8 eta 10; XIX, 3 eta 7; LXXIX, 1, 2, 7, 8 eta 10; LXXXI, 1.

Carthago: Tiroko feniziarrek Afrikako iparraldean, Tunisiako Golkoaren mendebaldera sorturiko hiria. Lurraldea emankorra, gotortua eta merkataritzarako egokia zen. Erromako herriarekin borrokan egin zuen gerra punikoetan. XVIII, 11; XIX, 2; XLI, 2; LXXIX, 5.

Cassius Longinus, L.: K.a. 111. urteko pretorea, urte horretan Jugurta Erromara eramatearren honengana bidali zutena. 107. urtean kontsul izan zen Mariorekin batera. XXXII, 1 eta 5 bis; XXXIII, 1.

Catabathmos: 'Goibehera' esan nahi du grekoz. Erromatarren Zirene aldea eta Nilo bitarteko lautada da, Afrikako iparrekialdekoa beraz. XVII, 4; XIX, 3.

Cirta: Eguneko Constantina, garai baten Numidiako hiriburu izan zena. Berez gotortua zen lekuan eraiki zuten, itsasotik hirurogeita hamarren bat kilometrotara. XXI, 2 bis; XXII, 1; XXIII, 1 eta 2; XXV, 9; XXVI, 1; XXXV, 1; LXXXI, 2; LXXXII, 1; LXXXVIII, 3; CI, 1; CII, 1; CIV, 1.

Cornelius Scipio Aemilianus Africanus Numantinus, P.: Paulo Emilioren seme gaztea zen. P. Kornelio Eszipion Afrikarra Nagusiaren semeak hartu zuen Eszipiondarren familian. Kontsul egin zen K.a. 147. urtean eta berak suntsitu zuen 146.ean Kartago. 134. urtean

- berrri izendatu zuten kontsul eta 133. urtean hartu zuen Numantzia. VII, 4; VIII, 2; XXII, 2.
- Cornelius Scipio Africanus Maior, P.*: Afrikarra ezizeneko lehena Eszpiondarren artean. Garaipen ugari izan zuen Hispanian baina Hanibal Zaman garaitzea izan zen gailurra. Eragin handia izan zuen Erromako bizitzan. IV, 5; V, 4.
- Cornelius Scipio Nasica, P.*: Tiberio Grako hil zuenaren semea. K.a. 111. urtean izan zen kontsul Kalpurniorekin batera. XXVII, 4 bis.
- Cornelius Sisenna, L.*: 119tik 67ra bizi izan zen historialari erromatarra. Korneliotarren familiakoa zen. Mario eta Silaren arteko gerraren historia idatzi zuen. XCV, 2.
- Cornelius Sulla, L.*: K.a. 138. urtean jaio zen. 108.ean izendatu zuten kuestore Mario kontsularekin. Mitridatesen aurkako gerra zuzendu nahiak bien arteko ezinikusia sortu zuen. Alderdi aristokratikoaren buru egin zen Sila eta demokratikoaren buru Mario. Bien arteko gatazkaren ondoren diktadore ahalguztidun egin zuen bere burua. 79. urtean utzi zuen agintea bere aburuz eta 78.ean hil zen. XCV, 1, 2 eta 3; XCVI, 1; XCVIII, 4; C, 2; CI, 4 eta 8; CII, 2, 4 eta 15; CIII, 4, 5 eta 7; CIV, 1, 2 eta 3; CV, 1 eta 3; CVI, 2 eta 5; CVII, 1 eta 5; CVIII, 1, 2 eta 3; CIX, 1 eta 4; CX, 2; CXI, 1 eta 3; CXII, 1 eta 3; CXIII, 2, 4 eta 7.
- Cyrene*: Afrikako hiri greziar garrantzitsua. Sirte Nagusia eta Egipto bitartean dago. Erromatarren *Provincia Cyrenaica* delakoko hiriburu zen, kultur eta merkatal munduetan oso ezagun. XIX, 3.
- Cyrenenses*: Zirenearrak. LXXIX, 2, 5 eta 7.
- Dabar*: Masinisaren iloba, Masugradaren semea. Bokoren eta erromatarren lagun zen eta bakebideko harremanetan hartu zuen parte Numidiako gerran. CVIII, 1; CIX, 4; CXII, 1.
- Europa*: Kontinenteetako bat, antzinako batzuentzat bietako bat eta beste batzuentzat hiruretako bat. XVII, 3 bis.
- Fabius Maxumus Cunctator, Q.*: K.a. 233. urtean izan zen kontsul lehenbizikoz. Hanibalen aurka ekin zuen bere taktika bereziarekin. IV, 5.
- Flaccus*: Ikus *Fulvius*.
- Fulvius Flaccus, M.*: Kontsul izan zen 125. urtean eta tribuno 122.ean. Gaio Grakoren asmoak burutzen ihardun zuen. 121. urtean hil zuten. XVI, 2; XXXI, 7; XLII, 1.
- Gaetuli*: Getuliarrak; Afrikako lehenbiziko biztanleak bide ziren. Numidiarren hegoaldera bizi ziren, Afrikako iparrekialdean. Jugurta- rekin egin zuten borrokan. XVIII, 1, 7, 9 eta 12; XIX, 5 eta 7; LXXX, 1; LXXXVIII, 3; XCVII, 4; XCIX, 2; CIII, 4.

IZENDEGIA

- Galli*: Germaniarrekin nahastu eta hauen ordez aipatzen ditu Salustioak. CXIV, 1 eta 2.
- Gallia provincia*: Hemengo aipamenean Galiako hegoekialdea, *Narbonensis* izeneko probintzia osatuko zuena. CXIV, 3.
- Gauda*: Buruzagi numidiarra. Masinisaren iloba eta Mastanabalen semea, honenbestez Jugurtaren anaiordea. Meteloren aurka egiteko akulatu zuen Mariok. Jugurta hil zutenean beroni eman zioten Numidiaren heren bat. LXV, 1.
- Gracchi*: Grako anaiak. Ikus *Sempronius*. XLII, 1 eta 2.
- Gracchus*: Ikus *Sempronius*.
- Graeci*: Greziarrak. LXXIX, 8; LXXXV, 12.
- Gulussa*: Buruzagi numidiarra, Masinisaren seme eta Masibaren aita. V, 6; XXXV, 1.
- Hadrumetum*: Gaurko Susa, Afrikako iparraldeko itsasertzeko hiria, feniziarren kolonia izan zena. XIX, 1.
- Hamilcar*: Leptis Magnako buru egin zen noble bat. Bere aurkako laguntza eskatu zioten hango biztanleek Metelori. LXXVII, 1.
- Hannibal*: Bigarren gerra punikoan erromatarren aurkako borrokan aritu zen gudalburu kartagoarra. Zaman garaitu zuten. V, 4.
- Hercules*: Greziarren Herakles. XVIII, 3.
- Hercules Libys*: Herakles klasikoarekin bat egiten duten jainko afrikar bat. LXXXIX, 4.
- Hiempsal*: Buruzagi numidiarra, Mizipsa erregearen semea, honenbestez Aderbalen anaia. Jugurtak hil zuen oinordekotza osoa eragozten ziolako. V, 7; IX, 4; X, 8; XI, 3, 6 eta 8; XII, 3 bis eta 5; XV, 1 eta 3; XXIV, 6; XXVIII, 1.
- Hiempsal alter [rex Numidiae]*: Hienpsal II.a, Gaudaren semea. Honen semea, Juba, Ponpeioren aliatu izango zen. XVII, 7.
- Hippo*: Afrikako iparraldeko bi itsasertzeko hiri libi-feniziar: *Hippo Regius*, gaurko Bonatik hurbil, eta *Hippo Diarrhytus*, gaurko Bizerta. XIX, 1.
- Hispani*: Hispaniarrak. XVIII, 5.
- Hispania*: Iberiar erdiuhartea. VII, 2; X, 2; XVIII, 3 eta 9.
- Hispaniae*: Hispania Citerior eta Hispania Ulterior biak batera aipatzeko erabiltzen den pluralezko izena. XIX, 4.
- Italia*: Hasieran hegomendebaldeko bazterrari, Calabriari hain zuzen ere, baino ez zioten izen hau ematen greziarrek. K.a. II. mendean Alpeetarainoko erdiuharte osoa hartzen du geografiari dagokionean; politikari dagokionean, erdiuharte barruko Erromaren era-

ginpeko lurrak izendatzen ditu, unean unekoak. V, 2 eta 4; XXVII, 3 eta 4; XXVIII, 2 eta 6; XXXV, 9; CXIV, 2.

Italici: Afrikara, Ekialdera, etab. doazenean erromatarrek eta italikoek bertakoetatik bereiztearren hartzen duten izena da. XXVI, 1; LXVII, 3.

Italici socii: Erromatarrek garaitu zituztenean aliatu bezala hauen menpe geratu ziren herriak. K.a. 90. urtean lortu zuten hiritartasun eskubidea eta honekin hauteskundeetan zuzenean parte hartzeko eskubidea (*ius suffragii*). Bereizi egiten ditu Salustiok italikoak eta latinoak. XL, 2.

Italicum genus: Italikoen leinua. XLVII, 1.

Iugurtha: Numidiako erregea, Masinisaren iloba eta Mastanabalen sasi-ko semea. Bere osaba Mizipsak semetzat hartu zuen eta bere seme Aderbal eta Hienpsalekin batera oinordeko izendatu. Jugurtak hauek hil eta luzaroan egin zuen erromatarrekin borrokan, askotan sobornatzeaz baliaturik. Azkenean Metelok lehenbizi eta Mariok gero gaudituz zuten. Boko erregeak utzi zuen Silaren esku, eta honek Marioren esku. V, 1 eta 7; VI, 2 eta 3; VII, 1, 4 eta 6; VIII, 1 eta 2; IX, 2, 3 eta 4; X, 1 eta 7; XI, 1, 3 bis, 5 eta 7; XII, 3, 4 eta 6; XIII, 1, 5 eta 7; XIV, 2, 4, 11, 14, 15 eta 20; XV, 1 bis eta 2; XVI, 2, 3 eta 5; XIX, 7; XX, 1, 5 eta 6; XXI, 1 eta 3; XXII, 2; XXIII, 1; XXIV, 2, 4 eta 10; XXV, 1 eta 5; XXVI, 1 eta 2; XXVII, 2; XXVIII, 1 eta 2; XXIX, 1, 3 eta 4; XXXI, 18 eta 19; XXXII, 1, 3 eta 5; XXXIII, 1 eta 4; XXXIV, 1 eta 2; XXXV, 1, 2, 4 eta 8; XXXVI, 2; XXXVIII, 1; XLVI, 1 eta 4; XLVII, 3; XLVIII, 1; XLIX, 1; L, 3 eta 5; LI, 5; LII, 2 eta 6; LIV, 2; LV, 1, 4 eta 8; LVI, 1; LVIII, 1 eta 6; LIX, 1; LX, 4; LXI, 4 bis; LXII, 1, 3, 5 eta 8; LXV, 3; LXVI, 1 eta 2; LXIX, 1; LXX, 1, 2 eta 5; LXXI, 5; LXXIII, 7; LXXIV, 2; LXXV, 1 eta 9; LXXX, 1 eta 6; LXXXI, 1 eta 3; LXXXII, 1; LXXXIII, 1 eta 2; LXXXV, 4 eta 5; LXXXVII, 4; LXXXVIII, 3 eta 4; LXXXIX, 3 eta 4; XCII, 5; XCIV, 4; XCVII, 1 eta 3; CI, 3, 6 eta 9; CII, 5, 13 eta 15; CIII, 1 eta 2; CIV, 4; CVI, 2; CVII, 3 eta 6; CVIII, 1, 2 eta 3; CX, 6 eta 8; CXI, 1 eta 2; CXII, 1 eta 2 bis; CXIII, 2 eta 5; CXIV, 3.

Iugurthinum bellum: Erromatarrek Jugurtaren aurka egin zuten gerra. XIX, 7; LXXVII, 2; C, 5.

Iugurthini milites: Jugurtaren soldaduak. XXI, 2; LVI, 6.

Iunius Silanus, M.: Metelorekin batera izan zen kontsul K.a. 109. urtean. Bere familiako lehenengo kontsula izan zen. XLIII, 1.

- Iuppiter Maximus*: Jainko erromatarrik handiena, zeruaren, jainkoen eta gizonen jainko zena. Politikari dagokionean berak zaintzen du Erromako estatua. CVII, 2.
- Lares*: Sicca eta Zama bitarteko Numidiako hiria. Gaur aztarnak baino ez dira geratzen, Kef-etik (orduko Sicca) hegoaldera, 18 kilometrotara. XC, 2.
- Latinum nomen*: Latinoen herria izendatzeko erabiltzen da. Tiber ibaia-
ren itsasoko aldean eta Albaniar mendietan bizi ziren. K.a. 338.
urtean menperatu zituen Erromak. Gainerako aliatuak baino
gehiago ziren hauek Erromarentzat, baina ez zuten hiritartasun
eskubidea lortu Grako anaien berrikuntzetararte, eta orduan ere ez
zen benetan gauzatu. XXXIX, 2; XL, 2; XLII, 1; XLIII, 4.
- Latium*: Italiako Etruria eta Campania bitarteko itsasaldeko lurraldea;
hemen zegoen Erroma ere. Betiko latinoen lurra *Latium vetus* delakoa
zen; gainerakoa *Latium adiectum*. LXIX, 4; LXXXIV, 2; XCV, 1.
- Leptis* (edo *Lepcis*): Afrikako iparraldeko jatorri feniziarreko bi hiri:
Leptis Magna, bi Sirteen artean, gaurko Lebda, eta *Leptis Minor*,
Hadrumeto eta Thapsus bitartean, gaurko Lempta. XIX, 1 eta 3;
LXXVII, 1.
- Leptitani* (edo *Lepcitanī*): Leptiseko biztanleak. LXXVII, 2; LXXIX, 1.
- Libyes*: Libiarrak. Getularren hegoaldera bizi ziren. XVIII, 1, 9, 10 eta
12. cf. *Hercules*.
- Licinius Lucullus, P.*: Plebearen tribuno izan zen K.a. 110. urtean.
XXXVII, 2.
- Ligures*: Italiako iparmendebaldeko itsasertzean bizi ziren, Rodanotik
Etruriarainoko bitartean. Borrokalari sutuak ziren. Oinezko la-
guntza taldeetan izaten ziren erromatarrekin. XXXVIII, 6;
LXXVII, 4; C, 2.
- Ligus*: Mariori oso lagungarri gertatu zitzaion soldadu liguriar bat
aipatzen du Salustiok honela. XCIII, 2, 4, 7 eta 8; XCIV, 2 eta 3.
- Limetanus*: Ikus *Mamilius*.
- Longinus*: Ikus *Cassius*.
- Lucullus*: Ikus *Licinius*.
- Macedonia*: Greziako iparraldeko erresuma zaharra, K.a. VI. mendetik
aberats zena. K.a. 148. urtean probintzia erromatar egin zuten.
XXXV, 3.
- Mamilia rogatio, lex*: Jugurtari lagundu ziotenen aurkako epaiketa gau-
za zedin Mamilio tribunoak egindako proposamena eta legea. No-
bleak beldurtu eta nobleberriak gogoberotu egin zituen lege
honen onarpenak. XL, 4; LXV, 5.

- Mamilius Limetanus, C.*: K.a. 109. urteko plebearen tribunoa, *Lex Mamilia* delakoa proposatu zuena. XL, 1.
- Mancinus*: Ikus *Manlius Mancinus*.
- Manlius, A.*: Jugurtaren gudalburuordea Numidiako gerran. LXXXVI, 1; XC, 2; C, 2; CII, 2, 4 eta 15.
- Manlius Mancinus, M.*: 108-107 urteetako plebearen tribunoa, *Lex Manlia de Bello Iugurthino* delakoaren bitartez herriak Mario gudalburu izendatzea posible egin zuena. LXXIII, 7.
- Manlius Maximus, Cn.*: K.a. 105. urtean kontsul izan zen. CXIV, 1.
- Marius, C.*: K.a. 156. urtean jaio zen Arpinon. Plebeioa zen jaiotzaz. Adorez egin zuen borrokan Hispanian. Meteloren gudalburuorde izan zen lehenbizi Numidian, 107. urtean kontsul egin eta haren ordeztu agintea berak hartu arte. 105. urtean amaitu zuen garaile bezala, bere kuestore zen Silaren laguntzarekin, hamabi urte iraun zuen Jugurtaren aurkako gerra. 104-100 urteetan ere kontsul izan zen. Silaren etsai egin zen gero, ihes egin beharra izateraino. 86. urterako berriro egin zuten kontsul, baina handik hamairu egunetara hil egin zen. XLVI, 7; L, 2; LV, 5 eta 8; LVI, 3 eta 5; LVII, 1; LVIII, 5; LX, 5; LXIII, 1; LXIV, 1, 3 eta 4; LXV, 3, 4 eta 5; LXXIII, 2, 3, 5, 6 eta 7; LXXXII, 2, 3 bis; LXIV, 1, 3 bis eta 4; LXXXVI, 1, 4 eta 5; LXXXVII, 4; LXXXVIII, 2; LXXXIX, 6; XCII, 1 eta 6; XCIII, 1, 6 eta 7; XCIV, 3, 4 eta 7; XCVI, 1 eta 4; XCVII, 3; XCVIII, 1 eta 3; XCIX, 1; C, 1 eta 5; CI, 6 bis eta 10; CII, 2, 13 eta 14; CIII, 1, 3 eta 7; CIV, 1; CV, 1; CXII, 2; CXIII, 7; XCIV, 3.
- Masinissa*: Ekialdeko numidiarren erregea, *massylii* zirelakoena hain zuzen ere, *massaesylii* izenarekin ezagutzen ziren mendebaldeko numidiarren errege zen Sifaxen etsaia. Erromatarren adiskide egin zen etsaigo hura zela eta, Eszipion Afrikarra Nagusiaren garaian. Numidia osoaren errege egin zen 201. urtean. V, 4, 5 eta 7; IX, 2; XIV, 2, 6 eta 18; XXIV, 10; XXXV, 1 eta 2; LXV, 1 eta 3; CVIII, 1.
- Massiva*: Buruzagi numidiarra, Masinisaren iloba eta Gulusaren semea. Erromara ihes egin zuen Hienpsal eta Aderbal hil zituztenean, baina han ere hil zuen Jugurtak. XXXV, 1, 4 bis eta 6; LXI, 4.
- Massugrada*: Masinisaren oinordekoa, agian semea; Dabarren aita. CVIII, 1.
- Mastanabal*: Masinisaren semea, Jugurta eta Gaudaren aita. V, 6 eta 7; LXV, 1.
- Mauretania*: Afrikako iparmendebaldeko erresuma, gaurko Maroko.

- Muluia ibaia zuen Numidiarekiko muga. Boko zen Jugurtaren garaian hango errege. Jugurta hil zutenean Ampsaga-rainoko lurrrak eman zizkioten Boko erregeari. Gero, K.o. 40. urtean bi probintzia erromatar osatu zituzten. XVI, 5; XIX, 4; LXII, 7.
- Mauri*: Mauritaniako biztanleak, mairuak. XVIII, 10; XIX, 4 eta 7; LXXX, 6; LXXXII, 1; XCVII, 4; XCIX, 2; CI, 4 eta 8; CIV, 3; CVI, 5; CVII, 5.
- Maurus*: Boko erregeari nahiz bere semeari deitzen die askotan Salustioiok izen honekin. Berez 'mairu' esan nahi du. XCVII, 2; CVI, 2; CVII, 1; CVIII, 1; CXIII, 1 eta 3.
- Maxumus*: Ikus *Fabius* eta *Iuppiter*.
- Medi*: Tigris ibaiaren ekialdeko Asiako herria. XVIII, 4, 9 eta 10.
- Memmius, C.*: Plebearen tribuno izan zen K.a. 110. urtean. Numidiako gerrako saldukeriak salatu zituen eta Jugurta Erromara joatea lortu, oker jokatu zutenak sala zitzaizkien. XXVII, 2; XXX, 3 eta 4; XXXII, 1 eta 5; XXXIII, 3; XXXIV, 1.
- Metellus*: Ikus *Caecilius*.
- Micipsa*: Numidiako erregea, Masinisaren semea. Bere semeei, Hienpsal eta Aderbali alegia, eta bere sasi lobari, Jugurtari hain zuzen ere, utzi zien erresuma, euren artean ondo hartzeko eskatuaz. V, 6; VI, 2; VII, 2; VIII, 1; IX, 1; XI, 2 eta 5; XIII, 1; XIV, 1 eta 9; XVI, 2; XXII, 2; XXIV, 3; LXV, 1; CX, 8.
- Minucius Rufus, Q.*: K.a. 110. urteko kontsula Espurio Postumio Albinoarekin batera. XXXV, 2 eta 3.
- Muluccha*: Masinisa eta Jugurtaren garaian Numidia eta Mauritaniaren arteko muga osatzen zuen ibaia. Gaurko Muluia da, Atlas mendietan jaio eta Mediterranearen Itsasoan hiltzen da, Algeria eta Marokoko lurrrak busti ondoren. XIX, 7; XCII, 5; CX, 8.
- Muthul*: Numidiako ibai bat, agian gaurko Mellegue, edo agian eguneko Tessa. Bagra da ibaira (gaurko Mejerda) isurtzen zituen bere urak. XLVIII, 3.
- Nabdalsa*: Jugurtaren gudalburuorde eta adiskide kutuna. Bomilkarrekin batera prestatu zuen haren aurkako zimarkua. LXX, 2 eta 4; LXXI, 1 eta 5.
- Nasica*: Ikus *Cornelius*.
- Nomades*: 'Artzain ibilkariak' esan nahi du grekoz. Hortik bide dator gero erromatarrek *Numidae* deituko dituzten Ipar Afrikako biztanleen izena. XVIII, 7.
- Numantia*: Hispaniako Duero Garaiko zeltiberiarren hiria. Denbora luzean egin zieten aurre setiatuak zituzten erromatarrei, K.a. 133.

- urtean Eszipion Emilianok hartu zuen arte. Setiatzaileekin ihardun zuen Jugurtak numidiarren buru bezala. VIII, 2; X, 2; XV, 1; XX, 1; CI, 6.
- Numantini*: Numantziako biztanleak. VII, 4.
- Numantinum bellum*: Numantziako zeltiberiarrek 143. urtetik 133. erarte erromatarren aurka izan zuten gerra. Azken hilabeteetako setio luzea da ospetsua. VII, 2; IX, 2.
- Numidae*: Numidiarrak. V, 1 eta 4; VI, 3; VII, 2; XI, 3; XII, 6; XIII, 1; XV, 1; XVIII, 8, 11 eta 12; XIX, 4 eta 7; XX, 5; XXI, 2; XXIV, 1 eta 7; XXV, 5; XXVI, 3; XXVIII, 3; XXXVIII, 4 eta 6; XLVI, 3; XLVII, 1; XLIX, 5; L, 1, 4 eta 6; LI, 3; LII, 4; LIII, 3 eta 6; LIV, 10; LVI, 5; LVII, 3; LVIII, 3; LIX, 3; LX, 5; LXI, 5; LXII, 1 eta 2; LXV, 2; LXVI, 2; LXVII, 3; LXVIII, 2; LXIX, 1; LXXXIV, 2 eta 3; LXXV, 4, 7 eta 8; LXXXVIII, 4; LXXX, 6; LXXXIX, 7; XC, 1; XCI, 4 eta 6; XCII, 2 eta 3; XCIII, 4; XCIV, 3 eta 4. Batzuetan numidiar jakin bati, askotan Jugurtari, deitzen zaio *Numida*. XII, 4; XXXV, 1 eta 4; LIV, 4; LXV, 1; LXXI, 3; CI, 6; CVI, 3; CVIII, 1 eta 3; CXI, 4; CXIII, 4 eta 6.
- Numidia*: Masinisaren azken urteetan *Africa vetus* probintzia erromatarra eta Mulua ibaiaren arteko lurrek Ipar Afrikan osatzen zuten erresuma. Jugurtaren heriotzearen ondoren hiru zati egin zuten eta probintzia erromatar (*Africa nova*) bihurtu zen K.a. 46. urtean. VIII, 1; XIII, 2 eta 5; XIV, 1 eta 25; XVI, 5; XVIII, 11; XIX, 5; XX, 7; XXIV, 10; XXVII, 3 eta 4; XXVIII, 7; XXIX, 7; XXXII, 2; XXXIII, 4; XXXV, 2, 3 eta 9; XXXVIII, 9; XXXIX, 4; XLIII, 1 eta 5 bis; XLVI, 5; XLVIII, 3; LIV, 6; LXI, 2; LXII, 10; LXV, 3; LXXVIII, 5; LXXXII, 2; LXXXIV, 1; LXXXV, 45; XCVII, 1 eta 2; CII, 13; CXI, 1; CXIV, 3.
- Numidica scuta*: Numidiarrek erabiltzen zituzten larruzko eskutuak. XCIV, 1.
- Oceanus*: Atlantiar Ozeanoa. XVII, 4; XVIII, 5.
- Octavius Ruso, Cn.*: Marioren kuestorea. CIV, 3.
- Opimius, L.*: K.a. 121. urteko kontsula. Gaio Grakoren iraultza itzali zuen. Numidiako erresuma Aderbal eta Jugurtaren artean zatitzeko osatu zen batzordearen buru izan zen; atzerriratu egin zuten Mamilioren legearen arabera, Jugurtak eskainiriko sobornatzea onartu zuelako. XVI, 2.
- Paeligna cohorts*: Peligniarrak osaturiko laguntza kohortea. Italiako Erdialdeko herri bat ziren peligniarrak eta soldadu trebe ospea zuten. CV, 2.

IZENDEGIA

- Persae*: Pertsiarrak. Pertsia Golkoko ekialdeko itsasbaterreko herri indieuparra. Numidiarren arbasotzat ditu Salustiok. XVIII, 4, 5 eta 11.
- Perses rex*: Mazedoniako errege egin zen K.a. 178. urtean. 168. urtean garaitu zuten erromatarrek Pidnan. LXXXI, 1.
- Philaeni*: Salustiok dakarren kontakizunaren arabera euren aberriarendako lur batzuk ziurtatzearren euren buruak bizirik lurperatzea onartu zuten bi anaia kartagoar. LXXIX, 5, 9 eta 10.
- Philaenon arae*: Fileno anaien omenez eraikitako aldea. Kartago eta Zireneren arteko muga zen. Sirte Nagusiko itsasertzean zegoen, eguneko Muktar-etik hurbil. Berau da Afrikako itsasertzean Ekialdea eta Mendebaldearen arteko muga zehazteko erabiltzen zen lekua ere. XIX, 3.
- Phoenices*: Feniziarrek, Mediterranearreko Ekialde baxterreko herri semita; trebeak izan ziren itsasoan eta merkataritzan, eta kolonia ugari sortu zuten Mediterranean Itsasoaren ertzetan, ospetsuena Kartago. XIX, 1.
- Poeni*: Kartagoarrak. Feniziarrek (*Phoenices*) sortu zuten hiri hau eta hortik datorkio izena. Ikus *Punicus* ere. LXXIX, 8.
- Postumius Albinus, A.*: Espurio Postumio Albinoren anaia; Jugurtaren aurkako gerra zuzendu zuen bere anaiaren ordezkari K.a. 110-109 urteko neguan. Gehiegi egin nahi izan zuen eta gaizki atera zitzaion. XXXVI, 4; XXXVII, 3; XXXVIII, 2, 4 eta 9; XXXIX, 1; XLIII, 1; XLIV, 4.
- Postumius Albinus, Sp.*: K.a. 110. urteko kontsula. Gogotsu hasi zuen bere agintaldia baina laster mantsotu zuten Jugurtaren luzamenduek eta bere anaiak jasandako jipoiak. Mamilioaren legearen arabera epaitu eta zigortu zuten. XXXV, 2 eta 6; XXXVI, 1, 3 eta 4; XXXIX, 2; XLIV, 1 eta 4; LV, 1; LXXVII, 3; LXXXV, 16.
- Punicus*: Kartagoarra. Ikus *Poeni* eta *Phoenices*. V, 4; XVII, 7; XIX, 3 eta 7; XLII, 1; CVIII, 3.
- Quirites*: Erromako hiritarrei ematen zaien izena. Deiki bezala eta izen gorapagarri legez erabiltzen da gehien bat. XXXI, 1, 5, 11 eta 27; LXXXV, 1, 3, 5, 8, 12, 13, 24, 39, 45 eta 50.
- Regium*: Italiako hegomendebaldeko hiria, gaurko Calabriako Reggio. XXVIII, 6.
- Roma*: Erroma. Tradizioaren arabera Romulok K.a. 754. urtean Palatino mendiskan sortu bide zuen hiria. Serbioren garairarte inguruko mendisketara hedatzen joan zen eta errepublika garaian ere zutik iraun zuen harresi batez inguratu zuen honek. VIII, 1; XIII, 3, 4, 6

- eta 7; XVI, 3; XX, 1; XXI, 3; XXII, 1 eta 4; XXIII, 2; XXV, 6; XXVII, 1; XXVIII, 1 eta 2; XXIX, 3 eta 7; XXX, 1 eta 4; XXXII, 1 eta 2; XXXIII, 1 eta 4; XXXV, 1, 7 eta 10; XXXVI, 4; XXXVII, 1; XXXIX, 1; XL, 1; XLI, 1; XLVI, 1; LV, 1; LXI, 4; LXII, 10; LXV, 4; LXXIII, 3; LXXVII, 2; LXXX, 4; LXXXII, 2; LXXXVIII, 1; XCV, 1; CII, 13; CIII, 3; CIV, 2, 3 eta 4; CXIV, 3.
- Romanus*: Erromatarra; askotan soldadu erromatarra; behin edo behin erromatar jakin bat, adibidez Sila (CVIII.3). VII, 4 eta 7; X, 2; XLIX, 2 eta 3; L, 4 eta 5; LII, 3; LIII, 1 eta 5; LIV, 6 eta 9; LVI, 4; LVII, 4; LXI, 5; LXVI, 1; LXX, 4; LXXIV, 1 eta 3; LXXVI, 5; LXXX, 3; LXXXI, 1 bis; LXXXVII, 4; XCIV, 4 bis, 5 eta 6; XCVII, 2, 3 eta 5; XCVIII, 7; CI, 5 eta 7; CIII, 4 eta 5; CVIII, 2 eta 3 bis; CXI, 1 eta 2; CXIV, 2.
- Romani equites*: Erromako zaldizko soldaduak nahiz zaldunak. Zaldunek senatuko nobleen eta plebearen arteko taldea osatzen zuten, dirudunen nobleteria alegia. XLII, 1; LXV, 2 bis eta 4.
- Romani imperatores*: Erromako ejerzituko gudaiburuak. Ia aginte osoa zuten. LVI, 1; CXII, 2.
- Romani milites*: Erromako ejerzituko soldaduak. XXXVIII, 5; LXVII, 1.
- Romanum nomen*: Erromak batez ere beste herri batzuentzat esan nahi duen gutzia. V, 4; LVIII, 3; LXXX, 1.
- Romanus populus*: Erromako herria, erakunde politiko bezala gehien bat. Ez dira nahastu behar *populus* eta *plebs* kontzeptuak. V, 1 eta 4; VII, 2; VIII, 2; IX, 2; XIII, 5; XIV, 1, 2, 3, 5, 7, 8, 18 eta 25; XIX, 7 bis; XX, 5; XXII, 4; XXIV, 3; XXVI, 1; XXVII, 2; XXXI, 20; XXXII, 5; XXXIII, 4 bis; XLVI, 2; LXIV, 2; LXV, 2; LXXXIII, 1; LXXXVIII, 5; CII, 2, 6, 8 eta 11; CVIII, 2; CX, 6.
- Romanus senatus populusque* edota *Romanus populus et senatus*: Erromako erakunde politiko osoa aipatzeko erabiltzen den formula. Lehenbizikoa da jatorrena eta bigarrena Salustiok batzuetan darabilena. XXI, 4; CIV, 5; CXI, 1.
- Rufus*: Ikus *Minucius*.
- Ruso*: Ikus *Octavius*.
- Rutilius Rufus, P.*: K.a. 105. urtean izendatu zuten kontsul Numidian Meteloren gudaiburuorde lanak ondo baino hobeto bete ondoren. Zintzo jokatu zuen Asian ere baina atzerriratu egin zuten halere epaiketa bidez bekaizkeriaren bekaizkeriaz. Lege gizon, hizlari eta historialaria izan zen. Bere bizitza idatzi zuen latinez eta Erromaren historia grekoz. Ziurrenik Salustiok ezagutu eta erabili zituen bere lanak. L, 1; LII, 5 eta 6 bis; LXXXVI, 5.

Scaurus: Ikus *Aemilius*.

Scipio: Ikus *Cornelius*. Ospetsua izan zen Eszipiondarren familia.

Sempronia lex: Senpronioren legea, Gaio Grakok 123. urtean atera zuen lege bat. Lege honen arabera kontsulak izendatu baino lehen zehaztu behar zituen senatuak kontsul bakoitzaren esku geratuko ziren probintziak. XXVII, 3.

Sempronius Gracchus, C.: Tiberioren anaia gaztea. K.a. 123 eta 122. urteetan izan zen tribuno. Lurrari buruzko legea berriztu eta sa-kontzeko eta Erromako hiritartasuna aliatuei ere emateko saioak egin zituen. Aurrez aurreko borroka izan zuen senatuarekin eta Abentinora alde egin zuen bere aldekoekin. Beste hiru mila lagunekin hil bide zen. XVI, 2; XXXI, 7; XLII, 1 bis.

Sempronius Gracchus, Ti.: 133. urtean izan zen plebearen tribuno. Lurrari buruzko legea ateratzea lortu zuen, lur jabegoari mugak ezarri. Aurre egin zion aristokraziak eta begi onez ikusi zuen senatuak bera eta bere lagunak Kapitolioan hiltzea. XXXI, 7; XLII, 1 bis.

Servilius Caepio, Q.: K.a. 106. urtean kontsul izan zen. CXIV, 1.

Sextius: Kalpurnioren kuestorea. XXIX, 4.

Sicca: Numidiako barnekaldeko hiria, feniziarren kolonia izandakoa, gero erromatarren kolonia bilakatu zena. Mendiska baten gailurrean zegoen Bagrada ibaiaren ertzean. Gaurko El Kef da. LVI, 3.

Siccenses: Siccako biztanleak. LVI, 4 eta 5.

Sicilia: Lehen gerra punikoan kanporatu zituzten erromatarrek kartagoarrak uharte honetatik. Probintzia erromatar bilakatu zen K.a. 210. urtean. XXVIII, 6 bis.

Sidonicus: K.a. XVI. mendetik XIII.era garrantzitsu izan zen Sidon hiri feniziarreko biztanlea. LXXVIII, 4.

Sidonii: Sidondarrak. Ikus *Sidonicus*. LXXVIII, 1.

Silanus: Ikus *Iunius* eta *Turpilius*.

Sisenna: Ikus *Cornelius*.

Sulla: Ikus *Cornelius*.

Suthul: Numidiako hiri ezezaguna. Jugurtak han zituela bere altxorrek dakigu. Calamatik (gaurko Guelma) hurbil zegoen ziurrenik. XXXVII, 3; XXXVIII, 2.

Syphax: Mendebaldeko numidiarren erregea, *massaesylis* zirelakoena alegia. Aldizka kartagoarren eta erromatarren lagun eta etsai izan zen. Azkenean Masinisak eta erromatarrek garaitu eta atxilotu zuten. V, 4; XIV, 8.

Syrtes: Ipar Afrikako bi itsasgolkoren izena: *Syrtris Maior* gaurko Sidra-

- ko Golkoa eta *Syrtis Minor* gaurko Gabeseko Golkoa dira. XIX, 3; LXXXVIII, 1 eta 3.
- Tanais*: Numidiako ibaia. Ziurrenik gaurko El Derb da, Gafsatik (orduko Capsatik) ehunen bat kilometrotara dagoena. XC, 3.
- Thala*: Numidiako hiria, gaur ere izen bera duena. Tunisian dago gaurko Thala, Algeriarekiko mugaldean. LXXV, 1, 2, 6 eta 9; LXXVII, 1; LXXX, 1; LXXXIX, 6 bis.
- Theraei*: Therako biztanleak. Jatorri doriarreko hiria zen Thera, gaurko Santorini, Zireneren metropoli izan zena. XIX, 3.
- Thirmida*: Numidiako hiri ezezaguna. Hiri honetan hil bide zuten Hienpsal. XII, 3.
- Thraces*: Traziarrak, Greziako iparraldeko Traziakoak. Soldadu trebe eta adoretuak omen ziren. XXXVIII, 6.
- Tisidium*: Numidiako hiria, ziurrenik gaurko Krich El Oued (Tunisia), gaurko Mejez-el-Bab-etik iparrekialderantz zazpiren bat kilometrotara eta honenbestez orduko Vagatik hirurogeiren bat kilometrotara zegoena. LXII, 8.
- Turpilius Silanus, T.*: Lazioko hiritarra, Meteloren ejerzituko laguntza talde bateko prefektoa. Berak bakarrik egin zion ihes Vagako sarraskiari eta heriotza zigorra ezarri zion Metelok nola lortu zuen hori argiegi ez azaltzeagatik. LXVI, 3 bis; LXVII, 3; LXIX, 4.
- Utica*: Feniziarrek Afrikan zuten koloniarik zaharrena. Kartagotik hurbil zegoen, iparmendebalderantz. Kartagoren lagun izan ziren hirugarren gerra punikorarte; erromatarrekin egin ziren lagun orduan eta Afrikako Probintziako hiriburu bihurtu zen. XXV, 5; LXIII, 1; LXIV, 5; LXXXVI, 4; CIV, 1.
- Vaga*: Numidiako hiria, gaurko Beja, Tunisian. Bagrada ibaia (gaurko Mejerda) zeharkatzen duen bailara baten zegoen, berez ondo babesturik. Merkatal hiria zen. XXIX, 4; XLVII, 1; LXVIII, 1 eta 3.
- Vagenser*: Vagako biztanleak. LXVI, 2; LXIX, 1 eta 3.
- Volux*: Mauritaniako errege zen Bokoren semea. Bere aitaren laguntzan ihardun zuen Marioren aurka eta Silarekin tratubidean. CI, 5; CV, 3; CVI, 1 eta 6; CVII, 2.
- Zama*: Bi Zama zeudela dirudi baina Zama Regia da Salustiok aipatzen duena. Numidiako erregeak bizi ziren hiria zen, Kartagotik ehunen bat kilometrotara hegoalderantz, gaurko Seba-Biar, Tunisiako erdialdean. Hiri honetan garaitu zuen Eszipionek Hanibal K.a. 202. urtean. LVI, 1; LVII, 1; LXVIII, 1; LX, 1; LXI, 1.

Liburu honen inprimaketari
amaiera eman zitzaion
Usurbilgo Bizker inprimategian
MCMXCV-eko abenduan.

LAVS DEO

Bibliotheca scriptorum classicorum
Vasconica:
2111 postakutxa
01080 Vitoria-Gasteiz

- I. *C. Sallusti Crispi bellum Iugurthinum*, Gidor Bilbao Telletxearen edizioa. 1995.
- II. *C. Iuli Caesaris commentarii de bello Gallico*, Guadalupe Lopetegi Senpenaren edizioa. Prestatzen.
- III. *P. Vergili Maronis bucolica et georgica*, Iñigo Ruiz Arzalluzen edizioa. Prestatzen.
- IV. *Corneli Nepotis de viris illustribus*, Luzi Etxabe Solozabalen edizioa. Prestatzen.

Azaleko eta bizkarreko irudia: Eneasen itsasontziak, codex Vaticanus Latinus 3225 (Vergilius Vaticanus), Biblioteca Apostolica Vaticana, fol. 43v (IV. mende bukaera edo V. mende hasierakoa).

K. a. 86. urtean jaio zen Gaio Salustio Krispo. Gazte-gaztetarik aritu zen politikagintzan, baina zorigaitz ugari etorri zitzaion irabazi ez beti garbiekin batera. Zesar, azken urteetako Salustioaren sostengatzailea hil zutenean, politikagintzatik urrunduz, Erromako herriaren historiako zenbait pasarte idazteko baliatzea astialdiaz erabaki zuen. Bere monografiekin historia liburu mota berri bat idaztera deliberatu zuen. *Katilinaren zimarkua* izan zen lehena, soilik hogeitau urte lehenago gertatutakoak kontatuz. Erromako herriaren egitandi gogoangarrien artean *Jugurtaren aurkako gerra* aukeratu zuen bigarren, nobleteriaren aurkako borrokaren hasiera han kokatu behar zelakoan berak Katilinaren zimarkuaren aitzindari gisa aurkezten duena. K. a. II. mendeko Afrikako iparraldeko mundua eta Erromakoa, biak azaltzen dira lanean: deskripzio geografikoak, kontakizun etnografikoak, Afrikako eta Erromako pertsonaien deskripzioak, afrikarren arteko barne-gatazkak, harreman diplomatikoak euren artean nahiz erromatarrekin, Numidiako borrokaldiak, Erromako senatuaren eztabaidak... Bi hauek dira osorik ezagutzen ditugun Salustioaren lanak. Gero, Sila hil zen urteko (78 K. a.) gertaizunekin hasten zen *Historiae* liburua, bere lanik borobilena, idazten ari zela harrapatu zuen heriotzak K. a. 35ean.

